



KARDABERAZ BILDUMA - 3

SUGGORRI
KORAPILLOA

OARRA:

Gure asrnoak aurrera dijoaz, teknika gaietan. NEURRIZ-TIA'kin leen eta orain SUGE GORRI eta EZPALAK'kin. Auek biak iilunpeetan galduta zeuden lanak dira eta guk ekarri dizkitugu argitara.

Badakigu idaz-lanik asko illunpeetan usteltzen daudela, aspaldiko urteetan egiñak; orduan argitaratzeko girorik ez eta gaur aukerarik ez. Eta orrelakoeri eskua luzatzea ere gure Bazkunaren elburuetako bat da.

Euskal-idazle, gure laguntzaren bearririk badezu, aitzera eman.

KARDABERAZ

KARDABERAZ BILDUMA - 3



SUGEGORRI KORAPILLOA

(«*NOEUD DE VIPÉRES*»)

FRANCOIS MAURIAC

Euskaratzailea; ESTANISLAO URRUZOLA («Uxola»)

Edita: Editorial ESET- Seminario Vitoria
ISBN 84 - 7167- 015 -1

Imprime: Gráficas ESET - Seminario Vitoria
Depósito Legal VI 252 - 1973

*Francois Mauriac idazle ospatsuari, omenaldi
bat egitearren euskeratu dut bere eleberri au, eus-
kaldunak zaitu eta gure izen onaren alde biotzez
eta lumaz irten zalako.*

ITZULTZAILLEAK

Í T Z A U R R E A

Apaltasuna ez dala nobelagilleen birtuterik nagusiena, esaten digu Francisko Mauriac idazleak bere "Le Romancier et ses personnages" saiakeran.

Gizaki-sortzaille izan nai lutekeala dio berak, ea Jainkoa aña-koak, baiñan benetan ez omen dira tximuak besterik.

*Alare, nobelagillea nola lan egiten duten adiaraztea leiatzen zai-
gu, gaiak andik eta emendik arturik. Eta jakiña, ez da errez asma-
tzen zer dan bere barrutik ateratzen duana eta zer kanpotik dator-
kiona.*

*Irakurleok batzuetan asarretzen omen dira nobelan beren izate,
etxe eta ingurumaien itxura agertzen ote dituzten edo... "foto" an-
tzera.*

*Mauriac nobelagilleak bizhz-abea gizon-emakumeezkoekin azal-
tzen joan oi dala esan diteke; eta egiantzean, gañera beren utsegite
ta akatzekin.*

*Onela "Noeud de Vipéres" SUGE-GORRI- KORAPILLO" familia ba-
teko dramakizuna da, Akitania'ko lurralde zabalekoa... eta ango se-
nitartekoak ez ditu Mauriac'ek belztu nai izan diran bezelakoak ager-
tu nai izan diran bezelakoak agertu ez ezik; naiz sarritan izugarri
agertuagatik.*

*SUGE-GORRI'areji. ipuia testamentu baten ondorengoa da; diru-za-
lekeriaren gertakaria, ondasunez jabetzeak dakarren gosea. Diru-go-*

sea beti moral eta zillegoaren arazoa omen. Jabetasunareii griña gizonaren gogoia beñere asetzen ez duana bait dugu.

Alakoxea gertatzen da SuGE-GQRRl,rc agertzen zaigun agurea. Azken aldera zerbait aldatu dala ba-dirudi ere beste zerbait bereganatu nai dualaho da. Senar-emazte arteho asarre ta senitarteko gorrotoak dirua dute bitarteko, baiñan beste zerbait lortzeko asmoz.

Aspaldidanih zetorhien erra, ezkon-berri ziranehoa. Gizasemea jatorri apalekoa izaki, ogei urte zituala bakarrik amak utzitako ondo-reaz aberastutakoa. Orregatik, asieran gure gazteari Bordele'ko aundihiiek atealt itxitzen dizkiote. Baiñan azkenean, diruaren almenez, andereño aundiki batekin ezkontzera irixten da.

Ezhontza ontan ez da, ordea, benetako maitasunik, eta ezin zorionak asko irau. Emaztea duana diruarengatik baharrih ezkondu bait zan. Senarrak ikusten du garbi etxe artan ez diotela arrera onik egiten; andreak ere, goitik bera destañez begiratzen diola. Egoera au ez da dibortzioaraño, ezkontza austeraño eltzen eta seme-alabak sortu ala ama bere aurretan babesten da. Eta ez soillik babestu, ez ezen aurrok aitarenganaho gorrotoan ezitzen ditu. Diru-trukeko ezkontzak alakoxeak oi dira sarritan, eta onek sortzen du senarrarengan diru orren indarra geitzeko griña.

Erlijio gutxiko gizona izan zan beti ta familia artako kristautasun epel eta izuna ikusiaz, bera ere, lengoaz gain bizitza lasaia eraniaten asten da.

Koñata batekin maitekerietan diardu; eta beste edozein emakumezhoanganako irrikia asetzeko gertu dago. Gertakariok naspillatzen dijoaz maitekeriaz ez ezik senarraren ondasun eta diruaren kariaz. Gure gizona zaartuta gero zeken eta zikoitz biurtzen bait da.

Alaz eta guztiaz emaztea ildakoan erabat biguntzen asten da eta uste gabeen seme-alabai esku-zabal ematen.

Iraulpen au agian arrigarria zaie irakurleoi baiñan Mauriac'ek dionez: "Ez bait dakigu zer nai dugun"; "eta ezta ere, ez bait dugu uste genuena maitatzen". Agureak azkenerako bere burua ezagutu du. SUGE-GORIU kabian ezin bizia sortu zitziola. Seme-alabeen gorrotoa,

*diru-zalekeria, ayerkunde ta gañerako griñek SuGE-GORRI'en nagu-
sitasuna zirala ,ez norbararena*

*Gure gizonak peitu zuana maitasuna zan: ots! kristau karida-
dea. Ondorengo au SUGE-GORRI irakurgaietik ateratzen da. Sortu zuan
familiaren inguruan zenbiltzan kristau izeneko gizaki kaskarrak erli-
gioarenganako erra piztu zioten, aien kristautasuna ez bait zan azale-
koa baizik.*

*SUGE-GORRI korapilloan loturik daude gogozko ta aberekiko gora-
berak, illunpe eta argitasuna. Eta idazle tankera giartsu eta sendoan
gizonaren barrubea sakon eta sarkor aztertzen digu.*

*Francois Mauriac Frantzia'n gizaldi ontako idazlerik ospatsuene-
tako bat izan dala guziok dakiguna da. Bai Nobela, eleder, Poesi,
Saiakera, Teatro'rako liburu asko egiñak ditu : eta aldizkari papere-
tan aren izena oso ezagun eta gorapaitua zan. 1952 garren urtean
Literaturako NOBEL SARRIA irabazi zuan. Au aski ez dala euskaldunok
beste zio berezi bat Mauriac goresteko. Alegia, katoliko bezela 1936
garrengo gerratean Euskal-Erria'ren alde arpegi eman zuala ta gure
auzian beti laguntzaille iza/i genuela aldizkari ta agirietan.*

*Beraz, esker onez bederen, aren Noeud de Vipéres euskeratzea
asmo ezin eta obea izan da. Euskerapena nola egiñik dagon irakur-
leak antzemango dio eta ez noakizute ezer aundirik esatea. Au bes-
terik ez: Gai sakona duan literatura zatia izanik eta idazle iaual
batena, itzultzaillea ere alik eta izkuntza aberats eta argi-garbiena
erabiltzen leaitu dala, irakur erreza izan dedin aztu gabe. Gipuzkoa'ko
euskera osotuan edo... zenbait itz eta esaera beste izkelgietatik artu-
rik ditu.*

*Onela Euskal-Erri osoaren kutsua izan dezan eta Mauriac'ek eus-
kaldun gizonen omena jasoaz.*

ANTONIO M. LABAYEN

LENENGO
ZATÍ A

"...JAUNA, pentsa gu-geok ez gerala ulertzen ta zer nai dugun ez dakigula, eta gura dugunetik urrutienetara aienatzen gerala".

SANTA TERESA DE JESUS'EK.

Nai nuke bada, nere txatxarkeria eta guzti, neretarren etsai izan nintzan onetzaz ezazula kupira izan, berekoikeriak eta gorrotoak kixkalitako biotz onetzaz. Bere bizitz garratz luzean, grin itunak galerazi bai-zioten ikus zezan ber-bertan zuan argia, auetako tximist batek bein edo bein erre nai izan ba-zuan ere; bere griñak... Baiñan kristau kalaxkaz lenengoz ezazu erruki, zeletatua izanik berak naigabetu bai-zituan. Gure arteko zenbaitek zapuzten bai-dituzte pekatariak orrela egiarangandik aldendu araziaz, euren bidetik barna ezer argitzen ez zutelakotz!

Ez, ez zan diruaren irrikaz zurkoitz au, ez zan ez kittatu-gosez bizi izan gizon au. Bere maitasunaren zio egitazkoaz jakingo duzute, bere azken aitorketa eten zuan Eriotz uneraiño jarraitzeko indar eta ausardi baldin ba-duzute...

I

Arrituko zaitu bai idazki au nere kutxaren gaiñean arkitzea, "akzio" bilkura batean gaiñera. Agian, obe izango zan notario baten zaindupean lagatzea, berak eskuratuko bai-zizun ni il da geroz; egin nezakean ere nere idazmaiaren kajoi batean gorde, au indarrez beartuko bai-dute nere semeok lenengoz illik oztutzen aasiko naizen bezin laister. Baiñan gertatzen dana da, urteen barruan espirituz berritu egin dutala idazki au, eta nere lo-zakarraldi ametsetan irudiz or

ikusten nuala bereziki kutxa buruaren aratza gaiñean, kutxa utz orretan ez bai-zegoan gizaldi erdi batean eratu dutan kitatzeki, bengantzeko gogo au baizik. Baretu zaite; bestaldetik, baretu zera: "Akzioak or daude". Iduritzen bai-zait esakera au aditzen dutala, or eskaratzean, Diru-Etxetik itzul natorrenean. Bai. Zure semei otsegingo diezu arpegi-estalki beltz orren barnetik: "Akzioak or daude".

Oso gutxi faltatu da berak "or" ez egoteko, nere neurriak ongi artuta neuzkan-ta. Nik nai izan ba-nuan ezertxo ere gabe arkituko ziñaten gaur, etxea eta lurak izan ezik. Gorrotoaren gaidik bizitu naizela izaki zuen zoria. Aldi luzean sinisturik bizitu izandu naiz, gorrotoa zala gauzarik bizierna nigan. Baiñan gaur beñepein ez dut nabaitzen. Ez bai-du antzik ere orain biurtu naizen xaar onek arestian gaixo-amorratu arekin, bere bengantza nolaz egin gau osoetan lo egiteke igarotzen zituala-beranduxeago lertu bear zuan "bonba" ain xekiz neronek antolatua arroxko sentitze (nabaitze) arteraiño-berarekin goza-bidea aztarrikatuaz beti. Urte askoetan bizi naiko nuan zuen buruak ikusteko Diru-Etxetik nentorrenean. Ez bai-nizun azkarregi eman nai kutxa ori irikitzeke egokiera, baizik naikoa luzetu azken-alaitasunaz atsegiñetan sunsitzeko, etsipenezko zuen galderaz : "Akzioak nun daude". Eta orduan iduritzen zitaidan, agoni garratzenak ere ezin zezakidala debeka gozamen ori. Bai, orrelako gauzak asma al izateko gizona izan naiz. Nolaz baiñan iritxi nintekean orretara mamu bat izan ez naizenenan?

Laurak dira, eta bazkaritarako azpil-zabala eta plater zikiñak mai gaiñean, eulien erakargarri. Alperrik deitu dut; txintxarritxoak landan otsik ez. Gibela txartu gaberik itxoiten dut aurtxo nintzanean lo egiten nuan gela onetan; eta Eriotzak artuko naunean, ain ziur. Au gertatuko dan egunez, gure alaba Jenobeba, reu lenen pentsamentua semeentzat eskatzea izango da. Nik erabiltzen dut, bakar-bakarrik, gelarik aundiena, ongien doaitua. Egin zaidazute justizi aitorturik toki au eskeiñi diotala Jenobeba, ri berarentzat, eta itza beteko nuala, gaiñera, Lacaze sendagillari jaramonik egin gabe, ez bai-du iñolaz ere nai nere marranta-gaitzarentzat beeko-bizitzaren giro-ezea. Orrela ameto egingo bai-nuan baiñan gorroto batez bai alakoa, obetok gertatu ba-da ere galerazteaz. Era guztietako nekaldiak nere gain arturik igaro dut ene bizitz luzea, bere oroitzak pozoitzen nindutela,

eta elikatzen eta aunditzen zijoakidala denborak indartu duan ezin-
-ikusi au edo.

Senditik datorkigu ika-mikarako gogo. Nere aita —sarri entzun izandu nion nere amari— asarre bizitzen zan bere gurasoekin. Eta auek, bidebatez, berriro euren alaba ikusi gabetanik il ziran, etxetik bidalia ogeitamar urte osatu baiño leen. Guk ezagutzen ez genituan marselatar lengusu aien alde kokatu bai-zan. Iñoiz ez dugu jakin izandu liskar onetarako arrazoiak, baiñan gure-gurea egiten genuan gure gurasoen gorrotoa. Eta gaur ere, arkitu ezkerotz, bizkar-malo eta zaputz egingo nioke Marsella, ko lengusu txiki auetako bati. Ezin dítezke gurasoak banandurik ikusi, ez eta semeak eta emazteak. Benetan, sendi alkartuak ez dirala falta; baiñan pentsatzen duzunean ainbat eta ainbat ba-daudela asarreturik gizaki bi, mai baten inguruan atsegin gaberik, soin-garbitoki baten inguruan, ta maindire baten azpian, arritzekoa da ain eskontz-auste edo "diborzio" gutxi izatea. Alkarganako nardaz bizi eta etxe barruetatik ezin iges egiñik...

Zer esan nai ote du, gaur, ene urtebetetze egunez sartu zaidan idazteko irrika onek? Irurogei urte osatzen ditut eta bakarrik nago jakiteko. Jenobeba, Huberto eta beren semeak beti izan dute euren urtebetetzean gozopilla, argizaitxoia eta loreak... Ezer zure jaiarako ez ba-damaitzut, urteen buruan, ez da aaztutzat jo dutalako, bengantzaz baiño. Aski da... Gaur bezelako egun batez jaso miaii azken lore-xortatxoia nere amak egiña zana bere esku baldartuaz. Beingo batez geiago, biotza gaixorik edukiagatik, mingaiña ibiliarren joan bai-zan gure larrostegiraiño...

Nun nengoan? Bai; galde dagizu idazteko "amorrazio" onegatik; "amorrazioa" orixe da-ta itza, Egiztatu bai-dezakezu ene kaligrafian, paperean idatzi ditutan izki okertuetan, sarkaldeko aizeen indarrez oi bezela piñudiak. Entzun: asiera batetik itzegiña dizut luzaroan aztertutako kitaketa gogo batez, orain zapuztua. Bai-bai-da zerbait zugan, edo zugandiko zerbait mendera nai nukeana, eta zure ixiltasuna da. O! uler zaidazu! Itzontzi bat zera eta ordu luzeko eztabaidak izan ditzazketzu Cazau jaunarekin. Nai duzula loreaz edo baratzatzaz. Umeeekin, txikienekin ere, egun osoetan itzegiten, ta txorakeriak esaten ba-dakizu. A! burua uts irtetzen nintzan bazkari aietatik, nere arazoaz arduratu, arrankuraz, iñori itzezin ezin bai-nezakion. ...Batezere Villenave arazoa ezkerotzik, bat-batean gaizkin- legegizon ospatsu bat

biurtu nintzanean, izparringiak zioten bezela. Zenbatez eta geiago aldero egiten nuan nere izatearen garrantzia sinisten, ainbatez ematen zenidan zuk nere ezerezaren zirrara... Ez baiñan, oraindik ez nazu onetaz ari; zure ixiltasun edo orretaz bengantz ar nai nuketa, gure etxeari buruz erosgogor daramazun ixilkeriari buruz, gure alkartasun-eza orreri buruz. Zenbat bider antzokian edo kineman galdetu ote diot ene buruari, bai ote diran bizitzan maitale ta emazteak "antzez egiten" dakitenak, aopekoz lotzen diranak, eta alkarganako gordelari izaten pozten diranak!

Orpoz-orpo sufritu ditugun berrogei urte auetan, arkitu duzu zuk ainbat indar oro itz lakatz bazter al izateko, eta izketa-gaiaz aldatzeko.

Aldi luze batean sinistu dut eraketa batean, nere begietatik urrundu zan jokabide baten arrazoietan, onetatik ezerek ez zitzaizula ajolik jabetu nintzan egun ura arteraiño. Zure kezka dietatik ain urrun nengoalarik iges egiten zenidan ez ikaraz, baizik nardaz. Trebea ziñan aizea sudurtzen, urrutitik ikusten ninduzun ba-nentorrela; eta ustegabea aldameneratzen ba-nintzaizun, bide eroak arkitzen zenituan uso joateko, edo-ta plaztadaxo bat masaillean ematen zenidan. Muxu eman ta iges egin gero.

Beldur nintekean, ezpairik gabe, idazki au txikitu zenezakeala lenengo errenkadak irakur orduko. Ez baiñan, zeren ille batzuen ondoren arritu eta kezkatu egiten zaitut. Ttantto batez bederik nigana errepara ba-zenuan, nolaz konturatuko ez ziñan nere izakeraren aldatetaz? Bai-dut oraingo onetaz nigan konfiantzarik iges egiten ez duzula jakinen. Jakin dezazula nai dut, jakin dezazula zuk, zure semeak, zure alabak, zure suiñak, zure illobak, zein gizon zan zuen ain ongi itxitako talde orren aurrez bizi zana; diruaren jabe zalako orren ongi zaindu bear zan nekez beterik zegoan legegizon ori, minberaturik beste izartegi batean bizi izanik ere. Zein izarrean? Iñoiz ez zenuten izan ikustera joateko gogorik: Lasai zaitea; emen ez ditut nere eriotz-goralmenak egin nai-eta, goizegi neronek idatzia, baizik bai egin zuan agiri-zalaketa. Nere izakeraren berezitasun nagusia, eta zu ez bezelako emakume bati interesgarri izango zitzaiona, nere buru-argitasun ikaragarria duzu.

Nor bere burua engañatzeko trebetasun au, ilgarri guztien lagun-

tzaille danean, mokoz ibili da betidanik nigaz. Iñoiz ez dut dollor-keririk txastatu lenagotik ez ezagutua.

Eten-unea egitera beartua izan naiz beste erremediorik gabe...; oraindik argiontzia ez didate ekar; lefatillak beste erremediorik gabe... ; oraindik argiontzia ez didate ekar; leiatillak itxitzera ez dira etorri. Upategien tellatua begiztatzan nuan, bere teillak oraindik lo-reen margo nabarrez edo txorien txorrotxioen bizitzaz. Karol-zumareko untzetan zozoak entzuten nituan. Iraul-biran dijoan kupelaren ots-surmurra. Zorionekoa izaki itxoin bear au, nere oroitzen berdiñaz jazten dan ludiko toki bakarti onetan. Soillik aldatu da-ta mando batek biraka zebilkian ur-noriaren karranka oraingo motorrak egiten duan kurrunkarengatik. Ba-da ere korreo eramaille dan egazkin ori arrats-gosarirako jakin arazten, eta ortze zikintzen.

Bizi-egian ez zaiete gizon askori egokitzen arkitzea, euren begiaz gertu, geientsuenak beren baitan bakarrik ikustea gertatzen zaiotena, eta ori gogoratzeko ausardi eta eramanpena dutenean! Nik nere eskua bularraren gainean ipintzen dut eta ene biotza ikutu. Ixpilludun erreditza ikustatzen dut, an bai-dagoz, bazter batean bear diran guztiak. Entzungo ote deituko ba-nieteke? Nai dute gezurrezko biotzmiña izan dedilla; lan gutxiago dagite neri buruan sartzen euren buruei sinistazten baiño. Lasai lo egin dezaten. Orain artzen dut arnas. Esan liteke esku bat nere bizkar ezkerraldean ipiñi dala, egoera txar batek mugitu eziñez, nik aaztutzea nai ez lukean batedonbateg egingo lukean eraberean. Nere egoitzan, eriotza ez da elduko ixilik. Urteetan bai-dabil ene inguruan. Entzuten diot; bere arnasa nabari dut; baretsua da nerekin, ez bai-diot aurkarik egiten ta bere ingurutasunak agintzen duenetara menderatzen naiz-eta. Utzeko prestatu nago, mantal luzeaz jantzirik. Sendagaitz diran gaixo guztien janzkeraz, nere amak bere azken eguna itxoin zuan belarridun butaka zabal berean; bere antzean exeririk, sendagai-bonbillatxoaz beteriko maitxo baten gertuan, bizarluze, usai-txar jario, eta kasketa nazkagarri askoren otsein. Ez zaitezte baiñan fida; lortzen bai-dut erorialdi bakoi-tzatik xuxpertzua. Bourru prokuradoreak, iltzaz jotzen ninduanak, berriro berpizten ikusten nau, eta ordu eta orduetan ba-dut, Diru-Etxetako azpietan, bear ainbat indar nere akzio-kupoiak nerez eba-kitzeko.

Bear-bearrezko zait aitorketa au bukatzeko lain denbora bizi na-

dilla, zu beartzeagatik, azkenean entzun zaidazun; entzun zaidazun orrenbeste urtez zugaz oe beroa erabili dutan orrek. Zuregana gabaz bertaraten nintzan aldioro, esaten zenidana :

—Logale izugarria dut. Loak artzen ba-dijoakit, loak artzen nau...

Eta nere kuttunkeriak baiñan geiago zapuzten zenituan nere itzak.

Egia da ere gure zoritxarra bukaezineko gure izketaldietan sortu zala, geuk ezkon-berriok ezitzen giñanean. Aur bi; nik ogeitairu urte; zuk, emezortzi, eta bear bada gure maitasuna exkaxagoa zan gure ixil-itzak eta lazokeriak baiño. Adiskidetasun ezerezetan oi bezela, zin egin genuan gutzia alkarri esateko. Nik, ba-nualako zuri zerbait esanbearreko, naitanaiez gertakizun purtzillak asmatu bear izaten nituan; ez nuan zalantzik ni ainbatez utsik ba-ziñala gertakizunez. Iduritu ere ez bai-zitzaidan iduritu nere izena baiño lenagotik beste iñorena oguzi zenuanik; ez nuan sinistu gau artaraño...

Orain idazten dutan etzan-gela ber-ber onetan zan. Ormetako papera aldatu da; baiñan kaobazko erreditzak leku bere-berean dagoz. Opal-kristalezko konketa bat zetzan mai gañian, eta zozketa baten zoritutako te-ontzi sail au. Illargiaren dizdirak argitzen zuan leio-lastaia. Eremuetatik barna zetorren aizeak, sualdi baten atsa zekarren gure oeraño.

Rodolfo, sarri itzegin zenidan lagun orren izena eta beti gure etzangelaren illundurana, bere irudia beti bai-legokean gure artean, gure alkartasuna beroena zan orduetan, ber-aitatua izan zan zugatik gau artan. Aastu duzu? Baiñan au gutxi zan oraindik zuretzat.

—Gauz asko daude, ene maite, gure eskontz aurretik zuri kontatzeko desiaturik nituanak. Esan gabetanik zuri barruko-arrak minberatuko nindutekenak... 0! Ez funtsezkoak, ziurtzen dizut...

Xox baten ajolik ez zitzaidan eta deus ere ez nuan egin konta zenezaidan. Baiñan ain gozamenurik ugaritzen zenizkidan zure aitorketaz, gogaitu egin zenidan. Iñoren kezkarengandik ez ziñan makur, niganako iñolako begirunerik ez zenuan, sentimenari ez zenion obeditzen, esaten zenidanean, bestaldetik, sinisten zenuan lez.

Ez, txorabiatu egiten bai-ziñan oroitz atsegin batean. Ezin zenuan utsi aal. Agian usmatzen zenualako guzi artan alako beldur-atximurra gure zorionarentzat, baiñan esan oi dan bezela, ark menderatzen

zindun. Zure naikuntza ez zan aski gure inguruan ibiltze galerazpenak egiteko Rodolio, ren errañuari.

Guztien gaindi, ez dezagun sinis zoritxarra maite-kezketan dutela sorburu. Nik, askoz beranduxeago maite-kezkaz errerik erotu bear nintzana, ez nuan nigan ezer nabaitu nere griñetara ekarri zezakeanik udara gau aretan, aitatzen dizudan 85 garren urte gau aretan, aitor zenidala ezezagun mutil orren andregaia izan ziñala Aix, en, oporraldi egunetan.

Berrogeitabost urte buruan ori guztia argi ikusterik izan zaidala, pentsatzen dutanean.. Baiñan, nere idazkia zuk bakarrik irakurriko ote? Orrek guztiak ain kilima txepela egingo dizu... Nitaz dan oro nardagarri zaizu. Neri ikustea eta entzutea aurak debekatzen zizuten ia; baiñan illobak jaio ziran orduko.. Askozaz txcrkiago! Aalez egokiera onetaz balia nadin. Gerta bai-liteke illik geroz zutaz indar geiago izatea, bizirik baiño. Lenengo egunetan batezere. Aste batzuetan beenik zure bizitzan artuko bai-dut, berriro, tokirik bereziena. Bear ukanez orri auek azkeneraiño irakurriko dituzu. Bearturik nago sinistea. Sinisten dut.

II

Ez; ene aitortz onetan ez ditut iñolako maite-kezkik nabaitzen. Auek nigan birrintzen zutena nolaz zuri sinistarazi? Ni izandu nintzan ezagutu zenuan alargun aren seme bakarra, edo obekiago esan, eta ezagutu gaberik berarekin ainbeste urteetan bizitutakoa. Baiñan, zalantzik gabe, au interesgarri izango ba-zitzaizun ere, ez zenuan ulertuko zer adierazi nai zuan gizaki bi auen batasunak, ama orrena eta seme orrena, zu ziñalako sendi dirudun, burges, jerarkizatu eta eraturtako baten zelula edo soin-izkifia. Ez; ezin bai-zenezakean usina ere zer arduraz zaintzen duan bere seme bakarra funtzionario apal baten edo Prefektura batean buruzagi baten alargunak, eta zer eman zezaiokean bere bizitzan bakar-bakarrik gelditzen zitzaion seme bati. Ikastolako nere garaitzak arroputzen zuten. Bere ere zan nere alaitasun guztia. Txit beartsuak giñala ziurtasunez betea nengoan garai artan. Gure bizimañaren estutasunaz jabetzeko aski gauz izan zan nere amak lege bezela zerabilkian ziurtasun bizia. Egia dalarik ere ezer ez zi-

tzaidala falta. Gaur jabetzen naiz zeñen ume mimatua izan nintzan. Lan askorik gabe betetzen zuten gure maia nere amaren Hosteins, go baserriek, eta guztiz arrituko nitzan iñork esan ba-lida guztiz bikaiña zala. Olloak guri-guriak, erbi eta istingorren pastela geiegikerien zantzurik ere ez zuten nigan esnatzen. Lur aiek ez zutela ezer balio beti entzun izandu nuan. Eta, alarik, oiñordekotz artu zituanean, lur antzuak ziran. Eta bertara nere aitona, aur zalarik, eman oi zituan abelgorriak elikatzerara. Eta ez nenkian nere gurasoen eginbear lenengo lurrok ereintzea izan zala eta, ogeitabat urtez, aberats-bidean zi-joala bi milla ektareako baso baten jabe arkitu nintzan. Eta, ain zuzen, meatzei abe tantaiaz ornitzen asi. Berak eman erreditu exkaxetik onelaz gordetzen zuan nere amak. Artean nere aita bizi zalarik, sakrifika-tuaz, berrogei milla frankoetan erosi zuan Calése, milloi batean lagako ez nukean maasti ori. Bizi bizitzen giñan, Santa Katalina kalean, jabe giñan gure etxe bateko irugarren bizitzan. Nere amaren emaitza, eskontz-sari bezela, etxe-gai ziran lur aiek ekarri zituan. Astean bi bider etortzen zilzaigun otar bat baseritik. Al zuan gutxien joan oi zan gure ama "arakiñarengana". Eta ni Normal Ikastolan neuzkan finkaturik begiak, bertan sartzeko gogoz. Eraso bear izaten zidaten galanki ostegunez eta igandez aizea artzera atera nedin. Leia-itxurarik egin gabe beti lenengo diran ume oien antzik ezertan ez nuan. Ni "langille" bat nintzan, eta izateko gogoz izan; langille bat eta ez ezer besterik. Ez naiz gogoratzen iñoiz gozamenik artu dutanik Ikastolan Virgilio edo Racineri ixtudiatzen; ura jakin-gai bat besterik ez zitzaidan-ta. Gizakiaren egiñari buruz, nere ikasbidetatik at zeudenen-gandik bereizten nituan, berak bakarrik zuten-ta garrantzi neretzat. Eta auetzaz idazten nuan idatzi bearreko guztia azterlariak atsegiñetan ipintzeko, au da, normalisten gizaldietatik barna esan ta idatzi dan dan-dana. Onatx emen zein kaikutzar mota nintzan, eta jarraituko nuana izaten, bearbada, odol-ixtu edo hemoptisis ark, nere ama ikaraz jarri zuanak, beartu ez ba-nindun Normal ikasketak baztartzea azterketak baiño bi illabetez lenago.

Auxe zan aurtzaro ikaszale bati erantsi zioten salneurria, gaztearo kaltekor bati. Mutiko bat, aziketa gorrian, ez da bizitzen zigorrik gabe mai baten gaiñean kizkurturik eta bizkarrak tolestaturik gabaren ordurik aurreratuenetaraiño, soiñaren igitze ta saioak nardaturik.

Iguingarri al zaitut? Ikara damait zu naskatzea. Baiñai ez dut saltatu nai lerro bat ere. Bear dutan estutasunaz narabiltzula ziu- rrez egon nai dut. Zuk ezagutu ez duzun edo aaztu duzun gertakizun oietan zegoan gure bizitzaren drama orren iturburua.

Bestaldetik, dagoneko ba-dakuszu, gordeko ez ditutan lenen orri auen bidez. Zure gorrotoari laguntzeko aitzaki ba-da ontan... Baiñan ez, ez dizut nai aurkakeririk ager ; egiten bai-duzu nigan pentsa zure muturkeriak aundiagotzeko.

Alazere, zuzen ez nabilla deritzait ni izan nintzan gaztetxo lotu onekin, beti makurturik iztegien gaiñean. Irakurtzen ditutanean bes- teen gaztaro oroitzak, ikusten dutanean guztiak begiak itzultzen di- tuela pasadizu orretara, galde-larriak ditut enegan : Eta ni? Zer da- la-ta baso au nere aurtzaroa asi ezkeroztik? Onenian aaztua izango bai-dut besteak gogoan duteu ori, baita ezagutuko nituan, bearbada, lillura berdiñak... "Ene! Ez bai-dut besterik ikusten burrukagorri ura, lenen izateko nor-geiagoka ura, ez ba-da nere etsaigo gorrotaga- rri ura Enoch batekiu edo Errodrigo batekin. Xalotasun guztia zapuz- tea bai-zan nere sena. Izakera zenbaitzuk zirala nere garaitz eta eros- kortasunen bizi-emaillea, gogoratzen naiz. Ume errea bai-nintzan mai- ta nai ninduteenekin. Nere "sentimenak" gaitzesten nituan.

Nere bizibidea idaztea ba-litz, orritxo xamur bat beenik ezin atera aal izango nuke nere ikasle bizitzetik. Itxoin... gauz bakarra, alare, ea utsa : ozta-ozta gogoratzen naizen ene aitak, aldiz-aldiz konbenzi- tzen baininduan ez zegoala illik, zenbait egokiera arrigarriek ezkuta erazten zutela. Ikastolatik irten ta Santa Katalina karrikatik igotzen nintzanean, kaltzadatik antxixika, berebil artean, oiñezkoak multzo- ka ostropo zitzaizkidealako. Lau-lauka igotzen nituan ixkillarak. Ene ama jantzi-puzketen konponketan ziardun leio ondoan. Eta oetik eskubirantz aitaren argazkia zintzilikaio zan. Nere amak besarka ne- zan uzten nion ixilik, eta orduantxe zabaltzen nituan liburuak.

Nere etorkizuna aldatu zuan hempotisis orren geroz asi ziran itun igarotzen illak Arkatxon, go etxetxoan, bertan nere osasun txepelak xurgatzen zituala ene ikasketarako irrika biziak. Ene ama gaixoak erremintzen ninduan, zeren onek garrantzirik ez bai-zuan beraren- tzat. Eta nere etorkizunatzaz gutxi ajolatzen zala iduritzen zitzaidan. "Termometro orduari" itxoiten bizitzen zan egun bakoitzean. Nere egunerako pixua nolakoa alakoa zan bere poza edo naigabea. Nere

gaitzarenganako nere ajolagabetasuna zala-ta geroz orrenbeste naigabetu bear nuan neronek, aitortzen dut mereziki zigortua izan naizela nere gogorkeriarengatik, geiegikeriz maitatutako ume baten petralkeriaz.

Nere amak zion lez, lendabiziko egunetatik asi nintzen osasuntzen. Obeki esan, berpizten. Gizendu, bai indartu. Neronen aginduaz nekatutako gorputza, neronen gogo-neurriz beartutakoa, loraberritzen zan baso antzu aretan, baso otz eta txaraz betetako artan, Arkatxon base-rri bat besterik ez bai-zan egun aietan.

Eta aldi batez, nere amarengandik jakin nuan ez nuala zergatik beldur izan ondorenari, ba-genualakako dirutza garbi bat urtetik-urtera azkortua : Ezerk ezertara ez ninduan bultzatzen, eta kezkarik ez, soldadutzarako ezerezaz joko ninduten-ta. Ene irakasle guztiak arritze añaiko itz- erreztasunaren jabe nintzan. Nere amak Legegitza ikasi nezala nai zuan ta ez zan beldur neke askorik gabe, lege-gizon trebe bat biurtu nintekeala, baldin eta politikak lilluratzen ez ba-ninduan... Bera itun, ta iztun; zapla azaltzen zizkidan bere asmoak. Eta nik leiotik begiratuaz, mutur-arroaz, zakarki entzun oi nion.

Alabearretan sartu nintzan. Nolabaiteko barkamenez begiraten zidan amak. Geroz jakindu dut, zuetar artean biziturik, zenbateraiño-koz garrantzitsu diran zabarkeri auek sendi erlijioso batean. Nere osasunaren kaltetan izan zitekean kaltea besterik, nere amak ez zekusan orretan. Gozamen geiegiaz ez nebillela ziurrez jakin zuanean, nere gau-irteerentzat begiak itxu, ba-mentorrelako gau erdirako. Ez, ez beldur izan, ene orduko maitasunak kontatuko dizkitzudanik. Bai-bai-dakit ikara diozula gauz auei, eta, au ere bai, ain exkaxak ziran ene gertakariak!

Garestiak zitzaizkidan berak. Eta naigabetzen nintzan. Eta naigabetu, ain zuzen, ikusirik nigan ez nuala iñor lilluratzeko doairik, eta nere gaztetasuna ez zitzaidala baliiodun ezertarako. Uste dut, ori eta guzti, itxusia ez nintzala. Nere musua ez da "arrunta", eta Jenobeba, ene argazki ber-bera, neskatil polita izan da. Baiñan nik gaztetasunik gabekoak dirala esan oi dan gizaki motakoa nintzan; mutil itun, marduldu gabea. Nere giza-tankera naikoa zan jendeak izozteko. Eta onetaz zenbatez eta geiago konturatzen nintzan, ainbatez tentego jarri oi nintzan. Egundo ez dut ikasi jazten, korbata bat aukeratzen ta korapillatzen. Baldantzen ez dut iñoiz jakin izan, parregiten ez

eta ero itxurak egiten. Amets ez nuan egingo, ba-nenzakeala izan, doai alaieii bat; nunbait, guztia gaizki atera arazten duan kasta oietakoa ni izaki. Gutxi ba-litz, ika-mika zalea nintzan, txantxik ariñena ere jazanpenez eramaten ez nenkiana. Ordaiñez, asmorik gabe, jolas gogoz nintzanean. iñoiz barkatzen ez zizkidaten zaktakadak ematen nituana izan. Zuzenean parregarrikerira ninjoan aixa, maitasunez estali bear nuan auldadera. Emakumeekin, lotsaz eta arrokeriz, berak baztertzen duten aundi-maundi jakintsu oietako baten jarrera artzen nuan. Euren janzkiak ez nenkian ikusten. Zertaz atsekabetzen ziran jakinala, orduan ta geiago indartzen nigan aiek izutzeko griña. Neu-iltze edo zuizidio luze bat besterik ez da izan nere gazte aroa. Naturalki, eta ez atsekabetzeagatik bakarrik, ler egiten nuan iñor nola atsekabetuko.

Bai arrazoi edo ez arrazoi, orduan ni nintzanean errua ber-bera, ene amari erantsitzen nion. Aurtzarotik, geiegikeriaz loxintxatua, zaitua eta goxatua izan nintzalako zoritxar ura ordaintzen ari niutzala zeritzaidan. Garai artan berealdiko gogorra, ikaragarria, izan nintzan berarekin. Bere maitasun geiegia aurpegira jaurtikitzen nion. Berak bakarrik eman zezaidakean artaz zanpa eta menderatzen nindualako ez nion barkatzen. Eta berak emana beste iñorengandik iñoiz ezagutuko ez nualako.

Barka zakida bein eta berriro onetaz mintzatzea; pentsamentu onetan soillik artzen dut indar erainankizunez jazan aal izateko, zure nigarako baztartzea. Zuzentazunezkoa da zor ori ordaindu dezadan. O! ainbeste urteetan lo datzan emakume gaixoaren zoritxarra, bere oroitza antziñatasunez maxkaldu dan zaar baten biotzean bakarrik bi-zi da-ta! Zeiñen gogorra izango zan bere nekaldia, usmatu ba-lu etorkizunak orrelako bengantza erakarri bear zionik!

Bai, izugarria nintzan. Etxeko jan-gela txikian, gure afaria argitzen zuan argiontzipean, itz bakanaz baiño ez nion erantzuten bere beldur-galderei. Edo-ta bai, bein edo bein, aitzaki txikienaz, zakarki joan oi nintzan.

Ez zan alegintzen ni ulertzen; bururik ez zuan nere asarrearen zioaz jabetzeko; Jainko-izun baten asarrea bai-litzakean jazan oi zitu-tuan.

—Gaixorik dago —zion—; aalik nere zain-tartarrei eutsi dagio-dan.

Eta erautsi, ezjakiñegia zala ni ulertzeko.

—Ire adiñeko gazte bati, ni bezelako lagunartea ez zaioala atsegin, aitortzen diat.

Berak, anitz ekonoini egiten ikusi nuana, zekena zala ez esateagatik, bear nuan baiñan diru geiago ematen zidan, diruak txautzera beartzen ninduan, eta Burdeux, tik ba-zekarzkian korbata batzuek ipintzea uko egiten nion.

Adiskide artu-emanak ba-genituan auzotar batzuetaz, limuriz mintzatzen nintzaiona euren alabari, atsegin ez ba-zitzaidan ere; baiñan egiten bazuan osasun-zaintzea negu aldean Arkatxon, en, konturatu-ko nintekeala edo oroitz bakarraz zoro biurtzen zan, edo nigana lotu arazirik, beartu nadilla berarengana. Gaur ziurtasunez nago konkista orretarako saio egin nuala, bestaldetik alperrikako izan ba-zan ere, nekaldi berri batez ene ama beartzea.

Burdeux, era osteratu giñau urte betez aldendurik egon oudoren, etxez aldatu giñan. Txalettxo bat erosi zuan Boulevar, etan, zipitzik ez ba-zidan esan ere ustegabe bat emango zidalakoan. Zor eta lor gelditu niutzan maiordomo batek atea zabaldu zigunean. Neretzat lenengo bizitza aukera zidan. Oro berria zirudian. Arrokeri artaz ixilka zoraturik, gaur iduritzen bazait ere etorkizunean izugarria izango zala neretzat, minberatsu egondu nintzaiou maxiaketak besterik egiten ez nizkiola, eta agitz galde erabillitako dirutzaz.

Ene amak, orduan, arroputzki, agertu zizkidan agertu bear ez zizkidanak, gure aberastasun geienak bere sendiarengandik bai-bai-zetorkigun! Erreditoak berrogeitamar milla franko, basoen ebatzea konta gabe, garai artan, batezere probintzietan dirutza "polita" zan, eta edozein mutillek baliatuko zintekeana maillaz igotzeko, nazio-buru ziran sendi goi-goienetan sartu aal izateko. Goseti-griñik gabe ez nintzan; baiñan Legegintz-Ikastola nere ikasbidei buruz sentimen nerea estaltzen, naiko lanak izango nituan.

Sendi onetako seme aien artean, josulagunetan eziak, ni-neu ikasle ta artzai baten illoba, ezin izaten uuan gorde eurak beren giza-jarakeraz nigan sortarazten zuten ezin-ikusi lakatza, iruditzen bai-zitzaidaten ere ni baiño exkaxagoak zirala gizakiak bezela. Gutxiesten dituzun gizakiak lotsagarritzko nardatze onetán, ba-dago naikoa bizitz oso bat pozoitzeko.

Bekaitzlen nituan eta zapuzten, eta beren erdeñuak —agian iduripen-uts— nere gorrotoa sutu egiten zuten. Nere nortasuna ala izaki, neretzat irabazteko unetxo batean ere ez nuan pentsatzen, nere etsaien taldean gero eta erraietarago sarraraziaz. Erlijioenganako nere gorrotoa, zenbait urteetan nere grin nagusia izan dana, eta onentxegatik orrenbeste oñazetu zerana, biok betiko etsai izateraiño. Legegintz Ikastetxean izan zuan sorkera. 1879 eta 1880 garren urteen barruan, Zazpigarren Artikulua auteskundetu zanean, orduantxe josulagunak bidaltzeko dekretuak eman izan ziran urtean.

Orduarte ez otz ez bero nintzan arazo aueri buruz. Eta nere amak onetzaz, au esateko besterik ez zuan itzegiten.

—Gutziz lasai nago, ez baita iñor salbatuko gu bezelako jendeak salbatzen ez ba-gera.

Bataiatu arazi ninduan. Leuengo jaunartzea, Lizeoan egiña, ekintz aspergarri bat iduritu zitzaidan, eta gaur oroitz-xirriborrotua. Beste batez jarraitua ez zan izan, ez. Gauz auetaz nere jakintasuna sendoa zan. Apaizak, kalean, mutiko nintzanean, txantxo biurtutako gizakiak iduritzen zitzaizkidan, ala-olako maskarak. Arlo orrelakoetan iñoiz ol-doztu gabea nintzan, eta azkenik aurre eman niotenean, politika begiaz ikusita ekin nien.

Voltaire Akeitetxean biltzen giñan. Ikaste-bazkun bat sortu nuan, bertan iztun izaten nintzalarik. Bakardadean lotsatia izanagatik, agiriko eztabaidetan beste gizon bat biurtzen nintzan. Ba-nituan nere aldekoak eta goza oi nintzan euren buruzagi izanik; baiñan, errai-barrutik, burgesak baiñan gutxiago ez nituan despreziatzen. Nik xoxoki erakutsi nai nioten nereak ere zirala euren xede arloteak, beartzen nindutenak bere bideetatik joaten. Funtzionario-uts batzuen semeak, antziñatik bekak zituztenak, mutil argiak eta aundinaiekoak, maita gaberik loxintxatzen ninduten. Aipatuak geroz ere guztiz, izan ziran afari batzuetara konbidatzen nituan. Baiñaz atsegin ez zitzaizkidan euren izakerak. Eta aldiz ere gertatu gertatzen zan nere buruari eutsi ezifíez izekutzen nituela, nere txantxaz minberaturik, eta eurak gorroto gordetzen zidatarik ontxegatik.

Alabaiña, erlijioari nere gorrotoa benetakoa zan. Sozial-justizi go-go apur batek ere oñazetzen ninduan. Gure etxe-partekariak bizi ziran etxeak lurrera jaurti zitzaizkidan beartu nuan ama. Gaizki ere bizi ziranak

talo puzketaz eta ogi beltzez elikatuak. Gogorrez eraso nai izan zidan lenengo aldia, ura noski:

—Emango dizkitzuten eskerrengatik...

Ezer geiago ez nuan egin baiñan. Nigan bezela ene etsaiengan ere grin batetsu bat ezagutzean, naigabetzen nintzan: ain zuzen, lurrak eta dirua. Giza-mota bi dira; auen jabetza ezagutzen dutenak, eta ezagutzen ez dutenak. Bururatzen zitzaidan ni beti lenengoen aldeko izango nintzala betirako. Nere ustez, mutil arroxko guzti aien berdiña zan nere aberastasuna, edo aundiagoa apika. Eta ikustean arpegia bestaldera jiratzen ba-zuten ere, iñundik ere ez zuten zapuztuko luzatu izan ba-nien nere eskua. Bai bestaldetik ere, ez zitzaizkidan falta ez ene eskubian ez-eta ezkerraldean, batzar irikietan arpegira jaurtikitzen zidatenak baso eta maasti nere bi milla ektareen jabetza.

Barka zaizkidatzu orrenbesteko geldi-uneak. Xeetasun auek gabetanik agian ez bai-zenuke ulertuko gure alkar-ezagutzea zer izan zan, gure maitasuna zer izan dan, orduan mutil ospindua izan nintzan au. Ni, baserritarren semea, bere amak buruan "pañueloa" ibilli izandakoa, ni ezkondu Fondaudege tar andereño batekin! Ene! Burutapenkeririk arruntenean ere iñork ez zezakean orrenbestekorik asma; iduri-eziñekoa zan...

III

Nere idat-saioa eten bear izandu dut, argia gutxiturik zetorrelako eta beeko bizitzan abots-marmarrak entzuten nitualako. Ez zan ez zarata aundia egiten zenutelako. Aldez beste, abots sotillez mintzatzen ziñaten, ta onek ene zaiñak dardarazi, erretzen dizkit. Leenetan, gela onetatik jarrai nitzazkean zuen berbaldiak. Baiñan, orain konfiantzazkaintz, aopekotan mintzatzen zerate. Gorra biurtzen ari nintzala, esan zenidan lengo batez. Ez, entzuterik bai-bai-dut bultziaren karranka zubi-gaiñean. Ez, ez, gorra ez nago. Zuek zerate abotsa jeixten dezutenok zuen itzak ez ditzadan niganatu. Zer gordetzen didazute? Arazoak gaizki al dijoaz? Eta zure inguruan, ortxe dauzkatzu guztiak txorimaloak bai-lira; ron edariaz negoziatzen duan gure suiña, zure alabarena, ezer ez dagina, eta gure seme Huberto, Boltsa, ko Ajentea bi-

tartekoa Eta eun frankogatik ogeiko interesa ematen duan mutil gazte orrek, ínundu osoko dirua bere mende du!

Nitaz ez konta. Ez dut atzerakadarik egingo.

—Oso erreza litzake piñuak ebaztea... adierazi didazu gaur arratsaldean.

Oroitarazi nazu Huberto, ren bi alabak aitagiarebekin bizitzen dirala, ez zutelako txindirik izan bizitz bat antola al izateko ezkondu geroztik.

—Ganbaran ba-dugu erreditz pillo bat alperrikaltzen daudenak; orodaintzekotan eman besterik ez genieke...

Auxe izan da bat-batean eskatu zenidana.

—Biak gordetzen digute gorrotoa; orain oiñik ere ez dituzte emen ipintzen...

Auxen duzute zuen izketa-gaia eta onetaz aopekotz ínintzo zerate.

* * *

Bart gauean zirriborrotutako errenkada auek alako sukar-ametsez irakurten ari nazu. Nolaz jarri ote naiz asarrekeri onen mendeko? Ez da eskutitz bat, baizik etentxeke dan egunkari bat, luzapendua... Kendu egin bear ote dut au; Eta asi ber-berriro? ínolaz ez aldia dut bultzalari. Idatzi dutana, idatzia dago. Eta bestaldikotz, zer besterik nai nukea, osorik naizena zuri azaltzea baiño, eta gibel-erraietaraíño ikus nazazun, au zu beartzea ez ba-da? Ez bai-naiz zure begietarako, ogeitamar urte buruan, milla frankoko diru-paperak banatzen dituan tramankulua bat baizik. Ongi ez dabillekotz gaizki funtzionatzen duan tramankulu bat, une-unero astindu bearrekoa, irikitzerik izango dan egun artaraíño, eta sabela uzturik geroz barruan gordetzen duan altxorra esku-batean zuenganatzeko.

Asarre-biziaren lorrez mendera naiz berriro ere. Eta berak itzuli ere, idatz-eten-aldian nengoanera. Naitanaizkoa zait asarre-bizi onen oinarrira jotzea, zorigaiztoko gau aretaz gogoratzea Leenen, ordea, gogora zadi gure lendabizikotz elkartu giñanera.

Ene amarekin nintzan Luchon, en 83 garreneko Agorrill artan. Aldi artan, Sacarron Hotel, a biguingarriz osatutako erreditzez betea zegoan, etzat-aulki borobillez, basauntz buru disekatuaz.. Onenbeste urte buruan gogoan dut oraindik, astigar-zugaitzak loretzen diranean; gogoan dut Etigny'ko astigarragen atsa. Astakilloen ibilkera motzak,

zintzarriak, zartailluen takakoak goizik esnatzen ninduten. Mendietako urak laisterrez zijoazen kaleetan. Croissants eta esne-opillak dendari apalak oiuka eskeintzen zituzten. Gidariak zaldiz igarotzen ziran, eta ikusmiratzen nituan zaldi-taldeen irteerak.

Fondaudége, tarrak guztiz Letetzen zuten etxean lenengo Lizitza. Leopoldi Erregearen gelak, aiek Letetzen zuten.

—Oiek Lai ondatzailleak! —zion nere amak.

Arrokeri ottek ez La-zieten galerazten ere atzeratuegi ordaintzea, ordaintzeko garaiean. Kaiean guk genituan lur-zati zaLalak Lerak alogeran artuak zizkitutett, merkantziak gorde aal izateko.

Hotel, eko maiean jan oi genuan. Baiñan zuek, Fondaudége, tarrok, aparte serLitarazi oi zenuten Lazkaria. Oroitzean dut mai LoroLil ura, leio ondoan zegoarna. Baita zure amona ere, emakume gizena, eta kazkezur illegaLea ezkututzen zuana zintzilikari zituan Llonda Leltz Latzuetaz. Beti uste izandu íman irripar egiten zidala; Laiñan arpegiaren itxura au Lere begi txikiak eta ao-eLakiz-zabalegiak ematen zioten. Arpegi puztua, Leazun-jario eta almidonatutako "toka" Latez biltzen zan lekaime batek serbitzen zion. Zure ama... zeñen ederrez ornitua zan! Beltzez jantzia, beti lutoz jantzirik galdutako bi semeengatik. Gogozkoa zitzaion txit zearka Legiratzea. Beratzaz eder-arriturik gelditu nintzan lenengoz, eta ez zurengatik. Burua naas ipintzen zidaten Lere estali-gabeko besalde, lepalde ta eskuak. Iñoiz ez pitxi aberatsez jantzia. Bere Sthendaliar jarkera arronkazalea zala iduritu zitzaidalarik, gaberaiño itxoin oi nuan itza zuzentzeko edo esku-titz bat ixilika emateko. Ea, ez nintzan oartzen zu bizi ziñanik ere. Uste nuan neska gazteak ez zitzaizkidala ernagarri. Bestaldetik, bai-bai-zenuan iñori ez begiratzeko lotsagabekeri ori, zaputtez bazterrean lagatzeko egokiak ain ziur.

Egun batez, Kasinotik itzuleran, arriturik, nere ama Fondaudége andreaz izketan arki nuan. Au Leti adeitasunez, xamurregia, bere izketa-lagunaren beeko maillara jeixteaz etsipen mikatza artzen duanaren antzo. Nere amak, aldezerantzira, abots-zoliaz mintzatzen zitzaion; Lere atzapparretan bere alogeratu bat zeukan eta Fondaudége, tarrak ez ziran, bere begietako, alogera ordaintzaille txar batzuek baik. Baserritarra eta lurren jabea izanik, negozio eta aberastasun Latez, eriaz eta erortze errezaz ez zan fio. Eta mintzaldia ebaki nion onela esaten ari zitzaionean :

— jFondaudége jaunaren firman sinismen osoa dutala, zaitetz ziur, ordea.

Lenengoz sartu nintzan negozio-izketa batean. Nai zuan zor-ordaintzaren atzeratzea lortu zuan Fondaudége andreak. Geroz, sarri pentsatu dut, ez zuala nere ama engaña barruan zeukan bere baserritar senak. Zure sendia oso garesti kostatzen zait, ta jan nazalela utzi izan ba-nuan, zure semeak, zure alabak, eta zure alabaren suiñak luzagabe ezegingo zuten nere aberastasuna, euren negozioetan obiraturik: Euren negozioak! Etxe-azpi batean idazkaritz bat, urrutizkin bat eta mekanografa bat. Auen itxurapean, eun millako xortetan dirua txautzen da. Baiñan nere asmoetatik urruntzen noa .. Bagneres-de-Luchon, en gaude, 1883 garrean.

Zure sendi aaltsuak irripar zegidala, gogoratzen naiz orain. Gorrak zalako zure amona itzontzi bat zan. Baiñan itz batzuek zure amarekin egin aal izan nuanean, afari oste batean, amorra eta naasi arazten zidaten zure amatzaz izan nituan uste ametsgarriengatik. Ez duzu naiko neri sinitstarazi bere itz-jarduna zabala zala, guztiz neurtua zala bere gizartetetasuna, eta ain bakana zala bere iztegia ni, iru minutuko epean, itzegitez amorrazi eta ezin eutsi aal izateko.

Nere ardura, ama lagatuaz gero, alabarengana itzuli zan. Nekez oartu nintzan gure izketaldiei ez zietela galerazpenik jartzen. Nolaz bururatuko zitzaidan Fondaudége, tarrak ikusi zezatekeala nigan alderdi on bat? Lys arantatik barna egindako txango batetzaz oroiz naiz. Zure amona eta lekaimea zaldi-gurdi baten barru-barruan, eta gu biok gurdi muturrean. Jainkoak badaki zaldi-gurdiak ez zebiltzala urri Luchon, en. Fondaudégetarra izaki gurdi bat berekin eramateko.

Taka-taka zijoazten zaldiak, euliak egin laño batean. Diz-diz zegan lekaimearen arpegiak, eta erdi-zabalik zeramazkian begiak. Eti-gny, ko kale batean erositako abanikoaz aizetzen zan zure amona. Xexen-toreatzaille bat marratztua zeukan, marratztua bertan. Eskularru motz bat jaxten zenuan, naiz bero izan. Zugan oro zuria zan, baita zure bota-luzeak ere; zure bi anaien eriotzarakoan esan zenidanez, "zuriz opaldu egin ziñan". Nik ez nenkian aren esan-naia. Berandugoz jakin dut, zure sendian ba-zutela alako debozioa gauz auetarako. Eta nere arima-egoitza alakoa zanez, berebiziko olerki ederra iduritu zitzaidan ori guztia. Nigan esnarazi zenuan guzti-guztia, nolaz zuri ulertarazi? Atsekabe emaille ez nintzala-edo, zirrara nabaitu nuan ; ez

nintzan atsegingabea, en nintzan gorrotagarri. Egun berezi-berezi bat neretzat arratsalde ura, esan zenidanean :

—Bai arrigarria mutil batek orrelako begille luzeak edukitzea!

Arretaz ezkututzen nituan nere iritzi aurrerakoiak. Eta gogoratzen naiz, nolaz txango aietan, gurdiazen zama arintzeagatik lurrera jetxi giñala, eta ere, aldatza aasterakoan, amonak eta lekaimeak euren errosarioa artu zutela, eta nolaz ere, gviridi gaiñetik, kotxeroak, ari ortan urtetan oituta, Agur Mari bakoitzari erantzuten ziola. Eta zuk, zuk bai, begiratuaz irripar egiten zenidala. Eta nik aldakaitz jarraitzen nuan. Amaiketarako mezetara zuei laguntzea ere ez zitzaidan zailla. Neretzat ez zuan ezer ikustekorik iñungo metafisika ideiarik eleizkizun artaz. Arrotza ikusten nuan, bertan sarturik nengoalako. Giza-mota baten kultoa zeritzaidan. Gure asaba zaarren erlijio bat-edo, sozial-gauzengandik ikusterik ez zuan eleiz arau bat, burgesiak erabiltzekoa.

Zearka begiratzen zidalako, meza aien oroitza elkartuta jarraitzen zuan egiten nuan arkitze lilluragarri arekin; interesgarria izan, gogozkoa baita birloraz dardaratua. Atsegin zitzaidan maitasuna naasi egiten zan sortarazten nuanaz, sortarazten nuala uste nuanez. Nere sentimen ber-berak ez zuten ezer benetakorik. Zuk nitaz nabaitzen zenuan fedea zan garrantzitsuena. Bestegan ikusten nintzan ni, eta nere irudia orrela nabaitua ez zuan nazka-biderik. Arnas-bide zoragarri batez, kementsuago nabaitzen nintzan. Oroit ditut nere izate osoaren otz-epeltze ura zure begiratu artaz, dizdizko biotz-zirrara aietaz, azkatutako maite-uxol aietaz. Betiko xamurtasun egoitzak esku bat estutua, liburuan gorde izandako lore ximel bat guztia bai berria zitzaidan, eta danak lilluratzen ninduten.

Soillik nere ama izaki berrikitze aren onuraz pozten ez zana. Batikpat etsai zitziolako ene logale ura —erokeria bai-zeritzaion— doidoi ene baitan osatzen zijoana. Eta akar egiten nion bera ez zalako lilluratzan.

—Ez ote duk ikusten jende oiek zer billatzen duten itaz? berresaten zuan, sumatu gaberik onela birrintzen zuala nere poz amaitu-eziñekoa, azkenean bederik zaletzen nintzalako neskatz batetzaz.

Bai-bai-zan ludian neskatil bat nere gogozkoa eta, bearbada, nitaz ezkondu nai zuana. Sinisten nuan nik, nere amaren kezken gaindikotz; zuetarrok aundigiak bai-ziñaten, aaltsuegiak, gure alkartasu-

naz irabazten ateratzeko. Onek ez zuan galerazi nere amarenganako gorrotoa nigan indartu zedin, nere zoriona kolokan ipintzen zualako. An-emen txostenak bereganatzen alegintzen zan, Diru-Etxe garrantxitsuen argibidetatik barna. Eta Fondaudége jatorkiak, naiz eta estroposo aul batzuek tartean izan, kredio edo izen-on aundienak zituztela aitortu bear izandu zidan egunean, garaille irten nintzan.

—Nai ainbat diru irabazten dute, baiñan daramakiten bizitza maila garestiegia da —zion amak—. Zalditegi eta morroi-jantzietan uz-tutzen zaiete. Naiago dute iñor itxumendu xox bat gordeko ez ba-du-te ere.

Diru-Etxetako argibideak, egin zuten nere zorionean ziurtatu na-dílla. Zuretarrak zuten interésgabetasunaren proba, neronekin nuan; atsegin nintzaielako egiten zidaten irripar. Eta, une batean, ludi guz-tiari atsegin nintzaiola berezko gauza iduritu zitzaidan. Zugan bakar-bakarrik uzten ninduten gauaz, Kasino ibiltokietan egurazten. Zeiñen arrigarria zaigun, zorion apur bat eskeintzen zaigun bizitz-asiera oie-tan, iñungo abotsik ez dagigularik oar : "Anitz urteetan bizitzen zera-la ere, ordu auetan duzun zoriona bezelakorik ez duzu munduan izan-go. Dezazu txasta kondarretaraiño, onen ondorioz ez bai-duzu deus arkituko zuretzat. Lenengoz arkitu duzun iturri au azkenekoa ere izango bai-duzu. Ase zure egarri bein-betikotz; iñoiz geiago ez duzu edango-ta".

Ni baiña beste ziurtasueuz jabetua nengoan. Maitemendu luze ba-ten jaiotza zala, eta ez nintzan askorik arduratzen zugaitz adar lotien azpikotz geldirik egoten gifian gau aietaz.

Alazere, nik oker iritzitako aztarna batzuek izan ziran. Gogora-zen al zera gau artaz, nolatan exeririk giñan aulki batzuetan, Ter-mas, tik gorabidean igotzen dan ibiltokian? Alako batean, aitzaki gar-birik gabe, negar murrumaz asi ziñan. Ondiño oroit dut zure masail bustiaren usaia, zure tristura ezezagunaren atsa. Maitasun zorioneko malkoetan sinisle nintzan. Aldi txar aiek, estutasun aiek nere gazteta-sunak ezin zezakean ulert. Egia da esaten zenidala :

—Utsa da ; zure alboan egotea da...

Gezurti orrek, ez zenidan gezurrik zakatzen. Negar-jario ba-ziñan, egiazki nere alboan zeundelako bai-zan, nere alboan eta ez besterenean, andik illabete batzuetara ezaguera emango zenidan arengandik urrun zifialako. Ain ziur idazten ari natzaizun gela onetan esan zenidan, il-

zorian dagoan zaar bat nabaitzen naizen ementxen, begi-luze zai dauz-
kadan sendiaren artean, nere sarraskieri erasotzeko uneari zai.

Eta nik, aitatu aulki orretan, Superbagnères, ko bide baztertxoan,
zure bizkar eta lepondo artean gordetzen nuan nere arpegia, neskatz
negarti aren urbillean arnaska. Bedar busti eta menda-bedar usaia
ixuri-arazten zuan pirineotar gau eze ta epel ark, zure usai-goza ere
ar-arazten zidan. Termas, ko enparantzan, geunden lekutik ikusten
genuan, astigar-zugaitzen ostoak, musika-kioskoan erraztun antzo, ar-
gi-ontzieu argiaz diz-diz ziralarik. Gure Hotelean bizi zan ingles zaar
ark, argiak ekarrarazten zituan gau-ingumak arrapatzen zitua bere
mitxirrika-sarez. Eta zuk esan :

—Zure pañueloa utzi zaidazu.

Zure negar tantak txukatu eia nere alkandora eta bular artean
gorde nuan pañuelo ori.

Beste gizon batean biurtu nintzala esan nai zuan onek. Baita ba-
zirudian argi batez ikutua izan zala nere arpegia. Beste emakumeen
begiratueta jabetu nintzan onetzaz. Susmo txar bat ez nuan izan arra-
tsalde aren geroztik, zure negar-zotiñen geroztik. Orretzaz gero, zan
bezelako gau batean, zenbat gauz gertatu ez ziran zu poza besterik ez
ziñanean, nigana urrumatu eta nere besoan estutzen ziífanean! Azka-
rregi nebillen ni, eta zu arnas-estu ziñan neri jarraituaz. Senargai gar-
bi, begiralea nintzan. Zuretarren konfiantzaz baliazteko tentaldirik
bein ere ez mian izan, ain ziur iduritu ezin zitzaizkidanean neurtutu-
ka konfiantza zitekeanik.

Bai; beste gizon bat nintzan, egun baterarte noski —eta berro-
gei urte buruan ausartzen natzaizu aitorren au egitera ez ba-duzu
arrokeri-pozarik izango ere irakurtzen duzunian— garaitatik gain-
beera, Lys zelaidi bidetik barna gentozen egun baterarte. Urak pa-
raztan izaian; millu-arbasta bat puzkatu nuan nere beatzaz; mendi-
magaletan biltzen zan gaua, baiñan gallurretan bizirik ziarduten ar-
gien zabaldiak Alako batez, larri bizi bat nabaitu nuan, ikutugarri
dan egi bat bezela, ba-zala edo beste ludi bat, izate bat bere erraiñu-
rik ezagutzen ez ba-genuan ere ..

Ez ziran une laburrak besterik izan, nere zorigaiztoko bizitzan
txit aldi bakanetan berritu zaizkidan uneak. Baiñan ain bestelakoa iza-
nik, berak zemaizkion nere begiei gero eta geiagotutako balorea. One-
gatik, geroago, eten gaitun erlijiozko eztabaidan, baztertu bear izan-

du nuan oroitz ura. Aitortz au zor nizun. Ez da ordea oraindio garaia gai onetzaz ari aal-izateko.

Alperrikakoa da gure ezkontza gogoratzea. Gau batean izan zan erabakia. Nik nai ez nuala egiña izan zan. Uste dutanez, nik beste asmo batez esandako itza beste era batera ulertu zenualako. Konturatu gabe zugaz lotuta arkitu nintzan. Au guztia oroitzea utsan urrengoa da. Baiñan ortan guztian ba-dago ikaragarritasun bat, neroni zigortzen naizena nere pentsamentua gelditu-arazirik. Zure naikeri baten berri berrialaxe eman zenidan. "Alkartasun onena zaintzeagatik", uko egin ziñan nere amarekin bizitzea, etxe berean bizitzea ere. Zu bestez zure aitak ere, gogor ziñaten orretan ameto ez emateko.

Zein eratan, ainbeste urteen zear, gelditu dala gero nere gomutan Hoteleko gela itogarri ura, Etigny'ko eguraz-karrikara zabalduriko leíoa! Urre-autsa, zaldi zigorren kraskatakoak, zaldi-txintxarritxoak eta tiroldar aize bat igarotzen ziran leio-sare aietatik barna. Ene ama, burukomiñez, sofa baten gaiñean etzanda zegoan, bluxa bat eta gona batez jantzirik. Iñoiz ez zuan jakin izandu oerako-atorra zer zan, ez eta gainjantziluze bat edo orrazlari bat. Beeko bizitza lagako zigula esaten zidan artaz balia nintzan, berak naikoa omen zualako irugarrengo bizitzako gela batekin.

—Zaidazu entzun, ama. Isa'k uste bai-bai-du ohea lizakeala...

Itzegin-ala, zearka begiratzen nuan arpegi zaar ura, eta gero begiak itzuli. Bluxaren lore-multzoa zimurtzen zuten bere beatz baldarrekek. Aurka egiteko zeredozer izan ba-zuan, nik ere bai zeiii eldu, baiñan bere ixiltasunak ez zemaion iñolako laguntzarik nere amortu biziari.

Ajola-ezaren itxurak egiten zituan. Arrigarri ez zitziola ere. Eta gure banatzea itxaroten duala-edo sinistaraziko zizkidan itzak billataz, mintzatu zitzaidan, azkenik.

—Aurigne, n biziko naiz ea urte guztian —esan zuan—. Ditugun basoetxetatik bizitzeko egokiena Calése, koa dalako, ura utziko dizutet. Altxa araziko dut egon-etxe bat Aurigne, n; naikoak dizkiat iru gela. Onetarako txindi gutxi gastatu bear ba-da ere, gogaikarri dek gastuetan sartzea aurten, batezere illik egon nindekkelako datorren urtean. Baiñan geroagoz erabilli dezakek uso-tortoilletara oakenean. Urrilla'n an bizitzeko aukerakoa gertatuko zaik. Ez zaik iri eiza atsegin, baiñan gogozkoa litzaioketen semeak izan ditzazkek.

Nere esker-txarra urrutiratzen zan bestekotz, maitasun onen azken

mugara eltzea eziñezkoagoa iduritzen. Ezkertxarra ar-tokitik bidalia, beste jarkera batez berrindartzen zan. Nik lagatzen nionaz organizatu edo antolatzen zan, auxe naikoa zualarik. Galde zenidan, baiñan, gabaz:

—Zer du erabakia zure amak?

Bere betiko itxuraz urrengo egunetik egin zan. Zure aita Burdeus, era iritxi zan, bere alaba zaarrenaz eta bere suiñaz. Zalantzik gabe, gauz guztien berri eman zitzaieten. Oiñetatik bururaino begiratu zidaten. Iduritu zitzaidan ere bata besteari galdetzen ziotela: "Iduritzen al zaizue komenigarria danik? Ama, eziñezkoa izaki... "Ez zait egundo aaztuko zeilen arrigarria iduri zitzaidan zure arreba Maria Luisa, Marinette deitzen diozutena, zu baiño urte batez zaarragoa, baiñan au zala ta guztiz zu baiño gazteagoa zirudiana, mearra, lepaluze, motots aztunegia eta neskato begiaz. Zure aitak ezkondu arazi zuan agureak, Philipot jaunak, izu-arazi ninduan. II zanetik apur bat geroxeagoz, sari pentsa izandu dut irurogei urtedun artaz, iñoiz ezagutu dutan gizonik zoritxarrenekoa bezela. Zein nekaldi ez ote zuan jazan kaitutzar arek, zaar bat zala aaztu aal izateko bere emazte gazteak! Itotzeraino estutzen zuan korse batek. Almidonatutako lepokoa, luze ta goitua, erdiz ezkututzen zituan bere masail eroriak eta kokotzondoak. Bere bibote ta patillen tintaren dizdiak, aragi-nabarren kalteak nabarmentzen zituan. Ea ez zuan entzuten zeresaiotena, ixpillu baten billa beti; eta gogora zadiz zer-nolako par-algarak egiten genituan bere irudiari zearkaka begiratzen arrapatzen oi genuanean, bere burua bearturik amaierik gabeko azterketa artaz. Irripar egiten, bere ortzadi-ordekoak debekatzen zion. Buka-eziñeko borondatearen ezauzgarria ba-zuten bere ezpaiñak. Bai eta ere oartzen giñan, bere arpegian azaltzen zan keñua bere "eronstart" ura jazten zuanean, dezingo zitzaion beldurrez-edo garrondotik asi eta kazkazurretik barratzen zitzaion ille matats berealdiko ura, barratu oi dan bezela ur gutxiko ibaiean ibaiarte bat.

Zure aita, berarekin urtekidetsu izanarren, bere bizar zuri, buru-soil eta sabelaundi ta guzti, emakumeen gogozkoa zan, eta baita ere, negozioetan, gizon zoragarri bat zan. Nere amak bakarrik egin zion aurka. Agian, eman berri nion kolpeaz gogortu egingo zan. Kontratuaren arau-atal bakoitza maxiatzen zuan salmenta edo alogera batez ari izan ba-lira bezela. Bere bearkeri aiengatik asarretzen nintzala-edo itxura egiten nion, ta agintea ukatzen nion, ixilik soriontsu ba-nen-

goan ere nere interesak esku onetan zeudelako. Nere aberastasuna zu-rearengaudik txit ongi bereiztua baldin ba-dago gaur-egun, nitaz ain gutxi baliatu ba-zerate, nere emari zor diot, eskonsari legea azken maillaraiño eskatn zualako, ni galdukeriz dabillen gizon batez ezkon-du beaar nuan neskatilla izan ba-nintzan beste.

Eskabide latz oietaz Fondaudége, tarrak atzeraka egiten ez zuten bitartean, nik egin nezakean bai lasai lo. Uste dut maite nindutela, zure niganako on-iritzia bide zala.

Ene amak entzun ere ez zuan nai "erreditoaz"; diru beroan, gar-bian ematea eskatzen zuan.

—Ba-dut eredu Philipot barou jaunagan —zion— alaba zaar-re-naz ezkondua onek xoxik eraman gabetanik. Ongi pentsatua dut. Zaar bati orrelako umekondo gaixo bat emateagatik, ziur-ziur da irabazpen bat lortu dutela berak! Baiñan ez da berdin guretzat. Iduri bai iduri-tuko zitzaien orrelako ezkontza batekin zoraturako nindutela. Ez naute ez ogi ezagutzen. !

Gu, "uxakumeak", arazo auetaz arduratzen ez giñala-edo itxurak egiten genituan. Eta iduritzen zait ba-zenuala zuk konfiantza osoa zure aitaren doaietan, nik nere amarenetan nuan bezelaxe. Eta, ori eta guz-ti, agian gu biotako iñork ez genenkian zenbateraiñokoz maite genuan dirua...

Ez, oker diot. Zuk ez; bai-duzu iñoiz maita, ez ba-da semeak dau-delako tartean. Bearbada erail ere egingo ninduzuke eurak aberastea-rren, baiñan eurengatik ukako zenioke era ogia zure aoari.

Ai, baiñan nik... dirua dut maita, aitortzien dut, pizikortu egiten nau. Zenbatez eta aldi luzeagoan nindekean aberastasunaren jabe, gu-txiago zenezazueke nere aurka egin.

—Gure adiñean ain gutxi bear dugu! —berresaten didazu.

Okerraren okerra! Duanarengatik bakarrik bizi bai-da zaar bat. Izatez gauzarik txikiena uzten duanean, bizkar-aldero egiten zaio. Abe-rastasuna, Erruki-Etxea, Atsedeen-Etxea edo onelakoren bat aukeratzea beste ziorik ez dugu. Zenbat bider, burges sendi oien artean, molde eta era itxuratiagoaz, nabaitu izandu dut nekazari ixtori oien berdi-nak, euren semeak diruz-larrututa gero goserik lagatzen dituztela! Bai, txiro eta beartsu biurtuko naizen beldurrez nazu. Ez bai-dut uste iñoiz nereganatuko dutanik bear ainbat urre. Onek bereganatzen zai-tuzte, bai nik gorde ere.

Aimari ordua igarorik da, ezkilak ez ba-ditut entzun ere... entzun aal izateko zoririk ez bai-digu eman. Ostiral Santu da. Zalpurdian iritxiko dira gaur gabez familiko gizonak. Apaitara jetxiko naiz. Nai dut dan-danak bildurik ikustea. Askozaz indartsuagoa nabaitzen naiz guztien aurka ari naizenean, nere izketaldi soilletan baiño. Gaiñera, penitentzi egun onetan nere txuletatzarra jan nai dut, ez arroxkokeriz, baizik zuei agertzearren nere borondatean irauten dutala, eta ez dutala gauz txikienean etsiko.

Oraindala berrogeitabost urte ezkerotik jabetu naizen toki aue-tatik, ni jaurti aal izan ez dituzuten tokiak, banan-bana ereriko lirake emaitz bakar bat egingo ba-nizueteki. Oliotako sardiñaz eta babarrunaz elikatutako sendi orren aurka, Ostiral Santuko nere txuletatzarra izango da señaile bizitzan diruz larrutuko ez nazutela, ba-dutala itxaropen.

IV

Ez nintzan engañatu. Bart, zuen artean azaldu nintzalarik, zuen asmo guztiak auts biurtu nituan. Izan aurtxoan maia bakarrik zan alaia. Ostiral Santu gabez txokolatea eta esne-guriñez atondutako ogia jaten dutelakotz. Nik ez dut ongi bereizten. Nere illoba Janine ibiltzen dan neskatoa da.. Ikuskai eder bat eman dizutet guztioi nere jateko gogo ederraz. Aitatu dituzu bai nere osasuna, bai urteetan nere aurre-ratzea, aiko-maiko zartzeko nere txuleta. Ikaragarria iduritu zait Hu-bertoren optimismoa. Bizia edo eriotza erabakitzen duan gizon ba-tentzat bezela, ziur dago igoko dala Bolsa laister batean. Eta nere se-mea. Berrogeiurte-dun ori nere semea da, ba-dakit, baiñan ni kontu-ratzeke. Egi oni arpegiz-arpegi begiratzea eziñezkoa da. Bere arazoak gaizki joango ba-lira, baiñan...! Onelako irabaziak banatzen dituan Bolsako Ajente batek asko joka eta asko arrixka... Sendiaren izen ona jokatuko litzaken egunez... Sendiaren izen ona! Ona emen jainko-ai-zun bati ezertaz nekalduko ez natzaiona Ene erabakia arturik dut. Kolpeari eutsi bearko bai-diot, ez samurtu. Fondaudége osaba zaarra irauten duan bitartean, kolpeak geldu aal izateko, nik gelditzen ez ba-ditut.. baiñan ameskeri itz jardunaz ari naiz, txorakerietan... edo, ezer

baiñan geiago, iges dagiot, jakiteke, nere zoriona urratu zenuan gau artako oroitzari.

* * > *

Pentsatzea arrigarria da, agian ez duzula gordetzen oroitzia. Ordu aiek, illunpe mee aietan igarotako gela onetan, erabaki zituzten gure etorkizun bideak. Auek banatuagoak gelditzen ziran zure itz bakoi-tzaz, eta zu ezertaz oartzeko. Milla oroitz zozoaz zure memoria gainez, ez gauz izan ondamen onetaz ezer jasotzeko. Eta pentsatzen dut, bizitz bukaera gabeko beste bizitza batean sinisten duzun orrek, gau orretan nere bizitza lotu eta saldu zenuala. Bada gure maitasun lenengoak tirtirikotu ba-uinduan, zure bizitzak ixurtzen zuan fede ta aintza giroari buruz. Maite zindudan, eta maite nituan zure ixpiritu izatearen osakaiak. Ikasle-soiñeko luze artaz belaunikatzen ziñanean biotz-be-ratzen nitzan...

Lerro auek idazten ari naizen gela onetan bizi giñan. Calése, ra, nere amaren etxera, zer dala-ta joan giñan gure ezkontz txangoa bu-katurik geroz? Nik ez nuan ontzat artu Calése guretzat ematea, bere egintza zalako eta beratzaz txoraturik zegoalako. Aldi batez beran-duago oartu nintzan, nere gorrotoa gizontzeko, asiera batean konturatu ez nintzan xeetasunaz, edo ikusi izan nai ez nituanak. Aldiz lenengo, zure sendikoak aitzaki-edo artu zuten osaba baten eriotza, Bretaña batean oitu bezela ezkont-jaiak kentzeko. Ain ziur, lotsaz ziran alako ezkontz nolabaitekoaz. Pbilipot baron jauna ez zan gelditu bazter guz-tietan esatez, bere koñatatxoa Bagnérez-de-Luchon, en mutil zoraga-rri bategaz maitemindu zala, au etorkizun oneko eta aberats-aberatsa, baiñan illuna jatorriz.

—Azkenik —zion— ori ez da famili bat.

Nitaz mintzatzen zan jaiokera garbikoa ba-nintzakean. Baiñan gutxienez interesgarri zitzaion ez nualako lotsaz beteko ninduan sen-di-tartekorik. Itz batez, nere ama adintsua, nun-nai azaltzeko gai omen zan, eta bere tokian jartzen alegintzen zan oietakoa. Laburtuaz, zu ziñan, itxura danez, umegorri mimatu bat, zure gurasoetaz zer-nai egiten zenuana. Eta, nere aberastasuna alako izugarrikeriz jazten za-lako, Fondaudége, tarrak ontzat eman zezaketean ezkontz ori, eta beste ezkontz guztiak bazterrarazi.

Xaltxa eta ika-mika auen berri jakin nuanean, ez zidaten beste

ezer eraktitsi muiñetatik nenkiana baiño. Ezertxoren garrantzia ematea debekatzett zidan nabai zorionak. Eta orretzaz gaiñera aitortu bear dut, ea ixilkako buztartze orretaz negozio on bat egin nuala. Nun deduzko gizonik arkitu, buruzagi izan nintzaian gose-pasatutako mutil gazte aien artean? Atzo nere etsai ziran aien artean nere lenengo urratsak ematea nere oillarkeriak galerazten zidan. Bertaratttze ori guztiz erreza egingo zuati gure ezkontz dizdiragarriak. Neronek galzten dut nere izen ona aitorketa onetaz, ezkutatuko ez ba-dut nere izakeraren berezitasunik; nere iritziekin ieiala naiz. Gai onetaz, nere ezkontzak pizt-arazi zituan ene erraietan damu-zimiko zenbaitzuek. Nik zure gurasoei itz-agindu egin nien ez nuala deus ere egingo zu zure erlijio oituretatik okertzeko, baiñan beartu bakarrik beartu ttintzan, írankmasonerian ez nintzala bazkidetuko. Gaiñera, ez zenu-ten ezer pentsatzen, beste edozertako bearkizunetzaz. Garai artan, erlijioa emakumeen arloa besterik ez zan. Zure munduan, senarrak "bere emazteari laguntzen zion mezetara": auxen zan ipiñitako araua. Ori bai, Luchon, en agerttt nizun ez zirala orrek nazkarik ematen. Venecia, tik itzuli giñanean, 85 garreneko Agorrillan, aitzaki bat bi-llatzen jakin izan zuten. Cenon, go bere gazteluan, guri arrerik ez egiteko, gela guztiak okupaturik zeuzkatelako-edo beren adiskideak eta Philipotarrak. Beraz, iduritu zitzaigun askoz mesedegarriagoa genuala aldi batekotz nere amaren gelak bizitokirako artzea. Ez zJgun ezeren pi-korrik ematen berarentzat izan genuan gogortasunaren oroitzak. Eroso txit zeritzaigun, neurrian, berarekin bizitzea. Eta ontzat entan genuan.

Amak ez zuan arrokeririk erabili. Etxea gurea zala, ziurtatzen zigun. Guk gogozkoak genituan guztiak errezibitu genitzazkean. Eze-reztu eta txikitu egingo zala eta íiun ez ageriko. Zion :

—Ba-dakit uts biurtzen.—Baita ere : —Kanpoan egoten naiz ea egun osoan.

Alaxen, arretatsu ibili oi zan bere maatstiaz, tolarez, ollotegiaz eta lixuz. Afari osteati, une batean bere gelara igotzen zan, barkatze-ko eskaturik egon-gelan baldin arkitzen ba-giñan. Kox-kox jotzen zuan atean sarti aurretik, eta oar egin nion ori eginbearrik ez zuala. Eskeñi zitzaizun, baita ere, etxea bere zaindupean artze-ko, baiñak zuk ez zenion eman orrelako tristurarik. Bestaldetik, inbiririk ez ze-nion batere. A! berarenganako zenuait amoreemate ura! Eta berak zuri izan zizun esker-on umil ura!

Berangandik ez ginduzun zuk banatu, berak beldur izan zuan araberaz. Nere ezkontz aurretik baiñan maitekorrago ere azaltzen nintzan. Gure par zoroak arritu egiten zuten; senar gazte zoriontsu ura, ez zan azkenean, bere semea baizik, aiu luzaro bere barruan giltzaperatua eta ain gogorra. Pentsatzen zuan, ez zuala jakin izandu nitaz jabetzen, eta berarentzat askoz goragoko maillakoa nintzala. Zuk konpontzen zenuan berak eragin zuan okerra.

Oroitz naiz ere aren zukanako lillura argi-txapelak eta danboliñak margozten zenituanean, edo abesten zenuanen, edo pianoa jotzen zenuanean gai batez zaleturik beti : Mendelson, en "itz-gabeko romanza bat".

Iñoiz edo beste agurtzera joaten zitzaizkizun ezkongai ziran zure zure neskalagun batzuek. Eta oar egiten zenien :

—Ezagutuko duzute nere amaiarreba. Berealdiko emakumea be-
ra! Ez daude bi bera bezelako baserritar andre jatorrik.

Benetako jarkera ikusten zenuan beragan. Bere morroiekin erabiltzen zuan izketa-modua guztiz gorengoa iduritzen zitzaizun. Amak amabost urte zituaneko degerrotipoa erakusten zenuan, oraindik sedazko pañueloaz azaltzen zana. Ba-zenuan alako bertso txo bat nekazari sendi zaarri buruz "noble asko baiño nobleagoak.. ". Bai kidetasunezko izan ziñala aldi artan! Amatasunak aztoratasuna itzuli zizun.

Gau artako kontakizunaz atzera dagit betiro. Ain beroa izan zalarik bearturik gerta giñan leio-sareak zabalik uzteko, naiz-eta zu izua izan xaguzarrekin. Guk ongi aski ba-genekigun, etxearen ormetan astigar orrien igurtzia zala, iduritzen zitzaigularik ere beti norbait ba-zebillela arnaska gure gela barruan. Aldiz, euri-jazaren marmar itxura artzen zuan aizeak osto artean. Illargiak, sartzerakoan, lurra eta gelan zabalduko gure soiñeko zurbillen momoak argiz jazten zituan. Ez genion entzun larratz murmulariari, bere farfara ixiltasun biur zalako.

Eta esan zenidan :

—Dagigun lo. Lo bear dugu egin..

Baiñan gure lazotasunaren itzul-inguruan erraiñu bat ba-zebillen. Arrubeekoz gora ez giñan bakarrik igotzen. Eta Rodolfo ezezagun ori jalgitzen zan, berpizten nuana zure biotzean zukan nere besoak lotzen ziran bezin laister.

Eta zabaltzen nituanekoz, gure artean zala igartzen genuan. Ez nuan nik nai sufri, sufritzeko beldur nintzan. Irauteko sen ori zorionean ere azaltzen bai-da. Naitanaiezko zala zuri galderak egitea, ba-

nenkian. Gure bizilz gain-azalean ur-ponpoillo bat lez izen ori lertu dedin, lagatzen nuan. Ur-geldien azpikotz lo zetzan zimaurretik kendu aal izateko zipitzik ere ez nuan egiten, usteldutako ezkutapen ori. Baiñan zuk, gizagaiztoko orrek, bearturik zeunden itzekin azkatzeko zure grin itxaropengabea eta gosetia. Aski gauz izan zan galdera bat irrixta egin zidala :

—Ea bada, nor zenuan Rodolfo edo dalako ori?

—Gauz asko dira esan bear nizkitzunak... 0! Ajolazkorik ezebez, lasai zadi.

Abots larri eta txepelez ínintzatzen ziñan. Zure burua ez zan atsedentzen nere bizkarraren sakonean. Gure gorputz etzanak banantzen zituan tarte ezereza, igarogaitzekoan biurtu zan.

Austriatar andra eta Iparreko industri-gizou seme bat omen... Aix, en ezagutu zenuau, zure amonarekin joan ziñanean, gu ezagutu giñanetik urtebetez aurretik. Cambridge, tik etorria zan. Zeazketik ez zeiidan eman, baiñan bat-batean erantsi nizkion, neronengan aitor-tzen ez nituan doai guztiak. Ulargiaren argiak argitzen zuan nere esku zaintsua, azkazal-motzekoa, maindirearen gaiñean. Esaten zenidanez, ez zenuan, egiz, ezertxo ere txarrik egin, bera errespetotzaille kaxkarragoa eta errespeto gutxiagokoa izanik ere. Zure aitorketa oietatik ez du ezer zeatz ar nere memoriak. Zertan zitzaizkidan ajola? Orretaz ez bai-zan ezeren ziorik. Maite izan ez ba-zenuan, konsolaturik geldituko nintzan galtzaille izate labor orretatik, ain zuzen umetxo baten garbitasuna ere pulunpatzen ba-da ere. Baiñan dagonerako galdez nintzan :

"Nolaz baiñan izan nau maitatzerik, maitasun aundi orren urtea osatzeke danean?".

Izoztu egiten ninduan izuak.

"Dan-dana gezurra izandu da —pentsatzen nuan—; gezurra zaka-tu dit; ene burua ez nuan azkatu. Nolaz, ordea, sinistu izandu dut maita zezaidakeala neskatil batek? Maitatzen ez dan gizon bat naiz".

Goiznabarreko izarrak dris-dris ziran artean. Zozo bat esnatu zan. Aizetxiparrak, bere murmurra nabaitutakoa ostoen tartean gure gorputzetan baiñan lenagotik, leio-zapiak arrotzen zituan ta nere begiak freskatu, nere zorioneko aldi aietan bezela. Eta bizirik zegoan zorion ori. Amar minutuz lenagotik bizi-bizirik egon zan : Eta, alarik ere, dagoneko pantsatzen nuan : "Nere egun zoriontsu aiek . .".

Galdera bat. egin nizun :

—Ez al zuan zugandik ezer onartu?

Gogoratzen naiz oraindio nolatan samindu ziñan. Belarrietan baidabilkit oraindio alakoetan ateratzen zenuan abots berezi ura, zure arrokeriari buruz zanean. Noski bai, bera guztiz lilluratua eta puztua zegoan Fondaudége tar batez eskontzeko. Baiñan bere gurasoak jakin egin bai-zuten zuk bi anai galdu zenituala, gazterik galdu gaitxepelez jota. Mutillaren osasuna ere aula izaki, bada famili ark ez zuan ametorik eman.

Nik patxaratsu galdetzen nizun. Ezertxok ere ez nuan egin zuri konturatu arazteko zer jartzeu zenuan apurtzeko zorian.

—Au guztia, maitea, zeru-gauz bat izandu da gu biontzat —esan zenuan—. Ba-dakizu zeñien farfaillak dituzun nere gurasoak; parregarrixamarrak, aitorketa dizut zor. Aitortu dezaizuket, bada, gu bion au lortzeko bearbearrezkoaa izan zala ezkontz ura eten zedilla, zauri bizian ziztaturik nere gurasoek, eri zitzala. Ezjakin bat ez zaitut ez jakiteko zeñien garrantzi aundia ematen zañon gure maillakoen artean, ezkontz baten aurrean, osasunari. Gure jolasaren berri ba-zekiala uri guztiak, iduriturik zegoan nere aina. Eta iñork ez zuala ezkondu naiko nitaz. Santuak jazteko-edo geldituko nintzala zan bere iritzia. Zeñien bizitz lakarra eman izan dutana, bere ondoan, illabete luze batzuetan! Nik, nere garratztasunaz naikoa izan ez ba-nuan bezela... ! Buruan sartu bai-zigun ere, neri bezela aitari, "neskazarretako" gelditua nintzala.

Nik, berriz, fiakaitz egingo zindudakean itz txikiena ere baztertzeu nuan. Eta zuk berresaten zenidan guztia zeru-bidalketa bat izau zala gure maitasunarentzat.

—Ikusi orduko maitatu zindudau. Lourdes, en otoi egin genuan, Lucbon, era joan baiño leen. Jabetu nintzan, zu ikusi zindudanean, gure eskariak onartuak izan zirala.

Itzok nigan sortarazten zuten amorru-bizia susma ere ez zenuau egiten. Zuen marinarioak ba-dituzte ezkutuan, erlijioari buruz, goi-maillagoko iritzi batzuek zuen iduripenez ezin litezkeanak eta berberak ere ez dakizkitenak zer. Ori ez ba-da, zer dala-ta minberatzen dira ain era kaxkarrez praktikatzen duzutelakotz? Gauz txaldan bat, iduritzen ez ba-zaizu beñepin lurreko gauz arruntenak eskatzea Jaungoiko orreri, Aita deitzen diozuten orreri... Baiñan, onek guztiak

ajolarik ote? Zure itzetik, bai zure gurasoenengatik ere, argiturik zetorren zu bezenbat zure familikoak ere gose-egarriz irauliko ziñateia lenen-lenengoz arkitu aal izango zenutean karakol baten gaiñera.

Egundo, minutu ori arteraiño, zer-nolako ezberdintasuna zuan gure ezkontzak, ez nintzan jabetu. Bear-bearrezkoa izan zan zure amak burua galtzea, erantsitzeko gero bere zorakeria zure aitari eta zuri. Jakin arazi bai-zenidan ere Philipotarrak amenazo ere egin zizutela, zugaz ez zutela ezer jakin naiko nigaz ezkontzen ba-ziñan. Bai, Luchon, en par egiten genion bitartean, kaikutzar arek emanik zituau urrats guztiak Fondaudége, tarrak prestatu zitezen gure ezkontza urratzeko.

—Baiñan, ene maitea, ni zurekin nintzan, eta berak galdu.

Bein baiño geiagotan berritu zenidan, zuk ez zenuala, benetan, ezertaz damurik.

Mintzatzen lagatzen nizun. Eusten nion nere arnasari. Rodolfo, rekin zoriontsu bizitzerik ez zenuala izango ziurtatzen zenidan. Ego-kiegia zan. Ez zuan maitatzen; maita zezatela laga, bai. Nork kendu zizun ez zan ajolazko.

Aitatu utsaz zure abots ber-bera ere aldatzen zala, ez ziñan jabetzen; ez zan ain zolia, alako dardara bat ba-zuan, urrumatsua, zure baitan etenik ba-leude bezela aintzin asperenak, eta Rodolfo izena bakarr orrek aantzi oiek azkatzeko gai izan ba-lira bezela.

Berak, zoriontsu ez zindun egingo polita zalako, lilluragarria eta maitatua. Eta onek esan nai zuan, zure poztasuna izango nintzala nere arpegi itxusiari esker, eta gizartetanunik gabarik nintzalako, biotzak urrutiratzen nitualako. Zuk zenion esanetara, Cambridgen, ikasi duten mutillen jarkera aspergarriaz egin zan, englandarren jarkeretatik artuak, ain zuzen... Bereziki naiago al zenuan traje baten oiala aukeratzan gauz ez zana, edo korbataren korapilloa egiten ez zekiana? Kiro-lak nardatzen zituana eta erabiltzen ez zuana arinkeri berezi ori, izketaldi garrantzidun oiek baztertze doai ori, aitorketak, esanaldiak, zoriontsu eta doaitu bizitzeko jakinduri ori? Ez; zorigabeko artan egin zenuan errepara, zure amari "neskazar" geldituko zifala buruan sartu zitzaion urte artan, urte artan an arkitzen zalako baizik. Gogorik ez zenualako, eta ez zenualako jarraitzerik ezkongai beste sei illabete geiago; bear ainbat diru bai-bai-zegoan ori aitzaki onesgarria izateko munduaren begi aurrean...

Nere arnas larriari eusten nion, ukabillak estutzen nituan, ta azpiko ezpafiñari ozk egin. Gaur onek ikarutzen naunean, nere gorputzari eta nere biotzari ezin pairatu ditutalarik bestez, 1885 garrean gazte nintzan artaz pentsatzen dut. Ogeitairu urteko senar artaz, bularra loturik bere beso gurutzatuekin itotzen, asarre-bizi, bere maitasun gaztea.

Dardarikaratu nintzan. Oartu ziñan eta zure izketa eten.

—Luis, otzaz al zaude? Otzikara bat besterik ez zala izan, erantzun nizun.

—Ez zaude, noski, susmaberriturik. Kirtenkeri aundiegia litzake...

Gezurrik ez nizun zakatu nigan orrelako kezkarik ez zegoala zin egin nizuanean. Nolaz ulertuko zuan ,bestela, drama sentimen ontatik gaindik ernaritzen zala?

Eta zeñen sakontasunez zauritua izan nintzan jabetu orde, larritu bai egin zizun, ordea, nere ixiltasunak. Zure eskuak nere bekokia billatua zuan illunpean, eta ene arpegia goxoki igurtzi. Eta malko batek busti ez ba-zuan ere, agian esku orrek ez zituan ezagutuko nere beso maitekorrak nere gogortutako arpegian, matrail-ezur estuetan. Beldur izan zenuan. Argi-zuzia pizteko nere gaiñetik erdizka makurtu ziñan. Eta zure gorrotagarrizko gorputz-pean ni ito.

—Zer duzu? Dan-dana esan dizut. Beldur damaidazu.

Arritu itxurak egin nituan. Eta ajolik litzaizukean ezer ez zegoala, zin egin nizun.

—Bai toutolapikoa zerala, maite, ni izua-arazten. Argia itzaliko. Noan lotara.

* * *

Geiagorik ez zenuan itzegin. Egun berri aren jaiotza begiztatzen nuan, nere bizitz berria zekarkidan egun ura. Enarak garraxi zegiten tellatuetan. Eskalapoiak lorrean, patioa igarotzen zuan gizon batek. Orain entzuten dutan oro, berrogeitabost urte diranetik onuntz, entzuten nuan orduan : oillarrak, kanpaiak, merkantzi-bultzi bat zubia igarotzean.. Eta orduan arnas artze guztia gaur dut, gaur dagit arnas; maitea dutan usai-gozo ori; aizeak itxasaldetik dakarren autserrearen usai ori, larre sutuetatik. Bat-batean, erdizka exeri nintzan.

—Isa, Superbagnères'ko bide bazter batean giñan gau artan, ne-

gar egin zenuan gabea, berarengatik negar egin al zenuan?

Erantzuten ez zenidalako, zure besoa artu nuan, eta zuk atzeraka ken abere baten kurrink-marrakaz. Jiratuaz, bizkar eman zenidan. Zure ille luzeen azpikotz loak artu zizun. Egunsentiko íreskura nabaitu zenuanean, edozein moduz bota zenituan maindireak zure kizkurtutako gorputz gaiñera, abere gazteak lo dagiten bezela mataxatua. Zergatik, baiñan, esnatu aurtxoan loaldi orretatik? Zuregandik jakin nai nuana, ez al nenkian bada?

Otsik egin gaberik altxa nintzan. Armario-izpillurairño ankutsik joan nintzan, ta neure buruari begiz-jo besteren bat ote nintzalakoan, edo, obekiago esan, nere egizko senera itzuli ote nintzan: maitatu izan ez zuten gizon artara, iñork munduan nekaldu ez zan gizon artara. Erruki izan nuan nere gaztaroaz; nere menditar esku lodiak irrirts egin zuan bizartsu neukan matrail luzean, dizdizera gorrizko bizar gogor batez illundua.

Itxilik jantzi eta baratzara jetxi nintzan. Larrostegi artean zegoan ama. Etxea aizez berritzekotan, morroiak baiñan goiztarrago jaikitzen zan. Ikusirik, esan zidan :

—Freskuraz aprobetxatu nai duk, ez da? —Eta itz-erantsi, zelaidi guztia estaltzen zuan goiz lañoa erakutsirik : —Gaurkoa egun sargoria izango. Dana itxiko diat zortziretako.

Oitura nuan baiñan samurtasun aundiagoaz muxu eman nion. Eta aopekoz berak marmartu :

—Maitea...

Nere biotza —arritu egiten zera nere biotzatzez mintza nadin, ez da?— nere biotza puzketan ebakitzeko zorian zegoan. Dardarrez etorri ziran itzak nere ezpaiñetara... Nundik asi? Berak, zer ulertu ote zuan? Beti erortzen naizen bide errez bat dut ixiltasuna.

Terrazarairño joan nintzan. Maastien gaiñekotz igalidun zugaitz ziztrin batzuek marrazkatzen ziran. Muñoetako tontorrek lañoa altxatzen zuten, etenaz. Laño aldetik, eleiz-torre bat jaiotzen zan; gero, eleiza, bidebatez, gorputzki bizi bat bezela goitaratzen zala. Eta iduritzen ba-zaizu ere gauz auek guztiak ez ditutala ulertzen... konturatzen nintzan, bai oartu, minutu orretan, ni bezela atsekabetutako gizaki batek arki dezakeala gal-zorian esan-naia eta arrazoia; gerta litekeala gal-zori orrek zerbait esanbearrekoa eduzkitzea, gertakizunak, biotzari dagozkionak batezere, aitzindari batzuek izan ditezkeala bal-

din ba-dakigu ezkutuan dakartena ulertzen, interpretatzen... Bai, gauz izan naiz, nere bizitzaren ordu zenbaituetan, gai izan naiz zureganatu bear ninduten xetasunak aurrez ikusteko.

Alaz eta guztiz ere, au guztia ez zan goiz artan izan ez ba-da une bateko biotz-zimikoa. Etxeruntz joaten ikusten naiz ondiño. Artean zortzirak ez ziran ta eguzkiak berotzen zuan. Leiotik barna agertzen ziñan, burua makur, ille-xorta esku biltzez eta orrazten bestearekin, Ez ninduzun ikusten. Alditxo batean, burua altxaturik, begira egon nintzaizun, oraindik ogeitamar urte buruan nabaitzen nuan nazkaren mingotsa zetorkidalarik.

Laisterka joan nintzan nere idazkaritzaraiño, eta giltzaz itxitako kutxatilla iriki nuan. Pañuelo txiki zimurtutako bat atera nuan bertatik, ain zuzen Superbagnères'ko gau artan zure malkoak txukatzen erabilitakoa eta nik, kaikutzar onek, nere bularrean estutu nuana. Ito nai nukean zakur bizi bat izango ba-litza bezela, arri batez lotu nuan, eta gure etxean *gouttiu* deitzen diogun zingirara jaurti nuan.

V

Orduantxe asi zan ixiltasun aldi luzea, berrogei urte ondoren ea urratu gabea. Etenketa onetatik ezertxo ere ez zan argitara irten. Nere zorion denboretan bezela jarraitu zuan guztiak. Bion aragiak ez zuten gutxiagoz elkaturik jarrai, baiñan Rodolfo'ren momoa ez zan berriz jaio gure besarkadetatik, eta zuk ez zenuan berriz izendatu izen zaputz ura. Zuk egin zenion deiaz bein etorri zan, gure oiaren inguruan ibili zan eta baita buka bere apurtze lana. Ez zitzaigun besterik gelditzen ixiltzea baiño, ondorengo bere ekintz luzeari itxoin, eta emaitzak lotu.

Uler zenezakean, agian, itzegiñaz izan zenuan utsegitea. Au oso grabea zanik ez zenuan uste, baizik, bakarrik, gure izketaldietatik izen ura baztartzea zala egokiena. Ez dakit jabetu ote ziñan gu biok ez genuala itzegiten leenago bezela gauetan. Buka-eziñeko gure berriketaldiak bukatu ziran. Ez genuan itzegiten leendik antolatutako zerbaitetaz ez ba-zan. Erne bizi giñan, zu bezela ni ere,

Gaberdiz esnatzen nintzan, nere sufrimenduak esnatzen ninduan. Zepoari axaria bezela nengoan zurekin bat. Bururatzen zitzaizkidan

zer-nolako izketaldiak izango genituan gogorkiro astindii ba-zindudan, ta oetik bera jaurti.

"Ez, nik ez det gezurrik esan —oiukatuko zenuan—, maite zindudan-eta".

"Bai, gaitzerdi bat bezela, eta erreza dalako aragiaren baliaketa betiro edukitzea, ezer esan nai ez ba-du ere, lagunari sinistarazteko maite zaiola. Ni ez nintzan "amalauzanko" bat. Maitatuko nindua lenengo neskatillak, zernai gauz egin zezakean nerekin".

Zenbaitetan, zotinka nintzan illunpean, eta zu esnatzeke.

* * *

Aurra izateko jarri ziñan lenengo aldiak egin zuan, bestaldetik, argitasun bat alperrikakoa izatea, gure artu-emanak aldaturik. Maas biltze aurretik agertu zan. Urira itzuli giñan; baiñan aur-galtze bat izan zenuan, eta aste batzuetan oean gelditu bearra izandu zenuan. Asko zaindu bearra izan zenuan. Orduan asi ziran ernaldi urte aiek, ezbear eta aurregiteak, aitzaki ugari emanik zugandik urrutiratzeko. Eragabekerizko ezkutu bizitz batean murgiltzen nintzan, guztiz ezkutoak, auzi-lan asko sortzen zitzaizkidala; beti "nere gauzetan", bai-nengoan, amak zion bezela, eta nere izen ona bai-zijoan bertau. Nere orduak eta nere oiturak nituan. Probintzi uriburuetako bizitzak aunditzen bai-du lizunetan eiztarien maltzurkeria. Lasaitu zaitetz, Isa; beldurtzen zaitun uraxe esango dizut. Ni, ea egunero jeixten nintzan inpernu ori ez da ikaratzekoa. Zuk erauzi ninduzun bertara; bertatik ere atera ninduzun zedorrek.

Lilluratu egingo zinduztan, nerez gutxiago begiratu izan ba-nintz. Huberto jaio zanetik saldu egin zenuan zure egizko izaera; ama ziñan, ama eta ez besterik. Zure ardurak iges egin zuan niganako. Ni ez nintzan ezer. Garbiroki esan, egia zan zure aurrentzat bakarrik zenituala begiak. Nik egin bai-nuan zu aurdun jartzean, nigandik itxaron zenuana.

Nere semeak sabel-zomor ziran bitartean eta aintzakotzat nik ez ar, gure artean arazoak ez zuan izan jaiotzerik. Alkar ez genuan ikusten, ez ba-zan oituetako ekintza oietan, ain zuzen aragiak gizonaren eta emakumearengandik ain urrun gertatzen diranean.

Nintzanik ere ez ziñan konturatzen, umetxoen inguruan ikusten

ninduzunean ez ba-zan. Eta niganako gorrotoa artzen ez ziñan aasi, umeengan nituan nere eskubideak aurrez-aurre azaltzen asi nintzanean baiño. Egitera ausartzen naizen aitorketaz poztu zaite: aitatasunak ez ninduan bultzatzen orretara. Kezkatu egin ninduan txit laister zugaran sortu zuten grin orrek. Bai, zu zigortzearren alegindu naiz aurrak zuri kentzen. Arrazoi aundiak erabili nituan; bearkizunaren naitanaiezkoa jartzen nuan aurrenekotz. Ez bai nuan nai jainkojale batek nere semeen gogoa alda zitzanik. Auetxek ziran ematen nituan arrazoiak. Baiñan onetaz zan guztia, ain zuzen.

Kondaira onetatik irtengo ote naiz bein edo bein? Zuretzako asia dut, eta dagoneko eziñezkoa deritzait aldi luzez jarraitu dakizudan. Benaz, neronentzat idazten dut-eta, Aspaldiko lege-gizon baten autzera auzi-gaiak bidean jartzen ditut, ene bizitzako zati guztiak or-emen ipiñi, galduta ba-dut ere arazoa. Eskil oiek. Pazkoa biar asiko. Egun santuaren aintzaz ospatu dezagun, jetxiko naizela agindu dizut.

—Aurrak kejaz dira ikusten ez zaituelako —esan zenidan.

Gure alaba Jenobeba zure alboan zan, zutik, nere oetik urbil. Bera eta ni bakarrik geldi gindezen, atera ziñan. Zeredozer zuan neri eskatzeko. Pasilloan egin zenuten itz-marmarra entzun bai-nuan :

—Obea dun ik lenengoz itzegitea —mintzo egiten zenion Jenobeba'ri.

Phili polit orretaz, bere sui orretaz zala ziur naiz. Arazoa azaleratu ez dedin, izketaldiaz aldatzen oso trebea biurtu naiz. Aalik ezin ezer esan gabetanik irten zan Jenobeba. Bai-bai-nenkian berak zer nai zuan. Egun batzuek aurrekotz entzun bai-nuan, goiko saloiaren leioa zabalik zegoanean nerearen gaiñetikotz; zertxo bat makurtzea besterik ez nuan izan. Diru batzuek aurreratzea besterik ez zan, kanbio eta truka negozio baterako Philip'ek bear zituanak. Iífundik ere, oi bezelako beste diru-ipintze bat .. Nik onetaz ezer ez banenki bezela, orain dirua giltzapean gordetzea bearrezko ez ba-litzake bezela Igaz egin nrian guztia ba-lekitekete usmatu nuala Bolsa berantza zetorrela .

* * *

Guztiak atera dira bezperetara joateko. Etxeak, baita kanpoak uztu ditu Pazkoak. Fausto zarraren antzo, bakarrik gelditu naiz ludia-
ren poztazunetik-at, zartzaro txar au dala-ta. Bazkaritakon belarri-

zabal egonak dira, nere ezpaiñak zer zioten Bolsa, tzaz, negozioetzaz. Huberto'rentzat mintzatzen nintzan geienik, ezer egin ez zezan, artean garai onean ba-zebillen... Aren irrika neri entzuteko... ! Ona emen gizon bat bere jokoa gordetzen ez duana! Zuk, bere semeak ardura batek jaten dituala ikusten, ama batek, setatsu jan-azpilla betetzen dizkien bezela, betetzen zenien ta indarrean beenik jan-arazi, onek guztiak konpontzerik ba-lu bezela. Eta furrust egiten zizun berak, nik garai batean ene amari zakar ekiten nion lez.

Eta zer-nolako leguntasunez betetzen zuala gero nere edanontzia Phili gazteak. Eta bai gezurrezko arreta bere emaztearen, Janine txikia.

—Aitona, ez zenukea erre bear. Zigarro bakar bat ere geiegi duzu. Ziur al zaude ez zaituela engañía, kafeinik gabeko akeita dala?

Txiki gaixo ori teatrolari kaxkarra da, eta gezurrezko otsa dute bere itzak. Bere abotsa, bere abotsaren ematea, osorik ematen du. Zu ere, gazterik, itxuratia ziñan. Baiñan zure lenengo izorraldiatik aldatu ziñan guztiz. Eriotzaraiño izango da Janine guztia jakingo duan andra bat, berriturik entzun duan guztia eta berezia iduritu zaien guztia, gauz guztiei buruz esandako itzak berresango ditu, ezeretik ezer ulertuko ez ba-du ere. Nolaz baiñan Philipo, ain azaltze garbiko, benetako zakur leial bat, bizi liteke ñaño txiki orren ondoan? Baiñan ez; beragan guztia gezurrezkoa da, bere griñak ezezik. Antzerkilari txatxar bat da bere begietan ez dualako ezerk garrantzirik. Bere mai-tasunatik-at ez dago ezer.

Arrizko malladian eseri giñan guztiok bazkal ostean. Janine ta Phili'k Jenobeba, bere amari begiratzen zioten otoika bezela. Eta, bidebatez, berak zuri begiratu. Keñu ikuskaitz batez ezezkoa eman zenuan. Jenobeba'k, orduan, altxa eta esan zidan :

—Aita, nigaz ibillalditxo bat egitea nai al duzu?

A zer nolako ikaraz jarri zifáten! Erruki izan nuaii berarentzat. Eta asieran mugitzeko gogoz ez ba-negoan ere, altxa nintzan ta bere besoan lotu niitzan. Belazari jira eman genion. Gaiñerantzeko senditarrak arrizki-ixkalleretatik begiztatzen ginduzten. Bat-batean ekin zion bere arloari.

—Phili, tzaz itzegiu nai dizut.

Dardar zegoan. Gure semei ikaraztea izugarria da. Ordea, iduritzen ote zaizu irurogei urtez urrikalgaitza egon litekeala bat? Adiñ orretan ez da geiago aldatzen izakeraren itxura. Eta arima, gogoa,

etsipendu egiten da kanpora irten ezin duanean. Jenobeba'k, laisterka kentzen zuan antolatutako guztia bere gaiñetik. Bere suiaren negozioatzaz zan. Kezkarik gabe, ospinduko ninduan guztian ari eta ari jardun zan; bere iritziz, Phili'ren alperkeriak kolokan jartzen zuan bere etxeko etorkizuna. Neurririk gabeko bizitza eramaten asi bai-zan Phili. Bai nik erantzun, bere sua bezelako mutil batentzat, "negozio" orrek ez zuala balioko estalgarri geiagoz izateko baiz:k. Bere alde irten zan bera. Phili, gaz guztiok pozik geunden.

—Janine berarekin dan bezin gogor ezin gindezke izan.

Aurka egin nion, ta esan, ez nuala ez epaitzen ez zigortzen. Zaldun aren maite-jokabideak ez zitzaizkidan interesgarri.

—Agian ,ardurutzen ote da bera nitaz? Zer dala-ta izan berarengatik ardura?

—Asko miresten zaitu

Ajolik gabeko gezur onetaz baliatu nintzan, gordeta neukan guztia botatzeko.

—Onek ez du galeraetzen, ene alabatxo, zure Phili orrek "kokodrilo zaarra" esan dezaidan. Ez protestarik egin; nere atzekaldean esaten, zenbaitetan entzuna dut; ez dut ukatuko: kokodrilo bat naiz eta izaten jarraituko. Kokodrilo zaar bategandik ez dago ezebez itxoiterik, deus ez, bere eriotza baizik. Eta geiegikeriaz erantsi nion : Eta Eriotza ber-berak ere, oi dituan bere gauzatxoren batez irten liteke.

(Auxe esateaz zeñen damu naizen, aurrez jakinarazteagatik damu!).

Jenobeba, beldur-izu, marmarioz zan, izengoiti onen laido orreri garrantzi aundia ematen niola iduriturik. Gorrotatzen dutana Phili'ren gaztetasuna da. Nolaz baiñan bururatuko zitzaion berari zer esan nai zuan aiton zaar eta baztertutako begientzát, mutil garaille ori, mutiltzen asi zanetik gaiffiezka eta okitua nik iñioiz, eunki erdi batean, ezagutu ez nituan guzti artaz? Zapuzten eta gorrotatzen ditut guztiak. Beste edozein bati baiño geiago, ordea, orreri. Leiotik barna, zer-baiten usaiera sartu oi dan katua bezela sartu da gure etxean, maltzur urratsez. Nere illobak ez zeraman eskontz-sari polit bat baizik, bai bestalde ordea, berealdiko itxaropenak! Lortu aal izateko, gure gorputzen gaiñetik igaro bearko dute.

Malkoak txokatuaz, negar-zotinka zalakotz, abots adierazgarriaz mintzatu nintzaion :

—Alabaiñan, zuk ba-duzu senar bat, ron edariaz bizi dana. Alfredo koitao-on orrek ez du nekatu bearrik bere suiari gizabide on bat billa-zen. Nik bai al dut zergatik izan zuek zeok baiño esku-zabalago?

Abots-tartarrez aldatu zan Alfredo gizaixoaz itzegiteko.

Ura destaña! Ura atsekabea! Berak zionez, egunetik egunera bere negozioen zenbakiak urritzen zijoakion lotsati bat zan. Etxe artan, leentxuago ain aundizkia ,egun ez zegoan bi laguntxorentzat tokirik.

Zorionak eman nizkion mota ortako senarra zualako. Ingurumu-ru dabillenean ekaitza aize-oialak bildu bear dira. Alfredo,, k bezela, gutxi ikusten dutenentzat oi da etorkizuna. Gaurregun, doai-eza da lenengo berezitasuna negozioetan. Izekaz ari nintzaiola uste izan zuan, iritzi au sakondurik baldin bazegoan ere nigan; nigan, dirua giltzapean gordetzen dutan nigan, Aurrezki-Kutxa, ren arrixkuan jarriko ere ez nintzakealako.

Etixeruntz itzuli giñan. Ezer geiagorik esaten ez zan ausartzen Jenobeba. Orain ez nintzan babesten bere besoan. Familiak, batzarturik exerita, eltzen giñala ikusi ginduzten eta, zalantz gaberik bururatu zitzaizkien ezaupide okerrak. Ain zuzen, gure itzulerak ebaki zuan eztabaida bat Huberto eta Jenobeba sendi artean. Ene! Bai burruka ikusgarria nere diru-gordeak zirala-ta, eskua irikitzen ez nuan bitartean! Phili bakarrik zan zutiñik. Bere ille gogorak aizeak eragintzen zituan. Beso-motz zan bere alkandora lotu gabe zeraman. Beldur daginea oraingo mutillok, neska atletika auk. Aur-masail bereak gorritu ziran, Janine'n galdera ankerrari : Ederki. Maxiatu duzute?" nik, goxoki onela erantzun nionean: "Kokodrilo zaar batetzaz mintzatu gaituzute".

Bein eta berriz : itz-gaizto au ez da nere gorrotoaren sorkera. Berak ez dakite zartzaroa zer dan. Zuek ezin antz artu nekaldi orreri; ezer ez euki izandua bizitzan eta ezer ez itxoiterik eriotzarengandik. Mundu onen ostean ez dagoala ezer, iñolako argibiderik ez dagoala, adikaitz zaigun itza iñoiz ez dezaigutela argitu... Baiñan zuk, zuk ez duzu sufri nik sufri dutana; ez duzu sufrutuko nik sufritzen dutana. Zure eriotza ez dute itxoiten semeak. Bere erara maite zaitue; badizute maitasun. Zure alde bereala jarri dira-ta. Nik maite nituan. Jenobeba'k, berrogei urtedun dan emakume lodi orrek, bere suiñ moñoño orrentzat bereala milla laurleko lareun diru-paper ken nai ziz-

kidan orrek, nere belaunen gaiñera saltatzen zuan neskatil ura gogorazten dil. Nere besoetan ikusi ordukotz, deitzen zenion Baiñan aitorketa onen azkenera ez naiz iritxiko, gaurkotasuna atzokotasunez naasten jarraitzen ba-dut. Aalik egin nai dul itxura jator batez jarraitu dezadau.

VI

Ez dut uste gorrotatzen zaitudanik zoritxarreko gau aretxeri jarraitu zion urtetik. Pittin-pittinka jaio da nere kezka, niganako jabetasunaz batera zuretzat besterik ez zala, negar-marrakak zegizkiten seme oiek baizik, oiuz eztarrian eta sabelean gosea zuten seme oiek zirala zure oro, argi ikusten asi nintzanetik, noski. Oartu ez bai-zin, ogeitamar urte bete gabe nintzanarreu, lanez zamatutako erri-legegizon batean biurtu nintzala, eta gai orretan maixu gazte bat bezela agurtzen nindutela auzitegi orretan, Paris, koen ondoren ospe aundienekoa Frantzian. Villenave auziaren ondoren (1893) gaizkin-legegizon trebe bat bezela berezitu nintzala ere (txit zailla da lege mota bi auetan gaillentea), eta zu izan soillik jabetu ez zana zeinen izen zabala lortu nuan nere eginkizun orrekin. Urte erretan ,baita ere, guda agirikoan biurtu zan gure konpon-eziña.

Villenave auzi otsaundiko orrek borobildu zuan nere garaitza, baiñan bai estutu ere lepoko soka; agian itxaropen bat einan zezaidakean, baiña agerkizun bat eman zidan : ni ez nintzala ezer zure begietarako.

Villenave, tarrak —euren kondaira beenik gogoratzen al zera—? ezkondu ziranetik ogei urtera, ba-zioten alkarri maitasun bat ura alako. Esaten bai-zan. "Villenave, tarrak bezin alkarriak". Bere seme bakarrarekin bizi ziran, amabost urteko mutil bat, Ornon, go gazteluan, uri-nagusiaren sarreran; bixitalari gutxi artzen zituzten, berak bakkarri naikoak ziralako.

—Nobleetan bakarrik ikusten dan maitasun oietako bat— zure amak zion, aurrez autolatutako esanaldi aietako batez, eta ain ongi ikasia gero Jenobeba, k.

Drama orretaz erabat atzendu, aaztu zerala zin egin nezake. Kontatzen ba-dizut, parregingo duzu nitaz, egin oi zenuan bezela oroitzen

nizkizunean, bazkal bukaeran, nere ikasle-azterketak, nere oposizioak.. , baiñan ainbatez txarkiago. Goiz batez, bizitzaren zainketa zuan morroiak entzun zuan, lenengo bizitzatik zetorrena, pistola baten dunbota eta aantzizko oiua bat. Laisterka ekin zion gorantza. Giltzaz itxia zegoan nagusien gela. Abots zotillez esandako itz batzuek entzun zituan, zalaparta latz bat eta urrats batzuek laisterka-bizi garbigelan. Une bat geroxeago, kriketa igitzez gelditu ez zalako, atea iriki zan. Villenave oe gaiñean zegoan, alkandora utsean ta odol-estaliz. Villenave andra, iEeak naasi, bata batez jantzia, oe aurrean zutirik zegoan pistola eskuan. Eta zion :

—Villenave jauna, tiroz eraso dut. Otsegin, bereala, sendagillera, zirujanoari eta polizi-buruzagiari. Emendik ez naiz mugituko.

Berarengandik ez nuan lortzerik izan aitorketa au baiño : "Nere senarra tiroz eraso dut", eta auxe Villenave jaunak berak egiztatu itzegiteko duin izan zan bezin laister. Onetzaz gaiñera, ukatu ere egin zan beste xestasunik emateko.

Akusatuak ez zuan nai izandu legegizonik aukera. Bere adiskide baten suia nintzan, eta ofiziozkoa aukera ninduten defendi nezan; baiñan egunero joaten nintzaiolarik ere ikustalditxo bat egitera espetxean, ez nuan ezer geiago izan ateratzerik emakume tematsu arengandik. Zentzugabeko ixtori ugariak ba-zabiltzan urian, bera zala-ta. Ene buruari dagokionez, errugabe zalako ziurtasunez lenengo egun beretik nintzen. Erantzukizun guztia bere gain artu zuan, ta senarrak, maite zuan-eta, ontzat artzen zuan emazteak egiten zuan akusazioa bere buruari. O! maitatuak ez diran gizonen usai-doaia beste batengan dijoan griña usaitzeko eta sumatzeko! Ezkontz maitasunaz beretik zegoan emakume ura. Bere senarrari ez zion tiroa jaurti. Bere gorputzaz gorde ote zuan bada, etsitako maitale batengandik? Bezpera ezkerotzik, iñor ez zan sartu etxean. Etxe artara maiz etorri zitekean adiskiderik ez zan.. Azkenik, dizut kontatuko orain kondaira zaar au.

Epaikarietan itzezin bear nuan egunaren goiz artaraiño, ukatze jokabideari eustea erabaki nuan, bakarrik adierazteko Villenave andrak ezin zezakeala erailketa ura egin, zalatua zegoan bezela. Eta azken minutuan, Ives gaztearen aitorketa ondoren, bere semea zanak (eman zuan argitasuna uskeri bat izanik, auziari buruz argitasun izpirik eman ez zualako)otoi eta agindu egiten zion bere amaren begi-

ratu aietaz testigoen leku utzi zuan arte, eta amak orduan agertu zuan pozkidaz tarrataratu zan estalgarria izan zana: orduantxe zalatu nuan bere semea, gaixoturiko gazte ura, bere aitaren inbiriz zana maitatuegia zalako. Burutapen beroaz, asmatzen joan nintzan nere itzaldi ura, gaur txit otsaundiz oroitua, bertan, F. irakasle jaunak airtortzen duan bezela, bertan bere erakuspenen oiñarriak arkitu ditualako eta berritu, ein batez, gaztediaren izakera eta neurotikoen terapeutika.

Oroitz auetaz baliatzen ba-naiz, ene Isa maitea, ez da ez dutalako itxaropenez etsitzen, zugan sortuko dutala, berrogei urte buruan, nere garaitzaren unean niganako ez zenuan lillura, ain zuzen bi munduko izparringiek nere argazkia argitaraltua zuanean. Baiñan zure niganako utzikeriaz zeñen bakar eta baztertua nengoan adierazten zidan garai ber-berak, asteetan jarri zidan begi aurrean, ene espetxe-gelaren lau orma artean, nolaz emakume ura geiago sakrifikatzen zan bere semea salbatzeko, bere senarraren semea salbatzeko, bere abizenaren oiñordekoa. Berak, ilgai izan zan senarrak, otoikatu zion :

—Aitortu zaitez gaizkille.

Eta emazteak urrutietaraiño eraman zuan bere maitasuna, ludiari sinistarazi arteraiño gaizkille bat zala, munduan maite zuan gizaki bakarraren eraillea zala. Ezkontz-maitasunak bultzarazten zuan orretara, ez amatasunaren maitasunak... (eta gertakizunak egiztatu dute : bere semearengandik banatu bai-da, eta aitzaki ugariak onengandik urruti beti bizitu da). Villenave izan zan bezela gizon maitatu bat izan nindekean. Bera ere ikusi nuan bein baiño geiagotan epai-jardunetan. Zer zuan nik baiñai geiago? Gizon egokia zan, etxe onekoa, zalantzik gabe, baiñan oso burutsua ez zan izango. Egiz demostratu du, epai-jardun ondorean muturrak jarri dizkitalako. Eta nik, nik ba-nuan iñolako doai bat. Une artan izan ba-nuan maite ninduan emakume bat, noraiño iritxiko ote nintzan? Bere buruan fedea, ezin du bakarrak gorde. Bear-bearrezko da gure indarraren testigo bat izan dezagun; ezagutu-araziko duan norbait, puntuen zenbaketa eramango duana, koroiratuko gaituana saritze egunez, aintziña batean bezela, ikastol-sari banaketan, liburuz zamatua, jendeen artean nere auiazen begiak billatzen nítuanean eta, militar-eresi batez, urrezko txurbeltxak ipintzen zituanean nere buru kazkamotz xamurraren gaiñean.

Villenave arazo egunetan, nere ama itzaltzen asi zan. Poliki-poli-

ki joan nintzan konturatzen. Totto-tsakur beltz batez zuan gogoia, zaunkalari arrunta bertaratzen nintzaionean, izan zan bere erorialdiaren ezaugarri lenengoa. Bixita bakoitzean geienik abere onetaz mintzatzen zan. Eta ez zuan berak aditzen nitaz esaten niona.

Bestaldetik, ezin txandaz ar zezakean nere bizitzaren erortzen orretan salbatzeko bear maitasuna. Odolean eman bai-zidan dirua maitatzeko grin ori; odolean zeraman su au. Erabiliko baizituan bere indar guztiak irabazpide batean ni eukitzeko, berak zion bezela, "asko irabaziko" nuan langintzan. Literaturak bereganatu ninduanean, dei egin zidatenean idatzi nezan izparringi eta aldizkari nagusienak, ezkerreko alderdi politikoak La Bastide batean aldun izendatu nai nindutenean —nere ordeaz azaldu zana aixa aukeratua izan zan—, nere aundinaikeria baztertu nuan ez nualako etsi nai "asko irabazi nai nualako".

Onen zale ziñan zu ere, eta jakinarazi zenidan probintzia ez zenuala utziko. Maite ninduan emakume batek nere aintza nai izango zuan. Eta erakutsiko zidan bizitzeko artea, doaia, griii mokor bat beste grin aunditsuagoagatik aldatzeau zegoala. Periodista ergelek, asarre-itxuretan jarduntzen diranak onelako edo alako legegizona aldun edo ministro izateaz baliatzen diralako lan-sari onuratsuk eskuratzeko, obekiago jokatuko luteko begi onez begiratuaz jakin izan dutenei bere griñen malladiak burutsu ipintzen, ta arazo dirutsuak baiño politikan aintza lenen aukeratzen jakin dutenei. Nigan sendatu zenezakean akatsa, maite izan ba-ninduzun, oraingo irabaziaz gaiñetik ezertxo ere ez ipintzea izango zan, esku-arteko lan-sari txaldana lagatzen ez jakitea agintarien itzalarengatik, ez baitago itzalik errealdadea edo izanik gabe; erraiñu be-bera izan bat bai-da. Baiñan, puf! Nik ez nuan beste konsolagarririk "asko irabaztea" baiño, izkiñeko dendariakbezela.

Ona emen gelditzen zaidana : urte ikarragarri oien luzaroan irabazi dutana, gaur eromenez kendu nai didazute diru ori. A! Nere eriotzean gozamenaz izango zeratela idea bakarra, eramangaitza zait. Asieratik esan dizut, nere neurriak artu nituala ezertxo ere gabe gelditu zaitezten. Aditzera eman dizut baztertu nuala bengantza au... Baiñan nere biotzean bizirik diraun gorrotoaren goraberatzaz ez jakitea zan. Eta zenbatez urrutiago joan, dardara nere.. Itzulian ba-dator, ordeaz, eta loi-ugiñak itotzen naute.

Orain, Pazko auen ondoren, zuen Phili orren mesederako, diruz-larrutzeko emanik duzuten erasoen geroz, eta zakurtalde ori osorik ikusi dutanean bilduta exeririk, ate aurrean ni zeletatzen, buru-ausle zaizkit banaketa oiek; zakurrak bezela burukatuko bai-zerate nere lur eta diruen itzul-inguruan. Zuenak izango dituzute lurrak, baiñan balorerik ez dago. Orri auen asieran aitatzen nizkitzutenak lenago astean salduak ditut preziorik goienean. Jeixten asi dira orain. Itxasontzi guztiak poto dagite lagatzen ditutan bezin laister; iñoiz ez naiz engañatzen. Milloi garbi-garbiak ere izango dituzute; nik nai ba-dut izango dituzute. Xox bat arkitu ez dezazutela erabakitzen ditutan egunak ba-dira.

Entzuten dut zuen artaldea malladiak igo-ala marmarka. Gelditzen zerate; esnatuko naizenen beldurrik gabe mintzaten zerate —gor bat naizela etsi bai-duzute—; ate azpitik ikusten dut zuen argiontziaren argi-txiparra. Phili, ren abots-medarra ezagutzen dut —aldatzen ari zaiola esan diteke— eta, bat-batean emakumeen par-algarak eta olla-lob krakakoak. Zuk errita egiten diezu, bai esan :

—Ziurtasunez dasaizuet ez dagoala lo.

Nere ateraiño bertaratzen zera eta entzun-adi jarri; zerrailu zuloatik begiratzen duzu; nere argiontziak zalatzen nau. Zakur taldera biurtzen zera. Ziur aski, aopeakoz esaten dezu: Oraindik esna da; entzuten dizue...

Eta aienatzen dira danak, anka-punttaz ibilirik... Kirrin-kirrin egiten dute ixkallera maillak. Banan-bana ate guztiak itxitzen dira. Pazko gabaz, bikoteaz bete da etxea. Eta adarki gazte auen enbor bizia ni izan ninteke. Guraso geienak maitatuak dira. Zu nere etsaia zera, eta nere semeak arerioetara pasa dira.

Aurre eman bear zaio guda oni. Ez dut indarrik idazteko. Eta, alabaiñan, ez dut oeratu nai, etzan, ez da nere biotzaren zoriak orrela eskatzen duanean. Nere urtez, loak eriotzaren ardura dakar, eta naita-naiezko zaigu eriotz ba-geunde bezela ez azaltzea. Zutik nengoan bitartean bai-bai-dirudi ez duala etortzerik Eriotzak. Agian, beldur geien damaidana gorputzaren kinka ote, edo azken kurrunkaren kinka? Ez, eriotza bai-da izaki ez dana, keñuaz besterik adierazi ezin litekeana.

VII

Gure semeak aurtzaro lenengoaren linboan bizi izan zirarr bitartean, gure etsaigoa ezkutuan egon zan; giro aztuna zan gure etxean. Zure niganako baldantasunak, neri zegokidan guztiarentzat zenuan ajolakabetasunak galerazten zizuten nabaitzen ta sufritzen. Gaiñera, ni ez nintzan lekuko. Bakarbakarrik gosaltzen nuan, amaiketan, eguardia baiño leen. Justizi Epai-Etxera irixteko. Nere buru guzt'a eskatzen zuten nere arazoak, eta zuk ba-dakizu jakin zertan erabiltzen nuan íamilian izan nezakean denbora guztia. Zer dala-ta neurrigabekeri ínee ta beldurgarri ori, aitzaki zaion oitura oroz kendua, benetako beldurrara txikitua, sentirnen izpirik gabe, xamurtasun txiki eta gezurtutako itxura gabeko ori? Nik arkitu nezakean atsegin mundua txorabiatzen dan abentura oietaz. Ene urteetako abogadu batek, ezin ote zitzakean ezagutu, agian, zenbait berba labain? Negozio-gizonaz aparte, emakme gazte askok gogoia izango zuten gizona axaxatzeko.

Nik galdu nuan, baiñan, gizakietan fedea, edo, ezer baiíío geiago, emakume bati gustagarri izateko aalkera ura. Lenengo begiratuan argi ikusten uuan bizirik zekarten gogoia, gaizkidetasuna nabaitu eta oartu gabe igarotzerr ez zitzaidan deia. Aurrez-asmaturiko ideia, alegia emakume guztiak etorkizun bat izateko bide billa zebiltzala, jelatu egiten zituan nere sentimenak. Zer dala-ta ez dut aitortuko maitatua ez nintzala ziurtasun baldurgarriaz gaiñera, ba-nuala ere aberatsaren ikara, deskonfiaturik eugañatua eta explotatua izango ote dalakoan? "Pensio" batez egin nizun, eta ongiegi zenekian nolakoa nintzan xox bat geiago itxaro aal izateko agindutakotik. Au ere, bestaldetik, au ongi borobildua zegoarr ta bere zenbakiatik ez ziñan íñoiz igotzen. Ezeren beldurrik ez nuan nabaitzen alde onetatik. Baiñan, gaiñontzeko emakumeak! Emakurneetan, maitale interesgabeak batetik, edo dirua besterik billatzen ez dutenetakoak bakarrik dirala uste duten kirten oietakoa nirtzan. Emakume geienetan esktraz lotuta joango ez ba-lira bezela maitasun gogoia, mantendu bear izateaz, zaínduak eta txurikatuak... Irurogeitazortzi urteekin berriro ikusten naiz, argitasun batekin bai zeirbait orduetan zaunkatu eraziko zidana, baztatu dutan guztia, eta ez doaiez baizik fiakaitzkeriz eta zuurkeriz. Zenbait alkar-

tasun, izaten asi orduko lakatzki okertzen ziran, ba-diteke nere xpiritu kezkatia eskaera txikiena gaizki artzen nualako, ba-diteke ere ongiegi ezagutzen dituzun nere setakeriak gorrotagarria egiten nindutelako; jatetxe batean edo kotxeroren batekin izaten nituan eztabaidak, eskupekoak tartean ziranean. Aurretik jakin nai izaten dut zer ordaindu bear dutan. Atsegin zait guztiak izan dezala bere ordain-neurria. Ausartuko ote nintzake lotsagarrikeri au esaten? Agian nere abentura aietan geienik lillurutzen ninduana, gauz guztiak izan zezatela bere ordain-neurria. Baiian onelako gizon batean zer-nolako lokarria legoke biotzaren naia eta gozamenaren artean? ez bai-zitzaidan iñoz iduritu ere biotzaren naiak ase zitezkeenik; jaio orduko itotzen nituan. Maixu bat biurtu nintzan sentimen guztiak txautzeko, minutu orretan bertan, borondateak berealdiko ekiña duanean maitasun arloan, griñaren amiltokian gaudenean ain zuzen azkatasun osoaz baztertzeke edo bertan murgiltzeke. Errezenera makurtzen nintzan, aurrez erabakitako salneurriaz lortzen dan orretara. Ez dut gogozko dirua kendu dezaidaten, baiñan zor dutana ordaintzen dut. Nere zurkeria maxiatzen duzute, baiñan onek ez du debekatzen zorrak izan ez dezadan nera naia; guztia eskuz ordaintzen dut. Nere orni-saltzailleak ba-dakite ta bedeinkatu egiten naute. Gauzarik txikiena zorretan lagatzeko pentsamentua bera ezin dut eraman. Onela ulertu dut "maitasuna"; emanaz, emanaz.. nazkagarrikeri aundiagorik!

Ez, nik prezioa erabakitzen dut; neroni lokatzen naiz; maite izandu dut, eta agian, maitatua izan naiz... 1909 garrenean, nere gazetetasunaren arratsaldean Zergatik ixilik gorde gertakizun au? Zuk ezagutu duzu, nere egoitza konkretatu bear nuan egunean, gogoratzen jakin izan zenuan. Etxeirakasle txiki ura nik salbatu nuan; aur-iltzaille bat bezela persegitzan zuten. Asieran, ezkerturik irauli zan nigana; geroz. Bai, bai, nik urte artan ezagutu nuan maitasuna; asekaitza nintzalako galdu nuan guzra. Ez bai-zeritzaidan asko iduritzen eskasaldia edukitzea, mixerian; bear-bearrezko zitzaidan nere mendean egon zedilla beti, iñor ez zezela ikus, artu, utzi, eta berriro ikus, nere maiñak agintzen zutenean ta nere txolart-aldietan. Nere gauz bat zan. Izateko, erabiltzeko eta abusatzeko nere seta ori gizakietaraiño zabaltzen zait. Jopuak bearko nituan. Bein bakarrik ikusi nuan biktima ori nere eskabideen neurrian. Baita bere begiratuak, zeletatzen nituan Baiñan gauza auetaz zuri denbora galdu ez araz-

teko zin egiña, aaztu zait. Paris, era joan zan; geiago ezin zuan.

—Gu bakarrik ba-giña ulertzen ez zaitugunak sarri itzberritu didazu baiñan danak zaitue beldur, danak dagizue iges, Luis. Ikusten duzu.

Ikusten nuan... Zuzentza-Etxean bakarti bat izandu naiz beti. Abogadu Elkarte Batzarreko aal zuten beranduena aukeratu ninduten. Nere aurretik ainbeste makalek egon ziralako, ez nuan nai orrelako agintaritzarik. Barrubarrundik, beñiere nai izandu ote dut? Gezur-aparretan ibiltzea beartuko ninduan, jendei arrerak egitera. Aintza auek oso garesti ateratzen zaizkit; penarik ez du balio. Zuk, bai, nai zenuan, aurrengatik uai zenuan. Neronenez ez duzu sekulan nai izandu ezer.

—Egizu aurtxoengatik...

Gure ezkontzari jarraitu zion urtean izan zuan zure aitak lenengo gaitz-erasoa, eta Cenon gatzelua itxi. Calése, koa artu zenuan bereala! Nigandik, ez duzu onartu ezer nere lurak izan ezik. Nere lurrean erroitu zera, gure zuztarrak alkartu aal gabetanik baiñan. Maria, gure txikia, emen il zan, ta bere eriotzak ez zuan eragin zugan bear zan beldurra; sagaratua da zuretzat bere, ainbeste oñazez, il zan gela. Emen klokatu dituzu zure umeak, emen zaindu beren gaitzaldiak, emen gau-logabeak egin dituzu seaskaren ondoan ta emen "galtzerdiak egin dituzu" etxe-irakaslearekin eta giltzamekin. Zagasti auen tartean lotutako soketan legortu ziran Maria, ren jantzitxoak, lixu xalo ura. Saloi onetan, Ardouin abadeak aurrak biltzen zituan piatioaren inguruan, ta taldean abestarazi, beti-beti eleiz-kantak ez ba-ziran ere nere asarrea ez piztearren.

Udara-arratsalde aietan, atadian erretzen, bere abots zoliak entzuten nituan Lulli, ren eresi au abesten : *A ! baso auek, larros aueh, itur, auek.* ! Bidalia nabaitzen nintzaii zoriontasun baretsu artatik, galerazi zidaten amets eta garbitazunezko lur zati artatik. Maitasun paketsua, nengoan arkaitzetik urrats batzuetara iltzen zan ugin makaldua, noski.

Saloiean sartzan nintzanean abotsak ixiltzen ziran. Izketaldi guztiak mozten ziran bertaratzen nintzanean. Liburu batekin aienatzen zan Jenobeba. Maria zan bakarrik nere beldurrik gabe. Otsegin ta nere albora etortzen zan. Sendoro estutzen nuan nere besoen artean, baiñan atsegiñez babesten zan bertan. Txoriaren bere biotza dardarka

entzuten nuan. Azkatzen nuan bezin aguro, egan zijoan lorategiraiño.. Maria!

Laister kezkatu ziran aurrak inaiertzen ez niutzalako, eta nere ostiraletako txuletak zirala-ta. Baiñan gu bion arteko burrukak, euren begirapean, beldurgarritzko txinpart gutxi ezagutu zituan, sari galtzaille gertatzen uintzalarik. Galtze bakoitzean atzetik satorraren burruka zetorren. Gertakizunen tokia Calese zuan, ez bai-nintzan beñere egoten uri uagusian. Baifian Zuzentza-Etxeko oporraldiak batera izan oi ziran Ikastolakoak. Agorrileak eta Iraillak emen batzen ginduzten.

Gogoratzen naiz arpegiz-arpegi topo egin genuan eguna, txorakeri bat esan nualako jenobeba irakurtzeu ari zelarik. Ixtori Sagaratuaren bere ikaskaia. Nere semeon ispiritua zaintzeko nere eskubideen alde mintzatu nintzanean, aurka egin zenidan beren gogoen zaintzea bearturik ziñala-ta. Ordurako bein edo zapaldua izandu nintzan, ontzat eman nuanean Josulagunekin Huberto, k ikasi zezan, ta neskatoak Biotz-Sagaratuaren Ikastolan. Fondaudé sencliak oiturari buruz nere begietan izan duten izen-onari ameto egin nion. Baiñan ordaiñak artzeko egarri nintzan; egun artan, baiñan, nere ajolarik aundiena zan, zerk buruan galeraziko zizun ura aitatzea, zure baldantasunagatik atera-araztea, niganako ernaitasunez ipiñi zure gorrotoren bizkarretik izango ba-zan ere. Arkitu nuan, azkenik, elkarri erasotzeko lekua. Eskuak erabiltzeraiño beartu zindudan. Erljio-eza ez zan izan neretzat baizik itxuraketa uts bat irrist egin zezaten nekazari txiki aberastutakoen apaldurak, baztartutakoa bere lagun burgesengatik. Eta orain betezen nuan ere maitasun etsipenarekin ta ea bukaerik gabeko gerroto batez.

Bazkaitarakoan piztu zan eztabaida. Galdetu nizun ea zer gozamen ar zezakean Gizaki-Betikorrak izoki-tortilla bat aragi-egosiaren tokian jaten ikusita. Maia laga zenuan. Gure semeon begiratu gogoratzen naiz. Zure gelan alkartu nintzan zurekin. Begiak legorturik zenituan. Patxara aundienaz itzezin zenidan. Aldia izan zan ura jabetu nintzana nik uste ainbat ez zala zure ardura nigandik urrutiratu. Gure banaketa egiteko bideak ikasteko idazki batzuen eskuetan zeneukan.

—Aurrengatik bakarrik iraun dut zure ondoan. Baiúan zure egoeta arrixku bat baldin ba-da curen animentzat, une bateko zalantzarik ez dut izango.

Ez, zu ez ziñan zalantz izango, ni ez eta nere dirua lagatzeko. Zeiñen zerekoa zeranik ere, edozein nekaldi artuko zenuan Dogma-ren osotasuna aur oietan bizirik eukitzearren, eta oituren batuketa ori, egintz eraketak..., erokeri ori.

Maria ilda geroz zuzendu zenidau itz-gaitoz betetako zure eskuti-tza ez nuan oraindik jaso. Zu ziñan indartsuena. Bestaldetik, nere egoitza beldur dardaratuko zan gure arteko arazo batekin. Garai artan, ta probintzietan, gizartea ez zan pozkidatzen onelako gauzetaz. Ni francinason nitzala jendeak jakin zuanean arrotu zan itz-naasketa; mundutik at lagatzen ninduten nere gogakizunak. Zure sendiaren izen ona izan ezik kshte aund'a egin zidaten. Eta, batezere banantzera eldu ba-giñan zure ezkontz-sariko "Suez" akzioak itzuli bearrian izango nintzan. Oitu bai-nintzan akzio oiek nereak bai-lira ikusten. Laga bear-ko nituala burutapena ikaragarria zitzaidan. Kontuan izan gabarik zure aitak pasatzen zigun "onenbesteko" ura..

Buruz makurtu eta ontzat einan nituan zure eskabide guztiak, baiñan bai artu asmoa ere azke nituan ordu guztiak aurak nereganatzen erabiliko nituala. 1896'gko Agorra, ren lenengoetan artu nuan erabaki au; beste garai bateko uda kiskal eta itunak nere biotz-gogoan naasitzeu zaizkit, eta emen idazten ditudan oroitzak ea bost urteko tarte osatzen dute, 1895, tik 1900 garrenera.

Ez nuan uste zail izango zitzaidanik umeak nereganatzea. Nere adimen argi eta sendi guraso baten izen onarekin kontatzen nuan. Nere baitan uste nuan, ume jolas bat izango zala amar urteko mutiko bat eta bi neskatxo nereganatzea. Oroitzean dut zeñen arritu arduratu zitzaizkidan bere aitarekin ibilaldirxo bat egitea eskatu nioten egun artan. Patioan exeririk ziñan, zillartutako astigar baten kerizpean. Eta begietaz galdetu zizuten berak.

—Baiñan-baiñan, ene maiteok, ez duzute neri baimenik eskatu bearrik.

Eta joan giñan. Aurrei, nolaz itzegin bear zaiete? Neri, Erri-Epai-kariaren aurrean ere biguntzeko oiturarik ez dutanari, ez-eta aldezlariaren aurrean, ez-eta zigor-zalatari nabillenean ere, ez da ere epailendakariak ber-berak beldur dion ikusle asarre baten aurrean jardutean ere. Ba-diotet, ordea, beldur aurrei ta erri-xeari, baita seme natorren menditar oiei beldur. Euren aurrean burua galtzen dut, itz-totel biurtzen naiz.

Gutziz atsegiñak ziran txikiak nerekin, baiñan kezkatu rik zeuden. Iru biotz aietaz aurretik jabetua izan ziñan; ezagunak zitzaizkitzun euren eldu-bide guztiak. Eurretan zure baimenarik gabe ibiltzea eziñezkoa zan. Arranguratsuegia nola ni txikituko euren begien aurrean, ez zenien gorde izandu bear-bearrezkoa zala otoitz asko egitea "aita gaixoaren" alde. Egiten nuana egin nazala, nik toki berezi bat ba-nuan beren munduan; aita gaixo bat bai-nintzan ni, otoitz asko egin bear zana lortu aal izateko onbidera itzuli nedin. Erlijioari buruz nik esan edo adierazi nezakean guztiak, indartu egiten zuan beroietan nitaz egiñik zuten irudia.

Mundu zoragarri batean bizi ziran, eleizkor ospatutako jaietz tanttotua. Eurengandik guzti-guztia lortzen zenuan egin berri zuten lenengo jaunartzeaz mintzaturik, edo egiteko antolatzen ari ziñanekotaz. Calése, ko zurubietan abesten zutenean gabaz, ez nituan beti Lu-Ui, ren eresi-urratsak entzuten, baizik salmoak.

Urruñetik nenkusan zuen talde naasi-illuna, eta illargiaren argira iru iduri txikiak oiñez bereizten nituan. Arri-kazkarrean egin-urratsez ententzen nituan abestiak.

Igande bakoitzeko aruntz-onuntzkoak mezetarako gertatzen, esnatzen ninduten. Beti zenuan utsegiteko beldurra. Zaldiak irrintzi zegiten. Atzeratu zalako, sukaldariari otsegiten zitzaion. Umeen batek eleiz liburua aazturik laga zuan. Abots zoli batek galdetzen zuan :

—Pentekostes urrengo igandea al dugu au?

Itzulerakoan muxu ematera zetozkidan, eta ni oraindik oean. Maria gure txikiak, ain ziur zekizkian otoitz guztiak egiña ni salbatzearren, arreta biziz begiratzen zidan, itxaropenez, eta kezki gabe, nere arima-izatean aurrerapenen bat gertatu ote zan edo.

Ark bakarrik ez ninduan mintzen. Zuk erabiltzen zenituan sinis-menak bere bi anaiek artu zituztenean, patxarazko burgeskeri sena orretaz, ausarta doai izugarri oien baztartzailleak izatera iritxi arte-raiño geroxeago, bai-eta kristau eromen aintzagarri orona. Maria, n, ordea, ba-zan ernagarri zan su bat, morroientzat ixpiritu-leguntasun bat, lur-partekarientzat eta txiroentzat. Berarengatik au zioten:

—Duan guztia emango du. Eskuartearen dirurik ez zaio geldituko. Guzti au oso polita da, baiñan zaindu bearra izango dugu.

Baita ere :

—Guztion ontasuna artzen ba-daki, baita bere aitarena ere.

Beartu gaberik etortzen zan nere belaunetara, gaua etortzean. Nere bizkarrean burua ezarririk loak artu zuan bein. Nere masaillean ki-lima zegiten bere illearen kizkurak. Naigabetu egiten ninduan mugieziñak, eta erretzeko naia nabaitzen nuan. Alabaiñan, ez nintzan igitu ere egin. Gero, bederatzietan, bere umezaia billa etorri zitzaionean, neronek igo nuan bere lo-gelaraiño eta zuek ao-zabalik begiratu zenidaten ez eta ba-nintzakean ere bere martiri-txikiak miliskatzen duan basa-aberea. Emendik egun batzuetara, Agorra, ren 14 garreneko goizez, Maria'k esan zidan, eta ba-dakizu nolatan egiten duten umeak :

—Nik eskatuko dizudana egitan, agindu zaidazu Lenengoz einan zaidazu itz, eta nik gero esango zer.

Urrengo egunez, amaiketako mezetan, zuk abesten zenuala gogorarazi zidan, eta bai esan eder litzakeala zuri entzutea joan nedilla.

—Agindu didazu ! Itzeman didazu! —muxuka esaten zidan— Zin egin didazu!

Itzulian nion muxua baiezkorra zala, uste izan zuan. Etxeko guztiak jakin zuten. Zaindua-edo nabaitzen nintzan. Iñoiz eleiza zapaltzen ez zuan jauna, urrengo egunez niezetara joango zan. Garrantzi aundiko gertakizun bat zan.

Aldi luze batean disimula ezin izandu nuan asarre-giroan exeri nintzan maiean gauean. Dreyús, engatik ez dakit zer galdetu zuan Huberto'k. Gogoratzen naiz nolatan asarre-bizi eraso nizun eman zenion erantzunarengatik. Maia laga nuan eta ez nintzan ostera etorri. Maleta antolatu nuan, eta Agorra, ren 15 gko. egunsentiaren seiretako bultzia artu nuan ta berealdiko egun txarra igaro nuan Burdeos uts eta itogarri batean.

* * *

Guzti onen ondorioz nolaz ikusi nazuten ostera Calése'n arrigarria da. Zergatik igaro ote ditut beti zuen ondoan nere oporraldiak, txango luze batera irten bearrian? Arrazoi makatzak bururatuko litzaizkidakke. Egia esan, bigarren gastua ez egitearren zan. Ez dut beiñere sinistu izandu, etxea itxi eta Iapikoa zintzilikatu gaberik iñor ibillaldira irten litekenik ainbesteko diruketa barreatzera. Ezeren gozamenik ez bai-nuan artuko andik-onerako ibiltze orretan jakiñik nere atzetik etxe bateko gastua utzi nuala. Beraz, ene bukaera, guztion ikullura itzultzen zan. Nere bazkaria Calése, n serbitzen ba-zan, nolaz baiñan joango

nintzan beste tokiren batera elikatzero? Onelako zuurkeri-gogoan zan amarengandik jaso nuana, eta nik birtute egin nuana.

Itzuli nintzan, beraz, baiñan alako asarre giroan, Maria berak ezin menderatu izan zuana. Beste jakobide berri bat asi nintzan erabiltzen zure aurka. Leialki eraso bearrean zure sinismenei, antxen nengoan gertaera txikiaren gainean, zure federekin aurka nola jarriko zedorri. Isa gaxoa! Aitortu zazu, orren kristau ona zeranez, joku polita neramala. Aaztu bai-ziñan, bein edo bein ikasia ba-zenuan, maitasuna eta errukia gauz bat dirala. Izen bereaz lotzen zenituan beartsuentzat izan bear ditugun egintzak, eta zuk zeatzki betetzen zenituan be-tikotasunari begiratuaz. Onetan asko aldatu zerala aitortzen dut; orain, noski, minbizia jota daudenentzat arduratzen zera. Baiñan orduan, txiroei lagunduaz gero, zure txiroei alegia, lasai-lasai gelditzen ziñan bearretsiz-eskatuaz zure morroiek zor zizuena. Ez zenien barkatzen au ere etxeko emakumei bere bearkizunetan, al zenuan diru gutxienaz lan geiena egiñaraziaz. Emakume zaar gaixo ura, bere barazki gurditxoaz goiz guztia igarotzen zuan etxaurrean, eta oparotsu lagunduko zeniona bere eskua luzatu ba-zizun, ez zizun letxu bat ere saltzen zuk zure irrika guztia jarri gabetanik xox txastar batzuek nolaz kenduko bere irabazi kozkorrari.

Morroei eta langilleak lan-saria obeagotzeko eskari txepelena egiten zizutenean ere, arrituz ao-zabal jartzen zizuten lenengoz eta gero asarrebizi batez billakatzen ziñan, ain beroa eta ain indartsua beti zuk azken itza izan zenezan. Alako doai berezi bat ba-zenuan jende oiei jakinarazteko ez zenuala ezeren bearririk. Zure ezpaiñetan, bukaerik gabeko itz-zerrendak aundiagotzen zituan zituzten irabazpideak.

—Zuek ba-duzute bizileku bat, ardo-kupel bat, nere lursagarrekin azitako txerri baten erdia, eta barazkiak artzeko baratz bat.

Gizaixoak amets ere ez zuten egiten orren aberats izan zitezkeanik. Ziurtasun osoaz zenion ere zure neskameak sar zezaketeala Aurrezki-Kutxan oso-osorik eta illero-illero neskame sarirako ematen zenezikion berrogei frankoak.

—Nere soiñeko zaar guztiak ematen dizkiot, nere gonazpikoak, nere oñetakoak. Zertarako bear ote du dirua? Opariak egingo lizkioke bere familiari...

Bestaldetik, maitekiro zaintzen zenituan gaixorik arkitzen ziranen. Iñoiz bazterturik ez zenituan uzten eta, aitortzen dut, jeneral-

ki, maitatua izaten ziñala beti eta aldiz aintzaz inaitatua, etxe-auleko etxeoandreek arbuiazen dituzten jende oiengandik. Gauz guzti oietako zure aldi artako iritziak eta giroa aitortzen zenituan. Baiñan egundo ez zenuan aitortu izandu Ebanjelioak inadarikatzen zituala.

—Ara ! —nik nion—Uste nuan Kristo,k esan zuala..

Zor eta lor gelditzen ziñan betiro, naastuta, amorrubizi aurrak zirala-ta. Lokarri-bilkuren erortzen ziñan beti-beti:

—Itzez-itz artzea ez da bearrezko... —itz-ttattarrez zenion.

Eta ni garaille irtetzen nintzan, pozkidaz eta argibideaz azpiratzen zindudan erakustearren ain ziur santutasuna Ebanjelioa itzez-itz jarraitzean dagoala. Eta protestatzeko zoritxar-unea izaten bazenuan, esanik santa bat ez ziñala, goi-agindu au gogorazten nizun : "Oso-osoak izan zaitezte Zeruko zuen Aita dan bezelaxe".

Aitortu zazu, Isa gaixoa, nere erara on asko egin dizutala, eta gaur minbiziz daudenekin pentsatzen ba-duzu, geienik neri zor didazula. Aldi orretan, zure ardura guztia aurtxoan maitasunean zetzan. Zure nekaldi eta outasun gorde guztiak iristen zituzten. Ez bai-ziñan nigandik bakarrik aldendu, baizik mundu guztiarengandik. Eta Jainko berari ere ez zenekian itzegiten ezertaz, ez bazan euren osasun eta etorkizunatzaz. Onetan nuan nik nere indar berezia. Eta galdetzen nizun ez ote bearrezko kristau bideari jarraiki eurentzat opa izatea gurutz guztiak, txirotasuna eta gaitzeria. Berealaxe mozten zenidan itza :

—Ez dizut erautzun nai. Ez dakizunatzat mintzo zera.

Baiñan zure zoritxarrerako, aurrean zegoan maisua, Ardouin abadea, ogeitairu urteko apaizgai bat, bere lekukotasuna gogorkiro eskatzen nuana eta asko beldurtzen nuana, ez bai-nuan tarteko jartzen baizik arrazoi osoa nerea zala ziur neugoanean, ta bera gauz zanean orrelako eztabaidetan bere pentsamentu garbia neri azaltzeko. Eta Dreyfuz auzia aurrera-bidean zijoan bidebatez milla zio arkitu nituan zu eta abadea aurka ipintzeko :

—Judutar zoritxarreko bategatik gudaroztea birrintzea.. —zenion.

Nere ezkutuko asarrea esaldi bakar orrek eragiten zuan, ta ez nintzan gelditzen Ardouin abadeari aitortu arazi arte kristau batek ontzat eman ezin dezakeala errugabe baten eriotza, ez da erri oso baten onerako danean ere.

Gaiñera, alegin-urratsik ez nuan eman buruan sartarazten ez zuri eta aurrei, ez zenutela auzia ezagutzen ez ba-zan izparringietako karikaturetatik. Puzka-eziñeko arri-mokorra osatzen bai-zenuten. Baita arrazoi nuanean ere, maltzurkeriz lortzen nuala iduritzen zitzaizuten. Nere aurrean ixiltasuna gordetzen zenuten. Gaur bezela orduan ere, bertaratzen nintzanekotz eztabaidak amaitzen ziran. Baiñan sarri ez zenekiten txara multzo sendo baten atzekotz gordetzen nintzala eta bat-batean ekiten nizuutela atzeraka egin eziñik gelditzen ziñatela, burruka-erasorako bearturik.

—Mutil on bat da —Ardouin abadeari buruz, mintzatzen ziñan—, txarkerian sinisten ez duan benetako ume bat. Katua arratoiarekin bezela jostatzen da nere senarra berarekin. Orregatik pairatzen du, beldurgarrizko ezin-ikusia baldin ba-die ere apaiz-jantziei.

Egia esateko, aurrez baimena eman nuan apaiz zan irakasle bat etorri zedilla mundutar batek ez zualako udara guztiko ikaskaiak eundaberrogeitamar frankoz emango. Lendabiziko egunetan, gazte beltxaran, luze ta zatitxu, ark, lotsak nagitutakoa, gizaki txepel bat iduritu zitzaidalako ez nuan erreditz bat baiñan aintzakotzago artu. Beartzen zituan umeak ikasten, eguraztera eraman, gutxi jan ta itz bat bederik ere ez zuan esaten. Azken mokaua irentsi geroz, bere gelara igotzen zan. Zenbaitzuetan, etxea utsik zegoanean, piano aurrean jartzen zan-Musikarik nik ez dut deus ere ulertzen, baiñan, zuk zenion bezela, "Atsegiña zan berari entzutea".

Ain zuzen, ez duzu aaztu gertakizun bat uste arazi zaitudana, ezkutuko kidetasun bat sortu zala Ardouin abadea ta nere artean. Egun batez, aurrak adierazi zuten parrokoa inguruan zetorrela. Berealaxe, oi nuan antzo, maastietan igez egin nuan. Hubert, baiñan, billa joan zitzaidan zure izenean; parrokoak ba-zuan neretzat zerbait berealaxe esanbearreko. Gogo txarrez ekin nion etxe aldeko itzulerari, zaar txiki ari beldur aundia bai-nion. Bere konsientzia azkatu bearra zuana, esan zidan. Berak gomendatu bai-zigun apaiz-gai bikain bat bezela, diakono-orde izatera osasun-ezagatik iritxi gabea. Orain, ordea, jakin berria zan, apaiz-gogo-bakartaldi batean, erantsi zioten bere atzerapena zigorraldi batek eragiña zala. Ardouin abadea, bere erlijio--maitasuna ta guzti, biotz-larri bat musikarentzat izan, eta bere lagunen batek bultzatuta, etxetik-at lo egiña zan egintz onetarako dirua biltzeko egin

izan zan konzierto bat entzutera joan zalako Grand-Théâtre, ra. Mundutar besteen tankeraz joan ziralarik ere, ezagutuak izan ziran ta zalatuak. Gaitzpide aundiena "Tais" interpretea zan M^{de}. Georgette Lebrun, egitarauan edo programan zegoala. Ikuskizun artaz, bere oñakutsik eta grekotarren tunika, zidarrezkozko gerriko batez besazpitik eutsia, ("au zan guztia —zioten—; ez da bizkar-babes txiki batzuek ere"), ;ooo! asarreko bat sortu zan. "Batasuna" palkoan, zenbait adiñeko jaun batek otsegin zuan :

—Au gogortxo ere ba-da... Noraiño iritxi gera?

Auxe zan Abade Ardouin, ek eta bere lagunak ikusitakoa. Oker-gille bat Seminario, tik bereala jaurtia izan zan : eta abadea barka tua : funtsezko gizaki bat zan; baiñan bi urtez baztertu zuten bere erlijio-zuzendariak.

Abadea gure konfiantza osokoa zala adierazten, bat egin genuan. Andik aurrera, baiñan, otzatsun aundi bat izan zuan parrokoak apaizgaiarentzat, zeren esaten zuan bezela, iruzurtu egin omen zion. Gertakari onetzaz gogoratzen zera, baiñan sekulan jakin izan ez duzun gauza da, gau artan, terrazan erretzen nengoalarik, ikusi nuala ba-zetorrela niganaruntz obenduaren soin-ebakun beltz eta mearra. Baldarki eskatu zidan barkamen, sartu zalako nere etxean jakinarazi gaberik bere dollorkeria. Ziurtu ba-nion ziurtu bere igesketa artaz jakiñik xaloagoa zeritzaidala, aker egin zidan batbateko irmotsunaz eta bere burua gutxietsitu.

—Ezin nezakean —esan zidan— nere utsegitearen zabala neurtu.

Bere obedientzi-aginduari aker egin zion, bere goi-deiari eta oiturei. Esanbidean sortzen duan pekatuan erori zan. Eta bere bizi guztian ez omen zuan zuzentzerik izango egin zuan kaltea... Ondiño ikusten dut bere bizkar-ezur luze makurtu ura eta bere erraiñua, illargiaren argitasunean, bi puzketan ebakita terrazako baranda zan artan.

Mota onetako gizakien aurka nerez oarturik ba-nengoan ere, eziña zitzaidan iñolako azalutzkeria sumatzea ere alako lots eta min zuanaren. Guri ixildu ziguna bearturik gertatu zala, esan zigun, bere amari, Libourne'n jornalean, lan zegian bere ama alargun gaixoari diruz laguntzearren. Erantzun nioanenan, alegia, neretzat, gertakari aren berri eman bearrik ere ez zuala, zeren seminarioko disziplinari bakarrik zegokion, eskua estutu zidan ta ustegabeko itz auek esan, lenngo aldiz nere bizitzan entzunak eta arrituta bezela laga nindutenak:

—On-ona zera, jauna.

Zuk ezaguna duzu nere parra, gure ezkontz bizitz asieran ere zaiñak tirtirikotzen zizuan parra; ain mezu-gabea, nere gazte aroan ere, iudar zueua nere inguruan iltzeko pozgarri zan guztia. Gau artan, arriturik, par egin nuan apaizgai bikain aren aurrean. Eta, azkenik, itzegiterik izan nuan :

—Ez dakizu abade jauna, zenbateraiñoako parregarria dan esan duzun ori. Ona ote naizen galde zaiozu ezagutzen uautenei. Galde ene sendiari, nere lankidei. Nere izakera gaiztakerian datza.

Naaspillaturik erantzun zidan bai, bere gaiztakeriaz ez duala itzegiten benetan gizon gaiztoa danak.

Lenaz, esan nion :

—Erronka, desapioa dagizut ea nere bizitzan arkitzen duzun zuk ekintz ona esaten diozun orrelako zerbait.

Nere ogibidea aipaturik-edo, orduan erantzun zidan Kristo'ren itz oetaz :

—"Espetxeratua nengoan eta zuk ikertu nauzu".

—Abade jauna, ortan ere ui irabazle. Lanbide intereserengatik egiten dut. Oraindik ez da denbora asko, espetxe-zaindariei ordaintzen nietela, garai egokian nere izena aipa zezaten espetxeratuen belarri-etan... Beraz, ikus zazu.

Bere erantzuna ez naiz gogorotzen. Astigarragen azpikotz ginjoazen. Ene! Zeiñen arriturik geldituko ziñan esan izan ba-nizun atsegintasun apur bat artzen nuala abadearen ondoan nengoanean! Alabaiñan, egia zan.

Eguzkiagaz jaikitzen nintzan eta egunsentiko aize preskoa artzera jeixten nintzan. Abadea, mezetara joaten ikusten nuan. Urrats-ariñaz ibiltzen zan, bere oldozpenetan ain suntsiturik, ikusten ez ninduala askotan berarengandik metro gutxietara igaroagatik. Nere izekaz zapaldu oi nizun garaiean zan, ari eta ari jarduten nintzanean nola ezeztatuko zenituan zure oñarri aietan... Au ez zitzaidan galerazpen, gauzatzaz jabetzeko. Itxurak egiten nituan, zurkerietan edo gogorkerietan arrapatzen zindudan bakoitzean, itxuraz ez zala gelditzen zuengan Kristo'ren espiritu aztarrenik batere, ta jakitun nintzan nere etxe-zapai aspikotz orrelako espirituko gizon bat bizi zala, baiñan guztiengatik aaztua.

VIII

Alazere, zertzelada bat izan zan indarkeririk egin bearrik ez nukeana zu beldurgarrizat jotzeko. 96 garrenean edo 97 garrenean, zeazki gogoratuko zera, noski, garta-egunez, gure ezkontz-anai Philipot baroia il zan. Zure aizpa Marinette'k itzezin zion goiz batez esnatzera-koan, baiñan ez berak erantzun bere itzei. Leioskak iriki zituan ta zaarraren begi zoramenduak ikusi zituan, beeko matrail-ezurra eroririk. Bat-batetan ez zuan ulertu gorputzil baten ondoan lo egin zituala ordu batzuek.

Zorigaiztoko aren testamentu aurrean iñor zuetarikorik beldurtu zanik, ez-bai nago : berealdiko dirutza uzten zion bere emazteari, baiñan ezkontzeke egoteko baldintz batez. Orrelakorik ezean, bere aberas-tasunaren zati aundiena bere illobetara joango zan.

—Bear-bearrezkoa izango zaigu beratzaz arduratzea —bein da berriz zion zure amak—. Zorionez, alkarrri laguntzen diogun sendi bat gera. Umea da-ta ezin bakarrik utzi.

Ortxe-ortxe ogeitamar bat urte izango Marinette'k, baiñau oroi zadiz aren gazte itxura. Zaar batez ezkontzera umilkiro jarri zan, ta sutu gaberik eraman zuan. Bere alarguntzaren bete-bearretara atsegiñez makurtuko zala, une batean ere ez ziñaten zalantz izan. Ezertarako ez zenuten gogoan azkatasunaren zartakoa, lur-azpitik argitasun bate-ra irteera zakar orretaz.

Ez, Isa, ez beldur izan onek damaidan bentajaz baliatu nadin. Berezkoa bai-zan milloi aiek gure sendian gelditu zitezen ta gure semeok balia zitezen. Senar zaarren neskame izateak zekarzkion onura aiek alperrikaldu bear ez zituala Marinette'k, zan zuen pentsakera. Aide on-onak oi bezelaxe jokutzen zenuten. Alarguntasun ura bezin berezkorik ezer ez zitzaizuten iduritzen. Gogoratzen al zera oraindik ezkongai ziñanera? Ez, zati ori bukaturik zan; ama ziñan ta ezer geiagorik ez zegoan, ez zuretzat ez besterentzat. Zure sendia iñoiz ez da berezitu bere idurimenarengatik. Alde onetatik begiratu ezkeroz, ez ziñaten abere arteko, ez gizarteko.

Ebatzi zan, Marinette'k igaro zezala Calese'n alargundutako udara lenengo ura. Pozkidaz eman zuan bere baiezkoa, ez zuen artean adis-

kidetasun txikiena zegoalako, baizik txit guztiz maita zitualako umeak, batezere Maria. Ni, ea ezagutzen ez nualako, bere doaiez ikuturik egondu nintzan asiera batean. Zu baiño urte betez zaarrago izanik, gazteagoa zirudian. Zure ernaldiak zirala-ta zure igikerak askoz aztunagoak egin ziran, baiñan itxuraz beenik, bera osorik atera zan zaar aren oetik. Aur arpegia zuan. Orduko modari jarraiki. Motots ton-tordunez orrazten zan, ta bere illeak, kirru-iUun kolorez, apar-arrozko ziran bere garrondoan. (Gaur aaztutako ikusgarri bat: apar-arrozko garrondoa). Bere begiak, borobillegiak, beti arrituta dagoanaren itxura ematen zioten. Olgetan, nere eskuraz inguratzen nuan bere "erle-gerria", baiñan bere bularraldiaren azikerak eta ipur-txuntxurrenak gaur beldurgartiak idurituko. Aldi artako emakumeak labe-loreak ziruditen.

Arritu nintzan Marinette orren pozik egoteaz. Aurrak jolastarazten zituan, ganbaran buleka jokutzen zuan eta gauaz iduri-bizietara.

—Girgilduta nauka —zenion—. Bere egoeratzaz ez da jabetzen.

Astean jantzi txuriak erabiltzeko baimena ematea geiegia zan, baiñan txartxaz jotze zenuan mezetara joan zedin bere buruzapia gabe ta bere soin-gaiñaren ertzak krespoirik gabe. Aitzaki polita ez zertzaizun eguraldi giro beroa. Zaldiz ibiltzea izan zan bere jolas bakarra bere senarraz. Bere bizitz-azken-egunerarte, Philipot baroiak, zaldi laisterketetan goi mailladun bat, ez zuan galdu goiz bat ere zaldi ibi- Uera bat egin gaberik. Marinette'k bere beor gaztea Calése'ra eraman arazi zuan, ta iñork ezin zezaiokealako lagundu, bakarrik izaten zan zaldilari, bi bider berriketabideko iduritzen zitzaizularik; iñungo kirolik ez zuan egin bear, artean, iru iUabetez alargundutakoak, baiñan zaldi gaiñean eguraztea zaindu zezaiokean iñor gaberik, marka guztik zapaltzea zan.

—Gure sendiak zer pentsatzen duan esango diot —beti ari ziñan.

Eta esaten zenion, baiñan ark nun nere gogoan an nere zankoa. Mokoka aritzez asperturik, lagundu nazaiola otoikatu zidan. Bere esku gelditzen zan, neretzat guztizko saldi-maltso bat ekartzea. (Noski, gasto guztiak bere gain joango ziran).

Goiz argitzera irten giñan, euliak zirala bide ta naitanaiezkoa zalako kilometro bi ibiltzea iritxi baiño leenago lenengo piñudira. Sarrerako ixkillara aurrean itxoiten zeuden zaldiak. Zure gela itxiaren leiatilei ataka ateratzen zien Marinette'k, bere zaldi-soiñekoari intzaz blaitutako larros bat erantsitzen ziolarik.

—Alarguu batentzat ez guztiz egokia —zion.

Lenengo mezetarako kanpaiak tilinka meaz ari ziran. Ardouin abadeak lotsati agur egiii ziguu ta maastietan gaiñez multzokatzen zau lañopean ezereztu zan.

Basora iritxi arte izketan joan giñan. Jabetu nintzan, ba-nuala itzal pixka bat nere ezkontz-aizparen aurrean, gutxiago noski, legezion bezela, eta geiago nere iritzi ausartegatik. Ain zuzen zuk familian txapeldun egiten ninduzuna. Zure fede-ofiarriak eta bere senararrenak berdintsuegi izaki. Emakume batentzat. Erlijioa eta iritziak beti dira zerbait: euren begietan guztiak ba-du bere esan-naia, aintzarako edo gorrotorako esan-naia.

Iraultza onetan ez zan besterik bear neraman aurrerapena erabilteza baiño. Aixa jarraitzen nion zuen aurka asarretzen zanean. Baiñan emankaitz zeritzaidan berriro ezkontzen ba-zan galdu bear zituan milloietara mukerkeri-nazka agertzen zidanean. Guztiz atsegiña izango zitzaidan berak bezin ongi itzegitea eta gizaki-on batean itxurak ere egitea; baiñan eziñezko zitzaidan itxuratia izatea; ondare onen galtzeaz ardura gabe azaltze ura ere ontzat ematen nuala-edo itxurak egitea ere gaitz zitzaidan. Dan-dana esan bear ote dut? Gu, bere ondare-artzailleak izan gindezkeala, ilko ba-litz, ene burutapenetan nuan. Eta, onela pentsatzean, semeengan ez nuan pentsatzen, nigan baiño.

Ba-nituan egokierak aurretik preparatzeko eta ber-berritzeko nere ikaskaia; auxen bai-zala nere gogo baiñan indartsuagoa :

—Zazpi milloi! Marinette, onek zer esan nai duan ere ez zera konturatzen; zazpi milloi ez dira lagatzekoak. Ez da munduan gizon bakar bat ere sakrifizio orren apurño bat ere balio duanik.

Eta gauza guztien gaiñekotz zoriona ipiñi nai zualarik, ziurki arzezan esan nion, alegia iñor ezin izan zitekeala zoriontsu dirutza ori sakrifikatuta geroz.

—A! —ostegin zuan—, gorroto latza ba-diezu ere, kasta berekoak zerate.

Epaitua eta kondenatua izan nintzan. Zer ez ote dit galduarazi dirukerirako grin orrek! Marinette'n arkitzerik bai-bai-neukan arreba txiki bat, lagun bat... Eta sakrifikatu dutan guzti-guzti uraxe eraman nazala nai al zenuten? Ez, ez; nere dirua garestiegia kosta zait xox bat enian dezaizuedan azken-antzia aopekotu baiño leen.

* * *

Eta, alabaiña, ez zerate aspertzen. Ene buruari galdetzen diot ea Huberto'ren emaztea, igandean bere ikertaldia jazan bear izan nuan, ea zuek bidalia ote zan edo bere gogoz etorri ote zan. Olimpia gaixoa! (Zer dala-ta deitzen dio Phili'k Olimpia? Galdu bai-dugu bere egizko izena...). Bere izketaldia dala-ta ez dizutela ezer esan sinisteko ere ba-nago. Zuen arterako ez duzute artu; gure f amiliko emakume bat ez da. Bere mundu estuari buruz ez dan guztirako ajolakabe persona orrek, baita berari zuzenean ez dagokionari ere, "jendearen" iñungo gizalegerik ez du ezagutzen. Ez daki ni naizela arerioa. Onek ez du esan nai, bere aldetik, ez ontasunik ez-eta berezko atxikimendurik, ez begi-onik daukanik. Besteetan ez du iñoiz pentsa; ez da gaitztsitze-ko ere.

—Nitaz oso maitekorra da —jazarka dio Olimpia'k, jazarka egi-ten du Olimpia'k bere aurrean nere izena aitutzen danean.

Nere izakera txarrak ez du arduratzen. Eta nere betiko griñak beti aurka egitera bultzatzen naulako, bere aldez irtetzea eta zuen aurka, argatik sinisten du berarenganako ongi-ikusi-naia ba-dutala.

Bere izketa naaspilduaren bitartez sumatu dut Huberto'k garaiz eutsi ziola bere buruari, baiñan bere ondasun guztiak bai-eta bere emaztearen ezkontz-saria tartekotu zituala zituan zor-ixitilluetatik atera aal izateko.

—Naitanaiez eskuratuko dituala eman diru oiek, baiñan diru aurreratze baten bearra izango duala Oni, ondarearen aurrerapen bat deitzen dio.

Nik burua inakurtze nuan, baietza ematen nion ta berari interesgarri zitzaion guztitik milla leguetora zegoala nere burua itxurak *egiten nituan*. Une egiten nituan. Une auetan errugabea azaltzeko nere itxurati doaiak!

* * *

Olimpia koitaoak ba-leki diruz zenbat sakrifikatu naizen gaztetasun pittin bat ba-nuanean oraindio! Nere ogeitamabost urteetako goiz aietan, zure aizpa eta ni ba-gentzen. Itzulian, zaldien ibillerara,

botikatutako maasti bide otzillatik barna. Andre izeka-zale ari galdu bear ez zituan bost milloi aietaz mintzatzen nintzaion. Gal-arrixkuan zegoen milloi aien gogaetengandik iges nenginean, xalotasun erdeñu-tako artaz batez parregiten zuan nitaz. Zenbatez nere iritziak akleztu, ainbatez berak berean jarrai.

—Nere ariz-aribearra zure onerako da. Sinisten al duzu nere go-gotak zure semeen etorkizunean zuztartzten dirala? Isa'k ez dizu nai zure dirutza bere sudur beetik igaro dedin. Baiñan nik..

Berak, par zegiau eta, ortzak estuturik, marmatzen zuan :

—Egia da bai gizon ikaragarri bat zerala.

Eta nik protestatzen iuan bere zorionean baiño ez uuala oldozten, esanik. Barrundik, gauz ez ba-zan ere aitortzeko, beragan amatasun zaletasuna indartsuagoa zan ezkontzarena baiño.

Narda ninduanarren, familia zegoanean lo-kuluxkan larruzko-silloietan ta lastozko exerlekuetan; leioetako atekillak erdizka iriki-tzen nituanean ta etxetik-at irten, aize ta eguzkira, ez nuan atzekaldera begiratu bearrik; ba-nenkian etorriko zala bera. Arri-kazkarretan bere urratsen krazkakoa entzuten nuan. Baldarki zebillen, oiñetako takoiak okerturik gogortutako lurrean. Barandauan ukondo z lotzen giñan. Arri kixkalduaren gaiñetik bere beso jantzigabea al-zitzaion aldirik luzeenean eukitzen, atsegin zitzaion. Gure oiñetan zelaidia ixiltasun sakon batean bai, suntsitzen zan oi bezela illargiaren argira loak artzen duanean. Izugarrizko arku beltz bat osatzen zuten lur-landak lur-zeru-ertzean, aztundu-burnizko-ortzea gertaturik. Laurak baiífo le-nago begietarako ez zitzaizun jarriko ez gizaki bat ez euli bat. Igitzeke, euliak burrun-burrun ziarduten; iilungo aize plaztadak ezereztu ezin duan zelaieko lurruna ori bezin geldirik.

Ba-nenkian an zegoan emakume ark ezin maita nezakeala, ez ze-goala nigan nardagarri zitzaion ezertxo ere. Baiñan alkarrekin arnas artzen genuan jabego ezkutatu artan, eten-eziñeko kamustasun aren erdian. Sendi bategandik ain ertsik zeletatutako gazte ospindutako ark, eliotropo edo pikabelar baten oarkabetasunez billatzeti zuan nere be-giratua. Alazere, itz-itxuri txikienaz ere zapuztuko zala konturatzen nintzan. Onela egoten giñan bata bestearen ondoko, ur-tiña zabal aren ertzean, orri urdintsuen ametsetan laister izateko zan maats-uzta ira-kin zegianean.

Eta zuk, Isa, zer pentsatzen zenuan goizeko irteera aietaz eta beste guztiak lo-zorroak artzen zituanean izaten genituan izketaldiatzaz? Egun batez entzun nizualako dakit. Bai, leiatil itxien atzetik entzun nizun bein amari zeniola, Calése'n egon zanean (Marinette'ren inguruan zaintzea sendotzeko etorria, noski) :

—Iritzieri buruz, eragipen kaltegarri bat ba-du beragan... Ortik aurrera, jolastarazten du, eta onetan eragozpenik ez dago.

—Bai, jolastarazten du; garrantzizkoa ori da-jardetsi zure amak. Marinette jolastarazten nualako pozkidatzen ziñaten.

Iñoiz nazka ar ba-dizut, Isa, iñoiz nazka geiagorik ez dizut artu itz oietxegatik baiño. Ain ziur, arriskurik txikiena izan zitekeanik ere ez zitzaizun iduritzen. Atsegin ez zaiotenatzaz ez dira gogoratzen emakumeak.

Egia da, bazkal ta zelaidiaren ondoan, ez zitekeala ezer gerta; mundua uts-utsa egonagatik antzoki batean bezela biok arkitzen giñalako. Nekazari bakar bat siestara gabe gelditu izan ba-zan, ikusi zezakean, astigarrak bezin geldi zeuden gizon ura eta emakume ura, erreta zegoan lurrean zutik, eta ez zutela izango igitze txikiena ere egiterik alkarri ikutu gabarik.

Gure gau-ibillerak ere ez ziran gutxiagoz tentelagoak. Agorrilla gau batez gogoratzen naiz. Dreyfuz zala-ta zer-nolako izkanbilla afarian! Marinette'k, nerekin bir-azterketa iritzikoa, ni baiño aurrerago zebillen Ardouin abadeari itzegin arazten, izketaldian sartarazten. Drumont, ek egindako idazki batez sutsuki mintzatu zalako, Marinette, k, katezismo-ikasketan neskato baten abotsez, galdegin zuan:

—Abade jauna, judutarrak gorrotatzea debekatua al da?

Gau aretantxe, gure poza egiñaz, ez-aditua ez zuan egin. Aukeraturutako errirren aunditasunaz itzegin zuan, testigantzako bere egokieraren aunditasunaz, eta aitzinduraz esandako bere onbideratzeaz adierazgarri, noski, denbora guzti-guztian azkentzarako. Eta Huberto, k, aurkalari, esan ba-zion bearrezkoa zala Gure Jaunaren borroako gorrotatzea, apaizak ere erantzun guretako bakoitzak Kristo, ren borro bat bakarra gorrotatzeko eskubidea zuala :

—Ain zuzen gerori, eta ez beste iñortxori...

Burua galdurik, sartu ziñan tartean ta esan, orrelako iritzi nola-

baitekoaz ez zitzaigula ezer besterik falta ez ba-zan atzerriari Frantzia entregatzea baiño. Zorion abadearentzat, Juana de Arco, k elkarrenganatu zinduzten. Atadi izkillaretan uine batek deadarkatzeu zuan :

—Zeñen eder illargiaren dizdizera!

Terrazara irten nintzan. Ba-nenkian Marinette, k jarraituko zidala. Eta, alaxen, bere abots moteldua adi nuan :

Boa-larru batek biltzen zuan bere lepoa.

Illargi-betea sarkaldean altxatzen zan. Belarretan itzaltegiak egin erraiñu oker luzeak zur eta lur begiratzen zituan. Nekazarien etxeek euren arpegi itxietan jasotzen zuten izarren argia. Zaunkalari ari zakurrak. Illargiak zugaitzak geldiarazten ote zituan, galdetu zidan. Baita esan ere, ura bezelako gau batean egiña izan zala oro, bakarzaleen oiñazetarako.

—Irudi uts bat— mintzatu zau.

Ordu aretan, zeubat arpegi bateratuak, zenbat bizkar elkartuak! Ogenkidetasuna ura! Bere betilletatik zintzilik malko bat neukusan. Guztiaren geldiera arelan, bere aruasak bakarrik zuan bizia. Estuxamarran zan beti bere arnasa.. 1900 garreuean il ziuan Marinette, eguu, gau onetan, izan ziñanetik zer gelditzen da? Zer irauten du, obiratutako gorputz batez, ogeitamar urte igaroz gero? Oroiz naiz zure gau-atsaz. Aragiareu berpiztueran sinisteko, agian bearrezko izango aragia menderatzea. Aragiaz okitu diranentzat zigorra da, ain ziur, aragia piztu ditekenik ez iduritzea.

Zorigabeko umetxo batekin egingo nuan eraberean artu nuan bere eskua. Eta, aurra ba-litza, nere bizkarrean laga zuan bere burua. An zegoalako onetsi nuan, bustiñak erortzen dan arri-gerezia onestean berdinean. Gizakietan, geientsuenak ez dute obekiago alkar aukeratzen alkarren ondoan azi diran zugaitzak baiño, beren abarrak azikeran naaspillatzen diralako.

Baiñan minutu orretan nere beltzkeria, Isa, zugan pentsatzea izan zan, eta pentsa gerta zitekean bengantza batean : Marinette, tzaz ni balia zu mñberatzeko. Motx-motxa izan ba-zan ere une au, nere espirituan kabi eman nion ideia oni, egia da ere gaitzakeri au nigan jaio zala. Illargiaren argiz kanpoan badaezpadako urrats batzuek eman genituan, seringilla eta puui-sagarrondo zugaiztziaruntz. Alako patuak nai izan zuan, entzun aal izan nitzala urrats batzuek maatsietan, Abade jaunak goizero jarraitzen zion bide orretan, mezetarako

dijoanean. Ain zuzen, bera zan . Eta pentsatu nuan gau batez esan zidan esanaldi artaz :

—Gutziz ona zera.

Nere biotzean itsasterik izan ba-lu une artan! Ez ote ninduan agian salba une aretantxe nabaitu nuan lotsa?

Argitara eraman nuan Marinette, ta aulki batean exeri arazi. Nere musuzapiaz bere malkoak txukatu nizkion. Astigarragar bidean Maria erori ta altxaturik esango nioken ber-beraxe, esan nion. Eta bere malkoetan ta bere lasaikerian buru-galtze apurren bat egon zitekeala konturatu gabe-edo gelditzen nintzala itxura egin nuan.

IX

Urrengo egunez, goizetik, ez zan zaldigaiñeratu. Burdeus, era osteratu niitzan, aastero bi bider joaten nintzalako, oporraldian egonarren, lan-galdekizunak ez bai-nituan ebaki nai. Calése, ra itzultzeko bultzia artzera ninjoalarik, sudexpresoa geltokian ikusi nuan, ta ao-zabaltasun izugarriaz gelditu nintzan, "Biarritz" irakurtzen zan kotxe baten kristalen barrengo, Marinette ikusi nuanean, buru-zapirik gabe ta traje gris batez jantzia. Gogoratzen naiz belan bere ande-reiño lagun batek bein ta berriz esaten zion berarekin bil zedilla Donibane Loitzun, eii. Aldizkari baten orriak ikusmiratzen zitularik ez zan oartu keiñu nengiola esku batekin. Gau artan, onetaz mintzo nintzaizunean gutxi larritu ziñan igesketa labor bat izango zala edo iduriturik. Eta esau zenidan Marinette, k bere lagunaren telegrama bat jaso zuala, ni joanik geroz. Onetaz nere ezjakintasunak arritu-edo egiten zinduan. Arki-leku eskutukoren bat Burdeus, en topatzeko emanik giñala susmo-txar artuta al ziñan? Gaiñera, Maria txikia, oeraturia zetzan sukarrez. Kakerilaister batez egun batzuek zeramazkialarik oso arduraturik bizi ziñan. Justizia egiten zaizu esatean, ezertaroko ez zeundela zure semeak gaixorik zeundenean.

* * *

Orain esango dizutan gaia-bidetik azkarki igaro nai dut. Ogeitarinar urte ta geiago igarorik, onetaz pentsatzen ez nuke jakingo ez bada ekinaldi latz baten medioz. Ba-dakit zertaz zalatu nazun. Senda-

gille-batzar bat egin zezaten ukatu nintzala ere, ausartu bai-zera ene muturretara jaurtitzen. Arnosan sendagille jaunari otsegin ba-genion jakin izango bai-zuan arkitzen gripe txar aretan tifus edo sukar-ustela. Oroi zaitetz, baiñian, gauzak nolaz gertatu ziran. Beingo bakarrik esan zenidan :

—Eta Arnosaii sendagillari deituko ba-genio...?

Baita nik erantzun :

—Aubrou sendagilleak ziurtatzen du gripe onetaz egon diran ogei bat gaixo sendatu dituala errian

Ixildu egin zifian. Esaten duzu, alegia, oraindik urrengo egunez ere otoi egin zenidala Arnosan sendagillari otsegin nezaion. Gogoratu-ko nintzake, orrela egin izan ba-zenu. Oroitz guzti auk aztarrikatu ditut nere buruan arrazoi duzun edo jakin nairik. Elkor bat naizela, ameto... ez naiz ordea orren zurkoitza Maria, ren osasuna bitarteko danean. Eta egi itxurik ere ez zuan onek, Arnosan sendagilleak Jaungoikoa, ganako maitasunez eta gizonen ganako maitasunez lan egiten zualako. Eta ez nion deitu onetxengatik: guztion ustea zalako ez zuala gripe txar baizik, "estetako otzeria". Auldu ez zedin, Aubru, k janerazten zion. Onek il zuan, ez nik. Ez, guztiz iritzi batekoak giñan-eta; Arnosan ekarriarazteko ez zenidan tabarra eman, gezurzulo orrek. Ez dut nik erantzupiderik aren eriotzagatik. Ori dala-ta egin nazun zalaketa ikaragarria da! Eta sinisten duzu! Eta betiro sinistu izan duzn!

Uda anker ura! Uda artako geiegikeria eta xirriten gogorkeria... ! Jela ezin genuan lortu. Bukaerik gabeko arratsalde aren barna, euliak ekarrazten zuan arpegiko izardia legortu nuan. Beranduegi eldu zan Arnosan. Ordurako eun bider galduta zegoanean aldatu zuan bere jan-araua. Txorakeriak esaten zituala, uste dut, au zionean:

—Aitarengatik .. ! Aitarengatik... !

Eta gogoratzen zera zelako zolitasunez oiukatzen zuan :

—Ene Jainko, ume bat naiz.. ! —eta xuxperten zan— Ez, sufri nezake ondiño .

Ardouin abadeak Lourdes, ko ura edanarazten zion. Bere gorputz maxkaldutakoaren gaiñekotz, gure buruak bertaratzen ziran, gure eskuak alkar jo. Oro amaitu zanean, soraio bat nintzalakoan sinisturik gelditu ziñan.

Jakin nai ote duzu nigan zer gertatzen zan? Zu kristaua, gor-

putzilletik aldendu eziñik izatea arritzekoa zan. Jan zenezan arren-guratu egin zitzaizun, milla bider esan ere zure indar guztien bearrean zeundela. Baiñan lorrean, indarka gelatik ematea naitanaiezkkoa izango zitzaigun. Oe alboan exeririk ziñan, bekokia eta masail otztuak iktttuaz inkimanka jokera. Oraindik bizirik ziran ille gaiñean jartzen zenituan zure espaiñak; eta aldiz-aldiz belaunikatzen ziñan, ez erretatzeko, baizik zure kopeta lagatzeko eskutxo gogor eta jelatuen gaiñean.

Abate Ardottiin altxatzen zan, eta euren antzeko bear gentikeait aurtxo oietaz miiitatzzen zitzaizun, gogo ba-dugu zeruan sar.

—Bera bizi da, ikusten duzu, entzuten duzu.

Burua jeixten zenuan. Ez da zure adimenera ere, ez ziran irixten itz aiek. Zure fedea ezertarako ez zuatt balio. Laister obiratzeko eta usteltzeko zorian zegoan zure aragiaren-aragi artaz ez-bestetan ez zenuan pentsatzen. Eta nik, sinisgabeak, Maria izan zanetik geratzen zan guzti arengatik nabaitzen nuan, "gorputz" itzak esan nai duan guztia. Joanera bat, aiendutze batek damaigun biotz-ikara eutsieziñekoa nabaitzen nuan nigan. Bera ez zegoan an; ez zan bera.

"Maria billatzen al duzute? Emen ez dago".

Geroztiago zalatu ninduzun errexxi aaztu ntialako. Alabaiñan bakakit zer senti nuan il-kutxan azkeneko aldiz laztan eman nionean. Ez zan bera baiñan. Marmarioz jardun zera ea egun bakoitzean illeriraiño lagintzen ez zaitudalako.

—Ez da beiñere joaten —berresaten zenuan—. Eta. alazere, berak apur bat maitatu duan gizaki bakarra, dirudinez, Maria izandu da... Biotzik ez dti.

* * *

Eleizkizunetarako etorri zan Marinette, baiñan iru egun geroz joan zan. Naigabeak itxutu egiten zizun; zetorren amenazoa ez zenuan ikusten. Esan baizitekean ere poztu egiten ziñala zure aizparen joanera. Illabete biz geroz jakin izan genuan bere ezkontzaren berri, idazle bat. Biarritz, en ezagutu zuan periodista bat. Krakateko ura gelditzeko ainbat astirik ez zegoan. Barkagaitz azaldu ziñan, gorroto izugarri bat jaio izan ba-litzaizu bezela Marinette, ren aurka. Ez zenuan ezagutu nai izandu "norbait" ura, askoren antzekoa, beste

gizon bat askoen artean. Bere gaiztakeria ez zan besterik izan, gure semei aberastasun ura gabe lagatzea, baiñan berarentzat izango ez zana ere, Philipot, en illobak jasoko bai-zuten zatirik aundiena. Zuk, baiñan, sekulan ez duzu oldoztu; barne-zimiko ttanttorik ere ez duzu izan. Ain buruosoz zuzentasun gabekoa ez dut ikusi zu besterik. Jaungoikoak Jakingo du zeintzu pekatutxoak aitortzen dituzun! ez da Doatsutasunik izango bizitzan billatzen jardun ez zeranik zuk nai zenukean esan-naia. Zure gorrotoan jausi dana baztartzeko arrazoi-gezurrezkoak billatzea ez zaizu askorik kostatzen. Zure aizparen senarrazaz, ikusteke eta ezertan ezagutzeke zenuanatzaz, esanik ziñan:

—Nere aizpa, Biarritz, en, estafadore baten biktima izan da, ho-teletako arratoi baten jan-gaia.

Aurregitean sortukari gaixo ura il zanean —ene! ez zaitut epaitu zuk ni epaitu nauzun bezin gogorki, Maria dela-ta-esan bearrik ez dago ez ziñala askorik tristetu. Gertakizunak arrazoi eman zizuten; alderantziz ezin bai-zitekean gerta. Bera, gogoz galdu zau. Zure buruari egotzi aal izateko ez zenuan deus. Zure bearkizunak bete zenituan. Zoritxarrekoak ba-zekian beti artuko zuala sendiak, itxoiten zitzaiola, oar txiki bat egitea naikoa zuala. Gutxienez, zedorrentzat justizia egin zenezakean; ez ziñan izan txarrean laguntzaille. Kosta ala kosta tinko iraun zenuan.

—Garai zenbaitetan, baiñan, bearrezkoa zaigu biotzaren gaindik jokatzea.

Ez, ez zaitut zanpatu nai. Ezagutzen dut txit ona izan ziñala Marinetten semearekin, Lukas txikia, zaintzen zenuan zure ama ilda gerroz. Zure zaindupean gelditzen zan oporraldietan. Eta neguero-bein joan ere joaten ziñan ikustera Baiona inguruetako Kolejiora. "Zure bearkizunak betetzen zenituan, bere aitak betetzen ez zituan ezkeroz..

* * *

Egundaiño ez dizut konta nolaz ezagutu nuan Burdeus, en, 1914 garreneko Irailla'n, Lukas'en aita. Diru-Etxe batean arkituko ote nuan-edo alogerazko kutxa bat nenbillean. Igaz zetozten guztiak artuzitutzen zeuden guztiak. Azkenik, Crédit Lyonnais'eko zuzendariak esan zidan bere kliente bat Paris, era ba-zijoala itzulian, eta ba-zitekeala neri lagatzea berea. Bere izena eman zidanean jakindu nuan

Lukas, en aita zala. O! ez zan ez zuk uste bezin arnalauzanko! Ogei-taemezortzi urteko gizon artan, igar, gizatxar, militar rebisio beldur-
rez erretako gizon artan, artean amalau urte igaroak bakarrik zirala
juxtu-juxtu ezagutu nuan Marinette, n ileizkizunetan, ta negozio gau-
zetan iñoiz berarekin itzegin gabea. Biotza eskuan itzegin zidan. Be-
re Lukas aldendu nai zuan maitakeriz bizi zan emakurte batengandik.
Fondaudége andra bere arnagiarrebaren eskuetan laga zuan, umearen
obe-bearrez. Zuek, zuek eta umeak, jakin izan ba-zenuten zer eskeiñi
nion egun artan gizon orreri! Ixa gaixoa! Orain esan dezaizuket. Di-
ru-kutxa bere izenean jarriko nuan ta neronek zainduko nuan. Balo-
retan nuan aberastasun guztia an geldituko zan, papertxo batek egiz-
tatzen zuala Lukas, en jabetza. Ni bizi izango nintzan bitartean, bere
aitak ez zuan kutxa ikutuko. Baiñan ni il da geroztik bera izango zan
^iagusia eta zuek ez zenuten xox bat ere jasoko

Noski baiño noskiago, neroni ta nere aberastasuna berarentzaf
izango giñan. Zuenganako gorroto aundia bear izan nuan une artan
txe. Berak ez zuan nai izandu, ordea. Bere gizatasunaz mintzatu zi-
rzaidan.

Erokeri artarako, nolaz izan ote nintzan gauz? Garai artan, gv
re semeok ea ogeitamar urte zituztelako, ezkondurik zeuden; zearo
zure aldeko jarririk zeuden ta nere aurka edozein egokieran. Ezku
tuan mugitzen ziñaten. Arerioa ni. Jaungoikoak ba-daki euretaz guz-
tiz ongi ez ziñala etortzen batetzere Jenobeba'rekin. Akar egiten bai-
zenion bakarrik lagatzen zizulako eta iritzirik ez zizulako eskatzen
ezertarako; baiñan elkartasuna berritrotzen zenuten nere kaltetan. Gai-
ñera, oro ixilik joan oi zan, egoitz berezietan izan ezik. Onetxegatik,
semeon ezkontzeaz zirala-ta, berebiziko borrokaldiak sortzen ziran.
Nik ez nuan ezkontz-saririk eman nai, baizik errenta bat. Eta uko ere
egin nuan arazo-arteko sendiak nere aberastasuna nolakoa zan jakin
zezaten. Ez dut etsi; indartsuena izandu natzaizute; gorrotoak bi-
ziarazten ninduan; gorrotoak, bai eta ere maitasunak. Alarik ere,
jazan bear guztien azpikotz igaro zuten sendiok ba-zekitelako altxor-
-eltxetxua ongi ornitua zegoala.

Nere ixiltasuna zuen larri-urduria izan, ordea. Jakin alegiñetan
zenbiltzaten. Samurtuko nindualako-edo alegintzen zan Jenobeba. Be-
re oiñetako aztun aietaz ba-zetorrela entzuten nuan tentel alakoa! Sa-
rri mintza oi nintzaion :

—Itzen naizenean bedeinkatu aingo nazute.

Eta bere begiak diru-gosez diz-diz ikusteagatik soilki, esaten nuan. Eta esaldi lilluragarri ori berak berrizten zizun. Sendi guztia irrika orrekin bat ziñaten. Gorde ezin nezakeana bakarrik zuei lagatzeko jokabidea billa bai-nenbillen antziña artan. Lukas txikia ez bes-tetan ez nuan oldozten. Aitt orrela, lurak ipotekatzeko asmotan ere ibili bai-nintzan.

#

Au ta guzti, erdiz-erdi zuan maltzurkeriaz erortzeko or-or izandu nintzan. Maria, ren eriotzari jarraitu zion urte batean zan. Gai-xorik erori nintzan. Agerkari batzuek, gure alaba il zan gaitza gogorazten zuten. Zaindu nazatela iguindu egiten dut eta izu diotet sendagillei ta sendagaiei. Zazpi aal bai egin zenituatt oean geratu eta Arnosan, i otsegiten etsi nezala.

Leiaz ezezik arduraz ere zaindu ninduzula, esan bearrik ez dago. Aldiz, nolaz arkitzen nintzan galdetzen zenidanean, naigabe ats bat nabaitzen nuala zure abotsean, iduritzen zitzaidan. Ba-zenuan, bekokia ikututzen zenidanean, gure semeokin izaten oi zenuan izakera ber-bera. Nere lo-gelan oeratu, nai izan zenuan. Gauaz oean tirtiriku ba-nenbillean, altxa eta ura ematen zenidan.

"Nitaz arazoturik dago —ene baitan nion—. Nork uste izango zuan orrelakorik? Aagian, irabazlen dutanarengatik?".

Ez baiíñan; diruaz ez ziñan arduratzen... aurren izakizunak nere eriotzean finkatzen ez ba-ziran beñepein. Auxe zan sinisterrezena.

Arnoz, ek aztertu ninduan ordukoxe, etxadi ondoan beronekin itzegin zenuan, saldu egin zaituan abots-gangartasun orretaz.

—Esaiezu mundu guztiari, sendagille jauna, tifusegaz il zala Maria. Nere anai bi gizajoak il ziralata marmartu bai-dute gaitxepezel il dala. Zimagaiztokoa bai-da jendea; ez dute atzeraruntz egin nai izaten. Onekin Huberto eta Jenobeba'ren kaltea ba-letorkeala petttsatze utsaz dardarikaraz nauzu. Maxiaketa auek guztiak sendotuko bai-zuan nere senarra gaitz aundiaz egon ba-ledi. Au nere ikara egun batzuetan. Nere seme errukarrietan pentsatu nuan. Bai-bai-dakizu, sendagille jauna, berak ere izan zuala zauri bat biriketetan, ezkondu aurretik. Besteek ere ba-dakite; guzti-guztia jakin oi da. Gauz auen

irrikaz egoten da jendea. Ain egi, pegakor gaitz batez ilko ba-litz ere, iñork ez luke sinistuko, Maria il zanean sinistu ez zuten bezela. Eta ondoren txarrak nere semeek nozituko. Bere burua ain gaizki zaintzen dualakotz asarre-larriz betetzen nau. Oeraterik ez du gura. Bera bakarrik ba-litzakean. Iñoiz iñorengan ez du pentsatzen-ta, ez da bere semeetan ere, Ez, ez, doktor jaun, zu bezelako gizon batek ezin bada pentsatu ere orrelako gizonik diranik ere. Ardouin abadearen antza duzu zuk, txarkeria dagoanik ez bai-du sinisten ere.

Ni, adi, nere kixa egiten nuan par nere oean, ta itzuli ziñanean galde zenidan ere, ea zergatik par. Bai nik erantzun ere gure artean barra-barra dabiltzan esaldi auetaz :—Ez ezergatik.—Zertaz dagizu par? Deusgatik.—Zertan duzu pentsatzen?—Ezertan ez.

X

Zuen mendekotz ea illabete batean barruan euki íaim erorialdi onen ondorengoz, idazt-errenkada auetara natorkizu berriro. Gaitzak txautu ninduan askartasunaz, sendiak erraztun bikaiña osatu zuan nere oe inguruan. Antxen tartean ziñan zu oro begi.

Aurre-igandez iritxi zan Phili, lagtmtzeko. Bero zan. Itza bakarez erantzun nion. Ideiak aienatu zitzaizkidan... Noiz arteraiño? Ezin esan bada. Bere abotsaren murmurrak esnatzen ninduu. Erdi-itzalean, ikusten nuan, belarriak tente. Otso gaztearen bere begiak argi-dizdiz ziran. Besamuturrean, erlejuaren ubelez gaindik, urrezko katetxo bat zeraman. Aur-bularraldi baten gaiñekotz zabaltzen zan bere alkandora. Lozorroak artu ninduan oster. Bere oiñetakoeit kirris-karraskak berriro esnatu ninduan, baiñan ni begiz-azterlari nintzaion betilletatik barna. Aztarnakatzen zuan nere txamarra, barrungo patrikara dagoan tokian, dirti-zorroa gordetzen dutan antxe. Latzak ziran nere biotz-dardarak, baiñau alegindu nintzan guztiz gel-dirik egoten. Zerbait susmatu ote zuan? Bere lekura itzuli zan.

Esnatze nintzan itxura egin nion eta galde ea aldi luzean loak arturik egona nintzan.

—Minutu batzuek bakarrik, aitona...

Zaar batek, gizon gazte batek zeletatzen duala oartzen danean

nabaitzen duan izua nabaitu uuau. Eroturik ote nago? Iduritzeu zait au naikoa litzakeala ni iltzeko. Phili edozertarako gai zala egun batean aitortu zuan Huberto, k.

* * *

Ikusten ote duzu, Isa, zeñien zorigabekoa izan naizen? Au irakurtzen duzunean, beranduegia izango zure kupirarentzat. Baiñan netretzat, agian, erruki pittiii bat izan dezakezula itxarroteak atsegingarri zait. Ez dut nik sinisten zure betikotasunezko inpernuan, baiñan ba-dakit jakin lurrean zer dan zigortutako bat izatea; beti gezur-bidetik bidari dan gizon bat izatea; munduak duan sena gabe, osorik dagoan norbait gertatzea. Naigabez nazu, Isa. Ego-aizeak ere erretzen du. Egarriz nauzu eta edateko ez dut besterik garbi-gelako iturriko ur epela baiífo. Milloiak emaugo nituzke, baiñan, ur-fresko baxo bategatik.

Beldurgarri zaiten Phili, ren agertze ori jazatzen ba-dut, ogeitamur urte oraindik betetzeko dagoan beste gazte bat oroitzen dutalako da. Lukas txikia, gure illoba. Zure doairik ez dut beñere uka. Eta doai ori erabiltzeko egokiera ume orrek eman zizun. Zuk ez zenuan maita; Marinette, ren semeak, begiak atxabitxizko kolorekoak zituan gazte ark, illeak aurrerantza orraztuak eta muiñen gaiñekotz eroriak, Huberto'k zionez "ille-pindolak" lakoxeak, ark ez zuan ezer Fondaudége, tarrenik. Gutxi ixtudiatzen zuan, bertan "interno" zegoan Baiona'ko Kolejioan. Zure esanetara gagozkiola, baiñan, onek gutxi ajolakabetzen zizun. Naikoa egiten bai omen zenuan oporraldietan bera zainduaz.

Ez, ez zan arduratzen liburuengatik. Eizarik ez dagoan lurralde onetan, bideren bat billatzen zuan beti botatzeko, ea egunero, aukuratutako eiza-gaia. Beti-beti lortzen zuan erbi bat guri bidaltzea, lurrenetan lo-kuluxkan egoten zan urte bakoitzeko erbi bakarra. Ondiño ere begietan dut aren poza maatstietako bide-txiurretik barna igarotzen zanean, belarrietatik eutsirik, eskuaz estututa, muturretik artean odola zerion piztia. Egunsentiaz entzun oi nuan bere irteera. Leioa zabaltzen nuan ta bere abots gordiñak, laiño artetik, oiukatzen zidan :

—Nere eiza-lekua aztertzer a noa.

Eta zuzen-zuzen begiraten zidan, nere begiratu eutsiaz. Beldurrik ez zidan ; ez da bururatu ere orrelakorik.

Bai, etxetik-kanpo egun batzuetan egondu oi nintzanean, ta ni adierazi gaberik itzuli, tabako usaia nabaitzen nuan etxean ta saloiak alfonbrik gabe, ta zenbait agergarri geiago jabetu nedin "Jaiaren" bat eten nuala. Izan ere bizkar ematen nuau bezin aguro, Jenebeba'k eta Huberto'k beren lagunak inbitazen zituzten. Nere eragozpena jakinarren "inbasio" aiek eratzen zituzten, ta zu ziñan laguntzaille obedientzi-eza onetau, esan ere esaten bai-zenuan olakoetan "atsegiñak" bear giñala izan adiskideekin. Ene asarrealdi auetan, bada, Lukas izaten zan autsten ninduaa. Nik nabari-arazten nuan beldurra parregurekeria zeritzaion.

—Dantzatera zijoazenean, saloiean sartu naiz eta deadartu dietet: "Osaba bidetxiurretik dator.. !". Ikusi izan ba-zenuan uolaz ez kutatzeu ziran! Izeba Isa'k eta Jenobeba'k sukaldera zeramazkiten itzulian bokadilloak! Uraxe pesta ura ! Aiek zalapartak!

Munduan mutil ura bakarrik zan ni txorimalo bat ez nintzala us-tekizunez bizi zaiia. Noizik-bein ibirañio laguntzen nioii kañaz zelan arrantza egiten zuan ikusteko. Izaki ura, ipurtarin ta saltari beti, saratsa ba-litz bezela ernai egon zitekean ta geldirik ordu eta orduetan, eta bere besoen igitzeak zugaitz-abar bateu beziii leun ta ixillak ziran. Jeubeba'k arrazoia zuan, "literato" bat ez zala irtengo esaten zuanean. Iñoiz ez zuan ardura-arazi terraza gaiñeko illargiaren argitxirripak. Izamenaren sentimenik gabekoa zan, ber-bera zalako izamena. Berarekin suntsitua zegoan ta izamena beraren indar bat ere ba-zan, iturri-gordin iturrien artean.

Bizitz gazte aren osagai ziranetaz ausnartu nuan : ama illik, aita, gure etxean aiatu ere ezin zitekean aita ura, barruratu, baztertua. Gutxigotz egongo nintzan ui samindurik eta gorrotoz, alare, alaita-sunak diz-diz zegian beragan. Guztiak zuten maita, bai nik ere. Mundu guztiarentzat zan bere irriparra, bai neretzako ere; ez ordea neretzat besteutzat baiñan geiago.

Gutziz arrigarrien zitzaidana, sen utsa besterik ez zan izaki artan, azitzen zijoan bezela, bere biotz garbitasuna zan, bere gaiztakeriaren jakin-eza, bere grin-gabetasuna. Gure semeak onak izan ziran, badakit. Zuk diozun legetxe, Huberto'k gaztaro eredugarria izan zuan. Alde onetatik bai, ba-dut aitortzen zure eziketak eman zituala bere

igaliak. Izan ba-zuan astirik Lukas, ek, gizon biurtaeko, patxaratsua izango ote? Beragan, garbitastmak ez zirudian jaso *ez* eta artutakoa; arri artean uraren zillartasuna zan. Intzak bedarraren gai.uekotz bezela, dizdiratzen zan bere gaiñekotz. Biotz-garb.'tasun orretan geldi ba-nedi, nere baitan sakondu zaiako bakarrik da. Zure oiñarrien arraunditsukeriak, zure aipamenak, zi'rc asairs jark;r-k, srare ez-pain estutuak, ez zidaten alare ematerik izango ume ark, jakin gabe-tanik, eman izan zidan gaiztakeriaren zsníZimíena berri. Aidiz gero-goz oartu nántzan onetara. Zuk uste izanik du.zun bezela, gizadiak zauri bat baldiii ba-du saietsean, gizaki iñortxoren begi-iiiniak alako-rik ikusi ezingo Lukas, engaii. Buzíiii-IúigilJeareii eskr.tik uraxe bai aterako osorik osotasunean, doai berebizikoz jantzia. Eta nik, nere elbarritasuna nabaitzen nuan bere alboko nintzanean.

SH t. *

Seme bat ba-litzakean maita izan dutala, aitortzerik bai-al-dut? Ez, bere baitan arkitu ez nadilla, bai-zan nik maife miana arengan. Nik ba-dakit ongi aski Huberto'k eta Jenobeba'k niganrlik jaso du-tena; euren zakarkeria, bere bizitaetan lartar gasizen lendabizikoke-ria, destaiñez edozein zigortzeko kemen ori: Jenobeba'k dabilki Alfredo, bere senarra, nere izakerak daraiian *sorrotsiasnnes*. Lukas, engan izanik, ziur nengoan neronen buruarekin ea iiintsala burru-katuko.

Urtearen barruan, ea ez niian beragan psjiísatzen. Eere guraso-ekin izaten zan Eguberri ta Urteberri jaiefan; guregaz, fcerriz, uda-retako oporraldietan. Eta Urrilla'n lagatzen zuan lurraldea, egazti besteaz.

—Jainkotiar ote? —Berarengatik esaten zenuan :

—Ez da Lukas bezelako astotxo baiek ere ez du azalera gabe uzten apaizen bitartekotasuna. Asteroko bere jauiiazera ez dti íífoiz utsik egingo... A! Adibidez, zabaltasuna ba-du bere esker-emateak. Bai ongi, ezin genezake eska ematen dnan L.aííán geiagorik.

Berak, gauz auetaz, ez zidan sekulsn itreg'teu. Ez da gauzarik txikienean ere aipa. Gauz zeatzaogetara zijoasten bere esanaldiak. Noizik-bein, bere patrikaratik ateratzen zuanean aitzoren bat, flota-doren bat edo larre-txoriak ekarrarazteko txilibituren bat, bere erro-

sario foertz txik~a foedar gafñera erortzen zitzaion, bai berak azkarki aski ere JÍLO. /g"a:i isafsaraisuagoa ztrudian jai arratsaldeetan beste edozein egunetan foaiíío, ez ain ariña, gutxiago ajolatua eta alako ezagunkaitz zífgnn gai foaiez gafiñezkatua.

Lukaz nitsz foatzen zuan lotueren artean ba-zan bat, agian, ao-zabalik lagako zaituína. Eein baiñan geiagotan, igande aietan, sal-talari agertsen ez zan oreinkume artan, ezagutzen nuala-edo zeritzai-dan Maria'ren anaia, orduantxen amabi bat urte loak artutakoa, bai-ñan alazere ain esfoerdiña, zeren ark ez bai-zuan onartzen xomorro bat ere iltaerik eta jolas bakartzat zuana, zugaitzen zulo-ertzak go-rodioz tapizatzea eta foarru-foertan ipiñi Ama-Birjiñaren arrirudi bat. Aal zaude crois? Ongi foada, Marinette'ren semean, zuk astotxo zen-ion orretan, neretíat bcrpizten zan Maria, edo, obekiago esan, foeragan ja:o zan itnri foer-bera eta beragan ezkutatu zana lur azpian, berriro nere oiñekotz-aurrez ernetzen zan.

* * *

Guda-asiera lensn egimetan foete zituan amabost urte Lukas'ek. Laguntz-Otseintzarako mobilizatua izan zan Hufoerto. Gudarozte-Az-terlari-Epaikariek, ain ílusoíoki berak artzen zituanak, zuk naigabez artzen zeiiínan. Bularrez estua zala-edo artaz, zuretzat urte askotan naigafoe bide izan zana, orduan zure itxaropenaren asegarri zan. Militar Oiiiiiien berdifikeriak, baita ere zenbait purruztadek, alista-tzeko gogo bizi eragin ziotenean, onetaz alper-alperrik eman izan zenituan zerfoait urrats galduak garbiroki mintzatu arazi zizuten ain-beste ixilkeriz ezkiífstutakoa.

—Arbaso-antz orrekin... —foerresaten zenuan.

Isa doakabea! Ez zaitetz beldur izan pelota itzuliko dizutanik. Íñoiz ez nazu izan zuretzat interesgarri; beñiere ez zera nigaz ardu-ratu; baiñan arras gutxiago íñoiz baiño, garai artan. Sumatu ere sekulan ez zenuan egin nigan sortzen ziran foiotz-larrien indartzeak, negu-egiñalak zetozen araberez. Ministerio batean mofoilizatua izan zan Lukas'en aita; umea gurekin eukitzen genuan ez bakarrik uda-oporraldietan, foaizik foaita ere Eguberri eta Urtefoerrietan. Lilluraz betetzen znan gndak. Eta emezortzi urte osatu aurretik guda amaituko zan foeldurrez foizi zaa. Eta berak, beste íñolakoetan libururik iriki

gabeak, irrikaz ea jan egiten zituan bereziz gudatzaz mintzatzen ziranak, eta mapak itaunduz iktisi. Ári-ari egokian azitzen zijoan bere soiña. Auiasei urtetarako gizon bat zan, gizon sasoitsu bat, eta onetxegatik ajolakabe zen iidakoeutzat eta zauritatutakoentzat. Beartzen ba-nuan beartu guda-erretenetaz mintzo ziran idazki beldurgarriak irakurri zitzan, bere irakur-sustraia zaii, guda-kirol bikain eta ikaragarri bat zala, izaten ez ba-zan ere beti egokiera bat jokoan sartzeko: laisterkaz aurreratu bearrekoa. O! Beraiiduegi iritxiko zala-edo beldtir zan. Bere aita kaikuzarraren baimena sakelean zuan. Eta ni, Ilbeltza'reu 18 garreneko urtebetetze latz ura zetorren bezela, Clemenceau zar aren jokabidea dardarka jarraitzen uuan, zeletari nintzaion, nola oi Robespierre'n erorkera itxoiten zuten gurasoek beren semeak epaiketara eman izandvi ziran aurretik.

Souges alderdira Lukas abiatu zaneau, ikasketa eta saiaketa egun aietan, berogarri jantziak eta goxokiak igorritzen zenizkion, baiñan bai itzak esan ere nigan iltzaille gogoetak pizten zituztenak, Isa gixaxoa, zenionean :

—Kezkarik gabe, ituna txit izango da... baiñan, gutxienez, ume orrek ez du iñiortxo ere utziko bere ondorengo...

Aitortzen dut, berriketarako biderik ez zegoala itz aietan.

* * *

Egun batez ulertu tiuan, ez zegoala itxoin bearrik guda bukatu zedin Lukas abitu baiñan lenagoz. Chemin-des-Dames'en guda-oiña eten zutenean, gugandik agurtzera etorri zitzaigun, uste izan baiñan amabost bat egun lenagotik. Ainbatez txikiago! Izango dut bai aursardi emen idazteko oroitz ikaragarri bat, gaur ere, gabaz, esnarazi eta oiukarazi egiten didana. Nere lantokira joan nintzan gau artaz larruzko gerriko baten billa, ugalgiñeri nere asmakizunez egiñaraziko. Aulkiluze baten gaiñfera igorik nereganuntz erakarri nai izandu nuan igeltzeko Demostenes'en burua, ene liburutegiaren buruan erakusgarri zana, Ezin bada igitu. Mobilizazioa idatz-erabaki zanean nik gorde nituan urre-txanpenez bete-betea zegoan. Munduan geienik ajola zitzaidan urre artan nere eskuak murgildu nituan, eta bete-bete egin nuan txanpenez larruzko gerrikoa. Aulkiluze artatik jetxi nintza-

nean, boa-suge puztutako ura, tupiki-ozenez gizendua, nere lepoan ingura-bil egin zitzaidan garrondo-ezurra estuturik.

Keñu lotsati batez Lukas'i eskeiñi nion. Zer nemaion ez zan oartu, lenengo batez.

—Osaba, zer gura duzu onetaz egin dezadan?

—Ongarri izan lezaizuke abaro-aldietan, eta prisionero erortzen zeranean . eta beste zenbait egoitzetan. Onetaz, guztia leikena da.

—O ! —parrez, esan zuan—; naiko zirtzillikeri ba-daramakit nerekin.. orrenbeste diruketaz geiagoz naspildu nintekeala, nolatan uste aal izan duzu? Zugaitz-adar batean zintzilik utzi bearrean gertatuko nintzake lenengo einan aurrerakadan..

—Baiñan, enetxoa, asieran, gudara zijozten guzti-guztiak urrea zeramakiten.

—Zertzu zetorkien ez zekitelako, osaba.

Gelaren erdiz-erdi zegoan zutiñik, eta nik silloi baten gaiñera jaurtiki nuan urrez betetako ubela. Mutikote sendo ura, zeñen eze-reza zirudian bere gudari-jantziaz, txit aundiegia zalako berarentzat! Zabaldutako lepakaldetik irtetzen zan bere gudari-aur lepoa. Bere ille motz-motzak, murrizki ebakiak, alako berezitasun bat ba-ze-maion. Gertu zegoan iltzeko, dagoneko "pitxitua". Bestean berdiñean, bereiz-gabea, izen-gabea, xeaz-galdua. Une batez gelditu zan bere begiratua gerrikoau; gero, izeka eta narda zerion giro batez begiratu zidan. Alarik ere, besarkatu ninduan. Beragaz jetxi nintzan kaleko ateraiño. Eta itzuli zan, esateko :

—Frantzia'ko Diru-Etxera igorri zazu ori guztia.

Ez nuan nik deus ikusten. Aditu bai parrez zuk esaten zeniola :

—Ez zak orrelakorik itxoin ! Aski eskatzia duk!

Atea itxi bezin laister, etxe sarreran igitzeke gelditu nintzalarik, esan zenidan :

—Aitortu zazu ba-zenekiala ez zuala zure urrerik artuko. Era-bateko arriskurik gabea zan zure biotzaldia, eskeintzaldia.

Gogoratu nintzan silloiaren gaiñean gelditu zala ubela. Etxe-morroien batek arkitu zezakean an. Antxitxika igo nintzan; berriro nere bizkar gaiñera altxa eta Demostenes'en burua barruan uztu nuan.

Ea ez nintzan koiituratu ene aina il zitzaidanik, au egun batzuek geroztik gertalua. Urte balzuek ba-ziran zearo burua galdurik zegoala, eta gurekin ez zau bizi. Orain, egunero-egunero, berarengan pentsatuaz naizenean, nere aurtzaroko eta gaztarorako ama dut oroitz. Ezereztu da nigan bere erorkeraren irudia. Ni, illobak gorrotatzen ditutalarik ere, ifioiz joaŕen naiz bere eortz-lekua ikustatzera. Lorerik ez damaikiot lapurtzen dituztela jakin diUan ezkeroztik. Beren ildakoak dirala-ta, beartsuak lapurtu egiten dituzte aberatsen loreak. Burnizko ate bat erosi bear litzake ; orain, baiñan, guztia garesti dago. Lukas, ek ez du eortze-lekurik ere. Urtu egin da; suntsitutako bat da. Ezezagun gudari bat. Nere zorroan gordetzen dut idazteko astirik izan zuan eskutitz bakarra.

"Guztia oiigi doa. PakeLea jaso dut. Nere maitasunaz".

"Nere maitasunaz" idazten dit. Guztien gaiñetik, nere umetxo kuttunarengandik lortu aal izan ditut itzok.

XI

Ito-bearrez esnatu naiz bart. Jaiki eta arrazta egin bear izandu dut butakaraifio, eta, aize eroska baten otsartean, azken-idatz-orri auek berrirakurri ditut eta zor eta lor gelditu naiz bertan argitzen diran zorilxarkerienjrat.ik. Jarraitu baiñau lenago ukalondo zosi naiz leio barrenera. Aizea baretua zan. Aize izpirik gabe ta ortze izartsu baten azpikotz Calése lo zetzan. Alako batean, goizeko irurak aldera, euri zaparrada berrirotu da, ortotz aztunez eta izoztutako ur-tantaz. Teilla gaiñetan alako zalaparta sortzen zutelarik kazkabarra egingo ote duan beldurtu naiz. Dardarik gabe geldituko zitzaidala biotza, uste ere izan dut.

Maatstietan "maatsa azaldu ez azaldu". Datorren uztak estaltzen alormuiñoak; baiñan eiztariak arrapa eta baztar illunean laga dituan bezela pizti gazteak basabereak ekarrarazteko, orrela ekaitza; marru dagizkiten odei beltzak, eskeifika dauden maastien ingurukoz dabiltz.

Bere bilketa, zer ajola baiñau neri orain? Ezin dezaket ezer jaso munduan. Bakar-bakarrik neroni apurtxo bat obekiago ezagutu. Zai-

dazu adi, Isa. Nere paperetan arkituko dituzu, ni ilda geroz, nere azken borondateak. Maria il zitzaigun urrengo illetakoak dituzu, gaxorik nengoanean ta semeak zirala-ta arduratzen ziñanekoa. Fedea-torketa bat arkituko duzu, gutxi-gora-bera tankera onetan idatzirikoak: "Nere eriotz-unean ontzat ematen ba-dut apaiz batek lagun zatzakian, aurretik kejatzen naiz, burua argitasun osoaz dutanean, larregikeriaz erabili izango diralako nere soiu ta adimenaren aulda-deak, ttigandik lortu aal izateko ttere biotzak zapuzten duana".

Beraz, aitormen au zor dizut; bestaldekotz, nigan begiratzen naizenean, oraindala urte bi ezkerotik egiten ari naizen bezela, nere atsekabea baiño arreta aundiagoaz, orduan jabetzen naiz nere zentzumenen argitasun zabalagoaz, kristau tentaldiaren arrak atzaparkatzen bai-naute. Ez dut ukatzen nigan ba-legokela bideen bat zure Jaungoikoa'renganaño eraman nindekeanik. Neronegaz atsegindutzea lortuko ba-nuke, obekiago barruratuko nuke eskakizun ori. Ni neroni eta neronez zapuztuko ba-nintzake gurpil-asmorik gabe, betirako izango litzake ulertua arrazoimena. Baiñan nere gixon izatearen gogorkeria, biotzaren billuskeri ikaragarria, ni naizen gizon orrek duan doaia bere inguruan gorrotoa ernarazteko eta basamortu bat sortzeko dagoan tokian dagoala, auetatik ezerk ezin bada nagusitu arazi itxaropena.. Sinistu nai al didazu, Isa? Agian ez bai-zan zuen Jaungoikoa zuengatik, zuzenak zeratenongatik, etorri baizik ni bezelakoak diranengatik. Zuk ez ninduzun ezagutzen, ez zenekian nor nintzan. Irakurri berri dituzun orrialdeak, egin ote naute bada, zure begietarako, ikaragarrikerian txikiagoa? Ba-dakustzu, alabaiña, ba-dagoala nigan ezkutuko izan-aritxo-zimel bat Maria'k dardarazten zuana nere besoetan kizkurtuaz bakarrik, eta baita ere Lukas txikiak, igandeetan, mezetatik itzulean etxe aurrean dagoan aulkian exeririk belardia zabalkiro begiztatzen zuanean.

Ene! Guztien gaiñetik, ez zazula uste izan nere buruarengatik iritzi goi-goienetakoa dutanik. Ori ez! Ba-dut ezagun ene biotza, biotz au, sugedorrien korapillo au. Eurak bide dirala itorik, bere pozoiaz ase-gaiñezkatua, dardar dagi ondiño borbor-iturri ori baiño garaituago. Sugedorriak egin korapilloan, bil-bil orretan, askagaitza, aitzokada batez eten bearko litzakeana, kutxillada batekin: "Ez nazu pakea ekartzera eldu, baizik gudatea".

Leikena da ere biar zapuztu dezakedala orain esaten dizutana, bart zapuztu ditudan eraberean orain ogeitamar urte egin nituan azken-borondateak. Ba-dirudi gorrotatu ditutala, ordain-zuritu zitekean nardaz, zuk aitortzen zenuan guzti-guztia, eta gorrotatu besterik ez dutala kristau aitortzen diran guztiak, sinismenak ere; baiñan ez ote da egi, askok gutxitu egiten dutela itxaropen bat, arpegi bat maxkaldu, Arpegi ori, Musu ori? Galde egingo didazu, ea zer eskubideaz epaitu ditzazkedan nik, nazkagarri bat naizelarik? Isa, nere gaiztakerian ez ote dago ezer antz izan lezakeanik, bere doaia ulertu ezin bai-dezaket ere, zuk aintzaldutzen duzun Ikur orrekin? Idazten dutan au, ain zuzen, zure begientzat, birau izugarri bat izango. Egiztatu bearko zenidake. Zer dala-ta ez nazu itzegiten? Zergatik ez nazu beñere itzezin? Ez ote da, agian, zure itzetan bat biotza zartatuko lezaidakenik? Iduritzen zait gure gau au ez dala oraindik beranduegi gure bizitzari berriro ekiteko. Eta iltzerarte itxoingo ez ba-nu orrialde auek zuri emateko? Eta bateratuko ba-zinduda, Jaungoikoaren izenean, azkenerarte irakurri ditzatzun? Eta irakurtzeaz amaitzen duzun unea zeletatuko ba-nu? Eta ikusiko ba-zinduda, musua malkoz estalian, sartzen zerala nere gelara? Eta besoak zabalduko ba-zenízkída? Eta nik barkapena otoikatu? Eta biok jauziko ba-giña belaunikoz, bata bestearen aurrean?

Ekaitza amaitu ote dan-edo dirudi. Ñir-ñir dagite azken izarrak. Berriro euria zetorrela ere sinistu dut, baiñan zugaitz ostoak dira euri tantak ixuriaz. Oeraturik itoko ote naiz? Au guzi-ta, ezin dut idatzi, eta idatz-luma askatu eta karpeta gogorraren gaiñera ene burua erortzen laga.

Txistu-ots basati bat, zarata ikaragarri bat gero, baita bide batez ortze erabat betetzen duan tximistaketa bat. Jarraiki dion ixiltasun beldurgarrian, lerkíñak muiñoetan lertzen dira, maats-langilleak botatzen dituzten bonbak, laiñoak kazkabarrak laga ditzaten edo ur-parraztadetan ezereztu ditezen. Suziriak argitsu dira, Barsac eta Sauternes zoritxarrari itxoiten dauden illunpe bazter orretan. San Vicente'ko kanpaiak, kazkabarra uxa arazi duana, atzarri-otska, beldur duan batek gabaz kantatzen duan eraberean. Eta, bereala, teillen gai-

ñekotz, durrun-durrunka arri pillo bat gaiñera jaurti izan ba-lieteke bezela. Arri-erauntsia da. Une batzuek lentxeago leioruntz oldartuko nintzan. Entzuten dut geletako leiatillak ixten. Etxaurrea laisterka igarotzen duan gizon bati deadarka galdetzen diozu :

—Gaitza al da?

Eta berak erantzun :

—Zorionez euriaz naasia da, baiñan gogoz ari du.

Ume bat, ikaraz, antxixika dagi ankutsik pasillutik barna. Oi dutanez, kalkulaten dut: "Eun milla franko galduak...", ez naiz baiñan mugitu. Beste garai batean, ezerk ez zidan eragotzi, beingo gau batez arkitu bai-nintzan maastiaren erdi-erdian, zapatilla utsean, argizaiola itzalia eskuan ta buru gaiñak artzen zula arri-zaparradak. Baserritar sen sakon batek aurrera bultzatzen ninduan, etzanik nere gorputza estali nai izan ba-nitu bezela arriak zigortutako maats-abeak. Baiñan gau ontan arrotz bat biurtu naiz nere ona izan zan gauzarako, itzaren osotasun guztian diot. Au da, gauzentzat ajolakabetasunik ez dutala. Ez dakit zerk, ez dakit zerk askatu naun, Isa; babes-lokarrriak askatu dira; urak ero naramate. Zein indarrek narama? Indar itxu batek ala? Maitasun batek? Agian maitasun batek..

BIGARREN
ZATIA

XII

Paris, Ru Bréa

Nolaz baiñan bururatu ote zait idaz-liburutxo au gordetzea nere ekipajeau? Aitorketa luze onen geroz zer egin bear dut? Nerekin ebaki dut. Neka-eziñik emen lan egiñarazten zidan guztia, ez du bizitz-zantzorik neretzat orain. Zertarako berriz asi lan onekin? Onenean, jakin gaberik, pozaldi eta askatasun giro bat arkitzen nualako. Arri-kazkabarra egin zuan gau artako idatz-errenkadak nere aurrean zein egun larria irikitzen didaten! Erotzeko zorian ez al nengoan? Ez, erokeriatzaz ez gaitezen emen mintza. Ez dezagun auta ere bere izenik. Duin izango bai-lirake beroiek nere aurka erabiltzeko, euren eskuetan orrialde auek eroriko ba-lira. Iñori ez dizkiot zuzentzen. Bearrezkoa zait auts biurtzea okerrago senti nadin baiño leen... Ondarez lagatzen ez ba-dizkiot, beñepein, Paris, era bere billa etorri naizen nere seme ezezagun orreri. Seme bat ba-nuala edo esateko egon nintzaion isa'ri, 1909 garrenenean izandako nere maitakeriak aitatu nizkionean, aitortzeko zorian egondu nintzanean nolaz nere maitalea, umetarako laga nuanean, Paris, era etorri zan ezkutatzera...

Emanerreza nintzalakoan zegoan bidali nizkielako, guda aurrttik, urteko sei milla franko. Ez zitzaidan bururatu ez iñoiz diru bidalketa auek aundíagotzea. Eta emen, zapal dutako gizaki bi, txit beeko lankizunetan arkitu ba-ditut, nere errua da. Auzo onetan bizi diralako aitzakiaz, alogeran gela bat artu dut Bréa karrikako etxe batean. Jantzi-erreditza eta oe artean ea tokirik ez zait gelditzen exeri nadin ta idatzi dezadan. Bestaldetik, auek zaratak! Nere garaietan Montparnasse leku gibeletsua zan. Orain, ba-dirudi, sekulan lo egiten ez duten zeroaz betea dagoala. Nere sendiak zalaparta gutxiago atera zuan etxe-ixkilleretan nere begiz ikusi eta nere belarriaz entzun nuan gau artan... Onetzaz, zertarako ari eta ari? Alarik ere, askatasun bat

litzaidake idatziko ba-nu emen oroitz nardagarri au, aldi laburrerako bederen ba-litzake ere.. Gaiñera, zergatik birríndu orrialde auek Nere semeak, ene aberastasun artzailleak, eskttbideturik dago ni eza-gutzeko. Aitorketa onetaz zor-ordaindu bat egingo nuke, neurri txiki batean, urrun-baztertua euki-bai-dut jaio zan egunetik.

Ai! Izketaldi bi naikoak izan ditut bera epaitzeko. Duintasun gabeko gizona da errenkada auetan ardurapen txikiena arki al izateko. Gauz auek guzietaz zer konpreni lezake enpleatu orrek, zaldi-laisteu-ketetan jokutzen duan langille-bee orrek?

Burdeus eta Paris bitarteko ene gau ibillaldian, sumatu uituati neintzuk arpegiratuko zizkidan, ta nere aldez-saioa antolatu nuau. Antzeri eta eleberrien bultzadetan nola jausten geran? Ziur nengoan, gogoz-aundi eta atsekabez betetako ixiliko ene seme bat arkituko nuala. Lukas, en leialtasun gogora bezela, bai ere jotzen nion Phi-li'ren edertasuna. Guztia usnaturik neraman, nere antzekoa izan zitekeala izan ezik. Gurasoak ba-dira atsegindu egiten diranak galdeztean :

—Zure semeak, zure antzik bai al-du?

Jakin dut bai zein gorroto motak jo naun, neronen momu berber ori altxatzen ikusi dutanean. Nere antzarik ez zezakean seme bat ikusi nai izandu nuan Lukas, engan. Gai onetan, Roberto nere ezberdiña da. Azterketa txikiena ere jazan izateko duintasunik ez du azaldu. Poto eta pototo egin geroztik etsi bear izandu du. Bere amak, duan guztia eman aal izateko nekaldu baldin ba-da ere, narda dio. Ezin izaten du ixilik egon aitatu gabe. Berak burua makurtzen du; diru guzti ori galdu duanez, ez da konsolatzen. Eta beste bide batez, bere seme jator-jatorra da. Baiñan bere zoritxarreko adimenak ezin sumatu diruketa ori utzi dezaiokedanik. Berarentzat, dirutzak ez du ezer esan nai; ez du sinisten gerta litekeenik ere. Egia esateko, bere amak bezela berak ere beldurtzen ditu :

—Ez da legezkoa.. ixkanbil batean sarturik gerta gindezke.

Arpegi-zurbil eta lodi, illen margoa galdurik dan emakume orrek, nik maite izan nuanaren antzik gabekoa, oraindik eder zaizkion begini-az, begiratzen dit.

—Karrikan ikusi ba-zindudan —dasait— ezagutzeke geldituko nintzan...

Eta nik, ezagutuko ote nuan? Ba-nintzan beldur bere tirriaz, bere

ordaintzaille-griñaz. Guztiaren beldur izan nintzan, ez baiñan bere ajolakabetasunaren goibelaz. Ospindua, egmieroko zortzi orduko mekanografi lanetaz aberetua, kontakizunak izu ematen zioten. Zuzentzarentzat liakaitzkeri bat irauñ du beragan, izan bai-zituan garai batean berarekin arazo batzuek. Alabaiñan, ongi argitu diotet nere jokabidea: Roberto'k kutxa bat artzen du alogeran Diru-Etxe batean; eta kutxa orretara eramango nik nere aberastasuna. Iriki aal izateko eskubidea ematen dit eta itz ematen dit nere eriotza arteraiño ez duala dirutzarik ikutuko. Noski, izenpetutako aitorten bat eskatzen diot, esanik kutxak gordetzen duan guztia nerea dala. Ori ta guzti, ezin bada ni ezezagun orren menpean Jezarri. Áinak bezela semeak ere oar egin zidaten, alegia, arkitu zitekeala gutun ori ui ilda geroz. Tenteltzar auek ez dute nitaz fia nai.

Bourru bezelako probintzietako prokuradore baten eskuetan jarri gindezkeala, berrogei urte luzeetan lana eman diotalarik dan guztia zor baidit, buruan sartarazten alegindu natzeiete. Berak du gordea idazki-azal bat, onela idatzi dutana: "Iltzen naizen egunez erretzeko", eta ziur nago erre ere egingo duala barruan dagoan guztiaz. Emen gordeko nuan Roberto'ren aitortza. Ziur nago Bourru'k idaz-azala sutuko duala gordeak baitaudez bertan itun zenbaitzuk, gogo-biziz dagoana betiko gal ditezen.

Roberto'k eta bere amak, baiñan, beldur dira Bourru'k ez dezala ezer erre ta, nere eriotzean, kanta-arazi. Oldoztu dut onetaz ere. Gutun batzuek bai emango nizkieteke eskuetara, espexera eramango lutekenak Bourru au zalantzetan ba-lebil. Bourru'k berak eta beren aurrean erreko lituzke paperak, eta bein nere aberastasunaz jabe-turik, nai izanik laga ditzazkete euren izkillu auek. Geiagorik zer nai ote zuten?

Deus ez dute aditzen. Kaskagogor daude, milloiak utzi nai dizkioten mutil kaiku ori bezela bere ama tentela, eta, neri iduritzen zitzaidanarren, nere aurrean belaunikatu orde, eztabaidaka jardun, aitzakiaz .. Arriskuren bat gertagatik, ongia merezia luke. Baiñan ez, paperik ez dute izenpetu nai.

—Delikatuegia litzake . diru-errentak aitortu bear ori Zoratu bearrian ibiliko ginduzteke...

Beste oien gorroto aundiaz izan bear atearekin muturretan ez emateko bikote oni. "Beste oien" beldurra ere berekin dute.

—Egin pastela igarriko luteke... Auzipean jarriko ginduzteke...

Roberto eta bere ama iduriturik daude nere sendiak poliziari zalatu diola eta zeletaka nabilkiela. Albo-auzoetan bakarrik onartzen dute nerekin egotea. Ez da nere osasun onetaz ibiltzerik ba-nu bizi guztia taxisean ta lorik egiteke! Ez dut uste, ordea, besteak fiakaitz egongo diranik. Ez bai-da bakarrik txango batera ateratzen naizen lenengo aldia. Arrazoi apurrik ez dute sinisteko, lengo gau batez, Calése'n egondu nintzala, ikuskaitz, beren guda-batzarrean. Gutxie-nez bederik, ez naute oraindik arkitu. Ezerk ez dit galeraziko, orain-go onetan, nere naiak betetzen. Roberío'k baiezkoa eniango ditan egun orretan, patxaratsu egia aal izango dut lo. Zakil orrek ez du iñolako txorakeririk egingo.

Gaur gabaz, Uztailla'k 13, erestalde eder bat da joale kaleko aizean Bréa karrikaren ertzean, bikoteak dantzan ari dira. O! Calése paketsua! An bizitu dutan azken gabara oroitzez nazu. Sendagilleak besterik aginduarren, "veronal" aletxo artu nuan gau artan ta lo eder batean suntsitu. Bat-bateko biotz-larrialdi batez esnatu nintzan, ta nere ordulariari begiratu. Nere leioa zabalik gelditua zan. Iñoren zantzorik ez etxadian, ez saloiean. Sarrerako ate gaiñekotz, iparral-dera dagoan garbi-gelara joan nintzan. An, alako oiturik ez ba-zuten ere, beranduturik gelditua zan familia. Orduak ain aurrera zijoazte-larik, iñoren beldurrik gabe zeuden. Pasilloa eta garbitokiko leioak bakarrik ematen zuten alde artara.

Gau otzil eta goxoa. Itz-tarteetau garbi entzuten nuan Isa, ren arnasaldi estu-antzekoa, pospolo bat piztutzen emandako ots-emekia Aize txaplaka batek ere ez zituan mugitzen zumar beltzak. Leioratzen ez nintzan ausartu, baiñan ezagutu nituan alare, arerio bakoitza bere abotsez, bere parraz. Eztabaidirik ez zuten. Isa edo Jenobeba'ren oldozketaren bati, ixiltasun luze batek jarraiki zion. Gero, batpatean, Hu-berto'ren itz bati Phuli'k erantzun, ondorenean blok batetsu itzegiteko.

—Ama, ziur al zaude bere idazkaritzarako diru-kutxan ez ditua-la gordetzen garrantzi gabeko j>aperak baiño? Buru-gutxikoa izan oi da beti zurkoitza. Gogoratu besterik ez duzu Lukas'i eman nai izan-du zion urrea... Nun gordetzen zuan?

—Ez, berak ongi daki kutxa irikitzen ba-dakitala: *Maria*. Zer-gak ordaintzeko orri-irarritako bat edo aseguroko poliza bat ikusi bear ez dualarik, ez dizu sekulan irikiko kutxa.

—Baiñan, agian, ama bertatik jakiterik izango genituzke ezkutu dituan dirutza batzuetaz.

—Etxeetan dituan aberastasuuazaz mintzo diran gutunak besterik ez daude.

—Au esan-nai aududikoa da, ez al deritzaizu? Esan, bai-leike aurretik dituala arluak neurri den-denak.

Eta aopekoz arrausi bat egin zuan Phili'k.

—Ez! Baiñan, orixe kokodrilca! Eta zer zorion orrelako kokodrilo batekin topatzea!

—Eta sinistu nai ba-didazute —Jenobeba'k esau zuan— Lyonnais, eko diru-kutxan ere ez duzute ezertxo arkituko.. Zer dion onetzaz, Janine?

—Bainan, itz batean, ama, bein edo bein maite izan zaituala esan liteke. Txikiak zifñatenean, beingo batez bederik, ez al zan xamurra zuekin? Ez? Alkar eramaten ez duzute jakin izan. Azkarrak ez zerate izan. Inguratzen, zuenganatzen alegindu bear zifñaten. Phili'ri geie-gikerizko beldur ori ez ba-lioke, nago neronek lortuko nuala ori.

Bere illobaren itzok garratzki ebaki zituan Huberto'k:

—Emen egia dana da, zure senarraren ergelkeria garesti aterako zaigula...

Entzun nuan Phili parregiten. Pittin bat leiora azaldu nintzan ere. Zigarroa pizteko tresnatxo baten garrak unetxo batean argitua zituan bere esku alkartuak, bere okotz biguiña eta bere ezpain lodiak.

—Orduan, ni etorri arte egongo zan zai zuek guztienganako gorrotoa nabaitzeko, onela al da?

—Ez, nazka gutxiago zigun lenago...

—Gogoratu zaitez amonak zer kontatzen zigun —jarraitu zuan Phili'k—, bere semea galdu zuaneko jokabide artaz... Zerbaiten izekaz zala, zirudian. Oiñik ez du ipiñi orainartean illerrian...

—Ez, Phili, urrutiegi zoaz. Iñor munduan maitatu ba-du, Maria izan da.

Isa'ren gaitzeste onetxegatik izan ez ba-litz, abots eme ta dardaratuaz egiña, ezin eutsi izango nion nere buruari. Exerleku motx batean exeri nintzan, soiña aurreruntz okertua eta burua leio-barrenean geldirik. Jenobeba'k zion :

—Maria bizi izan ba-litz ez zan ez orrelakorik gertatuko. Ondu besterik ez zan egingo...

—Baita zera ere! Begitan artuko zuan besteak ar dituan bezelaxe. Mamu izugarri bat da. Ez du giza-sentimenik.

Oraindik ere Isa protestaz :

—Arren dagizut, Phili, ez zazula eraso onela nere senarra, ez zure semea aurrean ez-eta nerean. Begiramena bear diozu.

—Begiramena izan? Errespeta?

Marmartu ote zuan edo iduritu zitzaidan :

—Iduritzen ba-zaizute jolasgarri dala orrelako sendi batean sar-tzea..

Bere amagiarrebak zakarki jardetsi zion :

—Iñork ez zaitu beartu.

—Baiñan itxaropenak dirdai arazi ditu ene begietan... Ara ba! Negarrari ekin dio Janine'k Zelan! Izugarrikeriren bat esan ote dut ba? —eta arroxkokerizko marmariaz— : Bai! Bai !

Entzun, entzun nuan Janine'k zintz egiten, ta bere abotsa eza-gutu ez nuan uorbaitek, ezpain-arro ziola :

—Ene ! Zenbat izar!

San Vicente, ko ordulariak ordubiak jo zituan.

—Ene semetxoak, lotara joan bear gaituzute.

Huberto, k ezezkoa eman zion, esanik, ezin zindezkeala banan-du erabaki bat artu gaberik. Ba-zan garai ekiñetarako. Phili'k ontzat eman zuan. Ni luzaroan bizi nintekeala ez zuan uste. Gerora ez bai-zan ezer egiterik izango. Ontzat emanak izan bear zenituzten nere xede guztiak...

—Baiñan, azkenik, ene maitiok, nigandik zer duzute itxaro? Da-netara saiatu naiz. geiagorik ezin dut egin.

—Bai —Huberto, k itz— Askorik aal dezakezu...

Zer zan inurmurtu zuana? Iges joan zitzaidan jakiteko irrika aundienaz jakiteko gogoz nintzana. Isa, ren izketa-abotsez konturatzen nintzan arriturik zegoala, ikaratuta.

—Ez, ori ez zait ezertan gogozko.

—Zer gogozko zaizun jakiteko ez garabiltz, baizik gura ondarea salbatu naiaz.

Eta Isa, ren mar-mar eten-errezak oraindik :

—Gutziz gogorra da, ene serne.

—Alarik ara, amona, bere laguntzaille izaten ez duzu jarraitu

bear. Erentzirik gabe lagako gaitu, baiñan zure baimenaz. Zure ixí-tasunak damaio indar.

—Janine, biotzekoa, nolatan ausartzen zera.. ?

Isa errukarria, ainbeste gau igaro zenituana neskato oiulari aren oe buruan, zure gelan artu izan zenuana bere gurasoak lo lasaia egin nai zutelakotz eta ez zalakotz iñolako umezairik aspertu gabe zaindu lezakeanik.. ! Janine'k garratzki itzegiten zuan, neretik atera arazteko naikoa zitekean abots-doiñu batez. Geiago mintzo zan.

—Atsekabe dut, amona, gauz auek esateaz, amona. Baiñan nere bearkizuna da.

Zure bearkizuna! Izen au bere aragiaren eskariari ematen ziola-ko amore zan, niganaiño eltzen zan par-txoro ura egiten zuan gizon polit ark baztertuta utziko zualako beldurrez...

Bere alabaren itzak beretzat artu zituan Isa'k. Noski baiño nosgiago auleria laguntzaille txarrean biur zitekealako. Isa'k aantsika:

—Enetxoak, onenean gauzik errezena berari idaztea litzake.

—Iñolaz ez orrelakorik! Batezere, eskutitz bat ez —Huberto'k erantzun asarez— Eskutitzak dira beti galtzen gaituztenak. Uste dut, ama, ondiño ez zeniola idatziko, ez da?

Bi edo iru bider egiña zala aitortu zuan berak.

—Idazki eskoin-txarrekoak ala txakurrenak esatekoak...?

Isa kili-kolo ibili zan erantzuteko. Eta ni parrez.. Bai, txit maitekiro gordetzen nituan idatzi zizkidan eskutitz bi, irain izugarriak zegizkidanak bi eta ea unkigarria irugarrena. Auek nere eskuetan aski ziran dibortzio auzi guztiak, bere seme tentelek orretara bultzatuko ba-luteke, galtzeko. Guztiak larritasun batean zeuden, oi bezela zakur batek írrust daginean ta zakurredi osoa orretan ekiten dionean.

—Amona, zuk ez al diozu idatzi? Guretzat kaltegarri litzaiguken idazkiren bat bai al-du?

—Ez, ez dut uste... Ez bada, beingoz, era batera edo brstera lepotik elduta euki bear duan San Vicante, ko prokuradore txiki orrek, malkojario (maltzur eta gixatxar bat da) esan bai-ziran : "Ene! etxe-koandre, burugutxikoa azaldu zera berari idatzirik... !".

—Zer esaten zenion ba? Uste dut ez zenuala iraiñez ekingo, ez?

—Bein, Maria il zanean, itz-eraso bat igorri nion gogorregiak bearbada. Eta beste bein, 1909 garrenean. Oraingontan besteetan baiñan arazo arruntagoa zan.

Huberto'k kurrinkaz :

—Au aunditxo da, aundiegia.

Eta bera, lasaitu zualako uste osoan gelditu zan, bereala konpondu zituala gauzak, damu izan zala eta bere errua aitor.

—A, bai! Lora-xortaren bat edo .

—Orduan, banatze edo dibortzio baten beldur ezin gindezke egon.

—Baiñan, ori ta guztiz ere, zerk egiztatu dezaizueke ain beltzak dirala bere asmoak?

—Aratz! Itxua bear da izan. Bere finantza-jokaldi guztien misterio gaitza, bere itzerdiak, aditzaillen aurrean dalako Bourru, ri iges egin zioten itzok: "Zaarra iltzen zaizuetenean, zuen oiua zeruak ere entzungo ditu".

Eta amon-zaarra aurrean ez ba-lego bezela eztabaidaka jardun ziran. Aantsika altxa zan bere exerlekutik. Berak zionez, ezin zeza-kean kanpoan exeririk egon luzarogo, erreuma-aira zualako. Bere semeak erantzun ere ez zioten egin. "Gau on" epel-ixil bat entzun nuan, beren izketaldia gelditu gaberik, zuzendua. Bera izan zan banan-bana muxu eman ziena, iñor beratakorik ez bai-zan mugi. Oeratu egin nintzan, badaezpadakor. Bere urrats aztunek ots zegiten ixkalleretan. Nere ateraiño iritxi zan ta bere asperena adi. Argi-suzia lurrean laga eta atea iriki zuan. Bertaratu zitzaidan ta niganuntz markurtu lo ote nengoan ziur egon zedin. Zenbat denboran egondu zan era onetan! Saldukeriren bat egingo ote zidan, beldur zan. Arnaska-autsi batez zan arnas. Azkenekotz, ostera nere atea itxi zuan. Bere gelaren atea itxi zuan bezin laister, ostera nere entzun-lekua artu nuan garbitokian.

* * *

Lenagoko toki ber-beran zeudeu gaiñerantzekoak. Abots-erdizka itzegiten zuten. Euren itz asko ezin nituan adi.

—Bere tankerakoa ez zan —Janine'k zion— Ori ere izandu da. Ene Phili, eztulka zagoz. Berogarria jantzi zazu.

—Biotzez, ez da bere emaztea geien zapuzten duana, gu baizik. Sinistekoa ere ez da! Ez baita orrelakorik eleberrietan ikusten ere. Ezergatik ez dugu gure ama epaitzerik —amaitu zuan Jenobeba'k— baiñan ba-derizkiot geiegi ez duala maita ..

—Alajaiñetan! —Phili'ren abotsa zan— Berak bereganatuko bere ezkon-saria. Aita Fondaudége, ren "Suez" akzioak... Pentsa zenbates izoak izango diran 1.884 garrenetik...

Suez akzioak? Salduak izan ziran baiñan

Antz artu nion Jenobeba, ren senarraren zalantz eta txaldankeriei. Alfredo koittaoak artean ezpaiñak askatzeke zan. Jenobeba'k itz- mozketa egin zion mikatztasun ta karraxi tankeraz :

—Zoraturik al zaude? Suez'koak salduta?

Alfredo'k kontatu ere egin zuan, nolaz Loreilla'n arkitu zuan bere amagiarreba paperak izenpetzako une berean, ta esan ziola ere:

—Ba-dirudi oraintxe dugula garairik onena saldu ditzagun. Oso goitik daude, ta denbora asko baiilan lenago jextxiko.

—Eta ez al zenidan adierazi? —abots-oiuz Jenobeba'k— Erabateko kirten bat zera. Zaarrak saldu arazi dizkio Suez'koak. Eta mmi-duan dan gauzarik naturalkiena bezela zatozkiguk kontatzera...

—Baiñan Jenobeba, gauz guzti auen berri zuan amak ematez zizueta, uste izan dut. Ezkon-sari legepean ezkondua bai-da..,

—Bai, baiñan salduketa orren irabaziaz ez ote da bada bera gelditu? Zuk Huberto, zer derizkiotzu? Garaiz ez adierazte orrek...Eta nik, nere bizitz osoa gizon orren ondoan igaroko nuan...

Janine, tartekotu zan adieraztearren ixiltxeago itzegin zezatela. Bere alaba esnatuko bai-zuten. Minutu batzuetan ez nuan itz geiagorik nereganatu. Gero, berriro Huberto'ren abotsa entzun zan.

—Guztiok lentxeago esaten genduanatzaz pentsatzen dut. Ama dagoan bitartean, ezin aalegindu gindezke ezertan alde ortatik. Gutxienez, astiro-astiro antolatzea bearko litzake...

—Agian atsegiñagoa izaugo zaio au, banatzea baiño. Banaketak naitanaiezko dibortzioa ba-dakar, konsientzi arazo bat irikitzen du... Noski baiño noskiago, Phili'k esaten duanak, bat-baterako atzerakada ematen du. Gu baiñan, ez giñake epaikariak izango. Gu-geu ez giñake erabakitzaile izango azken une orretan. Gertakizunak sortaraztea da gure eginkizuna. Eta gertakizun auek ez datozke, orretan agintari legezkoak diranak arazo-bear ori ezagutzen ez duten bitartean.

—Eta nik berriro ere esaten dizutet, ori guztia itxuak bezela tuntu-lunpuntun ibiltzea dala.

Bear-bearrezkoa zitzaion Hiiberto'ien emaztearx asarre egotea era orretan abotsa altxatzeko. Gizon zuur eta adimen zuzenekoa nintzala baietzatu zuan.

—Eta esan bearra dut —luzatu zuan itza—gutziz maiz berarekin bat natorrela, eta esku-zorroa baiño leunago biurtuko nukeala nere laia txautuko ez ba-zeuuteke...

Phili'k erantzun bear izaudu zion lotsagabekeriaz tautik ere ez nuau entzun, guzti-guztiak par egitei bai-zuten, Olimpia'k itzegiten zuan bakoitzean ere gertatzen zan erabereau. Nik izketaldiaren zatiak biltzen nituan :

—Bost urte dira legegizon bezela ez dala jarduten, ezin ditekeala jardun.

—Biotza dala-ta?

—Orain, bai. Baiñan ariketa ori utzi zuanean, artean ez zegoan gaixoiük. Egia da bere lankideekin itz-mokoka aritzen zala. Ixkanbil batzuek izan zituan Zuzentza-Etxeko pasilloetan. Orretzaz xeetasun zenbait izan nituan...

Belarria zabal-ernai nuan, baiñan alperrik. Phili'k eía Huberto'k beren jarlekuak bertaratu zituzten. Marmar-ots ezberdin bat beretik ez nuan entzun, eta gero Oliinpia'ren aokada au.

—Tira, tira! Nere irakurgaiaz mintzatu ninizaiokean gizon bakarra emen uraxe, iritzi guztietaz gaiñera... eta oraindik nai duzute...

"Au emakume txcraska", auxe bakar-bakarrrik entzun aal izan nuan Phili'k eman zuan erantzunetik. Huberto'ren suin batek, ea ifioiz itzegiten ez duan orrek, itz-etenaz esan zuan :

—Nere aniagiarrez ongi itzezinak zaitezela, eskari dagizuet.

Txantxetan ari zala esan zuan Phili'k. Biok, ez al ziran agian galtzailleak arlo onetan? Huberto'ren suiñak ziurtatu ba-zuan ziurtatu, abots dardarituaz, bere burua ez zuala jotzen biktima-galtzaille bat bezela, eta bere emaztearekin maitasunak eraginda ezkondu zala, abots bateratuan esan zuten guztiak :

—Ni ere bai! Ni ere bai ! Ni ere bai !

Irrimirrika, bere senarrari esau zioii Jeuobeba'k :

—A! Zu ere bai! Arrokiro azaltzen al zera, nigaz ezkontze aurretik ez zenualako jakin zenbateko dirutza, zenbateraiñoko dii'utza

zan nere aitarena? Oroi zadi nolaz gure eztaieguneko gabaz, esan zenidan : "Ezer esan nai ez digun orretaz bere asmoak zertarako, baldin ba-dakigu ikaragarria dala?".

Guztiak par egin zuten. Berriroki mintzatu zan Huberto, une batzuetan Lakarrik itzezin zuan. Azkeneko esanaldia besterik ez nuan aditu :

—Zuzenlza arazo bat da, guztien gaiñetik dagoan biotz-lege bat. Ondareak, sendiaren eskubide sakratuak zaintzen ditugu.

Egusentiaaren aurre orretan izan oi dan ixiltasun betean, ulertez-erezagoak egin ziran beren izketaldiak.

—Jarraitu dakiela? Artu-eman geiegia du poliziarekin, au egiztatzeke egokiera izan dut. Jakingo bai-luke. —Eta une batzuei ondo-oren—: Ezaguna da bere gogorkeria, bere litxarrekeria. Bi edo iru arazoetan bere gizatasuna kolokan gelditu dala, aitortu bearra da. Baiñan dagokionez zeutzunari, gogoberdintasunari .

—Noianai ere, ez dago ukatzerik gure e.urkarako dituan bere sentimenetan izate aberetiarrak, mamorrotsuia eta gizaki-etsaigoa.

—Alarik, Janine txiki orrek uste aal duzu —Alfredo'k alabari esan zion—, naikoa litzakela au bere gaitza zertan datzan erabakitzeko?

Ulertzen zitan. Ulertu zuan. Baretasun aundi bat jabetu zan nitaz, kezka orretatik jaiotako patxaraldi bat; momoak berak ziran, ni azpiz-jotakoa. Atsegin zitzaidan Isa joana izatea. Gutxi edo asko, aurkako iztun izan zitzaie au eurekin egon zanean, ta bere aurrean ez ziran ausartuko jakin-berri nituan asmo aiek azaltzeu, bestekotz, ematen ez zidatelarik beldur. Kaikutzar alenak! Giltzeperatzen edo ezeuzten uzten dutan gizona ba-nintz bezela: Berak beatz txikerra mugitu baiño leenago einbatean utziko bai-nuan nik Huberto egoitz larrienean. Berak bai-bai-daki ongi eldurik daukatela. Eta Phili dagokionaz, ba-ditut xeetasun batzuek bai.. Auek erabilli bearrean gertatu nintekeenik bururatu ere ez zitzaidan egin iñoiz. Baiñan ez ditut erabilliko ; ortzak erakutsirik aski izan dut.

Lenengo aldiz nere bizitzan poza nabaitzen nuan, txarren artean gutxienek nintzalako. Ez nuan nabaitzen gogorik eurretaz bengantzik artzeko. Edo, gutxienez, beste bengantzirik ez nuan nai, biotzlarri eta irrikaz inguruan ibiñaz urtuarazten zieten ondare au kentzea ez ba- zan.

—Izar igeskor bat? —ao-betea esan zuan Phili'k— Zin-eskeiutz bat egiteko astirik ez dut izan.

—Beñere ez du astirik izaten —Janine'k esan.

Eta aurtxoaren pozez bere senarrak geiagotu zuan au esanaz :

—Bat dakuszunean deadar egingo duzu : "Milloiak".

—Phili an bai kaikutzarra !

Zutitu egin ziran guztiak. Baratzako butakak ondarra arramazkatu zuten. Ta ate-sarrerako morroilloen otsa entzun nuan, ta Janine'k pasilloau egindako par-eutsiak. Geletako ateak banan-banan itxi ziran. Nere erabakia artua zegoan. Bi illabete aietan ez nuan gaitz-eraso gogorrik izan. Ezerk ez ziran galerazten Paris'era joan nadin. Geienetan, iñori adierazi gabe joan oi nintzan. Ez nuan nai, baiñan, nere joanerak igesketa baten itxura ar zezan. Goiza bitartean, nere beste zenbait aldietako asmoak berrirotu nituan. Eratua laga nuan dan-dana.

XIII

Eguerdian, jaiki nintzanean, ez nuan nabaitzen iñolako nekerik. Bourru, urrutizkiñez otsegin zitzaiolako, ni ikustatzera etorri zan bazkal-ondoan. Astigar-pean egurazten ibili giñan iru ordulaurdenean. Urrutitutik begirale genituan Isa, Jeuobeba eta Janine'ta ni pozkarioz nintzan auen larri-miñaz. Bai penagarria Burdeus, en zeudela gizonak! "Bourru da bere arima erratua", zioten prokuradore zaar eta txikiarengatik. Zoritxarreko Mourru, jopu bat baiñan askoz er-tsiago lotuta daukatana! Goiz artan ikusi egin bear zan deabru txatxal aren jardunkizima bere aurkako izkillurik utzi ez nezan nere ondare-artzaille badaezpadakoaren eskuetan. .

—Baiñan berak emango dizkitzu —esan nion— zuk erreko duzun bezin laister berak izenpetutako gutun-aitortza.

Joanerakoan, emakumei agur bero berezi bat egin zien, auk ean erantzun ez ba-zieten ere, ta bere txirringa edo bizikleta gaiñean jarri zan. Itzuli nintzan beaztopa egitearren iru emakumeekiii, ta esan ere bai gau artan bertan Paris'era ninjoala. Isa'k ekin zidalarik esanaz ibilaldi artan abitzea burugabekeri bat zal, erantzun nion:

—Bearrezko zait nere diru-jarketaz ardura nadin. Iduritu ezarren, zuekin pentsatzen dut.

Larri-irrikaz aztertu ninduten. Nere irri-mirrika izketak saltzen ninduan. Janine, bere amari begiraturik sutu egin zan.

—Amoiak edo osaba Hcberto'k egin dezakete zure tokian, aittona.

—JNere asmo bat da, enetxoa... Asmo on bat! Baiñan oituta nago nerez gauzak egiten. Gaiñera, gaizki egiten dutala ba-dakit, baiñan ez naiz fio iñorengan.

—Zure semeekin ere ez? O! aittona!

Gutziz buztanzuri zan abots batez berezitu zuan "aittona" itza. Ain loxintxari azaltzen zalakotz zaila zan ura gaitzetsitzen. A! bere abots suiiirigairi ura, besieen abotsekin naastuta gabaz entzun nuan abots ura...! Orduantxe ekin nion parrari, eztulka jartzen nindua ta argiroki ikaratzen zituan par beldurgarri artaz. Egundo ez dut aaztuko Isa'ren arpegi txatxal ura, bere nekea. Erasoak jazana izango zan noski. Janine'k, berriz, ziur aski, leiakelari ekingo zion berriro, nik jira-erdia eman ordukoxe.

—Ez zaiozuela joaten laga, amona.

Baiñan ez zan gauz nere emaztea burrukarako, ezin zuan geiago; bere indarren mугan zegoan, nekeak zanpatua. Lengo egun batez entzun nion Jenobeba'ri esaten ziola :

—Oeratzea nai dut, lo egin, sekulan ez esnatu..

Nere amak samurtzen ninduan bezela samurtzen ninduan. Nere gaiñera jaurtikitzen zuten nere semeak gastatutako makina zaar ersbiili-eziñeko ura. Kezkarik gabe, beren erara maite zuten; sendagilleak ikus zezan, onen aginduak betetzera billakatzen zuten. Bere alaba eta illob-a aiendu ziran, ta orduan bertaratu zitzaidan.

—Entzun zaidazu —berealaxe esan zidan— dirua bear dut.

—Íllaren 10 garrenean gaude. Íllaren lenengoan il guztirako bear dirua eman nizun.

—Bai, baiñan Janine'ri dirua aurreratu bearrean gertatu naiz; oso estu dabiltz. Calése'n ekonomiak egiten ditut; Agorrill, ekotik itzuliko dizut.

Ajolik gabe neukala arek eta ez nuala zergatik mantendu Phili, esan nion.

—Arakiñari eta dendariari eskatuak zenbait zor dizkiet... Begira —berak esan—.

Erakutsi zizkidan kontuak. Kupitu nintzan. Txekeak izenpetuko nituala, agindu nion.

—Orrela dirua ez da joango beste ñora.

Onetsi zuan berak. Txeke-liburutxo atera nuan ta jabetu nintzan, larrosen tartetik Janine ta bere amak zaintzen ginduztela.

—Ziur nago —esan nion— beste gauza batetzaz itzegiten didazula iduriturik daudela.

Isa dardarikaratu zan ta apekoz galdetu zidan :

—Zer gauzatzaz? Zertaz?

Une artantxe bularraldian estutasun bat nabaitu nuan. Nere bi eskuaz estuturik ere, ain ongi berak ezagutzen zuan keñu ura egin nuan. Albora etorri zitzaidan.

—Gaizki al zaude?

Bere besoaren laguntzapean jarri nintzan une batean. Astigarren kerizpean ba-generudin alkargo sendo baten ondoren bere bizitza bukatzen duten senar-emazte bi. Abots ixillez borboillatu nion:

—Orain obekiago nago.

Iñundik ere pentsatu zuan itzegiteko garai egokia zala, berebiziko egokiera. Baiñan. orretarako indarge zan. Oartu nintzan bera ere arnasik gabe zegoala. Zeiñen gaixorik nengoan ere, burua menderatu nuan. Baiñan bera opaldu egiten zitzaidan, zana ematen zitzaidan. Ezertxo ere ez zitzaion gelditzen.

Itzen bat arkitu nai zuan ta zearka begiratzen zion bere alabari eta bere illobari, ausarditsu biurtzeko asmoz. Eta nigana altxatu zuan bere begiratuan ezin esan alako lasaitasuna nabaitu nuan, erruki apur bat onenean edo-ta lotsa pittin bat. Gau artan naigabi'tuko zuten latz bere semeek.

—Bakarrik zoazela-ta beldurtzen naiz.

Erantzun nion, alegia, ibillaldian ustegabe txarren bat gertatzen ba-zitzaidan, onera erakartzea ez zuala penarik balio.

Eta berak arrenkuraz esan ba-zian gauz auek ez aitatzeko, erantsi nion :

—Alperrikako gastua litzake, Isa. Nun-naiko illerrietalto lurrak berdiñak.

—Nik ere berdin pentsatzen dut. Berak nai duten tokian sar nazatela. Bein edo bein lo egin nai izandu dut Maria'ren inguruan Baiñan, Maria zanezikotik zer gelditzen da?

Oraingontan ere ulertu uuan, berarentzat bere Maria txikia ezur eta autsa zala. Ez fiintKcin aasartu esaten, urtcen buruan, nere alaba bizitzen nabaitzen nuala eta arnas nengiola, eta aize-zakar batez noiz-nai igarotzen zuala nere bizitz beltz-beltza.

Alperrik zeletatzen zuten Jenobeba'k eta Janine'k Nekatua zirudian Isa. Orrenbeste urte buruan neurtzen ote zuan burruka-gai izan zuanaren txikieria? Jenobeba'k eta íluberto'k euren semeak bultzalari, nere aurka jaurtikitzen zuten emakume zaar ura, ísa Fondaudége, usai-gozo-jario izan zana Begnéres'ko gauetan.

Mende-erdi bat igarorik aurrez-aurre arkitzen giñan. Eta arratsalde itogarri artan, bi etsaiak konturatzen ziran zer-nolako lotura sortzen duan, naiz-eta burruka luzean jardun, zaartzaroaren laguntzak. Alkarri gorrototan bizi giñala idurituarren, jo-muga batera elduak giñan. Ez zegoan deus, ezer bafño gutxiago zegoan iltzea itxaron genduan muiñoaren gaiñean. Gutxienez, neretzat. Berari bere Jaungoikoa gelditzen zitzaion; bere Jaungoikoa gelditu bear zitzaion. Ain lakatzaki berea izan zuan ori guztia, bat-batean bera gaberik gelditzen zan; bera eta Izaki Betikotasunezkoa, ren artean ostropo jartzen zitzaizkion bere naikeriak. Orain, ikusten al zuan berak?, Ezerk sakanatuko ez zuan Ura ikusten al zuan? Ez, gelditzen ziran naikeriak, semea gosegríñak. Nairnenez asea zegoan bera. Eta lortu aal izateko ostera gogortu egin bear. Ardura aiek bai, diruarengatik, osasunarengatik, zalekerí eta kezkan tajutuak, guztiak an zeuden, bere aurrean, irakasleak idatzi oi dituan ikastola bearkizunetan bezela : "Berriro".

Jenobeba eta Janine, iñauskiñak eskuan, larros-garbiketan ari ziran itxuretan zeuden tokira begiratu zuan ostera. Arnasa etorri arazteko exeri nintzan aulkitik ikusten nuan nere emaztea, burua makur, errita-eraso beldurrez dagoan umetxoaren gixan aienatzen ba-zijoalarik. Eguzkia, beroegia, ekaitzaren aintzindari zan. Baldarki zijoan, berarentzat ibiltzea nekagarria bai-zan. Iduritu zitzaidan intzirika esan ote zuan :

—Ene : nere belaun-ezurrok!

Senar-emazte zaar bik, uste izan duten ainbat gorrotoz ez dira izaten. Besteengana alkartu zan, ta auek, ain zuzen, arpegira botatzen zioten bere jokabidea. Berealako batez, niganuntz ba-zetorkidala ikusi nuan, gorri, arnasestuka. Nere alboan exeririk aantziz :

—Arras nekatzen naute eguraldi sargori auek: egunotan odol presioa igo egiten zait... Entzun zaidazu, Luis, burua ler daukat zeredozertaz.. Zertan erabilli dituzu nere ezkontz-sariko Suez'ko akzioak? Ba-dakit eskatu didazula beste paper batzuek izenpetu ditza-dan...

Adierazi nion zein irabazi ikaragarria lortu nuan berarentzat, jexiten asi baiñan egun batzuek leendik. "Obligazio" batzuetan erabili niala dirua, esan nion.

—Zure ezkontz-saria aunditu egin da, Isa. Frankoa jetxiagatik, lilluraz zoratuko zera. Zure asierako ezkontz-saria, baita irabaziak ere, guztia zure izenean ipiñita daude Westminter'en.. Onetaz gure semeak ez dute ezer ikustekorik..., lasai egon zindezke. Ni naiz nere diruaren jabea eta baita ere eman duanarena berak; baiñan zuregan-dik datorrena zurea da. Zoaz berekoikeriezaren aingeru oiek lasai-tzea.

Brasta eldu ziran berak besotik.

—Zergatik diezu gorroto, Luis, zer dala-ta nardatzen duzu zure sendi guztia.

—Gorroto nazutenak zuek zerate. Edo, obekiago, nere semeak ez naute ikusi nai. Zuk... nitaz ez zera ajolatzen, ez ba-da sumindu edo ikaritzen zaitudanean.

—Geiagotu zenezakea "edo oiñazetzen zaitudanean..." Beste aldi batzuetan ez dutala sufri iduritzen ote zaizu?

—Aratx! Ez duzu nai izango zure semeak...

—Bearrezkoa izan zitzaidan berrietaz bat egitea. Eurengandik kanpo zer geldituko zitzaidan? —eta abots sotillez geiagotu zuan—: Lenengo urtetik bertan-bera utzi ninduzun ta iruzurtu, ongi dakizunez.

—Isa gizagaixoa, ez didazu sinistaraziko askorik arduratu zeraiik nere nabarmenkeriak dirala-ta... Agian bai, emakumeak oi dituzuten zimakerietan...

—Ain itz-leiala dirudizu! —esan zuan par-garratzaz— Zedorri ere oartu ez zerala ontaz, pentsatzen dutanean...

Itxaropen-dardaraz jarri nintzan. Arrigarria noski, zeren sentimeu aienatuak bai-ziran, amaituak. Nik jakin gabetanik, berrogei urtez lenago maitatua izan ote nintzan itxaropena... Ez baiñan, ortan ez dut sinisten...

—Ez bai-duzu izan itz bat ere, marraka bat... aski gauz zenituan semeak.

Esku-artean ezkutatu zuan bere arpegia. Beste iñoiz ezinbestez jabetu nintzan orduantxe bere zain lodiatzaz, bere erdoi-tantaz.

—Nere semeak... Gogoratzen naizenean nolaz gelaz banandu giñan unetik, bizitu izandu uaizela gabaz bakarrik, nere ondoan iñor gabe, baita gaixorik zeudelarik ere, itxoiten bai-nuan nik itxoin beti etorriko ziñala nigana...

Malkoak ixurika zijoazkion bere esku zaartuetatik. Ura zan Isa; nik aski nezakean bakar-bakarrik emakume gizen ta ea elbarri artan Lys zelaidiko bideau zuriz jantzitako emakume gazte ura.

—Nere urteetan gauz auetaz gogoratzea parregarria eta ikaragarria da. Bai, batezere, parregarria. Barka zaidazu, Luis.

* * *

Erantzuteke, maatstiei begiratu nien. Kezka bat sortu zitzaidan une artan. Bai ote liteke mende-erdi batean ez ikustea, gurekin bizitzen dan gizakiaren alde bat bakarra baizik? Egin ote liteke oitura bidez itzen ta keñuen aukera, onarturik bakarrik gure bidegabeke-riak elikatu eta gure zaputzkeriak bizi-erazten dituztenak? Besteak gutxietsteko joera kaltegarria; zama eztitzen duten argidura guztien baztartzea, askoz gizarteagokoa egingo bai-luteke gure gorrotoaren karikatura, gorrotoak ba-lu justifikatzeko bearra... Ikusi ote zuan bada Isa'k nere buru-naasmena? Laister balia aal nai izan zuan.

—Gaur gabean ez zera joango, ez da?

Uste izan nuan bere begietan argi-dirdari bat nabaitu nuala "bere mende neukala" uste izan zuanean. Arritu itxurak egin nituan ta erantzun ez nuala iñolako arrazoirik ibillaldia atzeratzeko. Alkarregaz abiatu giñan etxeruntz. Ene biotza zala bide ixkillaretako aldapa ez genuan igo eta etxea inguratzen duan astigarraga-bidetik jarraitu genuan. Alaz eta guztiz ere, txundituta eta burujabetasunik gabe nabaitzen nintzan. Eta ez ba-nintz joango? Eta idatz-liburutxo au Isa, ri emango ba-nio? Eta...? Nere bizkarren ipiñi zuan bere eskua. Zenbat urte ote ziran orrelakorik ez zuala egin? Astigarraga-bideak etxean zuan bukaera, iparraldetik, Isa'k esan zuan :

—Cazau'k ez ditu beñere biltzen baratzako exerlekuak...

Oartzeke begiratu nuan. Exerleku utsak artean borobil estu bat egiten zuten. Jarrita egon ziran aiek, bertaratzeko bearrez arkitu ziran aopekoz mintza aal izateko. Errezkiro nabaitzen ziran oraindik urrats-zanpaketak. Phili'k erretzeu ziluan zigarroen ondakiñak bazter guztietan ikusten ziran. Gau artan an gelditu izan zan etsaigoa; izarren azpian batzarra egiña zuten. Emen itzezin zuten, nere etxean, nere aita zanak landututako zugaitzen aurrekotz, zelan ni ezereztu edo giltzaperatu. Umiltasuneako gau batean berdin-antzeko joan fiuan nere biotza sugedorrien bilketa batekin. Ez, ez, sugedorriei korapilloa ez zegoan nigan : nigandik irtenik, gau artan bil-bil egin ziran kurpil beldurgarri bat osarurik ixkillara pean. Eta ksreaai zeuden, artean, bere arrastoak.

* * *

"Ostera arkituko duzu zure dirua, Isa —pentsatzen nuan— nik ugaritu arazitako dirua. Baiñan an baiño geiagorik ezertxo ere ez, auxe bakarrik. Jakingo dut, gaiñera, bide bat arkitzen jabetza au izan ez dezaten. Calése salduko dut, eremuak salduko ditut. Nere sendiarengandik datorren guztia seme ezezagun orren eskuetara joango da, biar elkarrizketa bat izango dutan mutil orretara. Edozein dala ere, ez zaituzte ezagutzen. Bera ez da sartuen zuen azpi-lanean; nigandik urrun ezia izandu dalarik ez nazake gorroto; eta gorrotatzen ba-nau, bere gorrotoaren zioa gizaki zeingabeko bat izango, ikustekorik ez duana neronekin..." Asarre azkatu nintzaii ta laisterka bizian igo nitan sarrerako malladiak, nere biotz zaar eria aazturik. Isa'k dea-darkatu zuan :

—Luis!

Ez da jiratu ere ez nintzan egin.

XIV

Loak ez nindualako artzen, ostera jantzi ta kalera irten nintzan. Montparnasse bulebarrea irixteko, dantzan zenbiltzan bikoteen arte-tik egin bear izandu nuan bide. Egokiera zanbaitetan, baita erkaldar nintzan onek ere Uztailla'ren 14 garreanean ziran jaietatik iges joan oi zan. Iñolako gizon zentzudunari ez zitzaion bururatuko ere kaleko go-

zamenetan naastea. Gau artan gazte-kiskillak ez zebiltzan dantzan Bréa kalean, Rotonda aurrean. Ez eta zaar lizunik, baizik mutil kementsuak, ginbaillik gabekoak. Alkandora besa-motzak irikirik agertzen zuten zenbaitzuek. Emakume-dantzarien artean bakanka ziran neskatil gazteak. Euren dantza etetzen zuten taxisen artean dantzatzten ziran bikoteak, baiñan atsegiñez eta umoretsu azaltzen ziran. Oartzeko nerekin beaztopatu zan fruitil batek, oiuegin zuan :

—Tokie zaar prestuarentzat!

Arpegi-alai errenkada bien erditik igaro nintzan.

—Logalerik ez al duzu, aiton? —galdetu zidan illea kopetaren gañera eroria zeramau mutil gazte beltzaran batek.

Eurak bezela parregiten ta kalean dantzatzten ikasiko zuan Lukas, ek. Eta nik, guztiak baztertu eta jolasten ikasi ez nuanak, nere mutikotxo gaixoarengandik ikasiko nuan. Ifior baiño geiago alaituko zan; dirurik ez zitzaion iñoiz faltatuko. Baiñan lurrez bete da bere aoa. Auek ziran nere oldozkizunak, eta, familiaren larriaz biotza estitirik, akeitetxe atadian exeri nintzan poz-jaiaren erdi-ardian.

Eta, batpatean, ezpaloietik igarotzen zan jendetza artean, neroni ikusi nintzan. Roberto zan, lagun zuala beartsu itzurako adiskide bat. Nardatzen ditut Roberto'ren ankaluzeak, nerearen antzeko soingoi ori eta bizkarrari jositako buru ori. Nere akats guztiak nabarmenagoak egin bai-dira beragan. Arpegia luzea dut nik, baiñan zaldiarena du berak musua eta konkordunaren bere tankera. Konkordunarena da ere bere abotsa. Otsegin nion. Bere adiskidea laga zuan ta larri-irrikaz begiratu zuan bere ingttruetara.

—Emen ez —esan zidan— Campagne-Première karrikako eskubiko ezpaloiean itxoingo dizut.

Iñun ez gindezkeala obetego ezkutaturik egon ixkanbil aren erdian baiño, adierazi nion. Onetsitzera makurtu zan, bere adiskidea laga eta nere maiean jarri zan.

Kirol izparringi bat zenkan eskuetan. Ixilik ez egotearren, zaldiatzaz itzegiten saiatu nintzan. Beste aintziña batean, Fondaudége zaarrak oitu ninduan onetan. Roberto'ri edest nion zelan nere aitagiarrebak apustuan jokatzerakoan aukeramenean xeetasun guzti-guztiak izaten zituan, ez bakarrik zaldiaren aspaldiko odol-jatorria baizik era maite zituan lurren izakera... Itza ebaki zidan...

—"Dermas", en lortzen ditut nik xeetasun guztiak.. Suntsitu egin zan oial-denda zan, an Petit-Champe kalean.

Bestaldetik, irabaztea zitzaion interesgarri; amorrazio ematen bai-zioten zaldiak.

—Maite dutana —luzatu zuan— txirringa da.

Eta dirdaitsu jarri ziran bere begiak.

—Bereala —esan nion— berebilla izango da...

—Pentsa zazu!

Beatz-lodia txistuaz busti, paper-ingi bat artu eta zigarrotxo bat borobildu zuan. Ixiltasuna berriro. Garai artako krisis nabaitzen ote zan edo lana egiten zuan etxean, galdegin nion. Norbaitzuek bidaliak izan zirala baiñan iñolako arrixkurik ez zuala berak, erantzun zidan. Bere pensakizunak ez ziran iñoiz irtetzen bere buruari zuzenean zegozkio bide estuetatik. Eta milloiak ziran erortzeko astakillo onen eskuetara.

"Eta eginkizun onetarako zabalduko ba-nitu, edo eskuz-esku emango ba-nitu? —pentsatzen nuan— Ez baiñan, "berak" galerazterik izango bai-zuten... Testamentuz? Iñolaz ere ezin bada igaro kuota-iihurri batetik. Ene, Lukas, zu bizirik ba-ziña...! Egia da benetan arek ez zuala ontzat emango, baiñan nik arkituko nuan bideren bat aberastu zedin ta aberastu berak usmatu gaberik, ni nintzaiola... Esatebaterako, ezkontz-sari bezela emanik berak maite izango zuan emakumeari...

—Esaidazu jauna...

Roberto'k bere arpegia igurtzi-imurtzi egiten zuan, beatz korapilozko bere esku gorriaz. Itzez luza zan :

—Guk papera erre baiño leenago Bourru prokuradorea ilko baltz, alegia pentsatzen dut

—Bere ordeko, bere semea izango litzake. Bourru, ren aurkako nik utziko dizudan izkillua, bere semearentzat ere balioko luke, artara beartu ezkeroz.

Masailla imurtzitzen jarraitzen zuau Roberto'k. Ez nintzaion alegindu geiago itzegiten. Biotzaren estutasunak, kizkurtze ikaragarri ori naikoa zitzaidan arreta gal arazteko.

—Esaidazu, jauna... Bourru'k papera erretzen duala egin dezagun kontu; nik ematen diot zuk emandakoa, beartuko duana bere

ziña betetzen. Ordea, onen geroz, nork debeka lezaioke zure sendia rengana joan dedin ta zure semei esan : "Dirua nun daii ba-dakit. Ezkutan gordetzen dutana salduko dizutet; onenbesteko bat eskatzen dut aditzera emateagatik, eta orrenbeste lortuko ba-zenuteke...". Beartzerik ba-luke, bere izena ezertarako azaldu ez dedilla... Onela ez du arrixkatzen gauzik txikieua ere. Arakateren bat egingo da; jakingo da zure semea naizela, eta nere bizi-mailla eta nere amarena igo dala ere, zu ilda geroz jakingo. Eta gauz bi gertatuko dira : errentaren zergarako dirutzaren egi osoa azaldu dugula edo, bestela, ezkutatu egin dugula...

Garbiroki mintzatzen zai. Bere ixpiritua txindorritz gabe gelditzen ari zan. Doi-doi pentsatzeko makina martxan jarria zan ta ez zan gelditzen. Esne poto areugan indartsuena baserritarrak oi duten fiakaitz sena zan, irudikeriak, arriskuari beldurra, ta itxumustuak erabakitzeko ezer ez lagatzeko duten joera ori. Zalantzik gabe, naiago izango zituan eskuetan eun milla franko dirutza ikaragarri ura disimulatzan jardun baiño.

Estutasuna gutxitu eta nere biotza obetoxeago egon artean itxoin nuan.

—Zeredozer egia ba-dago zuk esaten didazun orretan. Ongi, beraz ar nere baietza. Paperik ez duzu izenpetuko batere. Sinisten dut zugan. Bestaldetik, beti izango bai-zait erreza egiztatzan nerea dala diru ori. Onek ez du garrantzirik ordea; sei illabete edo urtebeteko epean, gutxi edo geiago, ilko bai-naiz.

Protestatzeko keñu bat ere ez zuan egin; ez zuan itz arrunta arkitu, ajolik ez duana nork esan zezakean. Ez noski bere adiñeko edezein mutil baiño suminkaitzagoa zalako, baizik gaizki ezitakoa zalako.

—Onela itxuraz aldatzen da au —esan zuan; une batzuetan ausnartu zuan bere burutapena eta jarraitu zuan—: Diru-Etxean eza-gutu nazaten bear-bearrezkoa izango zait noizikpein diru-kutxa ikustera joan nadin. Zure diruaren billa ni joango nintzake...

—Bat naiz zurekin —erantsi nuan—. Atzerrian ba-ditut kutxa batzuek. Nai ba-duzu, zainduagoa ba-deritzaizu ..

—Parame lagatzea? Guztiz ongi.

Adierazi nion Paris'en jarrai zezakeala eta bearrezkoa zuanean

aratu zitekeala. Dirutan edo akzioetan ote zegoan aberastasuna galdetu zidan, ta erantsi zuan :

—Nolanai ere nik nai nukea idatzi zaidazula eskutitz bat adierazirik, zure adimen osoaz zaudela, iñork bultza gabe uzten didazula zure aberastasun guztia... Egin dugun pastelatzaz jakiten ba-dute ta lapurtzat zalatuko baninduteke... Eta, gaiñera, nere konsientziaren la-saitasunerako.—Ixildu egin zan berriro, kakauets batzuek erosi zituan ta ezin-ase goseti bat bezela irensten asi. Eta berealaxe esan— : Ots, besteak zer egiña dute?

—Eskeintzen dizudana ar —garratzki erantsi nion— eta ez zaitez sakonago sar.

Bere masail belaxkak bidenabarki margotu ziran. Bere ezpaiñak marraztu zuten irripar mindu bat, ziur aski oi zuan bezela nagusiaren asarreketari erantzun bearrian izaten zanean, Eta onela azaldu zituan bere ortz osasuntsu eta zorrotzak, ain zuzen arpegi txatxal artan doarik bakarra.

Ezer esan gabarik zuritzen zituan kakauesak. Ez zegoan lausotua. Noski baiño noskiago, bere adimena arian jartzen zuan. Ustegabez arkitu nintzan zozketa-joko onetan arrixku txepelenetara ere oartuko zan izaki soil-soillarekin. Kosta ala kosta, lilluratu egin nai izan nuan.

—Adiskidetxoren bat bai al-duzu? —ber-bertatik galdetu nion—. Ezkondu zindezkea berarekin eta aberats burgesak bezela panpantxo bizi. —Eta keñu ñañar bat egin zualarik eta bere buru ituna makurtu, itz luzatuz esan nion—: Bai bestaldez, gogo duzun edozeiñekin ezkondu zindezke. Eta emakumeren bat ba-lego ezin lortu zenezakeana maitasun berea...

Lenengo aldiz jarri zuan zabal-zabalik belarria, eta bere begietan dizdiz ikusi gaztetasunarenugarra.

—Brugére andereñoarekin ezkondu niniteke?

—Brugére andereñoa nor duzu?

—Ez, ergelkeria esaten ari naiz. Dermas Etxean gaillenena da. Pentsa dezakezu, berealdiko emakume bat. Beñere ez nau begiratu; bizi naizenik ere ez daki... Ikusten duzu bada. Eta ziurtatu nion ezkeroz bere aberastasunaren ogeigarrengo zatiarekin Paris'eko edozein "gaillenekin" ezkon zitekeala, berresan zuan—: Brugére ande-

reñoa; —eta itzez erantsi, bizkarrak kizkurturik—; Ez, orretan ez da pentsa bear...

Gogaikarri neukan biotza. Karnareroari otsegin nion ta Roberto'k orduan, ekin arrigarri bat izan zuan :

—Ez, jauna; utzi zaidazu ordaintzen, opa dezaizuket onenbeste.

Atsegiñez ostera gorde nuan ateratako dirua. Zutitu giñan. Beren tramankuluak biltzen ari ziran musikalariek. Itzalduek lorettutako argi-ontziak. Nigaz ikusi zezaten beldur ezin izan zitekean Roberto'k.

—Lagunduko dizut— esan zuan.

Nere biotza zala-ta, geldi-antza ibiltzeko eskari egin nion. Txunditurik nengoan ikusirik ez zualako ezertxo ere egin nere asmoak lenbaitleen aurrera eramateko. Eta esan nion, gau artan iltzen baintzan dirutz izugarri bat galduko zuala. Ajolatzeke egin zituan bizkarrak tolest. Au da, mutil ura naastu egin nuela. Luze-laburrena oror nere gixakoa zan. Zaldun baten antz izango ote zuan iñoiz? Nere semea, nere ondare-artzaillea, ain ziztrin zirudian... ! Giro etxerakoia-go bat gure izketaldiari eman naiean alegindu nintzan. Zin egin nion pentsatu gaberik ez nuala utzi, txit barrundik damutasun arrak jaten nindutelarik, ain bazterturik laga nitualako bai bera bai bere ama. Arriturik zirudian. Errenta-neurtu bat emango niotela ziurtatu niolako, "oso poliki" zegoala iduritu zitzaion.

—Asko dira ori egingo ez lutekenak —eta esaldi nazkagarri au esan geroz— Eta lenengoa zu ez ziñanez...

Bene-benetan, errukirik gabe epaitzen zuan bere ama. Nere etxeratera eldurik, bat-batez esan zidan :

—Bolsa, ra joatera beartuko nindukean negozioren bat asi bear-ko nukea... Nere aberastasunaren aditzera onek emango bai-luke...

—Ez zaitetz orretan asi —esan nion— Ban-dana galduko zenukea.

—"Errentaren Impuestoarengatik" da; inspektoreak aztarrikaren bat egingo ba-lu...

Arduratsuki begiratu zuan kale-ibildegira.

—Taka-taka emandako dirua da baiñan, ezkutuko aberastasun bat, iñork irikitzeke eskubiderik ez duan kutxetan ipiñia, zu zedorrek ezik.

—Kezkik gabe, bai, baiñan...

Asarre-bizi sudurretan eman nion atearekin.

Euli batek topo egiten duan kristal batetik barna dakust lo-datzaten ipuruak. Aantzika daramazki odei aztunak aizeak, euren itzalak ibarretik barna lorrean eramanik. Eriotz ixiltasun orrek lenengo ortotsaren itxoite orokorra adierazten du.

—Beldur dira maatstiak —esan zuan Maria'k gaurkoaren antzeko uda-egun goibel batean, dirala ogeitamar urte.

Ostera iriki egin dut kudernotxo au. Nere izkia da. Nere zirribo-roak aztertzen ditut, erreikadan azpikozko, nere beatz txikerraren arrastoak. Kondaira onen azkentzara iritxiko naiz. Orain ba-dakit no-rentzat ari naizen; aitorketa egitea bear-bearrezkoa da; baiñan orrialde asko kendu bearke ditut jazan eziñekoa litzaikalako berauk irakurtzea. Ezin bai-nezake neronek ere berritotik irakur. Une bakoitzean etenlari bai-naiz eta arpegi ezkututzen dut esku artean. Ona emen gizona, ona emen gizonen artean gizon bat, ona emen ni. Iraindu zaidazuzeteke ; ez naiz izaki bat.

Uztail 13 garretetik 14 garrenerako gau artan, Roberto laga nuan geroz, ea indarge arkitu nintzan jantziak erantzi eta ene oean luze etzateko. Zama izugarri batek itotzen ninduan, eta arnas-bear guzti aiek eta guzi, ez nintzan iltzen. Leioa zabalik zegoan. Bostgarrengo bizitz batean bizi izan ba-nintz...! Baiñan lenengotik ez nintzan ilko, eta bearbada, ausnartze onek geldi arazi ninduan. Ozta-ozta izan nintzan gauz besoak luzatzeko eta pildorak artzeko, oi bezela goxatzen nautenak.

Egungenti aldera azkenean entzun aal izan zan txintzarri otsa. Auzoko sendagille batek odol-uztutze bat egin zidan. Arnasa berritu zitzaidan. Gelditasun oso-osoa agindu. Ume bat baiñan obedikorra-go egiten gaitu geiegizko oiñazeak. Ez uintzan igituko ez da, ez da... Gelaren aztuntasunak eta usai txarrak, erreditzenak, uztaillaren amalaugarren egun artako ekaitz-kurrunkak ere, ez ninduten minberatzen, ez bai-nuan sufritzen : nik ez nuan nai ezer geiagorik. Gau batez ikustatu ninduan Roberto'k eta ez nuan berriro ikusi. Igarotzen zituan bere amak ordu paren bat nere alboan, zerbait laguntz egiten zizkidan, eta eskuratzen zidan nere korreo-kutxan zegoana etorria. Nere familiarengandik ez da idazki bat ere.

Ez nintzan kexa. ; agindutako guztia obedi eta ar ere bai artzeko esandakoak. Gure asmoatzaz inintzatzen nintzaionean, andra ark beste izketa batera igesegiten zuan.

—Ez dago ezeren presarik —bein da berriz zion—.

—Sinispidea auxen duzu eta aantzi batez, nere bularraldia erakusten nion.

—Zuk baiño biotz-eraso latzagoak izanik ere, nere ama larogei urtetaraiño bizi izan zan.

Goiz batez txit obegiago arkitu nintzan aldi luze batean egondu izandu nintzana baiño. Goseturik nengoan, ta jan-eziñekoa zan etxe artan emandako jauaria. Eta nere gogozko sukaldaritza zegoan jate-txe txiki batera, antxen Sain Germain bulebarrean, bazkaltzera joateko egondu nintzan. Arritze ta asarre gutxiago ematen zidan emen jan-kontuak, geiegi ez gastatzearren exeritzen oi nintzan zenbait traena txastarretan baiño.

Rennes karrika izkin batean utzi nindau taxisak. Oinkada batzuek nere indarrak neurtzeko, eman nituan. Ougi zijoan guztia. Orandik eguerdia ez zan ta Vichy botilla bat edatea *Deux-Magots*, en, erabaki nuan. Apatx egin nuan barruan ta zabarki begiratu nuan bulebarrera.

Biotzak irauli bat eman zidan. Terrazan, kristalaren loditasunaz bakarrik banatzen ginduztela, bizkar estu aiek, burusoil ura, garrondo arre ura eta belarri txapal eta zabal aiek, ezagutu nituan... Antxen zan Huberto. Bere begi zatitxuaz izparringi bat irakurtzen zuan, bere orrialdeak ea ikuturik bere sudurrarekin. Igartzekoa zan, ez ninduala ikusi sartzan. Nere biotz-eriaren takakoak baretu ziran. Alaitasun izugarri bat nagusitu zan nitaz. Zeletalari nintzaion ta berak ez jakin ni an nengoanik.

Neri ere ez zitzaidan besterik bururatuko Bulebarreko terrazetan ez ba-zan beste iñungo toki batean arkitzea. Auzo artan, zer egiten zuan? Araiño ez zan joan ez ba-zan aurretik erabakitako asmo batez. Ene Vichy botilla ordaindu ondoren, bear nuanean altxatzea itxoin besterik ez nuan bear.

Zalautzik gabe, norbaiten zai zegoan; bere ordulariari begiratzan zion. Asmatu nuala ere uste izan nuan nor joango zitzaion mai artetik berarenganaíño, eta ea naigabetu nintzan ikusi nuanean taxis batetik jeixten Jenobeba'ren senarra. Alíredo'k "kanotíer" bat ze-

raman belarriaren gaiñetik. Bere andrearengandik urrun, berrogeiur-
tedun txiki eta gizen ark al zuan fantasiz geienez zebillen. Soin-jantzi
argiegi bat zeraman ta oiñetakoak onegiak. Bere probintziatarren
apainduria guztiz nabarnientzen zau Huberto'k oi zuan janzeraz,
Isa'k zion bezela au "Fondaudége-tar bat bezela janzten bai-zan".

Alíredo'k giubailla kendu eta bekoki dirdaitsua txukatu zuan.
Aokada batez irentsi zuan atera zioten aperitiboa. Ordurako zutik ze-
goan bere anaigiarreba bere ordulariari galdezka. Prest jarri nintzan
eurei jarraitzeko. Taxis bat artuko zuten, noski. Ber-bera egiten, be-
giz ez galtzeko, saiatuko nintzan; lanketa zailía. Ala ere, gauz asko zan
etorri zirala jakitea. Itxoiten egon nintzan irtetzeko, berak noiz ez-
paloiean egongo. Iñungo txoferrei keiñu egin gaberik enparantza iga-
ro zuteu. Saint- Germain-desPrés, eruntz jarraitu zuten izketan. Ura
ustegabea eta ura poza! Eleizan sartu ziran. Sagutarako batean lapu-
rra sartzen ikusten duan poliziak ere ez du orrelako gozotasunik na-
bariko, nik une artan nabari izan nuana baiño. Aurrerapen aundia-
goa eman nieten, bada nere semea zatitxu bat baldin ba-zan ere, nere
suiña bixta ederrekoa bai-zan. Nere egoneziña ta guzti, guztiz alegin-
du nintzan minutu bi egoten ezpaloiean. Gero, ueroni ere, eleizan
sartu nintzan.

Amabiak edo apurxo bat geiago izango zan. Eleiz-barru utsetik
arretaz aurreratzen nintzan. Luzatu gabe konturatu nintzan billatzen
nuana ez zegoala an. Berealaxe bururatu zitzaidan ba-zítekeala aiek ni
ikustea eta neri iruzur egiteagatik sarturik izango zirala, gero aldame-
netako aterean batetik iges irtetzeko. Ostera itzulian egíiik nere urra-
tsak, aldamenera, eskuialdera joan nintzan, ta arri-tantaien atzekotz
gorde nintzan. Eta batpatean, eleiz-bularraren illun-illunean, argiz-
kontra, biak azaldu. Bizkar umil eta okertu zuan bat erdi-erdian ar-
tzen zutela jarri ziran. Irugarren izaki au azaltzeak ez ninduan ixpi-
rik ere arritu. Ain ziur, nere seme odolekoaren billa mai tartetik
etorriko zala itxaron nuan ber-beraxe zan: zorigaitzeko xomorroa,
Roberto, izaki bestea.

Usmatu nuan saldukeri au, baiñan, alperkeriz edo nekez, ez
nuan astirik galdu beragaz pentsatzen. Lenengoz izan genuan izke-
taldi artan iduritu baizitzaidan zorigaiztoko gizaki ark, otsein ark,
ez zuala barne-zimikorik izango, eta bere amak, Zuzentza-Etxeetako
oroitzaz pipia-jota, erakutsiko ziola nere sendiaz mintzatu zedilla

eta alera zezala geienik bere ixilkakoa garestian saldurik. Tentel arren garrondoa ikustatu nuan. Bi burgesen erdian ongi kokatua zegoan, bietako bat, Alfredo, izanik gaiñera pasta oneko gizon bat, —gaiñera, bere interesei ongi lotutako gizona, ontaz baliatzen ba-zan ere—, eta bestea, Huberto ene maitea, ortzak luzeak zituan, ta bere jarkeran nagusitz-ebaille ori, nigandik jasotakoa, eta izango ez zuana iges egiterik Roberto'k. Arri-tantaiaren atzekotz begizatzen nituan oi bezela armiarma bat euli bat arrapa duanean, erabaki dugularik gure barrenean biak batera, armiarma et euli, iltzea. Apurtxo bat geiago jetxi zuan burua Roberto'k. Ziur asko asiko zitzaien, esaka :

—Zati berdiñetan..

Indartsuena nabaitzen zan. Baiñan kaikutzar ura ezagutu orduko eureganatua izango zalako, eurak nai zuten tokitik igaro bearko zuan. Eta ni, gudaketa aren ikusle billakatu. Eta zeñien alperrikako eta ergela izango zan zekian bakarra nintzalarik, jainko baten antzeko nabaitu nintzan, nere esku indartsuekin xomortxo exerex aiek garbitzeko gertu, bildutako sugegorri aiek nere oiñaz lardakatzeko prest. Eta par nengian.

Amar minutu igaro berriak izango ziran Roberto ixildu zanean. Huberto uxolan zan itz-jario, aginduak ematen ain zuzen, eta bestea baiezkoak ematen buruaren mugimendu txikietaz. Bere bizkar makurrak borobiltzen zitzaizkiola ikusi nuan. Butaka baten antzeko kanakaz egiñikako exerleku batean etzanda jarririk, eskubiko oiña gurutzeturik zeukan ezker-belaunaren gaiñean, ta binbili-banbala zebillean burua itzulirik. Eta nik, bere arpegi alditxartua, beazuntsua, eta bizarra zala bide beltz, ikusten nuan.

Azkenik altxa ziran. Ixil-mixilka jarrai nieten. Poliki-poliki zijoazen; Roberto erdian zijoan, burua makur, eskuz-lotua dijoanaren antzo. Bere bizkarren atzekotz, bere esku gorri-gizenak arre kolore jandakoarekin egiñikako ginbail bat estutzen zuten. Nik uste izan nuan beste ezere ez ninduala geiago arrituko. Oker egon nintzan: Alfredo eta Roberto ateruntz zijoazten bitartean, Huberto'k ur-bedeinkatu ontzian irentsi zuan bere eskua eta, aldare nagusiruntz jiraturik, Aitarena egin zuan.

Ezerk geiagok ez ninduan, onuzkeroz, beartzen; lasaikiro jarrai nezakean. Zertarako jarraitu? Ba-nenkian ziurtasun osoaz gau artau bertan edo urrengo egunez Roberto leiatuko zala laisterka ibili nadilla

nere asmoak aurrera eramateko. Zer esango nion? Ba-zegoan beta ongi ausnartzeko. Nekea nabaitzen asi nintzan. Exeri nintzan. Aldi lenengoz nere pentsamentuak menderatzen zuana, Huberto'k eman izaii zidan asarrea izan zan, bere kristautasun itxurazko keiñuaz. Itxura apaleko eta arpegi arrunteko neskatz batek ginbailtegi bat bere alboan laga zuan ta bere aurrean zegoan exerleku errenkeda aurrean belaunikatu zan. Zearka zegoan, lepoa zertxobait makur eta begiak zuzen-geldiak, Huberto'k, bein beterik bere senditar bear-kizuna, ain begirunez agurtu zuan sagara-toki txiki eta urrun zegoa-nari. Neskatillak irripartxo bat egiten zuan, eta ez zan mugitzen, Apaizgai bi sartu ziran geroz; bata, luzea ta mearra, Ardouin abadea gogora-arazi zidan; bestea, motzagoa eta gorri-antzekoa zan. Makurtu ziran, ta ba-ziruditen biak ere mugi-eziñak jota zeudela. Eurak begiratzen zuten alderuntz begiratu nuan; eurak zekustena ikusi nai nuan neronek ere.

"Ba, emen ez dago ezer —nere kixara esan nuan—, ixiltasuna besterik, freskura eta arri-zaarren usaia itzalean".

Jostun gaztearen arpegiak esnatu zuan ostera nere arreta. Bere begiak itxita zeuden; betille luzeko bere betazalak Maria'renak oroi-tarazten zidaten eriotz-oean egon zanean. Txit gertu nabaitu nuan, ea ene eskuaren-pean, eta, alabaiñan, urrun-urrunenean, ontasunezko mundu ezezagun bat. Guztiz maiz esaten zidan Isa'k.

—Zuk, txarra besterik ikusten ez duzuna... alderdi guztietan txarkeria ikusten duzuna..

Egia zan ta ez zan.

XVI

Lasai gosaldu nuan, ea-ea pozik, aldi luze batean senti ez nuan atsegiñez, Roberto'ren saldukeriaz nere asmoak urratu bearrean aurrera joan zitezen lagundu izan ba-lirateke bezela. Pentsatzen nuan nere adiñeko gizon batek, urteen buruan bizia kolokan dualarik, ez zala oso urrutira joaten bere giro aldartearen arrazoiak billatzera: soin-araukoak bai-dira. Prometeo'ren ipuiñak esan nai bai-du munduaren ituntasun guztia gibelean sustraitzen dala. Baiñan, nor ausar-tuko litzake aitortzen orrelako egi errez-errez bat? Gaizki ez nintzan

arkitzen. Parrillan erretako aragi puzketa odoltsu ura txit ongi egosten ari zan nere urdaillean. Eta pozik nengoan naiko aundi-ugaria zalako puzketa beste jan-gai batean gastatzerik izan ez nezan. Bazkari azkenerako gazta artuko.

Roberto'renganako nere jokabidea nolakoa izango? Nere kañoitegiaren erasoak aldatu bearrean nintzan; baiñan ezin nenzakean arazo auetan nere arreta guztia ipiñi. Bestaldetik, iñolako beartasunik bai al nuan nere asmo-bideak aldatzeko? Biotz-mugida baten argia itxoi-tea obe nuan. Neronentzat aitortzen ere ez nintzan ausartzen zeñien ezti izango nintzan katu batek bezela jokaturik arratoi makal aretaz. Ni zeredozerren susmotan nengoala urrik eman ere ez zuan uste Roberto'k. Gogorkeria ote au? Bai; erruki gabekoa naiz. Ez ordea besteak baiño geiagoz, besteen antzeko, umeak bezelakoa, emakumeak bezelakoa, aiek guztiak bezelakoa —Saint-Germain-des-Prés, en ikusi nuan jostun gazte artaz pentsatzen nuan—, Arkumearen otxantasuua ez dutenen guzti aien antzekoa.

Taxisan itzuli nintzan Bréa karrikara eta oeratu. Oporraldiekin joanak ziran ostatu ura betetzen zuten ikasle guztiak. Beraz, baretasun osoan atsedendu nintzan. Alaz ere, kristalezko atepak, lausotua zerbait ate-oial zikin batez, etxekotasun guztia kentzen zion gela aretxeri. Enrike II oe baten egurrezko kozkatu batzuek azkatuak zeuden eta tximinian apaingarrirako zegoan tupiki-gorritzko pitxitegi batean bildurik. Zikin-tantak barraturik zeuden ormetako paper pintarratu eta dizdiratsuetan. Leioa zabalik egonagatik ere, gau-maitxo apaiñaren atsak gela guztia betetzen zuan. Gau-maitxoaren gaiñetik arrigorritzko-marmola, eta onen gaiñetikotz moztazaren kolore zuan zapitxoak zegoan. Auek guztiak bildurik itxusikeriaren bilduma eta gizakien naikeriarena ere iduritzen zitzaizkidan.

Gona batzuen otsak esnatu ninduan. Oearen burukaldetik zegoan Roberto'ren ama, eta bere irriparra izan zan lenen ikusi nuana. Bere buztanzurizko jarrera fiakaitz jartzeko aski izango zan, ezer jakin gaberik izan ba-nintz, eta saldua izan nintzala jakin-arazteko. Saldukeriaren iduri izan oi da beti loxintxakeri mota bat. Irripar egin nion ere ta obetoxeago nengoala esan ere. Ogei urte aurretik bere sudurra

ez zan orren lodia. Bere ao-zabala betetzeko ba-zituan ortz eder askiak, gaur Roberto'k bezela. Baiñan, orain, ordezeko ortz aundietan bukatzen ziran bere irriparrak. Azkarki ibiltzen bearturik gertatuko zan eta bere atsa garratzak irabazle burrukatzen zan arrigorrizko gau-maitxoak ixurtzei zuanaz. Otoikatu nion iriki zezala apurtxo bat geixeago leioa. Egifiik, nere albora itzuli eta irripar egin zidan berriro. Ongi arkitzen nintzan ezkeroz, adierazi zidan Roberto nere esku jarriko zala lagundu zakidan "uraxe" egiten. Ain zuzen urrengo egunez, larunbatean, arratsaldetik aske egongo omen zan. Oroitarazi nion larunbatetan eguerdia ezkeroz itxiak egoten dirala Diru-Etxeak. Orduan berak esan astelen goizez ateratzeko baimena eskatuko zuala lantokian. Errezki lortuko zuala. Bestaldetik, bere nagusia begirapenez tratatu bearrik ez zuan eskeroz.

Arriturik zirudian ari ta ari jardun nintzaionean Roberto'k gorde zezala ondiño aste batzuetan bere lantokia. Agurtzerakoan, oar egin zidan urrengo egunez bere semeagaz joango zala; nik erantzun, laga zezaiola bakar-bakarrik joaten: berarekin apurtxo bat itzegin nai nuan, obekixeago ezagutu... Tentel alenak ezin izan zuan estali bere larria; uunbait, bere semea ber-bera saldua izango zala beldur zan. Baiñan teiioe batez mintza oi naizenean, iñor ez da aski trebe nere erabakiei aurka egiteko. Noski bezin noskiago ama zan Roberto'ren bultzatzailea, berak artu-emanak izan zitzan nere semeekin. Ongiegi ezagutzen nuan mutil lotsati eta asko-naiko ura ezpairez egoteko zer-nolako arrituraz geldituko zan oraingo nere jokabideaz jakitenu zuean.

Zoritxarreko ura urrengo egunez goizetik sartu zaneokoxe, begiratu bat aski izan nuan jakiteko ez zutela utsegin nere igarkizunak. Loak artu ez zutela edo zalatari zitzaizkidan bere begi-zuloak. Bere begiratuak iges ziran nerearengatik. Exeri-arazirik bere itxuragatik arduratu nintzan. Au da, atseginkoi azaldu nintzaion, ea-ea xamurki. Argitu nion, legegizon trebe baten mintzaira ederrez, bere aurrean iririkir zeukan bizitz zoriontsuari buruz; gomutaratu arazi nion bere izenean bere amak Saint Germain'en erostea zijoan amar ektareako baratza eta etxea. Aintziña giroko erreditzaz ornitutako etxea lagako niola. Ur-putzu-apain bat izango zuala kolorezko arraiak eta guzti, baita lau berebil sartu aal izateko toki izango zuan garaje bat, eta beste zenbait gauz ematen nizekionak, aditzerarako bururatzen zitzaiz-

kidan-ala. Berebillatzaz mintza nintzaionean ta ego-amerikar etxe sonatuenetako bat aitatu eta aupatu, il-zorian legoken gizon batekin arkitu nintzan. Ain ziurki, itz-emanan egon bear zuan ez zuala xox bat ere artuko ni bizitzen nintzan bitartean.

—Eragozpen bat ere ez dut izango —geiagotu nion—; zedorrek izenpetuko duzu erosketa-guttuna. Berezituta utzi ditut dagonekotz, astelenetik ematen asi dezaizkitzuten, eun bat milla frankoko "errenta" emango dizkitzuten "obligazio" mordoxka bat. Onetaz itxoin deza-kezu. Baiñan nere aberastasunaren zati aundiena Amsterdam, en dago. Guztia adelatu dezagun datorren astean joango natzaizue araruntz... Baiñan, zer gertatzen zaizu, Roberto?

Berak marmartu zuan :

—Ez, jauna, ez...; ez dut ezertxo ere nai zure eriotz aurretik. Ez zait atsegin ori... Ez dut nai zu ezer gabe geldi zaitezela. Ez geiagorik jardun. Asko atsekabetuko bai-nintzake.

Alazaren gaiifari erantsita zegoan ukalondo-eskubia ezker-eskuaz eutsirik, eta azkazalak ozkaturik. Neure begiak berarengan itsatsi zuten bere begiratu, ziñez Zuzentza-Etxean aurkalarientzat ain baldur-garria zitzaien begiratu zorrotz ura, eta zalatari nintzanetan nere biktimarengandik aldentzen ez zana ez ba-zan ziplo erortzen zanean au errizaiñaren besoetan.

Azpitik, barkatzen nion; azkatasun sentimen bat nabaitzen bainuan; xomortxo aretzen bizitzarekin bukatzea guztiz ikaragarria izango bai-zan. Eta ez nion gorroto. Nigandik banatuko nuan, baiñan ezegindu gaberik. Jolastu nintekean, ordea, zertxobait bere bizkarretik.

—Benetan, sentimen biotz-berak dituzu, Roberto! II nadiño itxoitea guztiz ongi dago. Ez dut nik baiñan ontzat ematen nekaldia. Dutan guztiaren jabe astelenetik sartuko zera. Aste onen bukaerako nere aberastasunaren zatirik ederrena zure izenean egongo da —eta berak gaitzetsten zualarik—: Laga ala artu —mikatzki egin nion itz-luza.

Nere begiratuari txiripa egiñik, oldozpendu aal izateko egun zenbaitu eskatu zizkidan. Burdeus, era idatzi eta aginduak artzeko lain. Gizagaixo memeloa!

—Ziur dagizut, Roberto, arriturik naukazu. Arrigarria zait zure jokabidea.

Nere begiratua eztitu egin nuala iduri zitzaidan, oraindik gogoragoa zan baiñan. Abots kalaxka batez kurrunkatu zuan Roberto'k :

—Zer dala-ta orrela begiratzen didazu?

Eta nik, nai ez nuan imintzioaz, esan :

—Zergatikan begiratzen dizutan orrela? Eta zuk, zer duzu nere begiratua eutsi aal ez izateko?

Maitasunik gabe otztuta daudenak bizitzen, berez arkitzen dituzte xamurgai izan dezazketen itz eta jarrerak. Baiñan orrenbestez oituta nagoalarik, gorrotoa izan uazaten ta iñor beldur-arazten nere beta-zalak, bekaiñak, nere abots eta parra umilkiro-umilkiro egon oi dira bestetik laguukide dutan doai ikaragarri orretaz, eta nere borondateari aurre artzen diotenak. Orrelaxe bada kizkur-kizkur egiten zan mutil gazte ura on-begiratua egin nai nuan nere begiratuaren aurrean. Zenbatez eta par geiago nik, ainbatez aundiago iduritzen zitzaion okerreko zantzu bat, nere parraren otsa. Abere bati azkena ematen zaionean legetxe, lakatz galdegin nion :

—Zenbat eskeiñi dizute besteak?

Nere aidekotasuna, nai ba-nuan ez ba-nuan nai, lagunkiro baiñan nardakiroagokoa zan. Tattalki esan zuan :

—Nortzuek?

Eta bere abotsak ea-ea ba-zuan sinisrrendunaren beldur-beldur bat.

—Jaun biak —esan nion— lodiak eta medarrak.. Bai, medarrak eta lodiak!

Beingo-batez amaitzeko gogoa nabaitzen nuan. Izutzen ninduan antzerki ura luzatzea, eunzanko-zorria oiñetako takoi az lardakatzera ausartzen ez danean bezelaxe.

—Zoaz —esan nion— ; barkatzen dizut.

—Nik ez nuan nai.. Nai zuana...

Eskuaz estali nion aoa. Ez nuan jazan izango bere amaren gain jaurti zezan errua.

—Zaude ixillik! Iñor ez izenda.. Ea, dakusgun, zenbati eskeiñi dizute? Milloi bat? Bosteun milla? Gutxiago? Ezin liteke! Irureun? Berreun?

Unkigarritasunez astintzen zuan burua.

—Ez, errenta bat —abots txepelez esan zuan— Onetxek zirikatut gaitu. Segurugoa zan. Urtean amabi milla franko.

—Gaurtik asita?

—Ez, baizik ondarearen jabetzan sartuko liraken bezin laister... Ez zuten usnatu ere orren azkarki egin nai zenezakeanik... Baiñan, beranduegi ote...? Egia da zuzentza bidez erasotzerik gaitzazketeala..., iruzur egiten ez geniolarik, beñepein.. A! zeñien astakil izan naizen ! Ongi zigortua izandu naiz...

Oe-gaiñean exeririk, atsekabeaz zegin negar. Zintzilik zeukan bere esku aundietako bat, odolez puztutakoa.

—Ni ere zure semea nauzu —esan zuan gero— Ez nazazula baztarrean laga.

Eta keñu baldar batez bere besoa pasa nai izandu zuan nere lepo-azpitik. Askatu nintzan berarengandik, baiñan goxokiro. Leioruntz joan nintzan eta, jiratu gabarik, esan nion :

—Agorrilla'ren asiera-asieratik milla ta bosteun franko illero-illero artzen asiko zera. Berealaxe artuko ditut bear diran neurri guzti-guztiak errenta ori eman dezaizuten bizirik izango zeran arteño. Zure eriotza gertatuko ba-litz, zure amari emango zaio errenta ori. Ori bai, nere sendiak ez du jakin bearrik ba-dakitela Saint-Germain-des-Prés'ko azpi-lan orren berririk-eleizaren izena aditzean dardar-ikaratu zan. Alperrikakoa da zuri esatea utsune txikiena izan bezin aguro guztia galduko duzula. Ordaiñez, nere aurkarako asmatzen duten guztiaren berri neri ematea dagokizu.

Jakitun nintzan orain ezer ez zitzaidala iges joango eta Roberto naiko lanez ibiliko zala oraingotan ni saltzeko. Aditzera eman nion iñolako gogorik ez nuala ez bera ez eta bere ama ikusteko. Eta Korreo-Banaketara idatzi bear zidatela, ain zuzen betiko tokira.

—Saint-Germain-des-Prés'ko zure laguntxoak noiz lagatzen dute Paris?

Aurreguneko gauaz irten izan zan bultzia artu zutela egiztatu eta ziurtatu zidan. Berealaxe eten nuan bere eskeintz eta bere esker-onaren egin keñu itxuratiak. Kezkarik gabe zor eta lor egon bear zuan. Jainko-aizun berealdiko batek, asmakaitzetasunaz jantzitakoa eta berak saldu izan zuan batek, artzen zuan, askatzen zuan eta berriro atxitu. Begiak ixten zituan eta zetorrena zetorrela. Bizkar-ezurra okertua eta belarriak eroriak zeramazkian, lur jota, besteek jaurtiki zioten ezurra.

Irtetzerakoan, jiratu eta galdegin zidan ea nolaz jasoko zuan errenta ura, ea noren bitartez.

—Jasoko duzu, eta naikoa da —legorki esan nion—. Agindutakoa beti betetzeu dut. Ortik aurrerakoa ez zaizu zuri bost ajola.

Ate-kakoan eskua zuala, oraindik, zalantz egon zan.

—Atsegiñagoa litzaidake bizitz-seguro egiñikako bat ba-litza, bizitz guztirako errenta bat..., antzeko-edo zerbait, izen aundiko bazkun batean... Lasaiago nabaituko nintzake; ez nintzake ain larri-urdu biziko...

Erdi-zabalik utzi zuan atea, zabarkeri bizian osorik zabaldu nuan ta Roberto pasilloara bultza.

XVII

Tximitian jarri nintzan ta buruz zenbatu nituan pitxitegian zeuden barnizatutako egur puzketak.

Urte askoren buruan egondu nintzan pentsatzen ezezagun zitzaidan ene seme artaz. Zorigabeko nere bizitzaren luzaroan, iiloiz ez nuan galdu izandu bizitzen zalako sentimena. Edozein tokian zala ba-zegoan ume bat nigandik jaioa eta arki nezakeana eta, agian, nere konsolagarri izan zitekeana. Bere izakeraren apaltasunak geiago neregantzen zuan. Eztigarri zitzaidan pentsatzea ez zuala ezertan antzik izango nere lenen semearekin. Opa nion, bidebatez, xalotasun ori eta atsegintasun ori eta arrigarriak ez diranak erri xumean. Au da, nere azkeneko karta jokoan nerabilkian. Ba-nenkian berarengandik ez ba-zan iñorengandik ezin nezakeala ezer itxaro, ez zitzaidalda beste egoerarik geratzen kuzkurtu eta itzuli ormari arpegia emateko baiño. Berrogei urte aietan ustez ameto egin nion gorrotoari, beronetan argitu eta nabari nuana. Besteen gixara, gordetzen nuan, ala ere, nere zaindu-lekutik jaurtia izan nintzan uneraiño.

Ez bai-zitzaidan gelditzen ere jokabideak eratzeko gozamen ikaragarri ori, maita ez nindutenei xoxik gabe uzteko jokabidea. Roberto'k otsegin zien; luza gabe jakingo zuten nere diru kutxak nun zeuden, baita nere izenean jarri gabe zeudenak ere. Beste gauzaren bat asmatu? A! Bizi oraindik, eta bizi nuan guztia txautzeko lain... U eta ez zezatela arki naiko diru irugarren maillako il-eleizkizunik

ordaintzeko. Baiñan ekonomi bizitz oso baten ondoren, ta ainbeste urteetan diru-gordetze grin ori ase nuanean, nolaz nere adiñean ikasi esku-zabalen jokerak? Eta, bestaldetik, nere semeak zeletatuko nindutela pentsatzen nuan : Alde onetatik ezin egin nezakean ezer izkillu izugarriren bat beren eskuetan ipiñi gaberik... Bearrezkoa zan ondatu nadilla diruz, itzalpean, geldikiro...

Ai! Ez nuke jakingo ondatzaille izaten! Ez nintzake beiñere iritxiko nere aberastasuna xautzera. Al ba-neza ene illobian ondatu, ostera lurreratu eta urrea estutu nere besoetan, diru-paperak ere, akzioak. Mundu onetako aberastasunak ez dirala gurekin eriotzaz-gero bide berean joaten esaten duteuak, nik gezurtzulotzat jotzerik ba nitu...

"Egintzak" daude; guztia ezegindu arazten dituzten sapaizuloak dituzu egintz-onak. Txiroeu Aizpa Lekaimeetara, Erruki-Etxekoetara igorriko nituzkea ixilkako eskupekoak. Ez ote nuke bada, azkenik, pentsatzerik aal izango nere etsai ez diran besteetan? Zartzaroari diogun beldurra baiñan, zartzaroak bizitz baten guzti-guztia batzen dualako da, zenbaki bat ere aldatzen jakingo ez genukean guzti-guzti bat. Irurogei urte luzeak joan zaizkit gorrotoz iltzen naizen zaar onetan biurtzeko. Naizena naiz ; eta beste bat biurtzea litzake bear-bearezko... O! Jainko, Jainko, biziko ba-ziña Zu... !

* * *

Illunabarrean neskatz bat sartu zan oea egiteko. Leiatillak ez zituau itxi eta itzalean etzan nintzan. Karrikako zaratak eta argiontzien argiak ez zitzaizkidan eragozpen lo egiteko. Aldi laburretan esnatzen nintzan, nola oi, ibillaldi batean, bultzia gelditzen danean, baiñan loak artzen ninduan ostera. Gaixorik nabaitzen ez nintzanarren, onela jarraitu bear nuala otxanki, nere loa betikotasunezkoa biurtu zedilla itxoiñaz.

Oraindikotz atondu bearrean nintzan Roberto'ren errentarena, korreo-kutxatik ere igaro nai nuan, iñork ekartzen ez zidanez nere korrespondentzia. Ba-ziran iru egun nere korreoa ez nuala irakurri. Ezezagun idazkiari itxoite au eta guztiaren gaidik bizi dana, zeñen ezaugarri dan ez dala galdu itxaropena eta bere azia betikotasunez bizi dala guregan !

Eskutitzen arduraz izate orrek eman zidan indar urrengo egunez jaikitzeke, eguerdi aldera, eta korreo-kutxa-banaketara joateko. Euri zan; aterkirik ez neukanez, ormei josita nenbillen. Nere egikerak jakin-irrikaz ipintzen zualako jendea, buruz jiratzen zan. Gogoak nabaitzen nituan nik orroka esateko :

—Zer dut bada nik beste iñork ez duana? Eroturik nagoala uste al duzute? Onetaz baliatuko lirakeala nere semeak ez dago esan bearrrik. Besteak bezelakoa nauzute, ez ba-da gorrota egiten nautela ene semeok eta eurengrandik babestu bearrean naizela. Eroturik egotea ez da au baiñan. Zenbaitzuetan, nere biotzeko-min onek beartzen naun droga guztien eragiñen menpean izaten nazute. Nerekixa mintzatzan ba-naiz beti bakarrrik arkitzen naizelako da. Elkarrizketa bearrezkoa zaio gizonari. Berezitasunik ote dago gizon bakarraren jarkeran ta itzetan?

Jaso nuan bildumak inpresoak zekarzkian, Diru-Etxetako idazki batzuek eta iru telegrama. Iñundikpait, Boltsa'ko agindu batzuek egin ezin ziralakotz edo. Ardandegi batean exeririk arkitu nadin arteraiño itxoin nuan. Mai luzeetan, igeltzero batzuek, adin guztietariko zanpantzarren itxurakoak, astiro-astiro jaten zuten beren jatena eta beren litro ardoa edan itz bat esan gaberik. Euripean goiz guztian lanean arituak ziran. Lanera ordubiterdietan itzuliko berririo. Uztailaren azkenetan zan. Jendetzak beterik zeuzkan gelditokiak. Berak ulertuko ote zituzten nere oiñazeak? Kezkik gabe! Eta, nolatan jakin ez zaartutako legegizon batek? Nere ogibideak ekarri zidan lenengo arazoan, bere aita mantendu nai ez zuten seme batzuek eragiña zan. Iru illabetez bein aldatu bear izaten zuan ethez zoritxarreko ark; madarikazioaz jotakoa beti, batera zetorren bere semeagaz auek libratuko zuan eriotzari deadarka otsegiteko. Zenbat basetxeetan ez ote nintzan zaar orren drama orretan ikusle, eta ikus nolatan urte askotan bere ondasunak ematea ukatzen bizituta, bere semeen aginduak sinisurrik bukatzen zuala, azkenik auek berea lortuta, goserik eta lan geiagiaz iltzen uzten zuten arteraiño! Bai, igeltzero mee ta zaintsu ark, nigandik bi urratsetara bere ortz larrutuetan poliki-poliki ogia ausnartzen zuan ark, jakingo zuan zerbait onetzaz.

Gaur egunez, ongi jantzitako zaar batek ez du iñor arritzen ardandegi batean. Untxi puzketa zurizka bat zatitzen nuan ikusten nualarik euri-tantak kristalarekin alkartzen zirala. Alderantzira, iraku-

rri nuan, ardandegi nagusiaren deitura. Nere musuzapia billatzera-koan, idazki bilkuraz arkitu zan nere eskua. Ene betaurrekoak ipiñi eta edozein telegrama iriki nuan: "Amaren eleizkizunak biar, uztailaren ogeitairugarrenean, goizeko bederatzietan San Luis elei-zan". Goiz artan bertan fetxatua zan. Beste biak, bezpera-aurretik ja-riak, ordu batzuetako tartez ipiñiak izan bear zuten. Batek zion: "Ama okerrago, zatoz". Besteak : "Area illik". Eta irurak Huberto'k izenpetzen zituan.

* * #

Telegramak zimurtu eta jaten jarraitu nuan, gabeko bultzia ar-
tzeke indarrak arkitu bear nitualako arduraturik. Minutu batzuetan
onetan ez bestetan ez nuan pentsatu, beste sentimen bat toki artu
zuan nigan; Isa illik ni bizirik gelditzen nintzan arritzea. Ziurtzaz
jotzen zan nere eriotza. Iltzen ni izango nintzala lenengoa kezkek ga-
bekoa zan neretzat eta guztientzat. Asmoak, maltzurrieriak, azpi-jo-
koak: ez zuten zio besterik nere eriotz lasterra baiño. Nere sendiak
bezela, ez nuan gai onetaz kezka txikienik ere. Beiñere begi aurre-
tik kendu ez nuan ikusmira bat ba-nuan nere emazteari buruz : nere
alarguna izango zala, kutxa irikitzerakoan bere krespoiak molestatu-
ko zuten gizaki uraxe. Izartegietako naspil batek ez zidan ustegabe
aundiagorik emango, naigabe geiago eriotz arek baiño. Nere gogoa-
ren kontra, nigan zegoan negozio-gizonak egoitza aztertzen asia zan,
eta nere etsaien gaiñekotz jaso nezakean aurrerapena. Nere sentime-
nak auetxek ziran bultzia ibilian abiatu zanean.

Orduantxe nere idurimena sartu zan jokoan. Lenengo aldiz ikus-
ten nuan Isa bezperan eta bezpera-anrean bere eriotz-oean egongo
zan bezela. Ango egoitza iduriz ba-nenkusan, Calése'ko bere gela —ez
bai-nenkien Burdeus, en illa zanik—. Marmartu nuan :

—Zerraldo batean ..

Eta konsolagarri txatxal batera makurtu nintzaii. Egoitz orre-
tan nolakoa izango zan nere jokera? Nere semeen begiratu ernai eta
asarrekorraren pean zer egingo ote nuan? Arloa erabakia zegoan. Ori
eta guzti, iritxitzen nintzan bezin laister etzan bear nintzan oak
kinka guztiak uxatzen zituan. Pentsa ere ezin bai-zitekean bere eleiz-
kizunetara azaldu nindekeanik : beingo artaz, aalik ugari egin nituan

alperrik garbitokira iritxi eziñik. Auleri onek ez ninduan beldurtzen. Isa illik geroztik, nere eriotza ez zan luzarorako. Igaroa zan nere txanda. Baiñan biotz-eraso baten beldur uintzan, betezere bakar-bakarrrik uengoalako nere tren-gelan. Iñundik ere, geltokian itxoingo zidan Huberto'k. Telegrafiatu bai-nuan

* * *

Ez, bera ez zan. Ura arnasaldia Alfredo'ren arpegi borobilla, loak narraxtua, azaltzen ikusi nuanean! Ikaratu-edo egin zan ikusi ninduanean. Bere besoari eltzera bearturik gertatu nintzan ta bakarrik ez nuan sartzerik izan kotxean. Antxen joan giñan Burdeus itu-netik piririka euritsu zan goiz batez, abere-iltoki eta ikastolez betetako auzo batetik barna. Ez nuan itzegiteko gogorik. Xeetasun txikienetan ere sartzen zan Alfredo: Isa naigabez erori zaneko Erri-Lorettegiko toki ber-bera argitzen zuan: negu-loretegiak baiño pittin bat lenagozkoa, palmera-zugaitztikoa, eta eramana izan zan farmazia ere; zer nolako nekez ibili ziran eraman eziñik bere gorputza, ain aztuna, lenengo bizitzako oean etzanik jarri aal izateko. Odoluztutzea, ziztada... Gau osoan bere buruaren jabe izan zan, buruko odol-ixurtze ura izan-izanagatik. Keiñuz deitzen omeii zidau, etengabe, eta gero loak artu omen zuan Olio Deunak berekin apaiza eldu zan uanean. "Berak, baiñan, bezperan Jauna artua izan..."

Ordurako beltzez jantzitako etxearen aurrean laga nai izandu ninduan Alfredo'k, eta bere bideari jarraitu ez zualak oea-ea astirik izango jantziz aldatzeko eleizkizunetarako. Aitzaki polita. Baiñan etsi bear izandu zuan laguntzea kotxetik jetxi nadin arteraiño. Lagundu zidan, baita ere, zurubi-mail lenengoak igotzen. Etxe-sarrera ez nuan ezagutu. Orma beltzen artean argizaiol batzuek sututa zeuden lore-moltzo baten inguruan. Ñir-ñir egin zuten ene begiak. Nabaitzen nuan arritu ura zenbait ametsen berdiñekoa zan. Au eta guzti, bi lekaike geldigeldiak erakarri zituzten. Orrenbeste krespoi, lore ta argi artean, betiko zurubiak, bere lur-oial illaun txatartuaz, egunero-ko bizitzara zan.

Emendik jetxi zan Huberto. Guztik jatorki zegoan jantzia. Eskua luza eta itzegin zidan, baiñan oso urrutietatik eltzen zan nigana bere abotsa. Erantzun nai izandu nion eta iñolako otsik ez zan iritxi nere

ezpaiñietara. Bere arpegia nere arpegiaruntz bertaratu zan, berealdikoa biurturik; gero, naigabeak jota, erori egin nintzan. Askoz geroztik jakindu nuan eraso ark iru minutu ez zituala iraun. Eta nerera itzuli nintzan gela txiki batean, ain ziur Legegintza utzi aurretik nere bezeroak itxoin zezaidaten erabillia. Artutako gatzak mintzorrian ipiñia zeukaten nere mukitegia. Jenobeba, ren abotsa ezagutu nuan :
—Xuxperten ari da.

Begiak zabaldu zitzaizkidan. Nere gaiñeruntz makurtu ziran guztiak. Ezberdiñiak zeritzaizkidaten bere arpegiak, gorriak, aldatuak, eta, batzuek berdexkak. Janine, bere ama baiñan sasoitsuagoa, adin berekoa zirudian. Huberto'ren arpegian balkoak ixurka. Ume zane-ko jarkera itxus eta bidebatez xamurgarri zuan, Isa'k bere belauntan artu eta auxe esaten zion garaiean zuan bezelakoxe jarkeraz :
—Nere umetxo au biurri bat da.

Phili'k bakarrik, Berlin ta Paris'ko *boite* guztietai ibilitako jantziak, jiratzen zuan niganuntz bere arpegi eder ta muzindua, iñundik ere jaien batera joaten zanean azaldu bear zuan tankeran, edo batezere baldanki eta orditua zekarrena oietatik itzultzen zanean, artean korapillaturik gabe bai-zeukan korbata. Olimpia eta bere alabak izan bear zuten beste emakume batzuek nabaitu nituan bere atzetik. Beste almidoitutako ator-aurreko batzuek azaltzen ziran erdi-illun artan.

Jenobeba'k bertaratu zuan nigana edanontzi bat eta nik zurrupada batzuek egin. Obekixeago nabaitzen nintzala esan nion. Abots eztiz eta maitekorraz galdetu zidan ea berealaxe oeratuko nintzan. Eta nere adimenera etorri zan lenen-esaldia oguzi nuan :

—Azkentzaraiño laguntzea nai izango nuan, bera agurtzerik ez bai-dut izan —Eta bear doiñua billatzen duan antzerkilari batek bezela berritu nien— : Bera agurtzerik ez bai-dut izan.

Eta nolabaiteko itz auek, itxurak gorde nai zituztenak eta bururatu zitzaizkidanak il-eleizkizun artan nere antzerki-jokoa osatzen zutelako, nigan esnatu zuten, indar zakar batez, itz oien esan-naiaren sentimena. Ez dut ondiño argitzerik izan nolatan oartu nintzan onetaz : nere emaztea ez nuan ikusiko berriro : iñoiz ez zan gure artean sortuko iñolako argitasuna eman bearrik; ez zituan berak irakurriko orrialde auek. Calése'tik irten nintzanean bezin berdin geldituko ziran gauzak betikotasunerako. Berritotik aasterik ez genuan izan-

go, ez ta eztabaidatu gastu berrietaz; ni ezagutu gaberik il zan, jakin gaberik ez nintzala amalauzanko bat, borrero bat, eta ba-zegoala nigan beste gizon mota bat. Azken minutuan iritxi izan ba-nintzan ere, baita itzik esango ez ba-nuan ere, berak ikusiko zituan nere fnasailletatik irristatzen ziran malkoak, eta fiere etsitasunaren ikuski-zuna nabaitzen zuala joango zan ludi ontatik.

Nere semeak bakarrik, arrituz-mututurik, ikusten zuten ikuski-zun ura. Agian ez bai-ninduten negarrez ikusi beren bizitza guztian. Arpegi zaar muker eta ikaragarri au, iñork bere begiratua eutsi ezin izan zion Medusa'ren buru au, aldatzen zijoan, soil-soillik gizakia-rra egiten.

Norbaitek esaten zuala entzun nuan, Janine zala uste dut:

—Joan izan ez ba-ziñan... Zergatik joan ziñan?

Bai, zergatik joan nintzan? Baiñan, garaiz iristerik izango ote nuan? Korreo-banakeLara igorri izan ez ba-zizkidaten telegramak, Bréa kalean artuko nitiaiu. Huberto'ren kalaxkakeria izan zan itzok geiagotzea :

—Zuzenbiderik utzi gabe aldegin zenuan... Guk ezin bada igarri...

Orduantxeraiño naasirik neukan ideia bat, bat-batean argitu zitzaidan. Butakaren besoetan esku biak loturik, zutitu nintzan ase-rreturik dar-dar, eta arpegi-arpegian deadar egin nion :

—Gezurti!

Eta itz-tattalez esan zuanez : Aitatxo, erotu egin al zera?, berresan nuan :

—Bai, gezur-saku batzuek zerate. Ba-zenekien nere zuzenbidea. Ausartuko ote zerate nere aurrean esaten ez zenekiela?

Huberto'k emeki eman zidan arpegia, esaka :

—Nolaz jakin izango genuan?

—Ez al dituzu artu-emanak izan, nerekin zegoan batez? Bai al duzu ausardirik ukatzeko? Aurrera bada, orduan !

Sendia, arri otz biurturik, ixilka begira. Ume bat gezurrean setaturik oi danean antzo begiratzen ninduan Huberto'k.

—Orretaz gaiñera, ez duzute garestiegi ordaindu bere salduketa. Ez zerate ez esku-zabalegiak izan, ez ene semeok. Amabi milla frankoko errenta aberastasun bat damaiozuten mutil bati, ez da deus.

Eta eztulka ipintzen ninduan par orretaz par nengian. Ene se-

beok ez zekien zer esan. Phili'k kurrunkurrundu zuan abots erdiaz :

—Txerrikeri bat..

Eta, abotsa jetxiaz, jarraitu nuan, iztun izateko aalegiñak egiten zituhan Huberto'ren keiiuengatik:

—Zuek zeratela-ta berriro ez dut ikusi. Jakitun ziñaten nere ekite guztietaz; baiñan bearrezkoa zan ni susmoetan sar ez nadin. Telegrafiatu izan ba-zenuten Bréa karrikara, jabetuko bai-nintzan saldu nindutela. Munduan dan ezertxorengatik ez zenuten ori onartuko, ez eta azkenetan zegoan zuen amaren arrenkuretara ere. Dudarik gabe

Oraindik gauz garralzagoak esan nizkien. Huberto'k otoikatu tako bidetik izan ezik...

Oraindik gauz garratzagoak esan nizkien. Huberto'k otoikatu zion bere arrebari abots-etenka :

—Ixilarazi zazu ! Ixilarazi zazu! Entzungo bai-dute...

Bizkarretik eldu eta exeri arazi ninduan Jenobeba'k.

—Une egokia ez da au, aita. Lasaitzen geranian mintzatuko gera berriro onetaz, baiñau arren dagizut, emen oraindik gorputz dagoanaren izenean...

Huberto, k, zurbil, beatz bat eraman zuan ezpaiñetara. Ospakizun-Buru egiten zuana sartu zan, nortzuek zinta-emaille ziran zereendaz. Urrats batzuek eman nituan. Iñoren laguntzarik gabe ibili nai nuan. Sendiak toki apur bat egin zidan, eta aldero egiíik aurreratu nintzan. Iltoki-eleizatxoaren alatza igarotzerik izan nuan ta belaulki batean ene soíña erortzen utzi.

Huberto eta Jenobeba joan zitzaizkidan ene billa. Bakoitzak beso banetik eldu eta otxanki jarraitu nieten. Lekaima batek ameto egin zuan, lagunduko zidala eleizkizunak iraun zezan arteraiño. Eta agurtu aurretik, Huberto'k, une batzuek aurretikotz gertatu zana aaztu zitzaiolako itxurak egin zituan, ta galdetu ea ongi zeritzaidan Legegizon-Bazkunako zaarrenak zinta bat eramatea. Erantzuteke, leioara itzuli nintzan.

Pausoen zurrumurrak entzuten nituan dagonekoz. Erri osoa etorriko zan atsekabe-orriak izenpetzera. Gaiñera, Fondaudége, tarrok, nortzuekin ez geunden lotuak? Nere aldetik, Legegizon-Bazkuna, Diru-Etxeak, negoziotako gizartea.. Onaldiaren zinkurin bat bai nabaitu nuan, bere aitzakiak eman ta bere errugabetasuna ezagutua izan dan gizonak oi duan bezela. Buruan sartu nien nere semei beren ge-

zurrari buruz; beren errua ez zuteu uka. Etxea zarata bizian zegoan bitartean, musikarik gabe dautz asmakaitz bat bezela, egin zuteu gaitztakerian nere ardurak ipintzera beartu nuan nere burua. Berak bakarrik egin zidaten eragotzi Isa, ren azken-agurra jaso nezan... Baiñan idi nekatu bati bezela akullatu nuan nere gorrotoa. Ez zan makurtzen berau. Neronen goitikotz zerk baretzen niuduan ez nenkian, edo soiñaren baretasuna ote zan edo azken-itza uik oguztea zemaidan pozak.

Eleizkizun abestietatik ezer ez zan niganaiño eltzen; il-runruna ozta-ozta aienatzen zijoan, Calese'ko ixihusun oso bat nagusitu zan arteraiño etxe-zabal artaz. Isa, k biztanlerik gabe laga zuan. Lorrean zeramazkian bere serbitzari guztiak bere gorputzaren atzetik. Iñor ez zegoan etxean, ezezik ni ta nere oe-buruan errosarioari bukaera ematen zion lekaiume ura, il-kutxa aurrean asitako errosarioa bukatzen..

Ixiltasun ark berriroki pentsa-arazi ninduan betikotasunezko banaketan, etorririk gabeko ibillaldian. Puztu zan berriro nere bularraldia, beranduegia zalako eta bera ta nere artean guztia esana zegoalako. Oean exeririk, aruas ar aal nezan oe-burukoteetan nere eskuak loturik, Luis XIII garrenen erreditz aiek begiztatzen nituan, Bardié Etxean ezkongai giñanean aukeratutakoak, eta bereak izan ziranak ondarez bere amarenak artu zituan arteraiño. Oe au, gure ixilkeri eta gure gorrotoen oe itun izan zan au

*) * *

Huberto eta Jenobeba bakarrik sartu ziran; pasilloan gelditu ziran gaiñerantzekoak. Jabetu nintzan ezin zintezkeala oitu nere arpegi negartiaz. Nere oe-buruan zutirik zeuden anaia, arruntki jantzia eguerdian orain etiketa-jantziatz, eta arreba, oial beltzeko torre bat bali-tza musuzapi zuri bat nabarmenki zeramana eta arpegi-xarea atzeruntz eroria zekarkialarik arpegi borobil eta itun bat ageraztzen zuana. Itunak txantxoz jantzi-arazi gindualarik ez giñan gauz alkar ezagutzeko.

Nere osasunaz ajolatu ziran. Jenobeba'k esan zuan :

—Ea geientsuenak lagundu diote illobiraiño. Asko maite zuten. Perlesi-erasoa aurreko egunetaz egin nieten galde.

—Gogaitua zegoan betiro..., agian aurre-asmakizunak ere ba-zituan. Burdeus, era joateko bezpera egunez egona bai-zan aldi osoan bere gelan, idazki pilloak erretzen; uste izan bai-genuan ere txirni-niak su artu zuala. .

Itza ebaki nion; ideia bat bururatu zitzaidan... nolaz ez ote nuan nik onetaz pentsa?

—Jenobeba, idurilzeit al zaizu nere joanerak ba-duala zer ikusirik onetan ..?

Pozgarrituz erantzun zidan berak, alegia "kezkarik gabe, au kolpe bat izan zala.. "

—Zuek ez al zenioten esan baiñan..., ez al zenuten jakitun jarri arkitu zenutenari buruz...

Begiratu batez anañari galdetu zion; jabetu nintzala-edo itxurak egin bear al nituan? Une artan arpegi ezezagun bat jarria izango nuan, guztiak zeatz-beldurturik bai-ziruditen. Ela Jenobeba'k exeri nadin lagiuilzeii zidanean, Huberto'k laisterregi erantzun bere ama ni joanik amar egunez lenagoz gaixotu zala, eta garai artan erabaki zutela ezkutatzea eztabai negargarri aiek, Eg'a ote ziou? Abots- dardaritsuaz geiagotu zuan :

—Orretaz gain, itzegiteko tentaldian jauzi izan ba-giña, gu izango giñan lenengo errudunak...

Apur batez jiratu zan ta bere bizkarrean igitze dardalaria ikusi ote nuan iduritu zitzaidan. Atea erdi-iriki zuan norbaitek eta maiean jarriko ote giñan galde. Phili'ren abotsa adi nuan :

—Zer egingo diogu! Errua ez da nereaa...

Bere uialkoz barnetik Jenobeba galde, ea zer nai nuan jan. Huberto'k esan zidan bazkaldu-geroz ikusiko ninduala eta izango genuala bein-betikotz izketaldi bat, berari entzuteko gogoz baldin barenngoan, beñepein. Baiezko keiñu bat egin nuan.

Irten ziranean. Lekairneak lagundu egin zidan altxa nadin ta soin-garbitu bat artzerik izan nuan, jantzi eta salda katillukada bat artu. Iñolaz ere ez nuan nik nai guda artan etsai batek zaindutako eta lagundutako bat bezela azaldu.

Osteratu nintzauean, errukia esnarazten zuan zarra ez bezelako gizon batekin arkitu ziran. Bearrik nituan droga guztiak irentsiak nituan. Eserita nengoan, soin-enborra irmo. Estutasun gutxiagoaz nabaitzen nintzan, oea lagatzen nuan aldi bakoitzean bezela.

Kalerako-traje bat jantzirik zeukan Huberto'k, baiñan Jenobeba bere amaren soiñeko zaar batean bildurik zegoan.

—Ezer beltzerik ez dut jantzi aal izateko...

Nere aurrez-aurre exeri ziran eta, oi ditugun lenen itzen ondoren, Huberto asi zan esaten :

—Asko nekatu dut burua..

Maitekiro tajutua zekarren bere itzaldia. Bere itzak nigana zuzendurik ziran, ni akzionisten batzar bat ba-nintzakean, itz bakoitza ausnarturik eta arro-itxura guztiak baztertu niaiz.

—Amaren oe-buruan konsientzi-azterketa egiña naiz; nere iritzi-miritzia aldatzen alegindu naiz, eta zure egoeran ipiñi. Bere semeak ondarrerik gabe utzi nai duan aita izan ba-ziña bezela, iritzian egon gaituzu; onek, nere begietan, jokatu dugun modura jokatzeko eskubidea ematen zigun, edo, gutxienez, barka-gai jartzen gaitu. Baiñan eten-unerik gabeko borroka onetan bitarteko sartuak izan gera eta onela...

Itz egoki baten billa zebillenez, gozoki aurreratu nintzaion:

—Azpi-lan maltzur auetan...

Margoztu egin ziran bere masaillak. Eta Jenobeba'k uko.

—Zer dala-ta maltzurak? Gu baiño indartasuagoa zaitugu...

—Ederra de gero! Txit gaixorik dagoan xaar bat zakur gazte moltzo baten aurka..

—Gure etxea bezelako batean, guztiz gaixorik dagoan xaar batek —Huberto'k erantzun— toki berezieuaren jabe da. Bere gela ez du lagatzen ta bertan egoten da zeletari, bere sendiaren oiturak nola jakingo beste lanik gabe, onela irabazpideak artzeko. Bere ekiñak tajututzen ditu. Denboraz gertatzen ditu. Beratzaz ezer dakitenean guzti-guztia berak ba-dakilarik. Entzun-toki onenak nuntsun dauden badaki. —irripar bat ezkutatzerik izan ez nuanez, eurak ere irripar egin zuten—. Bai, beti da burugutxikoa famili bat. Eztabaidatzen gera, abotsa altxa ere; eta iñor oartzeke guzti-guztiok makakorroka. Geitxo fiatu gera etxe-zarraren ormen loditasunaz, aazturik tabikeak meak dirala. Ba-dira ere leio-zabaldak... Gure arteko baretasun bate do sortu zuten aitamen auek. Serioski mintzatzen jarraitu zuan Huberto'k: Errudun itxuraz azaldu gerala, ameto. Erreza litzake nerretzat nor-bere alde egiteko eskubide ori bein da berriz aitatzea; baiñan baztar dezadan eztabaida pozoitu dezakean oro. Nik auxe bakar-

bakarrik jakin nai nuan, ea gudaketa onetan nor zan azaldaria. Ontzat emango dut ere ni errudun bezela auzitan ipintzea. Ordea, bearezkoa da ulertu dezazun...— Zutitu egin zan ta bere betaurreko kristalak garbitu; arpegi zartu eta mear artan bere begiak ñir-ñir—. Bearrezkoa da ulertu dezazula izen onarengatik burrukan nenbillela, nere semeen bizitzarengatik Ezin bai-zenezake asmatu ere gure egoitza nolakoa dan. Beste mende batekoa zaitugu. Gizon burutsuak aberastasun oiñarritutakoaz bizi zan garai bikain orretan bizi izan zera. Zer-nola bakoitzaren maillan egon izandu zerala jabetzen naiz, zertorkigun ekaitza iñfork baiño lenago ikusi duzula, garaiz jokatu duzula... Baiñan ori negozioetatik kanpo bizi ziñalako zan, negoziotik, esan nai dut. Otz-otzean epaitu zenezakean egoitza, menderatu egiten zenuan; ni bezela ez ziñan ondoratu zuu, belarrietaraiño diruz-ondatu... Gogorregia izan da esnatzea.. Jiratzeko egokierarik ez da izan... Lenengo aldia izaki adar-arbasta guztiak ein batez austen zirala. Ezín bada ezeri eskua erantsi, ezin bada batek ezertxori eldu...

Aren naigabea gero berresaten zuanean : "Ezertxori... ezertxori"! Noraiño ote zegoan itz-emanda? Nolako ondamendi erpean ote zegoan? Goitxo zabaldu ote zanaren beldur izan zan, ta gelditu betiko toki jakiñak aiatuaz: guda-ondorengo fabrikazio etengabea, fabrikazio geiketa, erosle gutxitzea... ! Guztiz ajola gutxi zuan zionak. Bere naigabe-larria zan interesgarria. Une artan konturatu nintzan nere gorrotoa illik zala, zigortzeko gogo ura ere illik zala. Agian aldi luze baten ondoren illa. Iraun nuan nere asarre-sukarraz; eurekin erresumindu egin nintzan. Baiñan, agirian zegoana, zer dala-ta uka? Nere semearen aurrean, jakin-irrika nagusi azaltzen zan alako sentimen naasi bat nabaitzen nuan; zorigabeko aren dardara, bere izumena, itz batez etengo nola-edo beldurra... Zeiñen arrigarriak iduritzen zitzaizkidan! Aberastasun ura espirituz ikusten nuan, iruditzen zitzaidalarik nere bizitzan ura bakarrik izan zala eman nai izan nuana, galdu ere, ta nere tarantaz erabiltzeko azkatasunik ere izan ez nuana; batpatean aienaiuagoa nabaitzen nintzan ura, ez zitzaidan orain interesgarri, ez zegokidala ere. Betaurren atzetik, Huberto'ki ixilik, zelela egiten ninduan. Zer maiña asma nezakean? Zer zartako eman? Ezpain-estutze bat agiri zan bere arpegian, bere soin-enborra atze aldera bota zuan eta erdizka jasorik zeukan bere besoa oi bezela gordezen dan umeak. Abots-emekiaz esan zuan :

—Nere diru egoñza osastndu dezadala besterik ez dizut eskatzen. Amarengandik jasotzen dutanaz, ez dut ezeren bearrik izango ez bada... —zenbakia esan aurretik zalantzan egon zan— milloi bat. Ozto-poak menderatzen ditutan bezin aguro, bidea aske utziko dut. Ortik aurrerakoaz nai duzuna egin. Aleginduko naiz zure borondatea arrespeta dedin...

Txistua irentsi eta zearka begiratu zidan; baiñan nere arpegia arrizkoa izaki.

—Eta zu ene alaba —esan nuan Jenobeba, runtz itzulirik—, egoitz onean al zaude? Zure senarra oso burutsua da...

Bere senarra goraipatzen zan aldioro erresumindu egiten zan. Negozio etxea itxi zala esanaz kexatu zan. Alfredo'k ez zuan ron-edaria erosten joandaneke urteetan. Ziurtasunez zegoan, noski baiño ziurrago, bere burua ez zuala iruzurtutzen. Ezpairik gabe ba-zutela bizitzeko lain, baiñan Phili'k amenazo egiten zion emazteari, iges egingo ziola aberastasun ura galdurik zutela jakin ta berealaxe. Marmartu nuan :

—Zoritxarreko eder-bikain orrek...

Eta biziroki erantzun :

—Bai, ba-dakigu mokoti-purtzil bat dala, eta Janine'k ere badaki; baiñan senarrak lagatzen ba-du il egingo da. Bai, ilko da. Zuk ezin duzu au ulert, aita. Sentimen berekoa ez da. Phili, tzaz ba-daki Janine'k gu-geok dakigun baiñan askoz geiago. Sarri aitortu bai-dit uste dugun baiñan anitzez txarragoa dala. Baiñan onek ezin galerazi lezaioke iltzea, aienatuko ba-litzaio. Funts-gabekoa idurituko zaizu au. Izan ez dira izan gauz auek zuretzat. Baiñan zure adimen aundiaz ulert dezakezu senti ez duzuna.

—Aita neka-arazten ari zera, Jenobeba.

Huberto'k pentzatzen zuan, bere arreba aspergarriak guztia mas-trakatzen ari zala eta ni nere arraundikerian minduta nabaituko nintzala. Nekelarriaren ezaugarriak ikusten zituan ene arpegian; baiñan auen iturburua ezezaguna zitzaion. Ez bai-zekian berriroz irikitzen zuala zauri bat Jenobeba'k eta beatzaz ikutu. Nik aantzika es.an :

—Zorioneko Phili!

Arritu-begiratu bat txandatu zuteu ene semeok. Guztiz fede onez sinistu izan bai-zuten erdi-eroturik nengoala. Onenean eroetxetako ninduten ere, guztiz egiaz etsiturik.

—Menperatzen gaitun lizuu-lasaka bat —kurrinka-otsez esan Hu-
berto'k.

—Zu baiño kupiratsuagoa da bere aitagarreba —esan zuan—.
Alfredo'k maiz bai-dio Phili ez dala lapurtzar bat.

Jenobeba tartekotu zan.

—Eta Alfredo, tzaz ere nagusitzen dana; suiñak narrastarazi du
aitagarreba, eta ongiegi dakite urian; bik elkarrekin ta emakumee-
kin ikusi bai-dituzte... Gau-txori politak! Bai lotsagarri! Auxen bai-
zan amaren minkatstasunetan bateko-bat...

Malkoak txukatu zituan Jenobeba'k. Oiñarritik atzendu nairik
nebillera edo iduritu zitzaion Huberto'ri.

—Baiñan onetzaz ez gera ari, Jenobeba —suminduta, esan zuan—
Esan bailiteke ez dagoala ludian ezer besterik zu eta zure semeak bai-
ño.

Asarre-suaz, protestatu zuan esanaz "atsegin izango zitzaiokeala
jakitea nor bietan zan berekoi eta zekenena". Eta itz-luzaz :

—Jatorki, bakoitzak bere semetan pentsa oi du lenengoz. Eta
arrokiro nago, gure amak gugatik egin zuan bezelaxe, Janine, nigatik
egin dutanaz. Su-garretara jausiko bai-nintzake...

Itza bere anaiak ebaki zion, ain nerea dan esakera lakatzez
adierazirik berak "besteak ere jausiko lituzkeala".

Ez dala oraindik denbora aski liskar-izketa ark jolastarazi egin-
go ninduan. Guda baten seiñale biotzgabeak, ondare baten ondaki-
ñen inguru-minguruan, atsegindurik eta ongi-etorritz artuko nituan,
eta utsa baiño gutxiago egingo nuan seiñale auk birrintzen. Ez nuan,
ordea, besterik nabaitzen ez ba-zan atsekabea, narda... Au guztia zu-
ritu zedilla bein-betikotz ! Pakean iltzen utzi nazatela !

—Arrigarria da, ene semeok —esan nien—, bukatu dezadan egi-
ten beti-beti erokeri aundienetako bat iduritu zaitena egiten...

Ai! dagonekotz ez zuten borrokan pentsatzen! Nigananuntz jira-
tzen zituzten bere begiratu íiakaitz eta latzak. Itxoiñean zeuden;
zaindu-ernaiturik zeuden.

—Nik, bere semeak bere ondasunaren gabe ta goseaz iltzen uzten
duten alogeratu zaarren ikasbidea nereganatu nuan ba-nuan... Eta
bizitz-azkentza geiegiz luzatzen danean, oial lumakiak jartzen diz-
kiete aoraiño estalirik...

—Aita, arren dagizut ..

Itxurati ez zan beldur-jarkera batez protestatzen zuten. Bat-batekotz aldatu nuan nere itz-doiñua.

—Lanpetuegia gertatuko zera Huberto; banaketak zaillak izango dira. Alde guztietan bai-bai-ditut altxorrak, emen, Paris'en, atzerrian ere. Jabetzak lur eta etxe- ondasunak.

Nik itz bat esanala aundiagoa aien begien zabala, ez zidaten sinistu nai baiñan. Eta ikusi nuan Huberto'ren esku-fiñak irikitzen ta ostera ixten.

—Naitanaiezkua da guzti-guztia banandu dedin nere eriotza baiñan lenago, zuen amarengandik datorkizuena banatzen duzuten bitartean orretan. Calése'ren baliatzeaz bakarrik gelditzen naiz: etxea eta baratza. Zuen bizkarrera dijoaz maastien zaintzeak eta berritzeak. Ez zaidazutela maasliak aitatu geiago. Notario baten bitartez illeroko balizendatuko zaizue, eta zenbatekoa aurretik berezituiko Dakarkidazutene nere kartera... Bai, nere txamarreko esker-patrikaran.

Esku dardaratsuz eman zidan Huberto'k. Eta idaz-azal bat ateran nuan bertatik.

—Nere aberastasun guztia danari buruz xeetasun batzuek, ementxen arkituko dituzu. Eman zenezaioke Aroam notarioari.. Edo, obekiago, datorrela otsegin urrutizkiñetik; neronek emango eskuz-esku eta nere borondatea baietzatatu zure aurrean

Huberto'k idaz-azala ostera eskuan artu zuan ta larri-ikaraz galdede:

—Txantxaz zabiltz gurekin, ez da ala?

—Jo telefonoz notarioari; orduan ikusiko duk txantxaz ote nabillen...

Ateruntz joan zan laisterka batez, baiñan itzuli ere bai.

—Ez —esan zuan—. Egoki-egokia ez litzake gaur. Aste batean itxoin bear genduke.

Esku bat pasa zuan begietatik. Iñolaz ere lotsaturik arkitzen zan ta saiatu bere amatzaz pentsatzen. Nigana bertaratu eta itzuli egin zidan, ostera, idazki-azala, sobrea.

—Ondotxo! esan nuan— Iriki eta irakur. Nere baimena ba-duzu.

Biziki bertaratu zan leioara eta selloak urra. Aren irakurtzea jatea zirudian. Jenobeba'k, barne-deiari eutsi eziñik, altxa eta buru jakin-naieko bat makurtu zuan bere anaiaren bizkarren gaidik.

Luze begiztatu nuan anai bikotea. Ez nuan zertaz ikaragarritu. Negozio-gizon bat arriskuan, guraso diran aita eta ama batek ustegabe batean arkitzen dituztela galdurik jotzen zituzten milloiak. Ez, ez ninduten beldurtarazten. Baiñan neronen zabarkeriak arritzen ninduan. Esnatu eta deus ez duala nabaitu, ez duala esaten duan operatu berria nintzala iduritzen zitzaidan. Neregandik, zuztarretik erauzi nuan, iduritzen zitzaidanez, erro-sendoak zituan zerbait. Soin-obealdia edo patxaratasunaz ezberdin zan ezer bestetan ez nuan pentsatzen, ez nabaitu. Arnasaldia obeagotu zitzaidan. Mamiz-mami, zer egiten nuan nik, orrenbeste urte igarorik geroz, aberastasun ori galdu zedilla eta neretako bat ez zanari emateko leiaketan jardun baiño? Oker ibili naiz beti-beti nere naiaren zioari buruz. Zer nai dugun, ez dakigu, maitea dugula uste duguna, ez dugu maita.

* * *

Entzun ere entzun nuan Huberto'k bere arrebari zesaiousa:

—Egundaiñokoa da..., izugarria da. Diruketa gaitza da.

Alkarri esan zien aoz-peiz itz batzuek. Jenobeba'k argitu zuan ez zutela nere ukamena onartuko, ez zutela nai ni diruz-kimatzea.

"Ukamena" eta "diruz-kimatzea" itzok, ots arrotz bat zuten nere belarrietan. Eta, berriz eta berriz, Huberto'k :

—Gaurko egunak eman biotz-zimikoaz jokatu zera. Zauden baiñan gaixoagoa zaudela sinisten duzulako. Irurogeitamar urte ez dituzu; zuk duzun gaitzaz goragoko adiña lortu litezke. Alditxo bat iges joango zaizularik damaturik egongo zera. Arduratuko naiz, gogo bazu, soin-zaintze guztiak izan ditzatzun. Baiñan zeurekin euki zurea dan guzti-guztia. Ez dugu besterik nai bidezkoa dana baiño. Zuzentza besterik ez dugu nai izandu.,

Arnas-nekeak menperatzen ninduan; ikusi zuten nere begiak itxizten zoazila. Nere erabakia artua zegoala eta, aurrerantzean, notario baten aurrean ezik ez nuala itzegingo, esan nien. Arpegia jiratu gabarik zijoazten, otsegin nietenean.

—Gauz bat esatez aaztu natzaizute, Mila ta bosteun frankoko errenta eman bear diozutela illero-illero nere seme Roberto'ri. Arren, gogorarazi gutuna izenpetzen dugunean.

Gorri-gorri egin zan Huberto. Ez zuan ezten au itxoiten. Baiñan

Jenobeba'k ez zuan onetan iñolako txarkeririk ikus. Begiak guztiz zabalik zituala, kontuketa-laister bat egin zuan, ta esan :

—Urtean emezortzi milla franko... Asko dala, ez al deritzaizu?

XVIII

Zerua baiñan argiagoa zegoan ordokia. Lurra, urez asean, kea zerrion, ta euriz betetako orga-errekak ortze-arre bat leiñurutzen zuten. Guztia interesagarri zitzaidan Calése nerea izan zan bezelaxe. Nerea ez da ezer eta ez dut nere txirotasuna nabaitzen. Euriaren tturturra, gabaz, uzteltzen ari dan maats uztaren gaiñean gutxiago ez nau tristetzen arriskuan dagoan uzta onen nagusi nintzanean baiño. Jabetzari itsatsita dagoala iduritu zaidan ura, nekazariari argiak dakarkion sena besterik ez da, au ere nekazarien seme, zeru ertzari meudez-mende larri-irrikaz galdetzen izan dioten semea. Illero-illero jaso bear dutan diru-errenta notarioaren etxean pillatzen joango da; iñoiz ez naiz ezertaz beartu. Nitaz nagusitzen ez zan grin batek zaunk dagion eraberean, dirdai batek lilluratu nau. Irurogeitzortzi urtez esnatze ori! Iltzeko unean berpizte ori! Oraindik opa zaizkidatela urte batzuek, illabete batzuek, aste batzuek...

Gaixoaldia joana da; arras obekiago nabaitzen naiz. Amelia eta Ernesto, Isa'ren serbitzari ziranak, nere serbitzariak orain: inyekzioz-ziztadak ematen ba-dakite. Guztia nere esku-eskuan dut; morfina anpollatxoak, nitrito gatzak. Semeak, lanpeturik, ea ez dute uria lagatzen ta ez datoz ez ba-da balorazioren bat egiteko-edo xeetasun baten bearrean arkitzen diranean . liskar geiegi gabe dijoa guztia : "Galtzaille" aterako dirala-edo beldur orrek, ontziteak, damasko-antezko oial zuri, eta diran guztiak sailka aukera arazi diete berealsxe beren artean eginduten banaketa parragarrikeri au. Eta moztuko dute tapiz-oial bat, iñor obekiago irten baiño lenago. Zati bat bestea baiño obeagoa izatea baiño naiago dute pareatu gaberik egon ditezten. Onetxeri diotsate zuzentz-zaletasuna. Sentimen gaiztoenak izen politenaz izendatzen igaroko zuten bere bizitz guztia... Ez, urratu bear dut au guztia. Nork daki ez ote diran atxilotuta bizi, ni-neroni izandu naizen lez, grin baten pean, euren izakeran ez ba-da ere griúik sakonena?

Nolako iritziz dira nitaz? Inñundik ere, menderatuta izan naizela, etsipenez makurtu naizela. "Arrapa naute". Eta ori eta guzti, ikeraldi bakoitzean azaltzen didate bai begirune ta esker aundiak. Gutxienez, arritzen ditut. Huberto'k, beñepein, begiz arakutzen nau; fiakaitzasunez, oso ziurki ez dago izkillurik gabe guztia jota ote nagoan. Mutil gixaixoa, lasai adi. Calése'ra miñ ondorenez itzuli nintzanerako, ez bai-nintzan orren ikaragarria. Orain, baiñan...

Bidetako zumarrak eta ordokiko ezki-zugaitzak alkar-gaindue-tako zabalgunek marrazten zituzteii, ta bere lerro itzaltsuetan mul-tzokatzen ziran lainñoa, sututako belarren kea eta zurrut egin duan lur-raren arnasa. Udazken betebetean esnatu geralako eta maats-mor-doak, oraindak bizi eta dirdaítzen dituala euri pittinñak, ez dute arki-tzerik aal izango agorrill euritsu batek lapurtu diotena. Agian gure-tzat ez da iñoiz izango beranduegi. Ari eta ari bearra bai-dut nere buruari esaten beiñere ez dala beranduegi.

Itzulitako urrengo egunez sartu nintzan, ta ez ontzaletasunez, Isa'ren lo-gelan. Ezer ez egote orrek, baserrian egote orrek damaidan jabetasun osoa, ez baldin ba-dakit ere gozamenerako edo naigabere-rako dan, soillik onek zirikatu ninduan erdi-zabalik zegoan atea bul-tzatzaera, zurubi ondoan lenengoa, esker aldean, Leioa ezezik zabal-zabal irikiak zeuden armarioa eta komoda. Serbitzariak utzi-berria zuten gela eta eguzkiak irensten zuan, baztertxo txikienetan ere, amaitutako jo-muga baten ondakin ikutu-eziñekoak. Irail arratsaldeak logale gabeko eulien ots-burrundaraz zan. Astigarragak, itxiak eta borobillak, igali elduak ziruditen. Ortze, ekainean illun, loak artu-tako muiño gaiñetan zurbiltzen zijoan. Ikusten ez nuan neska gazte baten algarak dardar ozenkian biurtu ziran. Eguzkiarengandik keriz-petzeko ginbail egaluzeak maatsstien neurri-bereziatz gitzten ziran. Maats biltzea asia zan.

Isa'ren gelatik, baiñan, aldendu zan bizitz miresgarria; armarioa-ren azpikotz, esku-estalkiak eta eguzki-aterkitxo batek illak zeudela iduri. Gari buruxka bat, itai bat, labe-aga bat, eta eskuare bat ozka-tuta zegoan tximiniko ke-buruan, begiz jo nituan. Aantziñako txi-minietan, enbor lodiaskoak erre al izateko bikaiñak, udara garaien oial margoztutako pautalla aundi batzuekin itxi-eztaliak egon oi diran-nak. Uztarri bat adierazo nai zuan onek. Ain zuzen, ume bat nin-

tzalarik, amorru-eraso batean, nere labaiñaz zirti-zartatu egin nuan. Tximiniaren kontra soilik zutik jarrita zegoan. Bere tokian jarzen asi niitanean, erori ta errautsez betetako sutoki beltz-beltza ikustarazi zuan. Calése'n Isa'k igarotako azken egun artaz nere semeak esandakoa gogora etorri zitzaidan : "Paperak erre zituan; etxea sutu egin zala uste izan genuan...". Une artan ulertu nuan Isa'k eriotzaren ingurutasuna nabaitu zuala. Ezin da norberaren eriotzean pentsa eta bidebatez besteren eriotzetan, ere. Nere eriotzaren urbiltasuna nigan sendo kakoturik zegoala, nolaz ez ote nintzan Isa'ren kinka larriaz jabetu?

—Ez da deus, adiña da —ari ta arika zioten seme kalaxka aiek.

Baiñan Isa'k, bere gavizak erre zituan egunean, ba-zekian gertu zala bere azken ordua. Urtu, eta osokiro, urtu, nai izan zuan; bere aztarren txikienak ere txautzea uai izan zuan. Aizeak emeki mugitzen zituan errauts zuri-beltz aiek ikustatu nituan laratzean. Berak erabililitako matxardak arteai an zeuden, tximinia eta ormaren tartean.

Aztarrikatu nuau uraxe, autxen gordea bai-litzakean nere bizitzaren ezkutapena, gu bion bizitzaren ezkutapena. Pilloan matxarda barneratu-ala, errautsa lodiagoa. Papel puzkattxo batzuek bildu nituan. Nunbait barruak ongi gorde zituan bilkuraren loditasun ark. Nik ezagutu ezin nuau emakume irlazlari bateuak ziran. Dardaraz ziran nere eskuak, leiatsu mugitzen ziran. Kearraz zikindutako zatixo batean, itz au irakurtzerik izan nuan : "PAX", eta idaztegun bat gurutz txiki baten oiñean: "1913 garreneko Otsailla'k 23'an. Urrena berriz : "Ene alaba maitea...". Alegindu nintzan puzketa auetaz erretako orrialdearen ertza izki-tankera aietaz osatzen, ez nuan, ordea, au besterik lortu: "Zuk ez duzu erantzunkizunik ume onek sortarazten dizun gorrotoaz; errudun ziñakea bere aurrean etsiko ba-zenu. Bestalde, baiñan, zure saiaketak...". Egiñal aundien ondoren oraindik irakurtzerik aal izan nuan; ". . . ildakoak orren errezki epaitzea... Ez bai-da aski arrazoi Lukas, engaua duan zaletasuna...". Ortik gauerantzekoa kearrak estaltzen zuan, esakera au izan ezik : "Zer barka bear duzunik jakin gaberik barka zazu. Berarengatik opatu zazu zure....

Geroxeago izango nuan denboraz arretatsuago ausnartzeko. Zeredozer besterik billatzea bakarrik pentsazen nuan. Atzaparkatzen jarraitu nuan, errauts gaiñetikotz makurturik, arnasa artzen galeraz-

ten zidan era txar batean. Une batean burua naas egin zidana arkitu nuan, "ulezko" karnet batek, osorik bai-zirudian. Baiñan bere orrialdetatik ele bat ere ez zan salbatu. Estalkiaren azpikotz, Isa'k idatzitako itz auek irakurri aal izan nituan : "Nere izena ez da 'zigorkatzen dan Ura' ; nere izena Josu da (Kristo'k Sales'ko San Franzisko'ri)".

Irakur-eziñeko aitapen batzuek jarraiki zioten. Alperrik egondu nintzan aldi luze batean oker-makurturik auts aren gaindikotz; ezer geiagorik ez nuan iritxi. Zuzendu uintzalarik nere esku beltztuak begiztatu nituan. Errautsez zikiudutako ene bekokia ikusi nuan ixpilla. Gazte nintzanean bezela ibiltzeko nai bat jarri zitzaidan, ta antxitxika jetxi nituan zurubiak, ene biotza makalaren oroitze ez nintzala.

* * *

Aste batzueu ondorez lenen aldiz abiatu nintzan maatstietaruntz, bere frutuz ken-arinduak zeudenak eta lo kuluxkan ziruditenak. Lur-ikuskizuna zidarrezko zirudian, garai batean Maria'k lastotxo baten muturretik ateratzen zituan jaboimaskuillu urdintsu aiek bezela puztua. Idi azkazalen arrasto sakonak eta alor-erretanak dagoneko gogortzen zituzten aizeak eta eguzkiak. Ba-nenbillen nigan neramala Isa ezezagun aren irtulia, Jainkoak bakarrik bigundu aalik dituan grin indartsu oien menpean zegoanean. Zeloak jandako arreba bat izan zan etxeoandre ura. Gorrotagarri izan zitzaion Lukas txikia... Umetxo bat gorrotatzeko duin dan emekume bat... Bekaitzkeriz bere-bere umeak zirala-ta? Nik Lukas aukeratzen nualako? Baiñan berak ere zapuztu izan zuan Marinette... Bai, bai ; berak sufri izan zuan nigatik; oiñazetzeko aalez egon bai-nintzan. Ura eromena! Mariuete illik, Lukas illik, Isa illik... Eta ni, zaaturik, zutik amildu ziran illobi ber-beraren ertzean, pozik nabaitzen nintzan emakume bati buruz ajolakabe izan ez nintzalako, biotz-eragin aiek alakoak erein uitualako beregan.

Parregarria zan, eta, egiz, nere gixara nintzan parrez, arnas-ots apur batez, maats-abe bati eldua, laiño-zabaldi xurixka aren aurrez-aurre, suntsi zituanak erriak bere eleizaz, beren bideak eta beren biztanle guztiak. Illunabarraren argia nekaldiz egiten zijoan bidea suntsitutako mundu artaraiño. Nabar, ikus eta ikututzen nere gaizta-

keria. Sugedorri multzo ikaragarri artan ez nintzan osorik sartzen; nere semeen gorrotoa, bengantza-naia eta diruari maitasuna, bil-naspildutako sugedorri aiengandik txit urrutiago billatzen nere ukatzea, noski. Korapillo nazkagarri aren mendekotz billakatu nintzan, nere biotz ber-bera izan ba-zan lez, nere biotz onen taka-takakoak irakiñez zenbiltzan pizti geldieziñeko aietaz naasi izan ba-lira bezela. Ez zan izan naikoa, mende-erdi baten luzaroan, nigan ez ezagutzea neroninintzana bakarrik. Besteen aurkarako erabilli izan nuan, gaiñera. Nere semeen aurrean, zorigaiztoko naikeriak lilluratzen ninduten. Roberto'ri buruz bere ergelkeriaz gogoratzen nintzan, ta itxura au nuan lagun. Iñoiz ez zitzaidan eskeiñi bestean jokabidea, argirotu bear dana ba-litzaida bezelaxe, eurenkana eltzeko igaro bear dutana ba-litzaidan lez. Ogeitamar urtez, berrogei urtez egin bear izandu nuan idorote au. Baiñan gauz biotz badaez-padako zaar bat naiz eta begiz jota nago nolaz nere bizitzaren azken udazkenak lo-arazten dituan maatstiaik eta zelan laiñoiz eta tximistez betetzen dituan.

Ilda dira maitatu bear nituan aiek; maitatu aal nindutekenak eriotz dira. Eta ez indarririk ez astirik ere ez dut ondiño bizi diranak, berriz arkitzeko, ibillaldiari ekiteko. Nigan ez dago deus, ez da nere abotsa, nere jarkerak edo parralgarak, nik mundura edatu dutan mamu orren, neronen izena emanaz, izate-zati ez danik.

* * *

Eta ain ziur oldozmen auek ote ziran jira-bíran nebilzkianak, maatsabe ari eldurik nengoanean, erreten baten ertzean, Yquem'go landa ederren bixtan, iñular ordu artan? Emen azaldu bear dutan gertaera batek, zalantzik gabe argitu ene kezkok. Neronegaz ziran, baiña, itzulian etxera nentorreanean biotza gaiñezka lurraldia estaltzen zuan pakeaz. Itzalek zabaltzen zijoazten; mundu guztia ez zan oneskuntz bat besterik. An urruñean, aldatz galduak bizkarralde okertuak ziruditen. Laiñoari eta gauari itxoitzen zeuden, noski, agian iltzeko, etzateko, edo gizakien-logalez loaren besoetan atsedentzeko.

Jenobeba eta Huberto etxean arkituko nituala uste. Nitaz afalduko zutela itz eman zidaten. Nere bizitzan lenengo aldia izango berak noiz elduko ziranen irrikaz nengoala, eta onek alaitzen ninduala. Larri-larri nengoan nere biotz berría agertzeko. Minutu bat ere ezin

zintekean gal nik eurak ezagutzeko, aiek nor nintzan jabetzeko. Denborarik izango ote nuan, il aurretik, arkitua nuana azterketa batean ipintzeko? Nere semeen biotzeraiño eramango ninduten aldiak aixakiro menderatuko nituan, banatzen ginduzten gauz guztien gaindikotz egingo nuan aurrera. Etena bai-zegoan, bein bear da, sugegorri multzo bil-billa. Ain laisterki aurreratuko nintzakealako beren maitasunean, negar egingo zuten begiak ixten zizkidatenean.

Etixeratu gabe ziran ondikotz. Aulkian exeri nintzan, bide ondoan, motorren otsetara ernai. Zenbatez beranduturik zetozen ainbatez zaleturik nengoan beren etorreraz. Nere asarre-erasoak etortzen zitzaizkidan uneak ere ba-nituan: berdintsua bai-zitzaien itxoiten egon nadilla! Txit ajola gutxi zitzaien berak zirala-ta sufritzen izan nadilla; naita egiten zuten... Jabe izan nintzan nere buruaz. Nik ezagutzen ez nuan zerbaitengatik izan bai-zitekean atzerapen ura, eta iñolako itxurik ez zegoan, oituraz, gorrotoz elikatzen nuan zio ortan egon zitekeala atzerapena. Etxeko txintxarriak din-dan afaltzera otsegin. Sukalderuntz joan nintzan Amelia'ri adieraztearren oraindik zeredozer itxoin bearko genuala. Arrigarria zan oso ni an ikustea, urdaiazpikoak zintzilikatzen ziran solairu-abe beltz aien azpikotz. Aneazko silla batean exeri nintzan, su-ondoan. Amelia, bere senarra eta Cazau, urrutitik bere parrak nik entzun nizkion negozio-gizona, ixildu egin ziran nere sartzeaz. Beldur eta bidebatez itzal giro batek inguratzen ninduan. Serbítzariei beñere ez diet itzezin. Eta ez nagusi lakar edo asko-naiekoa nintzalako baizik nere begientzat ez ziralako, ikusten ez nitualako. Baiñan gau artan ikusteak, lasaitasun bat zan neretzat. Eta nere semeak irixten ziralarik, antxen, sukaldariak aragia txikitzen zuan mai-bazter artan afalduko nuan gau artan.

Cazau iges joan zan; txamartxo txuri bat jantzi zuan Ernesto'k neri jatena serbitzeko. Estutu egiten ninduan bere ixiltasunak. Itz baten billa alperrik ibili nintzan. Baiñan ogeitamartat urte aietan ain zintzokiro serbitu ziguten aietaz ez nenkian ezertxo ere. Alako batez, gogoratu nintzan, zelan aintziña batean bere alaba, Guyenne'ko Sauveterre'n ezkondua, ikustera joan oi zan, ta Isa'k nolaz ez zion ordaintzen erakartzen zion untxia, etxean jaten zualako bein baiño geiagotan. Burua jiratu gaberik, azkarki antzean galdetu nuan :

—Ederto, Amalia, eta zure alaba? Beti-beti Sauveterre'n?

Niganuntz jiratu zuan bere ospindutako arpegia, eta, zuzen-zuzen begiraturik, esan zuan:

—Jaunak ba-daki il zala..., oraintxe amar urte, 29 garreneau, Deun Mikel egunez. Jauua ez al da gogoratzen?

Ixil-ixilik egondu zan bere senarra; baiñan bai garratz begiratu; aaztu itxuretan nebillela, iduritu zitzaion. Itz tikili-takalaz esan niou :

—Zaidazu barka... Ene buru zaar eta txar au...

Baiñan egoneziñez eta lotsaturik arkitzen nintzan bakoitzean izeka itxurazko parra egiten nualako, eziu izan nuan besterik egin. Oi zuan abotsez dei egin zuan :

—Serbitua dago jauua.

Berialaxe altxa eta gaizki argitutako jau-galera joan nintzan, ta exeri, Isa'ren kerizpe aurrez-aurre... Jenobeba emen, Ardouin abadea gero, urrengo Huberto... Begietaz billatu nuan, leioa eta araza bitartean, Jauine'rentzat, eta Janine'n alabarentzat izan zan Maria'ren exerleku goitua. Mokau batzuek jaten nituan itxura-edo egin nuan; serbitzen zidan gizonaren begiratuak beldur zemaidan. Maats-zuztarez egiiiikako sua piztu zuten saloiean. Gela artan, belaunaldi bakoitzak gibeleratzean, nola oi itxas-gora-berak itxas-txirleekin, lagatzen joan ziran albumak edo argazki-liburuak, kutxatxoak, dagerretipoak eta Carcel zeritzaieu olioeko argi-ontziak. Lur-iruditxoak estaltzen zituzten konsola-erreditzak. Kerizpetik zijoan zaldi baten ibillera nekatuak eta etxe ondoko olio-errotak biotza oiñazetan utzi ninduten.

"Zergatik ez zerate etorri, ene semeok?".

Dardaratu egin zitzaidan ezpaiñetan negar-marraka au. Atearen atzetik eutzuterik izau ba-zuten morroiek, saloiean arrotzen bat zegoala idurituko zitzaioten. Iñolaz ezin bai-zitekean izan, euren iriziz, bere alaba il zala jakin nai ez zuanaren zaar zoritzarreko aren abotsa, ez eta itzak.

Guztiok, emazte, seme, nagusi eta morroiak, nere animaren aurkarako alkartu bai-ziran, eta antzerki-paper gorrotagarri bat egin nezala beartu. Garratzki bateratu ninduteu berak nigandik nai zuten jokabideaz. Euren gorrotoak eskeitzen zidan ereduaz bateratu bainintzan. Bai erokeri latza, irurogeiatazortzi urtez, ur-uxola bat beetik-gorantz gaintzerik aal izatea, orain naizeua, eta beti izan naizenaren irudia beste begi batzuekin ikustaraztea, orain naizen gizon berriaz jakinaraztea! Ikusten oituta geunden ura bakarrik ikusten dugu. Eta zuei, ene seme gaxuok, zuek ez zaituztet ikusten. Gazteagoa ba-

nintz, gutxiago sakonduak egongo ziran arrastoak, oiturak ez ziran orrenbesteraño erroituko; baiñan kili-kolo naiz, bearbada nere gaztedi aroan, zoramen au etentzerik ez uuala izango ere. Indar bat izatea bear-bearrezkoa zala pentsatzen nuan. Zein indar? Norbait. Bai, guztiok bildu arazirik, nere barrungo garaitza egiztaterik izango zuana neretarrak ziran begietan; nere aldeko testigantza egingo zuan norbait, zama aztun nazkagarriaz libratuko nindukeana, eta bere bizkar gaiñean artu...

Onea ere ez bai-dut berez maitatzen ikasten. Parragarri gelditzen geran uneen gaindik igarotzeko, grin txarrak eta, batezere, gizakien txotxolokerien gaindik, munduak ezagutzen ez duan maitasunaren doai ixilkako bat edukitzea bearrezkoa zaigu. Ixilkako ori arkitzen ez dan bitartean, alperrik aldatuko dira gizakien doaiak. Iruditzen zitzaidan nerekoitasunak ezezagun egiten ninduala ekonomiarri eta sozialtasunari buruz dagokigunaz. Bakartasunaren ta ajolakabetasunaren amalauzanko bat izan naizela egia da; baiñan au ta guzti ba-nuan nere sentimenean, ziurtasun illun bat iraultza egiteak ez zuala balio gizartearen izaera aldatzeko; gizarteari biotzean ikutu bear zitzaien. Garaitz onetara erainango gaituna bakarrik billatzen dut; bear-bearrezkoa izango da, ori biotan. Biotza izan dedin maitasun orokorraren biltokia. Dagoneko agian eskaria izan dedilla nai dut. Gau artan or-or ibili nintzan belaunakitu nedin, butakan nere ukalondoak sarturik, aintziñako udara aietan Isa'k egin oi zuan bezela, iru aurtxoak bere gonetara josirik. Terrazatik ba-nentorren itzulian argitan zegoan leioruntz; nere urrats-otsak itotzen uituan eta, baratzeko itzaletan ikuskaitz neiigoalarik, eska-gosez zan talde ura begizatzen nuan.

—Zure aozpekoz naizelarik, oi ene Jainko —murmurka esaten zuan Isa'k— eskerrak damaizkitzut eman didazulako biotz bat zu ezagutzeko eta maitatzeko...

Zutik nengoan, saloiaren erdian, kordokaz, biotz-ikutua ba-nengokean legetxe. Nere bizitzan pentsatzen nuen, nere bizitza aztertu. Ez, eziñezkoa zaigu orrelako lokatz-uxola beetik-goratu. Ain gizon ikaragarria izan nintzan, ezin iñolaz laguu bat izan. Eta nere buruari galdetzen nion ea txantxo jazten jakin ez nualako ote. Ni ainbatez zanpantzar bizi izan ba-lira gizonak, ni mende-erdi batez bizi izan nintzan bezela, egian zor eta lor geldituko ziran beuretan ikusten

zutelarik mailla-aldeak zeñien txikiak diran. Egia esateko, iñork ez du aurre-erasoa egiten arpegia estalirik gabe, iñortxok ere ez. Jator-tasun ta aunditasunaren itxura egiten dute geienak. Ez dakitelarik, alako literatoen itxura artzen dute, edo beste batzuen. Ikusten dute-lako dakite santuak, gorrotoaz eta ezin-ikusiaz bizi dirala aiek. Ez ninduten orrenbestez zapuztuko jakin ez ba-zuten jakin orren garbia uintzala, orren irikia, orren zabala.

Auek ziran gau artan persegitzen zidaten pentsamentuak, itzale-tan zegoan gela artatik barna egurazten nintzan bitartean, erreditz trinko baten kaoba eta palisandro batez kolpeka igarotzen nintzanean, sendi baten aintziñako ondakiñak, eta ainbeste soin, gaurregun auts biurtutakoak, bertan sendotu eta exeriaaldiak egiñak, noski. Nere semeen bortzegiak lokatzu bai-zuten exerleku zabala bertan exeritzen ziranean 1870 garreneko Le Monde Illustre'ren orriak ikustatzeko. Exerleku-oialak lengo tokietan zikinduta jarraitzen zuten. Jiraka zan aizea etxeareu biran, iorrean zeramazkiala illik ziran astigarren os-toak. Gela baten leiatillak ixten aaztu egin ziran

XIX

Irrikatsu itxoin nuan urrengo egunez korreo ordua. Baratzeko bideetatik barna egurazten ari nintzan, Isa'k egin izaten zuan antzo gure semeak beraudaturik zetoztelako eziñegonez zegoanean. Burrukan ote ziran ibili? Iñor gaixotu ote zan? "Odolak kiskaltzen nin-duan". Isa bezin askarra biurtzen ari nintzan mintzatzeko, ideia zu-zenak mantentzeko. Mundutik-at eta urrutiratuta ardura bat itzuli-purdikatzen dijoaztenen jokeraz ninjoan maatstien erdi-erditik barna. Baiñan, gogoratzen naiz ein batean, ajolaz begiratu niola nigan osa-osatzen ari zan aldaketari, baita nere larriaren gozamenaz izaten nin-tzala. Ots zegian lanbroak; eta ikusi gabetanik landan etzun. Ur-txo-riak eta garraztarroak jostari ziran lerro-artetan. Maats aleak emen usteldu eziñik zeudenean. Lukas'i atsegin izan zitzaion, ume bat za-nean emeudixetik eguraztea, oporraldiaren azkenetako egun aietan.

Paris, en fetxatutako Huberto'ren itz batzuek ez ninduten lasai-tu. Laisterka irten bearrean arkitu zala, esaten zidan; garrantzi aun-diko arazo mikatz bat, argituko zidana bera itzuleran, bi egunez gero-

gorako omen zan-ta. Fiskalaren eskuarteko naasketaren batzuek izango zirala uste izan nuan. Legez-kanpoko zerbait egin ote zuan ba?

Eguerdian, geiagorik eutsi eziñik geltokiraiño eraman nazatela eskatu, eta emen Burdeus, erako ibil-txartela atera, neronen buruari galerazi ba-nion ere bakarrik bultzian ibiltzen. jenobeba gure etxean bizi zan orduantxe. Átalondoan arkitu nuan sendagillea, izan bear zuan gizon bat agurtzen zuan uanean.

—Ez al dizu ezer esan Huberto'k?

Arrastaka eraman ninduan il-eleizkizun egunez gosaria egin nuan gelatxoraiiio. Arnas-gozoa artu iiuan Phili'ren igesketa buruz zala jakindu uanean, Askoz txarragoa ote zan ere beldur izan nintzan; baiñan "berarengatik asko interesatzen zan" eniakume batez iges joana bai-zan, eta ikuskizun zatar baten ondorioz Janine utzi bai-zuan iñolako itxaropenik gabe. Sendagillari larriturik zekarkion auleziaz ezin bada xuxpertz gure txikia. Paris'en arkitu zuten igeslaria Alfredo'k eta Huberto'k; baiñan, une aietantxe artutako telegrama batek zionez, ezer lortzerik ez zuten izan.

—Ain esku-zabaleko pentsioa ziurtatu geniola pentsatzen dutan aldioroz. Noski baiño noskiago, gure neurriak artuak genituan bere izenean ezerlako kapitalarik ipiñi ez genuanean. Baiilan eman-errenta guztiz garrantzi aundikoa da. Txepelegia izan dala berarekin janine, Jaungoikoak ba-daki; bere emazLearengandik nai zuana eta geiago lortzen bai-zuan. Eta pentsatzen dutanean nolaz garai batean lagako zuala amenazo egin zionean, iritzi osoz zalarik zuk ez zenigula xox bat bakarrik ere utziko. Eta orain zure aberastasuna utzi diguzunean, igesegitea erabakitzen du. Buruan sartzen al zaizu orrelakorik?

Eta nere aurrean gelditu zan, bekaiñak altxaturik eta zabal-zabalik begiak. Gero erradiedoreara bertaratu eta bere eskuak ipiñi zitan berotu zitezen.

—Aixa! —esan nuan— Guztiz emakume aberatsa izango da-ta..

—Bai zera! Abest-irakasle bat. Ezagutzen duzu; andra Velard da. Ez duzu gaztea; bereak eta besterenak bizitutakoa da. Ozta-ozta irabazten du bizitzeko lain. Buruan sartzen al zaizu orrelakorik—
—berriro eta berriro esaten zuan.

Erantzunari itxoiteke, baiñan, ostera mintzatu zan. Une artantxe sartu zan Janine. Bata batez jantzirik etorri zan ta kopeta eskeiñi zidan. Ez zan argaldu; baiñan bere arpegi medar eta doagabea

etsipenak txautu arazi zuan neri gorrotagarri zitzaidan guztia. Ain itxurati eta ain apaindua azaltzen zan izaki txatxal ura, ikaragarriko xume zan Leste izaki Lateau Liurtu zan. Argi-araña Laten argi Liziak osorik zeukan argipean arta, ta Lerak ez Letilleak ínugi ere.

—Zuk Lai al dakizu! —soilki galdetu zidan, ta sofan exeri.

Entzun ote zituan Lere amaren izketaldiak eta Phili'k aldegin zuanean JenoleLa'k ekingo zion Luka-eziñeko marmarra?

—Pentsatzen dutanean...

Esaldi Lakoitza "peutsatzen dutanean" onekin aasten zuan, iñundik ere ain arrigarria zana ain gutxi "pentsatzen" zuan persona Latean. Emazte ark esaten zuan, alegia, ontzat eman zuala ezkontz ura egitea, Phili'k, ogeitali urte zituala, aLerastasun polit Lat auts Liurtu zuala, ondarearen jaLe gazteegi egin Lai-zan, jakiñagafieai egonagatik ere. Uinezurtz eta aide-urrengorik gaLe, Lere Luru-jaLe egin Lear izandu zuan. Itxi ere egin zuten beren begiak, bere sendikoak, zera-makian lizun Lizitzari... Eta auxe izan jasotako ordaiña...

Alperrik jardun nintzan nere baitan jaiotzen zan asarreari eusten. Berpiztu egiten zau, ostera, nere aintziñako txarkeria. Jenobeba'k, Alfredo'k Isa'k eta aueu lagun guztiak akullatu izan ez balute Lezela Phili, milla agindu eskeñiaz !

—Arrigarriena —kurrinkaz esan zuan— diozuna sinisten duzula. Alare, ongi dakizu jakin, guztiak Lere atzetik zinjoaztela .

—Aita, ez al duzu aldeztuko...

Defenditzeagatik ez zala, esan nuan. Eta jarraitu nuan esaten, erru aundian erori giñala Phili zan Laiño doillorragoa jotzen genuanean. Ezpairik gaLe, ari eta ari gogorkiro jardun izan zitzaion, alegia, Lein aLerastasuna eskuetan, ontzat eman Lear zirala LidegaLekeri guztiak eta, gaiñera, ziurtasun osoa zegoalako ez zuala aldegingo orren ondorenean. Baiñan uste izaten dan Lezin Leera iñoiz ez dira gizonak erortzen.

—Bere emaztea eta Lere alaLatxoa utzi duan gaizkille Laten alde ari zerala pentsatzen dutanean...

—JenoleLa —marrukatu nuan sutan jarririk—, ez nazu ulertzen ; dagizu indar pittin Lat ulert nazazun. Bere alaLatxoa eta Lere emaztea lagatzen duanean aldeko ez naiz, Laiñan erori zitekeau erruduna arrazoi txarren mende edo garrantzizko kariz mende..

—Orduan —erosgogortasunez erantzun zuan JenoleLa'k—, jator-

tasuna cleritzaizu ogeitabi urteko emakume bat eta neskalo bal lagala igesegitea...

—Ortik ez zan ateratzen; ez zuan ulertzen ezertaz ezeitxo.

—Ez, tuntunegia zera , , saiatzen ez ba-zera beñepein ez ulertzen.. Ni ontaii uago, Phili ez zaidala orren nardagarria iduritzen, batezere...

Itza Jenobeba'k eten zidan, oiuka esanaz itxoin nezala Janine gelatik atera arte, iraintzeko bere senarraren alde itzegiñaz. Baiñan txikiak, ordurarte aoa iriki gabe egon zana, ea ezagutzerik izan ez nuan abotsez, esan zuan :

—Ama, zergatik uka? Geok ondatu dugu Phili. Oroi zaitetz. Dirutza banatu genuan bezin laister, beraren gaiñera erori giñan. Ugel bateri nik lotutako abere bat bezela zan. Iritxi bai-nintzan ezin eramaz egotea maitatua ez nintzalako. Orain ba-neunkan xauxa; nere-a zan ; bere jabea nintzan. Diruak nere-nereak bai-ziran ; zazpikoaz ordain arazte nuan. Zure esakera zan au, ama. Zadiz oroiz nolatan esaten zenidan : "Oraintxe bai ordain araziko diozula zazpikoaz". Uste baigenuan beragan ez zegoala ezer besterik diruaren gaindik. Bai-bai-zitekean berak ere ori sinistea eta, alaz eta guztiz ere, bere asarre-mila, bere lotsa, aundiak izan dira guztiz. Senarra lapurtu ditan emakume ori ez du maite; joaterakoan aitortu zidan, ta aiu gauz ikaragarriak esan zizkidalarik ziurtasun osoz naiz egiak esaten zituala. Baiñan einakume orrek ez zuan zapuzten, ez zuan gutxietsten ta umiltzen. Berarentzat bizi da; gizonik ez du artu. Nerea ez zan arazo berdiña.

Ari-arika zegizkin azken itzok makildua izan ba-litz bezela. Bizkarrak kizkurtzen zituan bere amak, baiñan poztu egiten zan bere malkoak ikusirik: "Onek baretuko du . " Eta oraindik ere zion :

—Ez beldurtu, ene maite. Itzuliko da; goseak galtzen du otsoa. Iges anka-joko ortaz aspertuko danean

Janine'n atsekabea oraindik geiagotuko zutela itzok, ziur-ziur nengoan. Zutitu eta nere ginbailla artu nuan, gauz ez nintzalako izketaldia bukatzen nere alabaren ondoan. Gurdi bat alogeratu uuala eta Calése'ra itzuntzera ninjoala, esan nion. Bat-batekotz, Janine'k esan zidan :

—Aitona, eraman nazazu.

Eroturik al zegoan galdetu zion bere amak; bearrezkoa zan etxe

artan jarraitu zezan; bere bearrik ziran legegizonak. Onetaz gaiñera, Calése'ii "itunpenez ilko zan". Eskail-buruaii, onaiño jarraitu bai-zidan berak, errita-itzak zuzendu zizkidan Jenobeba'k, Janine'n griña berotu nuala-ta.

—Lasaitasun ederra izango litzake guztiontzat gizon kalaxka orrengandik banatuko ba-litz. Etenketa ori irixten ez litzake orren zaila izango eta, bere dirutzaz, txit berealdiko batezko ezkontz bat egin zenezakean. Baiñan bearrezkoa da lenengoz berarengandik libra dedilla. Eta zuk, Phili begian makarra baiñan gutxiago maite duzularik, bere emaztearen aurrean gorai patzen asi zera orain... Ez bada! Batezere, ez dijoala Calése'ra. Egoitz ederraz bai itzuliko diguzukeana! Emen oarkabetu, jolas-arazi genezakea. Aaaztuko bai-du..

Iltzen ez ba-da, pentsatzen nuan; edo bestela, zoritxarrez bizi ez ba-da betiro berdintsua irauten dion oiñaze batez, eta denbora ere mendean artuko duana. Agian, Janine, legegizon zaar batek ain ongi ezagutzen duan abenda orretakoa da : ain zuzen emakume oietakoa, itxaropena gaitz bat dutenetakoa eta onegatik iñoiz itxoiten poto egiten ez dutelarik, oraindik ogei urte buruan ateari begiratzen jarraitzen dutenetakoak zakur leial batek bezela.

Janine oraindio exeririk jarraitzen zuan gelara osteratu nintzan, ta esan nion :

—Nai duzunean, maite...; abegi-onez artua izango zera beti.

Aditu zidanaren zantzorik ere ez zuan agertu. Itzulirik, Jenobeba'k kezkatu galdetu zidan :

—Zer esaten zenion?

Jakindu nuan jakin obendun egiten nindutela, une aietan Janine burutapanez aldatu nualako-edo, eta jolastu ere egin nintzala "ideia multzo bat buruan sartzen niolako". Nik, baiñan, ixkillarak jeitxi nituan oroiturik gazteak ezan zidala : "Eraman nazazu...", Eraman uazala, beraz, eskatu zidan. Iñundikpait nere senari jarraiki ogutzi nituan, Phili'ri buruz, emazteak entzun bearrekoak zituan itzak. Eta agian ere, ni izango itzez zauritu ez nuan leneugoa.

Egun ospetsu batean bezelaxe argitutako Burdeus batetik barna ibili nintzan. Cours de l'Intendance kaleko ibiltokiak dizdiratsu zuden, laiño ezeaz bustituta. Eguerdiko oiua ito egiten zuten tximisgurdién zaratak. Galdua zegoan nere aurtzaroko ats ura, giroa; Gros Cloche ta Dufour-Dubergier auzo illunagoetan arkitu nezakean

ats au. Agian antxen, emakume zaar batek, kale beltz baten íxkiñan geldituta, estutu zezakean bere bularren kontra, anis saborea zukean gaztaiñez betetako pota bat. Ez, itunik ez nengoan. Norbaitek entzun bai-zidan, ulertu ere. Batean elkartu giñan; garaitz bat zan. Baifian Jenobeba, ren aurka topaketa larregia egin nuan; txotxolokeri zenbaiten aurka ezin nezakean ezer egin. Gogo-arima batenganAño aixa irixten da bat okerkerietatik barna, griñ txarrenen bitartekotz, baiñan arrunkeria igaro-eziñekoa zaigu. Ainbatez txarkiago! Onela jakingo nuketa zertaz balia. Illobi guztietako estal-arriak ezin bada puzkatu. Txit zorionsua nabai ninteketan il aurretikotz izaki bakar baten barrunbean sartzerik izaten ba-nuan.

* * *

Hotel, ean lo egin ta urrengo egunaren goizez Calése'ra osteratu nintzan. Emendik egun gutxietara Alfredo'k ikertu ninduan, ta bera-rengandik jakin nik egin nieten bixitak ondoren txar-txarrak ekarri zituala : Janine'k Phili'ri idatzi omen ziola astakeriz betetako eskutitz bat, bere buruarengatik errudun zala aitortuaz, guzti-guztiaren obenlari zalako barkapena eskatuaz. "Emakumeengandik ezin diteke besterik itxaron...". Gizon lodikote on arek ezin bada neri ausartu esaten, baiñan zalantzik gabe, bai pentsatu : "Asi da amonaren kairukukeriak esaten".

Gaiñera, Alfredo'k ere esan zidan, auzi-prozesoa aurretik galdurik zegoala, eta Jenobeba'k ni egiten ninduala errudun: intentzio guztiaz asarretu arazi omen nuan Janine beste gaiñerantzekoekin. Irri-parrez galdetu ere egin nion nere suiñari ea zer zala-ta jokatu ote nuan onela. Protesta egiñik erantzun zidan, bere emaztearen iritzikoa zala, eta onela jokatu nuala biurrikeriaz, bengantzaz edo, agian, "gaiztoaren-gaiztoz".

Ni ikustera ez zetozten semeak. Jenobeba, ren idazki batek, jakin arazi zidan aste batzuek gerogoz, Janine klinika batean sartzea bearturik arkitu zala, jakiña baiñan jakiñagoa, zoraturik ez zegoan. Atsedean aretxek sendatuko zuala askorik itxaroten zan.

Bakarrik nengoan ni ere, baiñan ez nintzan gaizki arkitzen. Orrelako atsedenaldira luze batez atsegindu nadin sekulan biotza ez zidan utzi. Amabostaldi eta apur bat luzatxoagoan luzatu egin zan udazkena munduan. Orritxo bat ere ez zan jausi oraindik; berriro

egin ziran larrosak. Nere semeu urruntze ura, ostera nere naígabea zan. Negozioetarako itzegiteko bakarrik etortzen zitzaidan Huberto. Guztik elkorra zegoan ta zentzudun itxurak egiten zituan. Bere jar-kerak guztiz alaiak ziran, baiñan zer-etorriko zenaren susmurrazedo zebillen. Nere semeak zalatzen iiiuduten itzal arek ber-berak galdu arazi zidatt irabazirik neukau bide guztia. Beren begietan, ostera etsai biurtu nintzan, edozertarako duin zan zaar gaiztoa. Azkenik, ulertu nazakeau gizaki bakarra giltzaperatua eta bizi giñadenengan-dik aldendua izan zan. Alabaiñan, pake pseudo baten igurtzia nabaitzen nuan. Nituan guztiaz kendua, banakatua, eriotz ikaragarri baten amenazo-pean, lasai jarraitzen nitatt, soiiiez ernai eta gogoz esnai. Ez ninduan abailtzen nere bizitz tristearen pentsatzeak ere. Iñor-gabeke urte aien aztuntasuna ez nuan nabaitzen..., txit gaixorik zegoan xaar bat ez ba-nintzakean, nere aurrean oraindik bizitz oso bat banukea bezela, norbait izan ba-litz bezela nigaz jabetu zan pake ura.

XX

Klinikatik igesegin ta nik jaso nuan illabetez geroztik, oraindik sendatzeko zan Janine. Azpi-lan baten biktima gertatu dalakoz dago eta betebetean dio giltzapetu ba-dute Phili erasotzen, ezkontza-austea eta banaketa eskatzen ukatzen zalako dala. Besteen iduriz ni naiz iritzi auek adimenean sartzen diotana, eta euren aurkako bidaltzen dutana, naiz-eta polikí-poliki jardun Calése'ko izketakli lttzean barna amets-txorodun eta lilluramen auetxen kontra. Etxetik-at, lokatza-rekin ostoak euriak naasi, usteldu. Etxaurreko ondarrak kirruz-karrastu bortzegi aztunak; gizon bat igaro da saku batez babesturik. Ain billutsik dagoalarik baratza ezin bada estali aal izau zer-nola gutxi opa zenion emen jostaketari. Txosnetako ezurkiak, basolxo gaxoak otzez-dardar dagoz bukaerik gabeko euripean. Geletako ezetasun sarkorrek kemenik gabe lagatzen gaitu, gaua dalarik, saloieko sutokia uzteko. Gaberdia ba-datorkigu eta ezin bada etsi goi-gelara igotzen; illentiak, geldiroki pillatuak, su-autsetara jausten dira. Geiago, buruan nola sar ari eta ari aritu bear gatzaio neskato gaixoari, gaizki ez dutela nai bere gurasoak, bere anaiak eta osabak. Aalegi

ñez urruntzen dut bere pentsakizuna klinikatik. Eta Phili'tzaz miutzatzen bukatzen dugu beti-betiro.

—Iduriz ere ezin zenezake asma zer-nolako gizon mota zan.. Ez litzaizuke buruan sartuko zelako piztia zan .

Eta goralpen edo berapen baten aintzindari ziran itzok, ala batekotz ala bestekotz esan. Eta esateko eraren doiñua nuan aski gauz asmatzeko ea goraltzekotan edo beraltzen ba-zuten ere, kontatzen zizkidan ekintzak txikikeriak iduritzen zitzaizkidan. Maitasunak ba-damaio emakume gaixo oni, berez irudimen exkaxekoa, arrigarrizko aal bat gauzak aldatzeko edo aunditzeko. Nik ezagutu dut zure Plrli ori, gaztetasunak une batean biurtzen dituan izaki dizdiratsuetan, ezerez bat. Maiñaz betetakoa, Ioxintxatutakoa, iritzitua, intentzio xamurrak edo makatzak, ausnartutako gaiztakeriak egozten diozun ori; iduripenak besterik ez diranak baiño.

Ez ziñaten jabetzen, arnas artu nai ba-zuan, indartsuena nabaitzea zuala naitanaiezko. Zazpikoa-ordain-araztea iñolaz ere ez zegoan. Bere kideko txakurrak ez dira orrela asetzen; orren garestia ez dan otoruntza billatzen dute lurrean.

Bere Phili ez zuan ezagutzen zoritxarrekoak, ez da urrutitik ere. Ark zer esan nai zuan bere begietarako, bere an-izatearen larrikaraz kanpo, atzerapendutako maite-igurtziak, kezkek, eta galdua izatearen ikaragarritasunaz kanpo? Begirik gabe, usaimenik gabe, elkartzeko irrati-aririk gabe, antxixika dagi eta izaki orren atzetik zorutzen da, iñork argituko ez dakiolarik egiz zer dan bere jarraiketaren zioa.. Itxututako gurasoak bai ote? Janine nere illoba da; baiñan nere alaba ba-litz ez nuke bestela ikusiko, dan bezelakoxea baiño : besterengandik ezer jaso ez dezakean gizaki bat. Itxura-zatiz berdinxamarrekkoa, lodia, aztuna, abots ergeladun emakume au ez ikusten ez pentsatzen gelditzen diran sellu bereziaz nabarmendua dago. Polita íduri zait gau auen luzaroan, bai baiñan, berarentzat arrotz dan edertasun baten, bere itxarogabetasunean irarria. Ez ote da gizon bat ere bititzen sualdi onek erakarraziko duanik? Zoritxarrak su artzen du illunpeetan ta eremu batean, zaar au dala testigu soil-soilla.

Izketaldi luze aietan, berarenganako kupira nabaitzen nuan bi-debatez, Phili konparatzen ez nintzan nekatzen, beste askoren antzeko mutil ori, nola oi dan antzeko mitxeleta zuri bat beste mitxeleta zurietaz, bere einaztean erroitu zuan grin artaz, eta onentzat illik

lega zuana ikusten dan mundua eta ikusteke datzana; ez zegoan bizirik ezer, Janine'n begietarako, arra ura baiño, zerbaitez maskaldua, beste edozer baiño geiago alkoola maitatzen oitua eta, maitasuna, lan bat ba-litzake bezela, bearkizun bat, neke bat, edo Zenbat zori-eza!

* * *

Illunabarrez, etxean labainki zebillen bere alabari ozta-ozta begiratzen zion. Alabatxoaren ille kizkurretan itxumustuan ezartzen zituan bere ezpaiñak, eta ez alabak ez zualako aginterik amagan, onek bai-zuan alabagan bear zuan indarra Phili'ren ipurditik ez abitzeko. Duin bai-zan emakumea erasotzeko, erronkaz zirikatzeke eta jendeen aurrean nolabaiteko istilluak pizteke. Ez, ni ez nintzan duin izango geldi-arazteke; alabareugatik gelditzen zan, baiñan berarengatik ez zuan artzen ezereen pozkidarik. Neskatiilla, gabaz, nere besoe-tan edo nere belaunetan babesten zan, afaria maiera ekartzen zuten arteraiño. Txori eta kabi usaia arkitzen nuan bere illetan, Maria'k izan zituanak gogora-arazirik. Begiak itxiten nituan ta nere aoa buru artan itsatsi, eta alegintzen nintzalarik gorputztxo ura ez nezan indartsuegi besarkatu, nere biotzean ots nengion galdu nuan nere alabari. Eta, bidebatez, iduriz izaten nintzan Lukas besarkatzen nuala-edo. Jostaketa asko egia zegoanean, bere masailak Lukas'en ao-kutsu gazi ura zeukatzen, au korrika ibiltzez nekaturik etorri eta maiean loak artzen oi zuaneko erabereaz .. Postreari ezin itxoiñik, muxukatu genezan, logalez ler-egindako bere arpegia eskeintzen zigun. Onelako ametsetan suntsiturik nengon ni, arat-unat zebillen gelan Janine, ibiliaz eta ibiliaz, bere maitasunean ekin eta jarrai.

* * *

Gogoratzen naiz nolaz gau batean galdetu zidan :

—Zer egin bearko nuke ez oiñazetzeko...? Uste al duzu au joango dala?

Benetako gau otza zan. Ikusi nuan ikusi leioa eta persianak irikitzen, ta bere bekokia eta bularraldia bustitzen izoztutako illargiaren argi-txirripetan. Su-ondora eraman nuan, eta ni, xamurtasunaren jarkeratzaz zipitzik ere ez dakiten onek, bere ondoan baldarki exeri nintzan ta bere bizkarrak ene beso batez inguratu. Laguntzaren bat gelditzen ote zitzaion galdetu nion.

—Sinismenik bai al duzu?

Oar-gabetasunez erantzun zidan :

—Sinismenik? —ulertu izan ez ba-lida bezela.

—Bai —itzberritu nion— jaungoikoa.

Kiskaltzen zeukan arpegia niganuntz jaso zuan, fiakaitzki begiratu zidan, ta azkenik esan, "ez zekiala zer ikusterik zeukan orrekin...". Eta itz-arika jardun nintzaiolako, izketa luzatu zuan :

—Noski, sinismenduna naiz. Betetzen ditut nere bearkizunak. Ori, zergatik galdetzen didazu? Par al dagizu nitaz?

—Uste al duzu —esan nion— zuk ematen diozun maillan dagoa-la Phili?

Esaten zaiona ulertzen ez duanean ta zer erantzun jakin gabarik gelditu, joko-txar bateau erortzeko beldurrez izaten zanetan Jenobeba'k oi zuan tankera gozogabe ta suminduaz begiratu zidan. Ausartu zan azkenean.

—Ikustekorik ez du ezer gauz batek besteaz.

Erlijioa gauz oietaz naasitzea ez zitzaion gogozkoa. Ekintzadun katolikoa zan, baiñan aiu itxuragabeko artu-eman auek ikaragarriak zitzaizkion. Bere bearkizunak betetzen zituan. Doiñu ber-beraz esango zuan bere kontribuzioak ordaintzen zituala. Nere bizitzaren luzaroan orrenbestez nardatu nuana, ori zan, orixe ta ez besterik: itxurakeri nazkagarri ori, kristau bizitzaren erdipurdiko zama ori. Eta nik gezurtiarena egin nuan beragan ikusteko sinismenaren ordezkari egiazkoena, onela eskubidea izan nezan bera gorrotatzeko. Gorrotoa dugunari aurrez-aure begiratzea bearrezkea zaigu. Nik baiñan, pentsatu egiten nuan ; nik baiñan.. Ez al nenkian ba ongi lendidanik neonen burua engañatzen ari nintzala, eunki aren azkeneko gau aretantxe, Calése'ko terrazan, Ardouin abadeak esan zidanean; "Zu guztiz ona zera"? Ondiño aurreragoz, belarriak estali nituan iltzen ari zan Maria, ren itzak ez entzuteko. Alabaiñau, bere oe-buruan argitu izan zitzaidan bizitzaren ta eriotzaren ezkutuko illuna.. Nigatik ari zan iltzen neskatiltxo bat... Nai izandu dut aaztutzea. Aspergabe, galtzerik nai izandu dut esku ikuskaitz batek, eta bizitzaren jira-bira bakoitzean, beti-beti eskeiñi izan ditan giltza : Lukas'en begiratu ura igandeetako mezaren ondorioz, xirriten kurrinkotsak entzuten diran orduan.. Eta udaberri artan ondikotz, kazkabar egin gau aretantxe.

Onelakoak ziran nere pentsamentuak gau artan. Nolaz zutitu

nintzan ta nolaz ere ain zakarki bultzatu nuan nere butaka, Janine dardaraz jartzeko lain, baita gogoratzen naiz. Ordu aurreratu artan, Calése'ko ixiltasunak, ixiltasun lodi ori, mamitua ea, auldu, ito egiten zuan bere oiñazea. Sua iltzen joan zedilla lagatzen zuan, eta, gela oztutzen zijoan eraberean, laratza aldera lorrean zeramakian bere exerlekua eta bere oiñak ortxe ikutu ez ikutu su-autsa. Bere eskuak eta bekokia erakartzen zituan doi-doi iltzen zijoan suak. Tximiniko argi-ontziak argirotzen zuan emakume otoitzlari eta potolote ura, eta ni, illunpe artan egurazten nebillen bere inguru-muruan, palisandro eta kaobazko erreditzak genituala alderotan. Ezereztua, aragimokor arren inguruan, buruzperatutako gorputz aren inguruan jira-biran nenbillen.

—Alaba nereaa...

Billatzen nuan itza ez nuan arkitzen. Gau onetan itotzen nauna, errenkada auek idazten ari naizenean, minberagarri dana nere biotzean au etengo ba-lirake bezela, maitasun ori da, azkenean ere bere izenaz ezagutzen dutana, izen aintz...

iji xE 4*

"Calése'n 1930... gko. Abendua'k 10 gnean.

Jenobeba biotzekoa:

Kajoi guztietatik gaiñezkatzen diran paper guztiak aste onetan bukatuko sailka-jartzez. Baiñan nere bearkizuna da guttun arrigarri onen berri lenbaitleen eniatea. Jakin ba-dakizu bere laneko maiaren aurrean il zala gure aita, eta Amelia'k arkitu zuala Azaro 24 garrenean, goizetik, idatz-liburutxo baten aurrean. Auxen duzu bada zertifikatutako bilkura batean bidaltzen dizutana.

Ain zuzen, neri ainbatez kosta bear zaizu bere idazkeraz jabe-tzen. Gureztat zorion aundi bat izandu da gure morroiek ezin izandu dutela ulert. Gizabide pittin batez jota, asiera batean erabaki nuan ez zenezala au irakurri. Gogortasun bereziaz mintzatzen da zuregatik gure aita. Baiñan, bai ote dut eskubiderik, neretzat bezenbat zureztat ere dagokigun gauzatzaz zu jakin-ezean edukitzea? Gure gurasoen ondaretza andik ala emendik ikututzen duan guztiari buruz ditutan ene barne-zimikoak ezagutzen dituzu. Alaxen, bada, obekiago dut pentsatu.

Are geiago, gu biotan, zein izandu da txarkiago tratatua orrialde mikatz auetan? Guztiz aspaldidanik ez genekigun ezertxo ez digu argira ekartzen. Ene aitari sortarazi nion nardak pozoitu zuan nere gaztetasuna. Nere buruarengatik ezpaiz egondua naiz aldi luze batean; bere begiratu zorrotzaren menpean tolestu egin naiz, eta urte asko igarro bear izandu ditut jabetzeko, azkenean bai, zer-nolako dan nere trebetasuna.

Barkatu dut, eta geiagotzen dut baita ere, semetasun zorrak bulztatzen naula txosten au bidali dizudan. Bada, nolanaiko iritziaz ardezazula, egia bai-da gure aitaren izakera, ain sentimen ikaragarriaz ikusi izan baldin ba-dugu ere, idurituko zaizula agian, leialagoa dala, esaten ez naiz ausartuko, baiñan bai noski gizatasunaz beteagoa. Lukas txikiari eta gure arreba Maria'ri izan zien maitetasunean pentsatzen dut bereziki, aiu ziur unkigarrizko probak arkituko bai-dituzu kuaderno onetan. Guztiz argiago ikusten dut orain amaren il-kutxa aurrean erakutsi zuan oiñaze latza, gu guztiok arriturik lagatzeraiño. Zerbaitez itxuratia iduritzen zitzaizun. Orrialde auek ez dute beste ezertarako balioko ez ba-da argituz ikus dezazun zer-nolako sentimena bizi ziran oraindik lakar eto arrokeriz-ero zan gizon artan. Badau pena balio jazan dezazula bere irakur-lana, ein bestez ere, orren latza izango ba-da ere zuretzat, Jenobeba maitea.

Onegatixek natzaio txit eskerturik egin zuan aitorketa au dala bide, ta gure konsientziaren lasaitasuna izango zuk zedorrek bertan arkituko duzuna. Nerez naiz kiskil-xamarra. Nere eskubidean uste aal izateko ba-ditut ala ere milla arrazoi, edozein uskeria aski izaten dut barrundik estututzeko. Ai! Moral-begirapenak, ni neuk erabilliko dutan neurrian erabillia, bizitza ez du egiten erreza. Aita baten gorrotoaz asaldatua izan naizelarik, nere alderako ezertan ez naiz saia, dardaritararik nabaitu gaberik, ez ba-dira barrungo arren imurtziak. Sendi baten buru izan ez ba-nintz, erantzunkizunaz beartutako bat, dala gure abizenaren izen onarengatik, dala gure semeen jatorrizko ondasunegatik, lenen naiago izango nuan burruka utzi eta ez sufri errai-erraietako guda eta tarratara oiek, zu zedorri bein baiño sarriago testiguz ikusi izan duzun bezela.

Jaungoikoari eskerrak damaizkiot izan nai izan dualako garbitu nazaten gure aitaren idatz-lerrokada auek. Eta, leen-leendik, baieztu ere egiten dute genekiana, au da, gure aitaren buru-nekatzeak no-

laz eta zertaz gure ondasunik gabe utziko ginduan. Eta lotsatu gabetik ezin izan dut bere orrialdeak irakurri, aitatze-argitzez zabaltzen danean zeintzu jokabideak asmatu zituan bere mendez edukitzeko Bourru prokuradorea eta Roberto izena zuana. Irauli dezagun ain lotsagarrikerizko gertakizunen gaiñera lur-zotal lodiena. Egin bai egin nuan, ta lotsaz gorritzen ez naizen garaipenez. Ez zaitetz zalantzan izan, ene arreba, neri bakarrik zor didazula duzun aberastasuna. Aitorketa luze orren barna, leiatzen dan zorigabekoa bere buruan sartzten, guganako nabaitzen zuan gorrotoa ein batean il zitzaiola. Eta mundu onetako aberastasunak, esku-zabaltasun batpatekotz laga zituuala, arrokiro dio. Aitortzen dut parrari ezin eutsirik egondu naitzela kontakizun orretan. Alare, ta iduritzen ba-zaizu, jarri zaitetz arretaz ea zein garaietan gertatu zan ustegabeko aldaketa eri. Bere azpilanak estalgabetu eta bere odolezko-semeak ezkutukoa saldu zigunean une ber-beran gertatu zan au. Ez zan erreza berea bezelako diruketa latz bat uxa-arazten; egintzan jartzeko urte osoak bear izan duan asmo baten mobilizazioak, ezin bada egun gutxietan aldatu. Eta egi-egia da gizon gizajoak ba-zekiala bere azkena gertu zegoala, eta ezin zitekeala balia, ez denboraz ez eta asmatu zuana, ta Jaungoikoak jakinarazi zigun bidez ez ba-zan.

Lege-gizona zan eskeroz bere arazoa ez du nai izan galdu, ez bere baitan, ez gure aurrean. Ziztrinkeria izan zuan —konturatu gabetik erdizka, ikusten dutanez— bere gudu galtzea gogozko garaitz batean biurtzeko. Eskuzabal eta borondate oneko itxurik egin ditu. Bestalde batez, zer egin zezakean? Ez, onetan ez dut nai neroni engañatu, eta uste dut, zure zentzu argiaz, gurekin erabakiko duzula ez dugula zertaz berarenganako lilluraz edo eskertasunez egoterik.

Baiñan ba-dago ere beste xeetasun bat aitortz onek damaiona nere konsientziari lasaitasun oso bat; xeetasun bat bai bertan egin dutana nere barru-azterketa sakon bat, aldi luze batean itxaron izan gabetik, gaur aitorzen dizut, nere konsientzi larritua baretzea. Gure aitaren adimen egoitza gai onetan sendagille-bereziak diranen eskuetan lagatzeko guk egin alegiñatzaz itzegin nai dizut. Esan bearrian naiz nere emazteak asko egin duala gai onetzaz genituan asmo guztiei eragozpenak ipintzen. Ba-dakizu bere iritziei garrantzi andia ematen ez nagoala oituta. Iduri aal-litezken zentzu gutxienekoa gizakia duzu. Baiñan onetaz bere ari bearra ez zuan etentzen ez egunez ez eta gaez,

belarriak adierazpidez betetzen zizkidalarik, oietako batzuek, azaltzen dizut ere, lotsatzen nindutenak. Etsi arazi bai-ninduan azkene-koz, kriminalista ospatsu ura, finantziario isekari eta sikologu sakon ura zuertasun ber-bera zala.. Noski baiño noskiago, erreza dala gorrotagarri egiten, ondareak ez galtzearen bere aita burutík eginda dagoala esaten leiatzen diran semeak... Igespidez nabillela ba-dakus-tzu... Jaungoikoak ongi aski daki ez naula loak artu gau askoetan.

* * *

Onelaxe ba, ene Jenobeba maitea, kuaderno onek, batezere azken orrialdeetan, ziurtasun osoko proba damaigu, bukaezíneko zoramen batez jota zegoala gizon koitao au. Interesgarria ere iduritzen zait bere aitorketa jarri genezan psikiatra baten azterpean; baiñan uste dut, nere lenen-lenengoz bete bearreko bearkizuna, gure semeentzat ain kaltegarriak litezken errenkada auetxek ez barreiatzea dala. Eta auel. irakurtzeaz amaitzen duzun bezin azkarki erre ditzatzula aolku ema tera arin aurreratzen natzaizu. Guretar ez dan eskuetan erortze arrisku ortan ez gaitezela egon, garrantzi aundikoa zaigu.

Jakin gaberik ez zaude, Jenobeba biotzekoa, gure familiari dagokion guztia ezkutuan euki ba-dugu, neurri guztiak artu ba-nituan bere buruaren egoitzari buruz genituan ardura-larri guztiak ezertxo ere zabaldu ez zedin, azkenean ere gure sendiaren buru zalako. Baiñan guretar ez diran zenbaitzuek ez dute izan ixiltasun berdiña ez eta gure antzean zentzua, eta batezere zure suin nazkagarri orrek kontatu ditu ortik barrena ixtoririk arriskagarrienak. Garesti ordain tzen ari gera gaur. Gauz berririk ez nizuke agertuko esango ba-nizu, gaur uriburuan askok lotzen dutela Janine'n neurastenia gure aitari egotzi dizkioten parregarrikeriaz, eta auek Phili'ren berritsukeriak bide dirala.

Onela, beraz, kuaderno au auts biurtuta gero, ez dedilla geiago berba egin arazo onetaz; gure arteko izketarako ez dedilla ere izan aitzaki. Au neketsua ez danik ez nuke esango. Sikoloji oarmenak badagoz, baita ere berezko iritziak, izlari artan azaltzen dutenak idazlaritzarako doai egiazkoa. Ainbatez arrazoitsuago puzkatzeko. Zer iduritzen zaizu geroxeago gure semeak argitaralduko ba-luteke? Benetan ikaragarri izango.

Gauz auek Lere izenaz deitu genezazke gure artean, eta, Lein bukatu ezkeroz kuaderno au, ez genuke kezkarik txikiena ere izango gure aita erdi-eroa zegoanik !

Gaur argiroki azaltzen zaizkit zure alaLaren itz Latzuek, gaixoaldian dagoanaren txoraldia iduritu zitzaizkidanak.

—Guzi-guzioi dasaizuet aitona dala ezagutu dutan erlijiodun La-karra.

Ume gixaixoa Lere Lurua lillurapean suntsitzen utzi Lai-zuan urdail-eriz zegoanaren naikeri illunaren bultzadaií, areii amets-txoroen indarraz. Beretarren arerio, guztiengandik gorrotatua, adiskiderik gale, maitasunean zoritxartua, ikusiko bezela —lerrarazteko parregarrikeriak La-daude— Lere emazteaz kezkatua Larka zenkion gauz izan ez zalarik ezkongaietan izan zuan maitaketa Lat. Nai izan al zuan, azkenik, otoiketaren pozkidak? Ez dut uste, Buru-naasketa nabarmengarriena azaltzen da argiena lerro oien barruan; persekuzio-zorarena, erlijio-ametskeriak. Agian galde ere egingo didazu egiz bai-otezgoan beregan kristautasun egizko baten arrastorik. Ez, arazo aue-tan ain jakitun naizen onek ba-daki ongi au. Berdindu-eziñeko atsekabea eman ditala bere gezurrezko mistikotasunak, aitortu bearradut.

Ezberdiñak ote dira, agian, emakume baten artu-emanak? Erlijiotasun orren barne-zimikotu egingo ba-zinduke ere, zaitez oroi gura aitak, berealdiko doaiez gorrotoarako, ez duala ezer maita izandu iñoren kalterako ez baldin ba-zijoan. Bere erlijio asmoen itxura zigorketa zuzen bat da, edo ez ain zuzena, amak gu txiki giñanean itsatsi zigun kristau oiñarrien zigor. Mistikokeri kedartsu batean jausten da zentzuz-argitutako erlijioa, apala, neurritsua, gure sendian doai berezia izan zana, azpikotz ipiñi nairik. Egia zentzudun neurria da... Baiñan ainbat nekez ene jarraitzaille izan zindezkean burutapenetan gelditzen natzaizu. Naikoa esan dizut. Aztertu zedorrek idatz-guttuna. Irrika-biziz nagokizu zer iduritu zaizun jakiteko.

* * *

Dagozkidatzun galderei erantzuteko tarte gutxitxo gelditzen zait. Jenobeba nere-nerea, igarotzen ari geran krisis onetan, erabaki bearra dugun arazo axanpagarria dugu. Diru-paper pakete auek kutxa

batean edukitzen ba-ditugu, gure kapitaletik bizi bearco gera, eta au zoritxar bat da. Bestalde, erosteko aginduak ematen ba-ditugu Bol-sa'n, ebakitako kupoiak ez gaituzte atseginduko "baloreen" erortze etengabeak eman naigabeaz. Eta, guztiak guzti, galtzaille izatera kou-denaturik baldin ba-gaude, egokiena izango Frantzia'ko Banku diru-paperak gordetzea; franko-diruak lau xox ez ditu balio, baiñan urre altxor izugarritzko batez babestua dago. Au guztia guztiz garbi ikusi zuan gure aita zanak, eta bearturik gaude bere erakutsiak jarraitzea. Alabaiñan, Jenobeba maitea, ba-dago tentaldi bat eta onen aurka burukatatu bear zera dituzun indar guzti-guztiaz; lenbaitleen ta nolanai diruak ipintzeko tentaldia, erroitua dagoana txit, prantzez errian. Badakizu aolku baten bearrez arkituko zeran aldioro emen nagokizula laguntzeko. Gaurreguneko krisis au eta guzti, gerta bailableteke, bestekotz, egun batean ala bestean egokiera iaioak azaltzea. Une onetan oso arduraturik nago kina batez eta anis batez; auxen baiduzu arazo mota bat krisis nabaitzen ez duana. Sinisten dutanez, auxe izango artu bear dugun jokabidea bide batez ausartsu eta burutsu.

Janine dala-ta igorri dizkidatzun albisteak guztiz pozik jarri nautte. Oraingozen beñik, beragan arkitzen duzun eleiz-zaletasun geiegi-keri orrek ez digu beldurik eman bear. Funts aundienekoa dugu bere pentsamentua Phili'rengandik aldendua dala. Ortik aurrerakoetan, oro bere bidez etorriko; gauzik onenak gaiñezka erabiltzen ez dakian kasta bateko arbasoa da bera.

Astearteraiño, Jenobeba min-miña.

Maite zaitun zure anai,

Huberto'k"

Janine'k Huberto'ri

"Osaba maite :

Ene ama ta neronen artean bitarteko izan zadilla eskatu nai dituzte. Aitonaren egunkaria nere eskuetan uzten ukatu egiten da. Berak dionez, aitonari nion aintzak ez nindukeala utziko orrelako idazki bat osorik irakurtzen. Oroigarri maite au nigandik banantzeko orrenbesterañio gogoz baldin ba-dago, zer dala-ta egunero-egunero ari eta ari jardutzen zait: "Ez zenukea asma ere egingo zuregatik diotsana.

Zure arpegia ere ez da salbo.. "? Egunkari ori maxiatzen zenuan idazki gogor ura zer-nolako laisterkaz eman zidan, oraindik geiago arritzen nau...

Nere etengabeko leloaz aspertuta, ongi iduritzen ba-zaizu irakurtzen utziko ditala esan dit amak, eta zuk onetzaz zeniona ameto egingo lukeala. Beraz, zure zuzentza gogoari nagokio.

Barka zaidazu, lenengotik baztarten ba-dut nere buruari buruz egiten duaii aurreiieko oarpena. Zeiñen zorrotz azaldu dan ere aitona guttun orretan nitaz mintzatzean, ziur naiz ni neronek nere burua ikusten dutan bezin zorrotz ez naula epaitzen. Eta batezere, ziur nago, bere gogortasua ez dagokiola, Calése'ko etxean, bere eriotzaraiño, udazken-otz luze batean berarekin urbil bizi zan zoritxarrekoari.

Barka zaidazu, osaba, xeetasun berezi batean dagizudan. Bere bizitz azken asteetan aitonaren sentierak zer-nolako aldaketak izan zuten testigu bakarra ni bai-naiz. Bere txarkerizko eta illuntasunezko erlijiotasuna zalatzen duzu. Eta nik baieztatzen dizut iru izketaldi izan zituala —Urrilla'ren azkenean bat eta bi Azaroan— Calése'ko parroko jaunaz, ziñaltza au zapuztu ba-duzu ere, aal dakit nik zergatik. Aniaren esanetara, bere bizitzan izan gertakizun txikienak ere ipiñi zituan Egunkari orretan, ez ditu autatzen ere iru izketaldi auek, eta ez omen zituan jarri gabe lagako izketaldi auetan egon izan ba-litz bere bizitzaren aldaketaren sustraia, bere etorkizunarena... Baiñan amafc ere dio Egunkaria etena azaltzen dala itz bateu erdian. Txit litekeana da noski, bere aitortza orretzaz itzegitera zijoan une berean usategabez Eriotzak arrapatzea. Barkatua izan ba-litz Jauna artuko zuala alperrik ariko zerate esan-esaka. Nik dakit iltzeko bezperaaurregunez zer berritu zidau. Bere duin-ezaz burutapendurik, Eguberriei itxoitea erabaki zuan gizon gizajoak. Zein arrazoi duzu sinist ez zaidazun? Zer dala-ta nitaz egin nai duzute nitaz, lilluratutako bat? Bai, bere eriotzaren bezpera-aurreko egunez, astezkenez; oraindik entzuten natzakio, Calése'ko saloiean, ain desiaturik zegoan Eguberri aietaz itzegiten, meetzen ta estaltzen, edo agian, atsekabez eta beldurrez txepeldutako abots artaz...

Zaitetz baretu, osaba; ez dut asmorik bera santu bat egiteko. Gogoraziko dizut gizon gogor bat izan zala, eta, zenbaitetan, baita espan-tagarria ere. Au ez zitzaion eragozpen izan baiñan, bere azken egune-tan argi zoragarri bat beraganaiño iritxi zedin ta berak, bera baka-

rrik, une orretan, izan zedilla nere burua bere eskuetan artu zuana, eta indarrez nere begiratua berarenganatu zuana ..

Ez al zaizu iduritzen bestelako gizon bat izango zala zuen aita zuek zeraten bezelakoak izan ez ba-ziñaten? Ez nazazula egotzi arria jaurtikitzen dizutala. Zure "tasunak" ezagutzen ditut, ba-dakit zuzengabeko gogorkeriz jokatu zuala aitonak zurekin ta amatxorekin. Baiñan kristau zintzotzaz artu ginduzan orretan dago gure zoritxarra... Ez zazula protesta egin. Bere eriotzaz gerotzik, egon izandu naiz bere akatsak dituzten gizakiaz, bere auldadeak dituztenak, baiñan bere fedearen ariaz jokatzan duteuak, zeru-doi bete-betean igitzen diranak. Auen artean bizi izan ba-litz aitona, ez ote zuan arkituko, orrenbeste urteen buruan, iltzeko bezperarte eltzerik izan ez zuan itxastar kai ori?

Une bat oraindik. Buruzagi estu baten alde ez dut nai nere sendia zanpatu. Ez naiz aaztutzen, batezere, amonaren ikasbidea naiko gauz izango zala begiak zabaldu zitzan, aldi luze batean ez ba-zuan izan naiago bere gorrotoa ase. Utzi zaidazu baiñan esaten zer dala-ta arrazola damaiodan gure urka : nun gure altxorra an zegoan gure biotza. Gal-zorian zegoan gure aberastasunaren bestetan ez genuan pentsatzen. Ain noski, aitzakiak ez zitzaizkigun falfatuko. Zu negozio-gizon bat zera eta emakume koitao bat ni... Au galerazpen ez da izan, amonerengan izan ezik, gure fede-oiñarriak gure bizitzarengandik-at ibiltzeko. Gure pentsakizunak, gure naiak, gure ekintzak, ez ziran sustraitzen itzez aldezlari azaltzen giñan fedean. Lurreko ondasun guztien alde irauli giñan gure indar guzti-guztiaz, eta aitonak, bestalde .

Bere biotza ez zegoala bere altxorra zegoan tokiaii baieztatuko banizu, ulertuko al zenidake? Zin egingo nuke irakurtzea ukatzen zaidan agiri onek gai onetaz emango duala bein-betiko argibidea.

Itxaron dut, osaba maite, ulertuko nazula; txit uste-oneko gelditzen naiz zure erantzunaren zai...

Janine"

Martutene'n, 1971'gko. BERPIZKUNDE
PAZKOTA'N EUSKERATUA
ESTANISLAO URRUZOLA

